



Bertsio elektroniko honen egilea: Blanca Urgell.

Iturria: *Gueroo guero*, Fr. Pedro Antonio Añibarro (Blanca Urgellen edizioa).
Euskaltzaindia, 2001.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AnibarroGero.htm>

GEROKO GERO

Pedro Antonio Añibarro

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetasun Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Bizji bedi Jesus

Geroko gero
edo

Geroko luzamenduetan ibilteak eta Arimaren
egitekoak geroko itxiteak zenbat kalte dakartzan.

Eskritura Santutik, Elexako Doktoreetarik eta libru deboziñozkoetatik
D. Pedro Axular Sarako Erretoreak bildua eta argitara emona.

Aldatu dau Bizkaiko euskerara,
garbiturik lenago zituan uts eta errakuntzeetatik,
A. Fr. Pedro Antonio Añibarrok
Zarauzko Kolejio Aita Sn. Franziskoren Ordeako Misionariak.
Bear dirian lizenziakaz.



*Bekataria, biurtu zaitte zenbat lasterren Jangoikoagana,
ta ez luzatu penitentzia gerotik gerora.*

Eccli. cap. 5, v. 8.

IRAKURLEARI

Irakurle Bizkaitarra, ona emen zeure eskuetan ta zeure euskeran *Axularren* libru famaduna. Euskaldunen Zizeronen izenaz izentaturik eta aitaturik ibilli da beti *Axular*; bada Aita Larramendi euskaldun guztien Maixuak diñolez (P.M. Larramendi *Diccion. Triling.* fol. xxxv), bere euskerrea da ederra, nastu-bagea, uts-garbia ta ugaria; baiezta ta erakusten ditu egiak Eskritura, Elexako Aita Santu, gertaldi, antz-irudintza adigarri argiakaz; agertzen ditu bekatuak bizi ta argiro euren ezaintasun itsusi baltz guztiaz. Beragaitik diño euskaldun guztien eskuetan ibilli bear leukela libru onek.

Au onela izan arren, euki ditu libru onek non edo an lengo denpo-retan bere ekatxak, bere zerak; onetarako bidea emon eban, bear etzirian Persona errespetagarriak aotan artzeak, euren utsak agertzeak eta beste makiña bat gauza, ixilik igaro, estaldu ta gorde bear zirianak, zabaltzeak. Dirianak al baitenez garbitu dira oraingo onetan; batez bere, ogeta amakagarren Kapitulutik berrogeta laugarrena giño laburtu dira gauza batzuk, beste batzuk kendu ta beste asko eransi ta geiagotu, uste izanik konbeniko ez jakela era guztiko personai; ta bere irakurtzetik on baño kalte geiagoto etorriko lekikielako gazte askori, len legez geldituko balira.

Libru onetan aitatzen dirian Eskritura Santa eta Doktoreen esanak, eztira betibere berbatik berbara euskerara biurtu, iruli ta aldatu, zerren euskereak eta beste berbakuntzak euren esaera ta berbaegikune banaak, bakarrak ta berezkoak dituez. Zitak edo deierak zuzen edo oker ete dagozan ikusteko astirik euki eztot, eta doaz lengo erara baña ifini, izentatu ta aitetu baga ze lekutan edo librutan dakarren Dotoreak aek gauzak, sentenziak ta esanak: bada askori asko eragozten deutsee irakurteko jarraian, baldin idoroten badituez malla artean. Euskeran egin dot alegiña Bizkaikoari jarraitzeko, baña zelan Kolejio onetakook ain laster gabiltzan Bizkaian zein Gipuzkoan, Araban ta Nafarroko berba egikune ta itzkuntzetan, utsen batzuk idoroko dozuz ta, orduan, ito egizuz ixilik ta irunsi epetasunaz zeure artean, oñon baga.

Beinik bein irakurri egizu gogo onaz, ta beronegan arkituko dozuz zia eragingilleak, argi argitsuak, akullu zorrotzak ta egia indartsuak, biztu, mugitu, atera ta irazartuteko zure Arimea baldin zeure adu ta zori-gatxez bazatzaz lozorroak arturik ta gogorturik bekatuzko egotaldi arrigarrian. Onetarako eskatu egiozu Jangoiko gauza on guztien iturri ta emolleari bere argia, bere eskua ta bere grazia ta, bide batez, eskatu ta erregutu egiozu arren biokaitik. Ta onenbeste gaz: *Agur*.



Librutxo au atera zan, ez bakarrik Arimen onerako, baita apaindu, aزي, gorde-eragin, edertu ta zabalitzeko enskereea ta laguntzeko Euskaldun Ikasle barriai; eta beragaitik ezteutsat kendu gura izan Axularrek berak eskeñi ta zuzendu entsan Karta alabagarria Etxaus Arzobispo Jaunari, enskera garbi ederrean zirantse-la onela:

ENE JAUN BERTRAN DE ETXAUS TURSKO ARZOBISPO JAUNARI ZERUKO GLORIA

Neure Jaun maitea, joan zatxataz lurretik, baña ez gogotik eta ez biotzetik. Eldu nintzan: ezteustazu itxadon. Baña eneak dira utsak, faltak; nirea da errua. Gerotik gerora ibilli nas; eta alan dabilenari gerta oi jakona jazo jat niri bere.

Baña orrez guztiaz, neure zor premiazko andiak, ontasun ta ondasun artuak ta beti nire alderako, obra ta egite onakaz batean, erakutsi dozun borondate borondatetsuak ezteuste laketu ta itxiten ondoan, azkenean, ostean ta gero bada bere, zure gomute egin baga, librutxo au kanpora ateratzeko auzardia ta atrebenzia artzera.

Zerren begitandu, uste ta iruditen jat oraindiño bizi zareala, begien aurrean aurrez aur zaitudala; eta, alan, ala bazeunkedaz legez berba egin gura deusut.

Aita prestu onradu ondo ikusi bat ilten danean, bere ondorengo gelditzen dan Seme umezurtza leku askotan da Aitaren maitetasuna gaitik ondo etorria ta biotz onaz artua. Librutxo au da umezurtza, *Posthumus*, Aita illez gero sortua. Baña zu lango Aitaren Semea, umezurtza izan agaitik bere, ezin legoke deungero, zerren gerobere zure prestutasunak, onrak ta fama onak balioko deutse.

Eta zure prestutasunaz, onreaz, anditasunaz eta aurrengo ta ondoko fama on famatuaz nork zer esango dau?

Nor da euskal Errietan alde edo moldez zordun ta obligatua ez jatzunik? Beartu ta enpleatu etzaituenik? Eta zu gaz baliatu eztanik? Zure etxea, egon eta ibilli zorean leku guztietan, beti izan da Euskaldunen etxea, estalpea, bizi-lekua, portua ta ostatua. Guztiak zirian zu gana laster; zuri euren kejak, egitekoak, naibageak, koitak, beartasunak ta premiñak agertu ta adierazoten eutsuezan. Eta zuk guztiak biotzez ta pozik errezi-

bitzen zenduzen; zurtasunaz konsejatu, zuzendu, gobernatu, zaindu ta burutan atera.

Zu izan zara, ta izango zara, Euskaldunen ondragarria, agea, jabea, sendotzallea ta Kantabro fiña, naturala, prestua ta egiazkoa.

Zu izan zara, *Etxaus*, Mendi Pirineotako Alduideko egaletan beti zentinelata ta begiratzalle legez irazarririk dagoan Jauregi ta Gaztelu andi, eder, noble atako Seme. Ango Bizkondeak eta Seme guztiak izan dira betibere, gaurgiño, Erregek enpleatuak, estimatuak, maitetuak, fiñ ta leial probatuak. Eta bai egiazko fedearen ta legearen defenditzalleak, Agintariak eta aurreratzalle nagusiak bere.

Nafarroa beko leku aetan, beste leku askotan legez, Kristiñau Lege Santa Katolikea, ustez argalduaz, galduaz, otz epelduaz ta jausiaz joianean, baki Munduak zelan zure Aita Jauna, bere etxeaz, ondasunez ta bizitzez bere kontu gitxi egiñik, joan zan Donapalaia, non zegoan orduan Nafarroako Agintaritza. Eta auzardia andi bateaz bere biotz kristiñau prestu sendoaz asi zan ezpata billosa eskuan arturik dedarrez, Matatias bat bere denporan legez, esaten ebaia: *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum exeat post me* (1 Macab. cap. 2). Ea kristiñauak, kristau izenaz izana dozuenak, beste lan bear egiteko guztiak larga ta itxirik, neuganatu zaitze, jarraitu egidazue ta egiazko lege ta fedea mantendu, eutsi ta irmetasun guztiaz gorde ta jagotera lagundu egidazue. Eta ainbeste egin eban non bere Erria ta ingurukoak bere aetara sartutera joian gaisotasunetik gorde zituen. Eta gero andik artara benganzaz, dollorkeriaz, billau-zitelatasunaz ta prestuezkeriaz erre ta banatu eutsen bere Jauregi eder polita. Onelakoak zirian zure Aita Jaun ta bai beste zure aurrengoak bere.

Bada eztozu zuk bere zeure jaiotz-etorreraz ukatu, etzara zeure jatorrizko sustrai etorkitik kanporatu, alderatu ta urrindu: zerren zuk bere, Baionako Obispo ziñenean ta Bisitan zenbiltzenean, ikusirik Elexatik kanpora zebiltzen jente gaisto oker batzuk gura ebela bere azken fiñean gorputz illak Elexan sartu ta lurpetu; zeure Bisita ausirik, Nafarroako iru Estaduak bildurik, joañ ziñian Erregearen aurrera eta, an neke-pen asko igarorik, kontrakarra izanik, ekarri zenduan gerobere bear zan sendagarria, ta andik ara alako gaistakeria eragozteko ordenamentua, eskubidea ta legea. Egiaz, etzara zu bere zeure aurrengoan ta Kristiñautasunaren atzeratzallea izan.

Bada ez eta onraren amatatzalle ta iltzallea bere. Lenagotik bai badi-rudi eze zuk gogo ona aurreratu dozula, muga ta marra igaro dozula ta *Etxausko* etxeko soñeko gorriaz janzteko bideetan izan zareala. Zerren ezta eztakienik Erregek atarako autu ta izentatu zinduala. Eta kolpea uts-



egin bada bere, ezta uts egin zure erruz edo zu atarako ez gai izanez; zerren, itxi ta largarik alde batera zure merezimendu andiak eta Elexari, Erregeari ta Komun guztiari okasiño ta era askotan egin deutsezuzan egite onak, naturaleza berak bere dotatu ta bete betean emon deutsuz doe apaingarri asko: Adimentu eder bat, memoria andi bat ta borondate onera, onrara ta prestutasunera jausi bat, zabaldu bat, makurtu bat ta emon bat emon deutsuz.

Baña, zertarako sartzen nas ni itxaso oxin ondar bage onetan? Ezin urten ninteken baso ta beresi onetan? Zure alabanzak aitatzen? Eurak eurez euren buruz dira berbagille andizkari ta alabanzarik asko; eurak dira eureetan argiak, jakiñak, ikusiak, ezagutuak, agertuak ta zelanbere agiriak. Itxi ta larga dagidazan egiaz nik oneek, utsik eztagidan. Eta igaroten nasala aurrera, esan dagidan utsik egin бага, zerbait eskribitzen bada euskeraz, a guztia Euskaldunen lenengo Buruari legez zuri dagotzula, zuri zor jatzula; eta errazoiak orain bere librutxo au zuri presentatu ta aurrean ifini bear jatzula. Bada zure serbitzari txiki onen lan apur au gerotik gerora egitekoak luzetuteak zenbat kalte gogor dakartzan, zuk ain ondo dakizun gai au nori egongo jako, zuri ezpajagotzu? Nork arteztu, zuzendu, nok etxeratuko dau, zuk ezpada?

Zure egape ta gerizpean doa; zure bitartetasunaren azpian estalpeturik benturatzen da. Artu egizu, bada; gorde, zaindu ta jagon egizu; lagun zakioz; egiozu begitarte on. Idoro bedi librutxo onetan *Etxans* ta *Etxansen* fama ta izena. Zerren alan eta agaz batean, ibilliko dan leku guztietan, burua gora ekarriko dau; buruz makurtuko jakoz guztiak; iñoren bildur gitxi izango dau; jente artera bere begirarte lotsa бага atarako dau.

Bai, baña joan zara; lekuz aldatu zara; emengo aldia egin dozu. Egia da, alan da. Eta alde z damu dot ta alde atsegin. Damu, zerren ez jako iñoribere andik niri adiña edo dunbeste kalte etorri.

Atsegin, zerren nola eztan betiko lurreko bizitzau ta zuk zeurea igaro dozun ain ondo ta ain zorionki, uste dot Zeruko glorian Jangoikoaren laguntzan doatsuturik zagozala; eta ortik elduko zatxatazala, eskua emongo deustazula; ta arrañoa aidean doianean bere umetara legez, zuk bere begia nigan ifiniko dozula. Eta nik bere (emengo aldia egin ezker), Jangoikoaren graziaz ta zure bitartetasunaz batera, zure zoriona irabaziko dodala: ta orduan guztien esker onak emongo deustuzadazala. Jangoikoak alan gerta ta gura izan dagiala.

Zure Serbitzari txikiena ta obligatuen:

PEDRO AXULAR

GEROTIK GERORA

ibilteak dakartzen kalteak erakutsi baño len
esango da zerbait alpertasunaren ganean, bada emendik
dator geroko luzemenduan ibiltea

LENENGO BURUA

*Zelan, besteak beste diriala, alperkeriatik
iges egitea gaitik bere bear egin bear dan*

1 §.

Gure Jangoikoak munduko beste gauza guztien ondoan gizona bera, bere gai antz, bere imajiña eta irudira, bapere bekatuak eta bekatuaren errasturik bere бага, apaindura, doe ta era guztiko edertasunez dotaturik ta zoriondurik, egin ebanean ifini eban bertati lurra euken parterik leku ta tokirik onenean, lurreko Parabisuan, egotaldi atsegintasunez, zorionez ta gozotasunez betean. Eta agindu eutsan landu egiala, bear egin, zaindu, jagon ta gorde ondo a Parabisua (Genes. 2).

Baña, zelan lurra landutea, apaindutea, eskuz bear egitea eta gorde-teko bearrean ta premiñan jartzea dirian bekatuak sortu, erne, jaiu ta eldu dirian eradenduak, landarak, frutuak ta ondorengo errastuak, ondakiñak, enparaduak; eta oraindiño orduan etzan bekatuak, ez bekatuaren kiñurik, siñurik, ez famarik, ez aitatzerik, ez barririk, dirudi etzala egiaz oraindo orduan Parabisu a landu ta gorde bearrik. Zetarako, bada, emon eutsan orduan Jangoikoak gizonari a mandamentua? Eranzuten dau Santo Tomasek, esaten dabela (S. Thom. 1. p. q. 102. art. 3): etzan ez orduko bear egitea penagarri izango, orain bekatu egin ezker legez. Baña ori izango zan atsegin arte bat ta, bere kontentu ta gustora zegoala, bere indar ta alegiñak probatze bat. Eta gorde ta jagotea bere, ez arerioetatik, ezpada beraganik eta berak beretzat bekatuz galtzetik gordetzea izango zan euki bear eban ardura guztia. Baña San Juan Krisostomok emoten dau beste errazoi bat, nik darraiodan gaiari, puntuari obeto dagokiona, diñoala (S. Chrisost. in cap. 2 genes.): egia da etzala orduan lur-parabisu atan egitekorik, ez bear egiteko premiñarik. Baña, alanbere, gura ez eban Jangoikoak an zegoana zegoekan geldirik; ez bear egitetik alpertutera ta



naigitzera etorri etzedin eta ze gauza txarra ta ezaina zan eta dan alperkeria adietan emotea gaitik .

Kasianok diño (Casian. lib. 18, cap. 14) Paulo Abade Ermutar zarrak, Palma adar ta orri batzuk arturik, aekaz egiten zituela otzarak, galbaiak, sareak; eta gero azkenean, egin ondoan, astearen buruan, guztiak banatu, desegin ta erreten zituela. Zerren, batz, nola errietatik urrin zegoan, obraren balioak baño gastu geiago ekarriko eutsan aetara eroan bearrak; ta barriz, besteaz, zerren a bearreta ta lan guztia artuten eban oraziño ta Jangoikoaren gauzak egin ezker alperkeriatik iges egitea gaitik ta ez kutizia ta irabaztea gaitik.

Gure Jangoikoak emon zituen lege zarrean seireun ta geiago mandamentu ta Zeremonia mueta eta aekaz batera ainbeste egiteko non, diño San Pedrok (Act. 5), ez berak, ez bere aurrengoak bere ezin eroan, ez jaso ebela ain karga astun andi pisutsua. Eta jakin gura badozu ea zergaitik kargatu, bete ta astundu zituen Jangoikoak ainbeste mandamentuz, eranzuten dau Doktore jakintsu batek (Abulens. in Prefac. in Levitic.): kargatu zituela ainbeste mandamentuz, sakrifizioz eta ziremoniaz aekaz batean kendu zedin ainbeste kalteren ta damuren asiera, azia ta biztugarri dan alperkeria.

Zelan gure Jangoiko maiteak janzi zituen lurreko animaliak, aideko egaztiak, itxasoko arraiñak ta basoko aretxak euren erako janzieta ta soñeko: abereak narruz ta ullez; egaztiak lumaz; arraiñak eskamaz, ezkatat ta aretxak azalez.

Eta zelan aretxak dagozen euren lekutik mugitu, urten ta aldatu baga eta bear lanik bere egin baga, euren azpiko lurraren gozoa ta gizentasuna eurak gana euren sustraia kaz tiratuaz ta txupatuaz, azi, anditu ta mantentzen dirian; Animaliak, abereak bere euren janariak ta alimentuak bereala egoa baga, erre ta egosi baga jaten dituezan; eta baitabere etxeak ta bizilekuak non nai edozein lekutan ilundu, gautu ta arratsatuten jaken tokian artzen dituezan eta geienak euren amaren sabeletik urten ta bertatik datoz orren aurreratuak; alan Jangoikoak gura izan baleu emon euskiozan gizonai bere onelako gauzak ta andiangoak bere. Janzi eukezan, etxedun egin eukezan, emon euskiozan bear zituen ondasun ta gauza guztiak ezerbere kosta baga. Baña ez eban alan ifini gura izan. Eta zergaitik ez? Alperrik egon ez dedin amoreta gaitik. Eta, San Anbrosiok diñoan legez, artu eban adimentua enpleatu leientzat (S. Ambros. pefat. in Levit.). Zerren, baldin orain gauza guztiak ain nekez ta ainbat kostarik irabazi ezker ain nagi alper ganora bakoak bagara, zer gintekez gura dogun guztia nola nai eta non nai eskuen artean begehunko? Ezerbere falta ezpa-

litxagu? Esan giñeike Ebanjelioko Aberatsak legez (Luc. 12): jan ta edan daigun; poztu, diberti ta atsegin gaitezen, zerren ez dogu ezeren bearrak; eztaukegu oraingoan eskean ibilli bearrak.

2 §.

Aristotelek diño on dala alperkeria erritik kentzeko, urrindu, deserritu ta erbestuteko eta errian bere Erregearen edo beste edozeinen kontra jagitetik gordeteko lan ta obra andi batzuk astea, torre ta gaztelu batzuk egitea eta aetan jentea enpleatzea. Nola agiri dan Ejitoko Piramidetan, zeintzuk eragin zituen Faraon Erregeak jendeak alperrik egon ezlitezen agaitik. Irudirik Errege ari baldin Israeleko Semeak, kati bu legez bere azpian ta mendepaan zituanak (igaroten zirian seireun milla personatik bakarrak gizon egiñak), itxiten bazituen euren atsegin ta gustura biziten, soberbiatu, arrotu, jabetu ta nagusituteko bidean jarriko ziriala eta andik bear etzana sortuko zala, artu eban Piramide batzuk egiteko gogo, asmoa ta pensua. Piramideak zirian, diño San Isidorok (S. Isidor. lib. 5. Ethim. cap. 11), sepulturen antzeko pilare edo tunba lau eskiñako batzuk, goi goira jasoak, egin al litekezen gorenak, ondoan zabal ta puntan estu bedar. Eta olakoetan bear eragiten eutsen Faraonek bere azpiko jende oni, seinalaturik bakotxari bere eguneko lana ta gaia. Eta eskua ifintea bera asko bazeben bere: baña prestamenak, aldamiok ta obra egiteko bear zirian gei guztiak eurak billatu, abiatu ta presta bear zituezan. Eta alanbere ezin azartu zirian aserratzera, ez txitik egitera zerren bestela, lenengo berbea aotik ateretan ebenako, zirautsen Faraonek (Exod. 5): *Vakatis otio*. Alperrik zagoze, agiri da neke andirik ezdozuela, zeuen ondoegiak, alperkeriak, on lar geiegiak ta mizkeriak erexegiten zaituez, orrek orrela dibertitu ta berbaz ifinten zaitue. Eta onetan geroago karga geiago, zeregin geiago, neke-pen ta lan-bear barriak egozten eutsezan. Eta au guztiau egiten eban baldin bapere astirik bazeben edo alper bazegozen, andik kalteren bat etorri ez lekion bildurrez.

Pisistrato Atenasko tirano Borreru gaistoak (Aelianus lib. 5 vari. hist.), ikusi ebanean Plaza guztia jente alperrez bete ta atarik malizia, zitelkeria ta gogoeta gaisto asko sortu zitekezala, deitu zituan guztiak beragana. Eta alperrik egoteko eskusa, atxakia ta biderik ez eukenai emon eutsezan mando, zaldi, idi, azi, diru ta bear egiteko bear eben guztia. Eta gero biraldu zituen lanera ta bearrera, irudirik ez ebela kalterik egingo,



gaistakeriarik asmatuko, ez erririk nastuko jardun, erago ta ekinik betiko lan bearrari.

Munduko barria dakienak esan oi dabe on dala Errientzat ta Erreinuentzat egiteko batzuk ta gerrak euren erri eta erreinutik kanpora izatea. Zerren, zelan bakotxa bakeaz loak artu ta gorputzeko atsegintasunera ta gustu zikiñitera emoten dan, alan arerioa kaz gerran dabillena kontuz bizi da, zur, zoli ta irazarririk dago. Au ikusi dogu geure begiz gerreak estutu gaituen denporan, zeñetan, arriturik jenteak, biziroago emoten zirian Jangoikoaren gauzetara, sarrituten zirian Sakramentu santuak, bete Elexak, adiskidetu arerioak, gitxitu auziak, ordikeriak, danzak, erriertak ta gaistakeriak.

Eztot onegaz adierazo gura gerrea on dala: ez orrelakorik; sortu ta sartu bedi betiko guban bakea zerren Jangoikoaren graziaz geroz ezin euki leiz gizon batek mundu onetan osasuna ta bakea baño ondasun oberririk; bakeaz agur egin eben Angeruak gizonai Jesu Kristo jaio zanean: *bakea zuekaz* eta *zorionekoak baketsuak*, zirautsen Jesus bakearen Buru Nagusiak bere Ikasle Apostoluai; eta alan, emen bakarrik adietan emon gura dot gerrak, ardurak, zeregiñ andi kontuzkoak urrindu ta aldegiten gaituezala gaistakeria askotik.

Plutarkok egiten dau libru bat arerio gaiskin ta persegilletatik ateratzen dan on ta probetxuaz (Plutarc. de utilit. ex inimic.); eta guztien artean andiena ta prinzipalena diño dala alperrari bear eragitea, lotia irazartzea ta ardura bagea estutu ta arduratsu egitea. Adiskiden artean gareanean zabal, estuera bage gagoz, ez dogu ezerberen konturik, ez bildurrik; deungero berba egin arren ta milla erokeria egina gaitik bere, ez dogu ardurarik. Zerren dakigun adiskideak izanik guztia ontzat eroango dabela, dan guztia gorde ta estalduko dabela. Baña arerioen artean idoroten gareanean begiak argi irazarriak ta belarriak zur zabalik euki bear dira; zer esan ta egiten dan ondo begiratu bear da. Zerren, nola arerioak betibere zelataka dagozan, uts edo faltaren bat oartuten badabe bereala artuten dabe ta askotan, azirik ta geiagoturik, dana baño geiago zabaldu ta andizketan dabe besten aurrean. Agaitik diño San Krisostomok (S. Chrisost. hom. 3 ad Popul.) askotan adiskideak baño on ta mesede geiago egin oi deuskuela arerioak, zerren arerioak, gure faltak esanik ta agerturik, emoten deuskue bidea irazartzeko, falta ta uts egitetan onduteko, zuzenduteko eta beste bein alakoak egitetik gordeteko.

Errazoi onegatik esan lei ez ebala gure Jangoikoak gura izan akaba zekiezan Israeleko Semeai arerio guztiak; baña ordendu edo laketu eban

geldi zekien betibere arerio bakotx batzuk irazartzeko ta alperkeriatik gordeteko.

3 §.

Irabazi ebenean Lazedemoniakoak euren auzoko Uri arerio bat, muga-bitartean zeuken bat, esan eben bertako Gobernari Agintariak (Plutarc. in Aphot.): Egin da gure jende gazteaz, eztabe emetik aurrera esetsi ta erasoteko paradarik izango eta ez jo, astindu ta purrukatzeko areriorik.

Lazedemoniako oneek eurok ez eben banatu gura izan Uri kontrako bat, beti euren kontrakar ta arerio izan eben bat, esaten ebela a erria zala Gaztetasunaren zorrotz-arria, zerren gazteak an probatzen ta zorrotzuten zituezan euren al ta indarrak, ikusten zan nor nor zan eta gordeten zirian ugertzetik, gorriña edo erdoitik.

Onela eranzun eban Kleomenes Sparziakoak bere, itandu eutsenean ea zergaitik benzutu, goiartu, azpitu ta mendepetu ezkeru etzituan bere arerio Arjiiboak apurtu ta ondatu. Eztodaz ezindu ta galdu maite dodazalako, ezpada ikuste arren zertako dan gure jende gaztea.

Enzun ebanean Publio Nasikak (idem ibi.) bota ebela Erromatarrak erritik kanpora Anibal bere arerio andia eta artu ebala Kartago erri famatua eta, ainbestez, bere ustez aurrerako seguru gelditu ziriala, esan eben: oraintxe da nos geratu garean iños baño jausteko ta galduteko pelligrurik andiangoan zerren eztaukegu orain, len legez, irazartzallerik ta geure eginbidearen eragillerik.

Izan ebenean Erromatarrak deseatzan eben biktoria arturik Kartago, sartu zirian Batzar edo Konsejuan Erromakoak erabagiteko ea zer egingo eben Kartagoko Uriaz (Vid D. Agust. de Civit. Dei cap. 30). Eta Katonek (lenenetatik bat) esan eban guztia desegin, banatu, apurtu ta lurras bardindu bear ebela, euren gerrak, aserreak, erriertak, esamesak ta kirrimarra guztiak erri artarik sortuten zirialako ta, Uri a banaturik, bakean ta soseguan geldituko ziriala. Baña Szipion Kapitai famatuak, etorkizunari obeto begiraturik, esan eban ez ebela iñolatan Kartago apurtu bear, zergaitize ondatuten baeben, gerra bat amatatu ustean beste andiango bat biztuko ebela. Zerren bereala berpetatik jendea emongo zan alpertasunera, jan-edanera, barrikerietara eta gogoak ekarkien gaistakerietara ta era guztiko txarkerietara. Eta andik erriertak, aserrekuntzak, gerrak, alkar ikusi ezinak, gorrotoak, ondamuak, areriotasunak eta



Kartagoko gerrak baño pelligruzkoagoak euren artean sortu ta erneko ziriala. Nola esan ala gerta zan: zerren, Szipionen konseju ta adibidea itxirik, artu eben Katonena: banatu eben Kartagoko Uria, jarri zirian euren ustez bakean. Baña Szipionek adierazo eban legez, laster eurak ta Erromako erria beeratu, azpiratu, galdu ta jausi zirian.

Egiau ezaguturik, Perikles famatuak mantentzen zituan betibere bere erritik kanpoan gerra batzuk. Eta urtean urtean biralduten zituen ontziak jentez beterik gerra atara. Eta aetan biraltzen zituan idoro al zirian alper guztiak. Eta gero bizi zan bake andi baten. Zerren, nola erri guztietan oi dira komunki alper eta jende galdu asko ezertako eztirianak eta onelakoak gatz eta kalte asko egiten dituezan, ondasun andiak eldu jakez erriai alakoak kentzeaz, probetxu andia elduten jakon legez lurrari jorraituteaz, landuaz ta bedar gaistoak atereaz.

Korintioak ain gorroto ta ikusi-ezina eutsen alperrai eze, ikusten ebenean gizon bat bizi zala errenta бага, ofizio бага ta bearrik egin бага, bereala beste probanza бага, kenduten eutsen bizitzea, zerren esaten eben presona alper ofiziorik, lanik ta errentarik ez eukenak lapurreriaz, faltsiaz, engañamentuz ta arte gaistoz balia bear ziriala eta alangoak bizia zor ebela eta, alan, kentzen eutsen. Eta on liteke alangoa kaz orain bere alan egingo balitz kastiguren bat.

Solon andiak ordenatu eban Aita batek bere Semeari baldin ofiziorik irakasten ezbeutsan, etzedilla a Semea egon bearturik bere Aita faboretzera premiña bearrean ikusiagatik (Plutarc. in Solon.). Zerren ofiziorik ez irakatsi ta ez emonaz, alper eta gaisto izateko oñean, bidean ta pelligruan itxi eban bere Aitak.

Gimnosofista zeritxen jende batzuk ain deungero eroien alpertasuna eze, afal aurrean deituten zituezan eurak gana etxeko gazteak, jakiteko ea zetan igaro ta emon eben eguna; eta baldin probatzen bajaken alperrierarik, ez eutsen afariak gatzik egiten.

Katon Zensorino gaitik (zeñek eukan alperren ganean esku-bide ta agintaritzza) irakurten da, ekarten eutsenean bere aurrera gizon bat salaturik, esaten zala alperra zala, bereala lenen egin oi ebana zala eskuetako azala ukutu, igortzi ta ikustea; eta baldin latz, lodi ta gogor idoroten bajakan, libre ta bakean itxiten ebala; baña baldin mee, biguñ, samur, leun ta beraa bazeukan, alpertzat kondenaturik falta gitxi gaitik bere latzkiro kastigetan ebala.

Katon beronek esaten eban iru gauzatarik al baitanez gordeten zala: Emakumeari bere sekretoak fiatzetik; leorrez joan al izanik, itxasoz joatekik eta egun guztian alperrik egotetik.

Lukanotarrak idoroten ebenean iñork jende alperrai zerbait ordeaz prestatzen eutsela, bertati emoten eben sententzia prestatzallearen kontra: zer edo zer prestatu bazeben, a guztia galdu legiela. Baña nire ustez, etzan alako sententzia emon bearrik: berez dago emona, zerren ez dabe prestatzalleak alakoai kobratzeko pelligrurik, galdutzat emon bear dabe alakoai emona.

Indietako erri batzuetan etzan iñorbere bere gorputzaz balia al zitekeanik eskean ibilten:itsuak bere tornuan edo errotan bazanbere bear egin bear eben (Osor. lib. 11).

4 §.

Ain da gauza galdua ta galgarria alperkeria, eze naturaleza beraren bere kontra da. Gizona jaioten da lan bear egiteko ta egaztia egaz egiteko, diño Job santuak (Job 5). Egaztiari emoten jakazan legez egoak axetuteko, egaz egiteko, alan gizonari eskuak bear egiteko.

Munduko gauza guztiak kondenetan dabe alperra zerren ak ez beste guztiak emoten dabe denporea artan zetarako egiñak zirian. Eguzkiak errazoiak esan leio berandu giño ocan datzanari: zerk aratza or, alper nagi lotia? Nik atzo hik baño bide geiago igaro niñoazan jira, bira, inguratu ñoan mundu guztia eta orain bere ni baño lenago ta goxago jagiñok. Aretx-Arbolak bere esan leioke alperrari: eztakusk zelan ez gagozan beinbere geldirik ez alperrik? Zelan azten, anditzen, loratzen ta geure denporetan frutu elduz betetzen garean? Hik zer egiten dok? Zertan denporea emoten dok? Zeri begira ago alper andi nagiori?

Bada abere ta animalia adimenturik eztabenak bere, beintzat erleak ta iñurriak, errazoiak esango deuskue bear daigula euren nekeak, lanak, joan-etorriak gogoratu daiguzela ta alakoaz lotsaturik bada bere, geure egin bidearen egitera ta lan bearretara irazarri, prestatu ta abiatuko gara.

Erleak, ain gauza pildin-txikiak izanik, betetzen dabe mundua eztiz gozotzeko ta argizegiz argitzeko. Eta ezta erraz kontatzea zelan guberñetan dirian erleak euren artean, zelan dauken euren erregea ta obedituden daben, zelan zarrak erlautsean barruan etxeko lanak egiten egoten dirian ta gazteak kanpoan euren janari mantenu ta igaropiden billa dabilzten, nola daben euren ate-zaiña eta bear bere bai, zergaitik ze eztiari nola dan zalegarria ta, izena daben legez, ezti-gozoa, askoen gogokoa, gurarikoa ta gustukoa da. Nola bear egiten dabenak lanik egiten eztaben erle alperrak eta nagiak esten kolpez, zikadaz ta izpi zorrotzakaz botatzen dituezan



euren laguntzatik. Eta nola beste gauza asko egiten dituezan eta guztiak ain ordenanza, zurtasun ta gobernu andiaz, non dirudi ez dala Erregerik bere erreinua ain ondo gobernatzen dabenik nola erleak euren erregeaz batera bear eginaz gobernatzen daben eurena.

Bada, iñurriaren gobernuaz, zurtasunaz, lan-bearraz, etorkizunerako egiten daben probisiñoaz, bear dituen janariaz, bildu ta billatuten daben mantenuaz nok zer esango dau? Nork eztau miretsiko ta gogoeta egingo? Espiritu santuak berak biralduten gaitu animalia txiki onegana zer egin bear dogun ikastera, diñoala (Prov. 6): Zoaz, nagia, iñurria gana eta gogoratu egizuz aren bideak eta bideskak, joan-etorriak, inguruak, or-emen ibilteak, nekeak ta bearrak eta ikasiko dozu zuk bere zelan bear dozun aurrerakoan ta beti bizi, ibilli ta gobernatu; onek, irakaslerik ta bide-aurrekorik baga, berak bere buruz bilduten dau udan negua igaroteko bear daben mantenua, janaria ta garaua. Eta garau au gordeten dau lurraren barruan berak eginiko toki, gorde-leku ta garautegietan. Eta ain da zur eta begiratua eze kanpoan ezer ezin izanez, bere bilduetara bildu bear dabenean, asten da jaten lenik garatu, zildu ta erne bear daben garautik, zerren bestela sortu ta azi liteke a garaua, buztandu liteke, bedar biurtu liteke eta gero, andik ara lan uts alper jazo ta gerta lekikio bere lenagoko zurtasun guztia.

Aregeiago garatuak jan ezkeru, lurraren bustitasun ta ezetasunak ganeokoak usteldu eztagiozan, ateretan dituz nosik bein kanpora axetu ta eguzkitutera ta orduan eguraldi ta denpora onaren señalear dateke. Eta onela ta alan igaroten dau iñurriak bere negu luzea eta erakusten deutso bakotxari zelan ta ze moldez bear daben mantendu, gobernatu ta alperkeria guztia largarik bere denporan bear egin.

2. BURUA

*Zenbat kalte egiten dituzan alperkeriak
eta zelan emendik datorren gerotik gerora ibiltea.*

1 §.

Eskritura Santuak, Elexako Doktoarak, lenagoko Jentil fede bageak eta aregeiago zeruko, axetako ta lurreko gauza guztiak bere kondetan dabe, lotsatuten dabe alperra eta adierazoten deutse bear egin bear dala ta bakotxa bere aldetik bere egikaiak egitera saiatu, dendatu ta zaletu. Zerren, nola ardurazko zeregin ta bear batek lan guztiak aurreratuten dituzan, alan alperkeriak atzeratuten dituz.

Itanduten dau San Juan Krisostomok (S. Chrisost. in Act. Apostol.): Ze zaldi da on edo ohea, geldirik ta alperrik bere gustura dagoana ala ibilli ta maneaten dana? Zein ontzi, kostan dagoana ala itxasoan dabilena? Zein ur, geldia ala dariora? Zein burdiña, atartean datzana ala erabiltzen dana? Jakiña da guztiak erabilteaz, maneatuaz, eskuz ekarriaz ta mugituaz onduten, argitzen ta fintzen diriala; eta bai alper ta geldi egoteaz bere galdu, prestueztu ta ugertuten diriala. Bada auxe berberau jazoten da alperrik, geldirik eta ezer egin baga denporea emoten dabenez.

Dabillan arriari ez jako goroldirik eransiten. Ur erakiñian ezta eulirik geratuten. Ardurako soñekoari ez jako sitsik egiten. Aretx-arbola frutuduna eztau iñok ebagiten. Baña alperra, soilla, utsa, arro-eroa, iños elduten ezdana, frutu bagea zertarako da? Alangoak zetako beteko dau lurra? (Luc 13).

Alperrekaz berba egiten dabela, Oraziok diño (Horat. lib. 5. c. 2): geuretzat kontuzkoak gara, geugaz kontu dogu, baña gañerokoa gauza ez gara ezpada lurreko frutuak jateko. Otsein serbitzari batek alperrik egoteaz beraz, gaistakeririk ez egin agaitik bere, merezi dau kastigua. Bada San Krisostomok diñoan legez (S. Chrisost. tom. 2): onik ez egitea bera da deungero egitea. Eta Katonen esana da ezerbere ez egiteaz ikasten dala deungero egiten. Alpertasuna da gaistakeria guztien iturburua; eta San Bernardok diñon legez (S. Bernard. lib. de consider. cap. 11), da: aserretasun, errierta ta zorigatx guztien ama ta bertuten ugaz-ama. Eta alan aserreak, erakeriak ta bizio mueta guztiak doaz laster alpertasunera, zerren



ama daben; baña bertuteak eta obra onak iges urrinduten jakaz zerren, nola daben ugazama, bakie eztituezala ondo artuko, begirakune okerra, bekoki illuna ta arpegi txarra erakutsiko deutsela.

2 §.

Esaten dau Job santuak deabruaz berba egiten dabela (Job 40): gerizpean, kañaberaren estalpe ta gerizan egiten dau bere loa, an geratuten da. Kañabereak, nola dan landara alperra, fruturik ezta karrena eta barruan bere utsa, adierazoten dau alperra; eta emen, bere bizi-leku ta ostatu jakiñean ta ezagutuan legez, ostatuten da deabrua. Agatik, zirautsan San Jeronimok bere adiskide bati (S. Jeronim. ad Rustic.): Etzaite beinbere alperrik egon, zakioz beti lan on bati, onela beti deabruak ondo emona arkitu ta idoro zagizan.

Malizia asko irakatsi dau alperrieriak, diño Espiritu Santu Jaunak (Eccle. 33). Ezta maliziarik, ez pensamendu txarrik, presona alperrean idoro ezitekenik. Asko da esatea alperra dala, agaitik edozein gaistakeria sinistuteko.

Igaro nintzan, diño Jakintsuak (Prov. 24), gizon nagiaeren solotik eta ero-zoro gobernu bagearen mastegitik ta guztiak zegozen asunez, aranzaz ta bedar gaistoz beteak; eta esiak, latak, inguruak ta ormak bere jausiak ta banatuak. Eta oneek alan ikusi nituenean egin neban gogoeta, artu neban adibidea, ikasi neban zer egin bear neban, zentzatu nintzan besteen buruan ta ganean. Eta zer dan nagiaeren solotik ta ero gobernu bagearen mastuitik igarotea adierazoten dau Glosak, esaten dabela (Glos. ordin. in Prov. 24): Nagiaeren solo ta lurretik eta gobernu bagearen mastitik igarotea da presona nagi alper ardura-bagearen bizitza ta joan-etorriak gogoratutea eta euroetan, solo jorraitu bagean legez asun, bedar gaisto ta lollo asko, falta uts-egite asko, malizia, gaistakeria, bizio ta bekatu asko idoro-tea. Asuna idoroten da alper-nagiaeren lurrean ta soloan. Asunak adietan emoten dau nagitasuna: baldin bigunkiro, suabetasunaz, leun, nagiro, azal-txo ta palaguz legez oratu, ukutu, igortzi ta erabilten badozu asuna, erre-ko zaitu; baña ez ausardiaz, gogor ta indarraz estutu ta irardausten badozu. Dan lurrik onenak bere bear dau landu, apaindu, garbitu ta jorraitu, diño Obidiok (Ovidi: lib. de trist.): zerren bestela bedar gaistoa izango da Jaun eta Jabe. Ezta gaixotasunik eta ez edenik edo menenorik nagitasunak edo alperkeriak dun beste kalte egiten dabenik.

Dirudi ta esan lei agaiti gura ez ebalta Jangoikoak egon zedilla beinbere itxasoa geldirik; bai gura dau ibilli dedin, mugitu dedin, marea dedin, ur-gorak ta ur-berak euki dagizen. Bada bestela atsitu liteke, kirastu liteke, zapoz, sugez, arrez ta loitasunez bete liteke, putzuak, oxinak ta beste ur geldiak betetzen dirian legez.

3 §.

Presona alperra euki egizu galdutzat eta iltzat. Eta andik esaten dau Senekak (Senec. epist. 28): letra ta jakituria bageko atsegiña, ezer ezta kienaren alperkeria gizon biziaren il-oea da ta sepulturea. Zerren ezer ezta kien ta egiten eztabena presona illaren ta lurpetuaren antzeko adigarria da. Bizio guztien, gaistakeria guztien ta gogoraziño gaisto guztien zimen-du, sustrai, iturburu ta maixua legez da alpertasuna, diño San Krisostomok (S. Chrisost. tom. 2), zerren iturritik urak legez, alan alperkeritik jaioten dira gaistakeriak.

Andik eldu da pobretasuna, beartasuna, eska premiña, eskean ibiltea, baita lapur izatea. Nagitasuna da beartasunaren ta pobrezaren inudia ta az-ama, diño Senekak (lib. de benefic.). Eta esaten dau Espiritu Santuak bere: nagia beti da bear, eskas, urri ta premiñan (Prov. 2). Ostuten ebanak, diño San Pablok, eztagiela ostu, bear egin begi, manea bedi ta onela izango dau beretzat ta bestentzat (Ephes. 4). Esan gura dau baldin bear egiten badau, ezabela ostuko, ez eska premiña andirik ikusiko. Esku nasai alperrak beartasuna dakarke, baña indartsu ta beargilleak aberastasuna batu ta bilduten dau, diño Espiritu Santuak (Prov. 10).

San Anbrosiok diño (S. Ambros. ad Vercel.): Esau alperrak galdu eban bere lentasuna ta senipartea, gurago ebalako artu, eze ez billatu. Alan egin oi dabe beste jende alperrak bere, gurago dituez besten ondasunak zuzen edo oker artu ta eurenak bere prendan ifini ta saldu, bear egin baño. Eta gero ezin artu dituenean eta ez ostu, eta prendakizunik eta saltzekorik ez dabenean, abiatzen dira eskean, baliatzen dira batez ta bestez, lotsari ta arpegi txar ilun asko ikusten dituela eta askotan atea bere itxiten deutzela enzun-gor ta ez-ikusit eginik, inok jaramon gura ezinik. Dirudi au adierazo gura ebalta Espiritu Santuak esan ebanean (Prov. 25): Atzeratu egizu zeure oña adiskidearen etxetik, ez sartu ain sarri ase, aspertu ta gogaitu eztagizun, gogaikarria egin etzaiozan, atez jo ta ordu gatxean bota etzaizun. Zerren, San Anbrosiok diño (S. Ambros. in Epist. ad Theod. cap. 2), besteren maira sarri doianak dirudi alperkeriari emona dala.



Lan-bear onean izango da asko ta ugari, diño Espiritu Santuak, baña berba ta barriketa asko dan lekuan an oi da beartasuna ta pobreza (Prov. 14). Alperrak entero dira berba-egikune ederrekoak, miñ-labanak, barritsuak, berba-lapikoak; oneen laguntzan zagozanean ezta zure aldirik: zu baño aek obeto enzunak dira; oneentzat dira enzutaldi guztiak; oneei jagokez mundutarrak aoa zabalik ta belarriak zur zoli irazarririk adi. Baña gero, azkenean, oneek eskale ta zu emalle. Au da alperkeriatik edo nagitasunetik eldu dan irabazia, beartasuna, premiña, eskean ibiltea; bataren ta bestearen karga ta gogaikarria izatea, kale gogor bakarrean burua ikustea; ez zer jan, ez zer lan ez eukitea.

Baña kalte guztien ganeko kaltea, alperkeriatik eldu dan andiena ta aztu-erazoten dabena oraingino esan dodan guztia da luzamenduan gero-tik gerora ibiltea. Bada nagi alperrak eztau beinbere esaten gaur: beti biar, beti gero, beti luzemendu. Alpertasuna da gero guztien itur-burua, zimendua ta ama: egiteko guztiak gaurtik biarrera, orainik etorkizunera ta gero-tik gerora luzatzen dituen. Eta ama onen alaba au, nagitasunetik ta alperkeriatik sortuten dan gero au da gure galgarria, gure gatxa ta gaur giño gure arerio deabruak gu engañatu ta galtzeko idoro daben biderik ta asmurik oberena, onena, fiñena, ziur, seguruen.

Egiaz, guk bere Gero oni kontuz begiratu bear deutsegu. Au geuganik kentzeko, urrinduteko ta etxetik ateratzeko bear dogu geure indar guztiaz, alegin ta ardura guztiaz erabagi, ensaiatu, estutu ta arduratu; eta gaur egin bear dogun gauzarik ta aldaikegunik ez biarko luzatu.

3. BURUA

*Zelan nai-gura utsetan ta deseo bakarretan
igaroten jakun denporea.*

1 §.

Esaten dau Salomonek edo Salomonen aotik Espiritu Santuak atea bere susterrean, kontzan edo elgontzan legez iruli ta biurtzen dala nagia bere oean. Atea bere sustarrean, bere oñean, orpo ta tokian ondo jarria ta ifinia dagoanean erraz itxi ta idigiten da; arin alde batera ta bestera erabilten da. Baña erabilte guztiok gatik bere, erabilli ostean edo ondoan bere lekuan ta tokian gelditzen da. Nagia bere negu otzean ateari darautsanean oean mugitzen da, beste aldera itzultzen da, burua goiturik jartzen da. Baña orregaitik itzul inguru, jira bira oneez gero lotara bere oe berora biurtzen da. Bada au berau espiritualki bekatari nagiagan bere jazoten da. Bekatariak egon ezkerro ezagutzen dau bide okerra daroaiala, galdua doiala. Eta artzen dau zerbait gogo, artzen dau nai-gura bat bide onera biurtzeko, bizitza barri bat artzeko ta ordugiñoeko ekandu ta oitura guztiak itxiteko.

Baña geroberere, biurrera ta ibilte guzti oneen azkenean, atea bere susterrean, elgontzetan ta nagia bere oean legez, bere bekatuen egotaldian geratu edo gelditzen da.

Azor deritxan egazti arrapatari bat eskuan daukezunean mugitzen da, egaz egitera prestatu ta abiatzen da ta eiza edo kaza ekarten joaten da. Baña, au egiñik, len zegoan eskura biurtzen da. Alan biurtzen da, bada, bekatari nagia bere, bere gogoeta on guztien buruan, bere lenagoko tor-nuetara ta maiña gaistoetara. Asten da, baña nagiro; urtu, urbildu, urreratuten da, baña ez asko. Alangoak gaitik esaten dau Isaias Profetak (Isai. 37): etorri zirian seiña edo umea egiteko ordura, baña ez eben egin, etzan artarako indarririk asko. Artuten dogu gogo, artzen dogu borondatea obra onak egin bear ditugula; eta etorten gara egin bear doguzen ordura, baña an geratu ta atzeratuten gara, an uko, eurt-atzera egiten dogu, bearrean uts egiten dogu. Zergaitik-ze artzen dogun gogo, asmo ta borondate a, ezta fiña, ezta egiazkoa, ezta erabagi erabagia, gura-izatea da, ez nai-gura oso benetakoa. San Agustinek ziñoan beragaitik (S. Agust. lib. 8.



Confes. c. 5): ene borondate barriak ez eukan indarririk asko borondatezarrar goitu, goiartu, benzuteko; lo datzanak, erdi irazartzen danean, egiten dau mugidaren bat, jagi gura irudi bat baña, zelan eztan egiaz eskututen, barriro lotara biurtzen da, loa agintari ta jabe gelditzen da. Alan diño San Agustinek jazoten jakola aldi baten berari bere (Idem ibi c. 8): munduko atsegiñak, kontenttuak, lo gozo batek legez azpian menderatzen ninduan eta nosik bein etorten jatazan atsegin oneetatik jagiteko ta Jangoikoagan gogotuteko gura batzuk; baña oneek guztiok lotarik irazarrir gura dabenaren irudintza argal uts batzuek legez zirian, probetxu bagekoak loa kentzeko, munduko gauzeetarik ateratzeko indarririk asko ez ebe-nak. Eta alan neure deseo on guztien ondoan bere, neure lenagoko usadio, ekandu, oitura txar ta bekatuetan gelditzen nintzan.

Gura dau ta gura eztau nagiak, diño Salomonek (Prov. 13): Ez dau gura-izate osoa, betea ta benetakoa. Eta Beda Beneragarriak diñolez (Beda lib. 2 in Prov.): gura dau nagiak Jangoikoaren erreinuan parteletasuna, baña ez a erreinu gozotasunez betekoa irabazteko igaro bear dirian neke, atsekaba, garratz-min ta naibagetan. Sariak poztuten dau, nekeak tristetuten dau, izutu, ollotu ta bildurtu. Ondo egitetik datorren irabazia onik egin baga gura leuke gozatu; gura dau joan Zerura, baña neketu baga, burua ausi baga, alegiñik egin baga. Ez atsegiñik gura dau itxi ta ez penarik artu. Nagi da bidea artzen. Eta nagia, San Isidorok diñolez (S. Isidor. lib. 2 ethim.), da errena legez, oñak ditu gaixo, gogoa erbal ta argal. Bapere, ezerbere egin baga, geure gogoak ta borondateak dirauskun gauzak baxen egin baga, deseo uts bakarrakaz, borondateaz bakarrik gura genduke salbatu ta Zeru eder gozoan sartu. Eta onelako deseo utsetan, gerorako gogoetan ta borondatean denpora guztia igaroten jaku.

Esan oi da deseo onez beterik dagoala Infernua. Zerren an dagozan zorigaistokoak, obratu ezpeben bere, deseo on batzuk baño ezpadira bere izan zituezan. Ezta iñor ain gaisto galdurik, nosik bein bere gaistakeriak itxiteko gogoa etorten ez jakenik ta deseo ta guraria banakak izaten ez-tituanik. Baña deseo oneek eurak bakarrik eztira asko: bada oneek lorak legez dira. Eta probetxurik eztan legez artzen eztaben loreaz, oratu ta gelditzen eztanaz, bere botoi pipil ta ninian galduten danaz, onela ezin date-ke onik, probetxurik ez fruturik, borondate beragaz, guraizaz utsaz, deseo ta gogo bakarraz egin al litekela, egin baga gelditzen danaz.

Alperrari esan bear jako dagiela; eta nagiarri abiatu, mugitu ta presta dedilla; eta zelangoa bata alakoa bestea, bata legez bestea, biak alakar dirudie, biak bat ta borondate utsekoak; ez dabe ezpada gura-izate utsak, deseo, gogo ta kutizia gaiezak, gauzezak, prestuezak, ezer balio eztabe-

nak. Eta nai-gura oneek eurak dira penagarririk asko, diño Eskritura Santeak (Prov. 2), ta deseo utsak ilten dabe nagia. Esan oi da nagientzat ta alperrentzat egun guztiak dirala jai-fiestak. Baña obeto esan lei alako-entzat jaiak bere astegunak diriala, zerren beargillak euren bearrean baño, askotan alperrak bere alperkerian bear-neke geiago ta gogaikarriago idoro-ten dau. Au agiri da Dabid Erregea gan. Errege oni ez eutsen eguño gerrak ta gerretako nekeak ainbat egiteko ta atsekaba emon, non alperke-riak ta alperrik zegoala egin zituan bekatuak. Eztagoz alperrik atsegiñetan dabilzenak, diño Senekak (Seneca de brevit. vit.), zerren gustu ta atse-gintasunetan badira bai naibage, atsekabe, garrazmin, neke ta zeregiñak. Alper egoteaz jausten dira egiteko andietan ta damugarrietan. Zelan ez jateak galtzen dituzan agiñak, alan bear eztanetik, irabazi eztanetik jateak bere emoten deutse garrazpera, diño San Krisostomok (S. Chrisost. homol. 36. tom. 3).

2 §.

Gauza segurua, ziurra, jakiña, egiazkoa ta fedeak irakasten dabena da salbatuteko, Zeruko glorian sartuteko eztiñala asko deseo ta nai-gura, nai-kunde soil uts bakarrak. Ezpada, bear direala Jangoikoaren Lege ta Agindu Santuak deseoaz legez obraz bere kunpli, bete ta gorde. Au da egia ta egia au Kristiñau fededunak garean guztiok sinisten dogu. Baña orrez guztiaz idoroten ditu gure malizia ta borondate gaistoak iges-bide batzuk, itzulpide, inguru, atxakia ta eskusa batzuk, obratutea itxi ta largar-rik, deseo bakarretan denporea igaroteko, luzemenduetan ta itxadotetan ibilteko. Lan bearra egin gura ez ebanak otzaren atxakia emon eban, diño Jakintsuak (Prov. 20); baraututeko nagi zanak buruan min ebal esan eban. Nagiak, bere lekutik mugitu gura ezta, berak eragozketa andiak idoro-ten ditu, bidean bere Leoia dagoala esaten dau (Prov. 19). Adiskide bat larga gura dabenak, adiskidetasuna ausi ta urratu gura dabenak era ta oka-siñoak billatuten dituz, atxakia, itzulpideak ta asmu asko idoroten dituz. Alan idoroten doguz, bada, guk bere okasiñoak, erak, eskusak, asmuak, atxakiak, igesbideak bekatuetan egoteko, deseoetan ta gurarietan denpora igaroteko.

Iñok ontasunera estutu ta premiñatuten zaituenean eta atzera zago-zanean, eranzuten deustazu alan eskututen zaituenari: Itxozu orain pre-sentean, oraingoan parkatu bear deustazu, ezin nei oraindiño zuk diño-zuna. Zerren buruan sartu jat asmo bat, kunpli bear dot gogoraziño au:



gogoratu jat gurari bat, irago bear dot a gurari ta gutizia; apur bat ase bear dot, aspertu bear nas, dijiritu ta egosi bear dot eta gero ase, bete, ditxiri, aspertu ta nekatu nadinean, orduan dirianak itxiko dodaz; orduan bide on batean jartzera ta seguratzera zin ziñez ta egiaz, benetan erabagiko dot. Baña bitartean, ordugño ezta zer txitik egin. Bada nik orain al daikedan guztia da deseo ona, gogo ta borondate ona ta ez besterik. Ezta bide gais-toa au ta onela orain egitea, gero gatx edo ños ez egiteko.

3 §.

San Agustinek, ondo ekianak legez, gauza asko esaten dituz luzemenduetan ibilteko gai onen ganean. Erakusten dau zelan bere bizitza gaistoa itxiteko urrean ta inguruan egoanean, ebillela ezin etenduz, ezin urratuz ta beragan ezin erabagi izanik. Erakusten dau zenbat eragozgarri ta lokarri idoroten zituan, zenbat gerra egiten eutsen bere lagunak, okasiñoak ta ekandu gaistoak. Alde batetik gura eban bide onean jartzea, atara bulkatzen eban bere Ama Santearen negarrak, konzienziako kisketadak ta ausikadak ta Jangoikoaren mandamentuak. Eta bestetik lotu ta atzeratuten eban lenagoko usadioak, maña txarrak, oiturak, ekanduak ta azturak, ta guztiz bere aragiaren ta munduaren labankeriak, palaguak, berba eder, atsegin ta debersiñoak (libr. 8 cap. 1 Confes.). Oneek euken irmeago lotua. Eta oneetatik alde egitea egiten jakan ain gatx eze bere oraziño ta eskariak bere onetan egiten zituzan geroko, etorkizunarako. Bada bildur zan enzun ez egion bereala Jangoikoak; eta bere gogoan erabiltzen atsegiñak, deseo andiaz gozetako, oneek atzeratuten eban. Egiteko onetan zebillenean zirautsan Jangoikoari: Prest nago, prest, Jauna, baña itxodon egidazu gitxi bat (ibi. cap. 6); itxozu beste apur bat; ez porfiatu, ez lar estutu, ez nas berandukorra izango, laster nas zugaz. Onela esaten eban, onela luzetuten eban. Eta, luzemendu onetan zebillela, denpora andia igaro jakan. Baña gerobere, denporaz ta goxik asko biurtu zan; etzan azkenengo orduraño egon. Bada, alde batetik ta bertatik bere kontuak eginik, esan eutsan adiskide bati: Nigan dagoanez ni kanpoan nas munduko egitekoetatik, banerietatik ta esperanza guztietatik; nik ausi dot, urratu dot munduaz; egin dot agaz koaz ta erabagi dot Jangoikoa serbitzea. Eta oraintxe, orainganik asten nas; ezta ia geiago geroko gerorik, luzemendurik, ez epetan ibilterik. Eta zelan esan, alan egin bere eban. Luzemendu asko erabilli eban, baña azkenean guztiak ta ondo laster itxi zituan. Baña guk eztogu alan egiten: egunetik egunera gabiltz beti pro-

meska, beti gogoa artuten ta beinbere eztogu eten ta urratuten, beinbere eztogu erabagi ta kunplitzen; beti nai, beti nagi; naikunde, deseo ta gurari utsetan denpora guztia galduten dogu eta onetan gagozala eriotzeak atzeman ta artuko gaitu.

Ikusiko dozue Etxe andi batzuetan arako Herkules sendo famatua pintatua makilla porra bat edo mallu andi bat eskuan dabela; dirudi beragaz, etxean sartzen dirian guztiai burua ausi gura deutsela. Baña, zelan Herkules a arriz, zulez edo kobrez egiña dan edo pintatua baxen eztan, geldi dago beti, zemaitu baño besterik eztau egiten. Alan dira, bada, gero-tik gerora dabiltenak bere: kiñatu, menazatu, zemaituten dira, baña ezta-be besterik egiten, ezpada siñuz ta kiñuz aditzera ematen dan ademana ta irudinza. Esaten dabe egingo dot, eta ez dabe beinbere egiten. Alan dagozala denpora guztia igaroten jake eta eurak bere igaroten dira, azkenduten dira, akabetan dira.



4. BURUA

Zelan ez dogun geroko segurantzarik.

1 §.

Baldin orain darabilgun bizitza gaistoa bada, guzaz ondo izateko bizitza gaisto au itxi bear dogu. Baña kontua dago ea non itxiko dogun. Zuk diñozu: Gero. Nik diñot: ez gero, ezpada Orain. Dakuskun ea zeñek diñoan obeto, zeñek daben errazoia. Eta erakusteko nik dodala ta zu zozala uts eginik eta bide errealetik ta zabaletik alderatua ta erratua, esan egidazu bein egiteko onetan sartu baño len: Zuk diñozu eze gero onduko zareala, gero bear dirian deskarguak, neurriak ta egin-bideak egingo dozu-zala. Non dozu Gero orren seguranza? Eztakizu esan oi dala eztala eriotzea baño gauza ziur seguruagorik, ta ordua zeñetan izango dan baxen jakiñezagorik?

Gure bizitza onek ain dau zimendu erbal argal gaixoa ta mea eze, ondo berba egiteko, ezin esan giñei: biar egingo dogu onelako edo alako gauzea. Bai esan bear dogu, Santiagok diñoanez: Baldin Jangoikoak gura badau, baldin bizi bagara, egingo dogu au edo bestea. Agaitik esaten dau San Mateo Ebanjelistak: Zagoze prestik, zur ta irazarririk, zerren eztakizue eguna, ez ordua. Eta diño Espiritu Santuak bere: asko galdu diriala euren buruari etorkizunaz geiegi promestuaz (Eccles. 29).

Gure lenengo Aitaren bekatuaren bitartez, aganik, aren erruz, guztiok gagoz preso, guztiok gagoz mundu onetako presondegian eriotzara kondenatuak, sentenziatuak.

Baño, igarotez legez, ukutu daiogun zerbait gure eriotzara kondenturik egoteko gai, gei lan oni. Dirudi eze, gure lenengo Aitaren bekatua gaitik ez a, ez gu il bear gintekezala. Zerren bere bekatua etzan besterik, ezpada Jangoikoak eragotzi eutsan sagar bat edo alako frutu bat jatea. Bada sagar bat jatea gaitik gizon bat bere ondorengo guztiakaz eriotzara kondenetea, dirudi justizia gogorregia, barria ta errazoiaren kontra dala. Egia da, alan dirudi. Baña ezta alan: irudia dau, ez izana. Lenago dirudi sagar bat jatea gaitik, ain gauza erraz txikian mandamentua auste gaitik, merezi ebalu kastigu andiagoa, gogorragea, latzagea. Batzuk euren nasaitasunaz beste baga, eztrialako Kristiñau onak, austen dabe barau eguna

ardura baga; bategaz ta besteaz solazka barriketan egote agaitik, meza enzun baga jai egunean itxiten dabe; berba guztietan, ez edo bai asko dan lekuan, erneguak, juramentuak, biraoak ta aien gaistoak egiten dituez; eta gero esan oi dabe: ez al nas onegaitik, onen gauza txikia gaitik ta onen erraz egin dodana gaitik infernura joango? Bada esan gura deusut eze, zerren orren gauza errazean, txikian, pildin apurrean zeure zabarkeria, prestueztasuna ta nagitasuna eta Jangoikoaren aginduaz kontu ta ardura gitxi gaiti erakutsi dozun, ori beragaitik zareala Infernurako.

Baldin Jangoikoak agindu baleutsu egun guztietan barau egiteko, zul edo arri baten ganean, oean sartu baga, etzateko; zilizio zorrotz gogor bat, narru azal latz bat beti erabilli zengilla; edo beste onelako mandamentu gatz nekezko bat emon baleutsu, dirudi ez zegokela zeren miraritu, ez kunplitea; eta, ez kunplitu arren bere, izango zenduke eskusa ta iges-bideren bat. Baña gauza txikian, piskan, ezerezkerian ta errazean, sagar baten eragoztean, ze atxakia ta igesbide euki ziñei?

Adan gure lenengo Gurasoak esker mesede andi ugariak artu zituan Jangoikoa ganik ta gero, guzti onen buruan, Arbola frutudun bat señalatu eutsan, esaten eutsala beste guztiak bai, baño aren fruturik iñolako jan etzegiela. Agindu erraza, eragozte txikia ifini eutsan; eta, orrez guztiaz, ez eban gorde, ez eban bete ta kunplitu; ausi eban, jan eban; errazoiak, bada, erraztasun a bera gaitik kondenatu eban bere ondorengo guztia kaz eriotzera, zerren ondokoak bere aren naturaleza artu eben. Gauza erraza ta txikia zan galazo eutsena, baño andia desobedenzia ta Jangoiko baten agindua ta esana ez kunplitea. Eta, alan, ondo ifinia dago gure kontra emoniko sententzia; ondo mereziturik gagoz eriotzara kondenatuak; ta eztakigu nosko. Beraz, baldin geure buruaz kontu onik emon gura badogu, kondenaturik dagoan bat legez bear dogu egon, bizi ta gobernatu.

Karzelan dagoanak dakienean kondenaturik dagoala bizitza galtzera, nok esan lei zelan tristetuten dan? ze gogoan jartzen dan? Asten da estutu ta larrituten, alde batera ta bestera itzultzen. Eta, ikusirik egin dala berea, ez dala erremediorik, ez dabela igesterik artzen dituz lenez beste gogoeta mueta batzuk. Aztuten da munduaz ta mundukoaz, eztau aekaz konturik egiten. Bere konzienziaz, bere arimaz dau zeregiña. Gogoratuten dituz bere bekatuak; aldaizan ondoen konfesetan dituz; batari ta besteari jagoko parkeska. Geroenean al guztiaz garbiturik bere konzienzia, itxatodoten dau eriotzea.

Bada, presondegian kondenaturik dagoanak legez, alan prestaturik ak dituan gogoetakaz bear dogu guk bere egon, egin, bizi ta ibilli; a biaramoneko legez, guk bere ez jakin nosko, menturaz gaur ikusiko gara



Jangoikoaren Adizain edo tribunal santuan, bada eriotzako sententzia emonik dauko guztioi.

Sartu balegiz Justiziak karzela barruan amar gizon urkemendira kondenatuak eta atera balegiz andik eriotzara gaur bat, biar edo beste egun baten beste bat edo bi: ete legoke iñor aen artean bizitza luzearen esperanzarik leukenik? Edo lenen ateretan ez ebelako, azkenenan izango dala seguru uste dabenik? Eztot uste. Bada, mundu au ezta beste gauzarik, ezpada geure eriotzara kondenaturik gagozanon karzela bat. Eta karzela onetarik ateretan gaituz Jangoikoaren justiziak gaur bat, biar beste bat: bata len, bestea gero; eztaki iñork nos, ez da segurutasunik. Beraz, gagozan zur, irazarririk, prest, ez euki ezkeru segurantzarik, ziurtasunik.

2 §.

Sarri aotan erabili oi dogun esana da eztozula geroko segurantzarik, beti gagozala pelligruan. Eta alan da egia. Bada gitxien uste dogunean, gogotik kenduago dogunean ta aurrerantzean gauza asko egiteko gogo artzen dogunean, artzen gaitu eriotzeak. Eztaki gizonak bere fiñaren barririk; eta amuak kojietan dituzan legez arrañak ta egaztiak sareak ta lakioak, alan gizona bere artuten dau eriotzeak. Arraña olguran dagoanean, janari dakionean ta bere ustez obeto dagoanean, atxitzen dau arrantzalleak eta bai egazia bere eitzariak. Era onetara atzemon ta kojitzen dau bekataria eriotzeak, bere bekatuak gogotiago, josiago ta oratuago dagoanean, gozoroago poztuten danean ta gitxien uste dabenean.

Medikuen esana da presona batek sendoen ta osasuntsuago dagoanean dabela gaixotuteko pelligru ta zoririk andiena. Eta nos eta uste dozun eriotzea dagoala zukanik urrinago, orduan oi dago geienetan urrago. Zorrak kitutu dozuzenean, etxe barria egin dozunean, umeak ezkondu dozuzanean, zeure gauzak oñ onean ifini dozuzanean, bake on baten jarritera eta sosegu, atsegiñ ta igoroipede baketsu bat zeure buruari emotera prestatu ta abiatuten zareanean, an da bereala eriotzea.

Ezkara ezerbere; biderioaz pare gara ta biderioa bera baño bere pelligruzkoagoak, auskorragoak. Ez dogu biderioak adiña bere indar iraunkarririk. Bada San Agustinek diñoanez: Zer da bideriozko ontzi bat baño gauza argalagorik, meagorik, auskorragorik? Baña, onez guztiaz, jagon ta gordeten danean irauten dau urte ta denporarik luzenetan. Bada, jausteko perilla badau bere, baño ez gaixotasunaren edo zartzearen pelligrurik (San Agust. Serm. 1 de verb. Dni. tom. 10). Bada alan, biderioa

baño pelligruzagoak gara ta ez gitxiago. Zerren ausiterik, jausterik ta gaixotasunik ez eukiarren bere eta geure buruak ondoen ta osasunik obenean euki ta gorde arren bere, adinak, urteak ta denporak berak desegin galdu, urtu, tximurtu, ezaindu ta akabetan gaituz.

Beti goaz: ez gara beinbere gelditzen. Uraren antzekoak gara: ura legez goaz (2 Reg. 2). Gure gorputzak ur korront lasterra legez doaz. Ezkara beinbere ur baten bi bider sartuten: ibai edo errearen izena beti da bat, baño ez ura, diño Senekak (epist. 58). Zerren, zelan beti doian ta beti aldatuaz, ezta beinbere lena. Ez eta gu bere, ezkara beinbere lengoak, bada beti goaz, beti aldatuaz, zartuaz ta mugituaz. Eta ezpadabere begiratu egizu zelan presona bat gaztetik zartzarora, eta batzuetan urtetik urtera bere, aldatu, makartu ta ezereztuten dan irudian bere, lena eztiurdiela jartzen dan, zein diferente ta bestetua egiten dan.

San Gregoriok diño (epist. 26. tom. 2): gure bizitzea itxasoz doianena legez dala: itxasoz doiana jatean, edatean, lo datzanean ta jarririk dagoanean bere badoa, ezta orduan bere gelditzen, bada ontziak, gura ezpadau bere, beragaz daroa. Alan garoez bada gu bere adinak, edadeak, urteak ta denporak eurekaz: ezta paratzerik, ezta gelditzerik, ezta egoterik aldantza бага.

Itanduten deitsunean zenbat urte daukazuzan ta eranzuten dozunean ogei edo ogeta amar dozuzela zerren zeure kontuan alan daukazuz, dirudi eztozula ondo eranzuten. Bada San Agustinek diñoanez (in psal. 65): gure urteak datoz joateko, ta ez gugaz egoteko. Igaroten dira: beraz, ezin esan giñei dituguzela, ezpada igaro jakuzala, larga doguzala. Eta, alan, baldin urte aen buruan jarten bagara gogoratuten ea zer egin zan aekaz, eztogu ezerbere idoroko. Bai ikusiko dogu, asmatu, ezagutu ta igerrri бага, joan jakuzela ta, zelan eztakigula, zartu gareala. Denporak bajoakuz ta urte ixil batzukaz, otsik ta dedarrrik egin eztabena kaz, zartuten gara (Ovid. lib. 6. Fasto).

Esaten da: urlia bizi izan da irurogei urtean; baño obeto esan lei il zala irurogei urtean. Bada, sortzen gareanean asten gara ilten, orduan abiatzen gara ta ezkara beinbere gelditzen. Lenengo ilten da seiñ edo umetasuna; seintasunaren ondoan ilten da mutiltasuna; onen ostean ilten da gaztetasuna; onen ondorengo ilten da zartasuna; zartasunaren ondoan ilten da aguresuna. Adinak guztiak alkarri darraioe igarotea ta iltea, guztia da bat: bata bestearen atzean doaz errenkan alakoz eze, azken adina datorreneko, akabatu dira lenagoko guztiak. Bada San Gregoriok diñoenez (homil. 37 in Evang.): egunetik egunera gorputz-jauste, akabatzea ta argaldutea zer da, ezpada luzero ilte bat? Zuzia erexeginik dagoanean, bizi



da eta orduan ilten da, bada orduan akabetan da. Erreteaz bizi da ta erreteaz ilten da. Alan bada, gu bere bizitzeaz ilten gara ta ilteaz bizi: bada bizi gareanean ilten gara. Eta, zenbat geiago bizi garean, ainbat geiago urretuten gara eriotzako portura. Alan diño Senekak (epist. 2): Egunoro ilten gara, zerren egunoro gure bizitzeari zati puska batzuk gitxitu ta kentzen jakoz. Eta alan azten ta anditzen gareanean bere, gure bizitzea txikitu ta laburtzen da. Beti doa, ta bein joan ezkerro, ezta joan danaren biurtzerik eta ez etorkizunaren segurantzarik.

3 §.

Esan oi dogu: menturaz gaur ilgo gara, menturaz biar: ezdogu ordu baten ziurtasunik; beraz, len bait len bear dogu bide onean jarri engañatuak gelditu ez gaitazan. Onela esaten dogu ta esatea ondo egiten dogu; baña bizitza ondutea beti geroko itxiten dogu: eriotzea zartzarorako luzetu ta dispontzen dogu. Ezin sinistu dogu adinak berak akaba artean akabatuko gareala. Esaten dogu bai, menturaz gaur ilgo gara, menturaz biar, menturaz ezkara zartuko; baña zartuko bagiña legez ta orain ilgo ezpafiña legez egin oi doguz gauzak. Geure naieraz batean, geure gogoak emoten deusku ain segurantza andia, eze zartzaro utseko punturaño ilgo ezkareala iruditzen jaku.

Esan eutsenean deabruak gure lenengo Aita-Amari: etzare ilgo iñolakoz (Genes. 3), sinistu eutsen bereala, ziur ta duda baga. Eta denpora atan etzan ain miresteko alan sinistutea. Bada, izanik munduko lenegoak, etzekien oraindiño eriotzaren barririk, ez eben iñor ilten zala ikusi; eta, alan, erraz engañatu zituan deabruak. Alan bada, gura gendukez gu bere engañatu, sinisterazorik aei legez ezkareala ilgo. Baña, zelan guk orain, ikusirik besteak ilten diriala ta geu bere zartuaz ta argalduaz goazela, ziur seguru dakigu il bear dogula, ez dogula atzera biurtzerik, ez aurrerako segurantzarik, ezin engaña gintekez ain erraz zein lenengo Gurasoak. Gugaz, guri sinistu eragiteko ezkareala ilgo edo sinisten bagendun legez galdu ta eragiteko beste bide bat artzen dau deabruak, beste joko modu bat jokaturen dau, beste maiñaz, trazaz, asmuz baliatzen da. Ez osoro, ez kolpe batez, ez beingo batez, ezpada gitxika ta egunetik egunera luzetuz atrapetan gaituz. Sinisterazoten deusku ezkareala gaur ilgo, ezkareala biar ilgo eta ezta eztaukerik biar giñoko epe luzerik, itxaromenik ta bizitzeko esperanzarik; eta onela ta andik, zelan uste eztogun gaur ilgo gareala, ez biar bere, bizi gara seguruak bagiña legez edo iños ilgo ezkareala bagenki

legez; eta kontu ero zoro uts onek engañetan ditu eriotzako egun ta ordu-
ra eldu direan gaixoak bere: gaur enas ilgo: au berau diño biaramonean,
etzi ta etzilimo.

4 §.

Eztakigu nos ilgo garean, eztakigu nos izango dan gure azkeneko eguna; ezta, beraz, errazoia jakin daigun nos izango eztan. Baña dirudi eze, nos izango dan ezpadakigu bere, bakigula nos izango eztan. Bada esaten dogu gero beste urtean onduko gareala; orduan onelako ta alako gauzak egingo doguzela; oridanez bakigu eztala ordura artean izango, bitartean itxadongo deuskula edo beintzat esan ta egiten bere badogu ziur bagenki legez.

Guk gura genduke egin gure bizitzeaz ta bizitzeko denporeaz oial puska bategaz egiten doguna: Oialaren zati bat neurritu ta prestatzen dogu kapatako, beste bat jaketako ta ganerokoa beste bear dirian soñeko jantzierak egiteko. Alan bada, oialaz legez, geure bizitzaren Jaun, Jabe ta Nagusiak bagiña legez disponduten dogu bizitzaren zatirik onena ta gaie-na, gaztetasuna, munduarentzat; ta gero ganerako txar prestuez gaistoe-na, zartzaroa, Jangoikoarentzat. Eta Senekak diñoanez (cap. 9 de brevitae vitae): Etorkizuneko gauzak, fortunaren eskuan ta menturan dagozanak, gura dozuz orainganik ordendu, dispondu ta trazatu; ta oraingoak, zeure aukeran ta eskuan dagozanak, itxiten dozuz galtzen. Dozunaz eztozu konturik ez ardurarik; ta eztozunaz dozu gogoa egiteko mirariak. Orain Jangoikoa emoten deusuzan bizitzea, osasuna, indarrak, zentzuenak, almenak ta ondasunenak, gura dozuz, Jangoiko beraren kontra zabil-tzela, emon, artu ta galdu eta, gero, oraindiño emon ezteutsuzenak ta menturaz emongo bere ezteutsuzenak diñozu emongo dozuzela bere ser-bizioan. Ikusi egizu zeure itsutasuna desgobernu ta gal-bidea.

Ninibitarrak penitentzia egiteko berrogei eguneko epea, astia, denporea ta segurantza ebela, atara begiratu baga ta azkeneko egunera itxadon baga, bereala, lenengo egunean asi zirian penitentzia egiten; eta euren uts egiñak ta bekatuak negar egiten eta andik eta alan alde egin eben zeruko azotea. Zegaitik bada guk bere eztogu alan egiten? Zergaitik larga bear dogu geroko, berrogei egunen ez eze baten segurantzarik ez euki ezkerro?

Noeren denporan jaten, edaten, jokoan, dantzetan, ezkontzetan, saldu-erosietan ta gauza zoragarri asko egiten ta asmetan ebiltzala artu, ito ta ondatu zituan urak. Auxe berberau jazo ta gerta lekikigu guri bere,



gerotik gerora gabiltzanoi. Bada guk aek baño segurantz gitiagi daukegu; ta aurrerantzean obeto begiratuten ezpadogu, ainbat bildurgarriago izango da gure fin gaistoa ta adua.

5. BURUA

*Geroko zorrian, arriskuan ta bada espada
menturazkoan menturaturik galduten gara.*

1 §.

Zelan dan gure Jangoikoa ain ona, biotz-bera, errukiorra, pazienza ta miserikordia andikoa, esaten dozu: askori itxadon deutso ta itxadoten deutso zartu utsezko puntu giño, naturaleza berak berea agiri arteraño; ori danez ez dot orandiño zer estutu, bada menturaz alan egingo dau nigaz bere. Menturaz diñozu? Eta eztakizu menturak menturaren jokoak, inguruak, jira birak ta tornuak dituela?

Iru *menturaz* mueta, iru erako menturak idoroten dodaz gai onen ganean. Lenengoa da bekatu egitetik ta pelligru askotik gorde ta atzeratuten gaituana. Agaitik esan oi dogu: eztot bekaturik egin gura zerren menturaz, atan nagoala, neure azken egunak artu neinke. Eztot ostu gura, zerren menturaz Justiziak lotu, azotatu edo urkatu nei. Eztot jokatu gura, zerren joko ezta errenta, menturaz galdu nei. Eztot eskuetan dodanaz jabetu gura, zerren menturaz gero, gura dodanean, ez dot izango zegaz kitutu. Alan esaten eutsen Ebanjelio Birjiña zur aitua orio eske etorri zirian Birjiña ero nagiai: ezteutsuge emon gura, zerren menturaz ezken-duke geuretzat bere bear doguna (Math. 25). Alan Datan ta Abiron euren lagun batzuekaz lurrak ondatu ta irunsi zituenean, andik igesi egin eben inguruatan egozanak esaten eben: goazan emetik, zerren baldin emen bagagoz, menturaz besteak legez irunsi geinkez gu bere lurrak (Numer. 16). Au da mentura ona, etorkizuneko menturaz gaistotik ta galbidetik gordetan gaituena.

Bigarren mentura bere ona da; eta da bekatu egin ondokoa, ostekoa, gaisto-egiñak ordetu ta kitutu gura izanik dabillenean. Ikusirik galdurik goazala, Jangoikoaren aginduak ausi doguzala, esaten dogu: Egiñak egin, ez geiago. Aurrerantzean obeto gura dot bizi; Jangoikoari zin ziñez, egiaz, biotzko damuaz gura deusat parkaziñoa eskatu. Zerren menturaz onela parkatuko deust, izango dau nigaz errukia. Berba egikune onez usatu eban Daniel Profetak bere, esan eutsenean Nabukonodosor Erregeari: alde egin zaite lengo bide deungetatik ta egizuz limosnak, izan zaite biotz



beraa, bigun ta errukitsua beartsuaz, eta menturaz onela Jangoikoak parkatuko deusuz zeure bekatuak (Daniel 4). Alan Ninibe Uri andiko Erregeak bere, enzun ebanean aserre zala bere ta bereen kontra Jangoikoa, agindu eban Erri guztia ifini zedilla deboziñoetan ta penitenzietan, guztiak barau egiela eta abere mutu zenzun bageai bere etzegiela emon jatekorik ez edatekorik, esaten ebala: Nork daki zemaitu ta menazatu bagaitu bere geure Jangoikoak eta esan badau bere aserre dala gure kontra, ea gure damua ta penitenzia ikusirik, itzuliko danez beste aldera, bigunduko jakonez bere aserrea ta itxiko gaituanez kastigatu ta astindu baga? (Jonae 3) .Esan baleu legez: Errazoiatz da gure Jangoikoa gure kontra aserre, errazoiatz zemaituten gaitu ta dirausku kastigatu, apurtu ta ondatu gura gaituzala. Baña, orrez guztiaz bere, emon gaitezen deboziñozko gauzeetara; len gaistakerian legez, orain gauza onak egitera abia gaitezan ta menturaz onela biotza ausiko jako, errukituko jaku ta parkatuko deusku. Alan esan eutsan Ontzi-Maixuak bere, ekatxa zebillenean, Jonas Profetari: ze lo-zorrok artu au, gizona? Zelan atz lo? Eztakusk ito-tera goazala? Jagi adi ortik, ifini adi oraziñoan, egiozak eskariak eure Jangoikoari eta menturaz onela iges egingo joguk pelligru onetik (Jonae 2). Alan Jakob Aitaurrenak bere, bere anajeaz aserre zanean, biraldu eutsezan bere anajeari aurretik presenteak, doiak, esaten ebala (Genes. 32): menturaz onela mesede ta presente kaz parkatuko deust, menturaz oneen bitartez adiskidetu ta baketu gara. Au da bigarren mentura ona, ontasunean emoten dana, uts egiñak sendotuten dituarena.

Baña ba beste *menturaz* gaisto bat, irugarren bat, luzementuak billatuten dituen, atzerakuntzetan dabilena ta ondamediak ta pelligrua baxen eztan lekuan bere segurantzak idoro gura dituen. Esan jatzu: zartuten ari zara, eriotza bien erdian ifini zareala, begiak ilunduten asi jatzuzala, bideko iru parteatik bi igaro dozuzala; eta baldin orrela zagozala zeure azkeneko egunak artuten bazaitu, ez menturaz, ezpada ziur kondematuko zareala. Baña zuk eztozu onelakorik sinistu gura ta ez enzun bere.

2 §.

Lenago bai zeure nai-guraz batean, iruditen jatzu menturaz ezta alakorik izango. Eta esan bearrean menturaz alan izango da, menturaz kondematuko nas, esaten dozu: menturaz ez nas kondematuko, menturaz ezta alakorik jazoko. Lenengo guzurra, lenengo Andreak esan eban. Itandu eutsan deabruak Ebari ea zegaitik etzeban jaten Parabisuaren

erdian zegoan Arbola ederraren frutu gozo atarik. Eranzun eban: Eztot jaten, zerren esan deust Jangoikoak baldin jaten badot, menturaz ilgo nasala (Genes. 3). Eta, egiaz, Jangoikoak ez eutsen alakorik esan; ez eutsen menturarik aitetu. Garbiro, argiro ta ziur esan eutsen jaten eben egun berean ilgo zala; esan gura dau ilkorra egingo zala, ilkizun izango zala (ibi.). Menturaz a Ebak berak geitu, asmatu ta eransi eban; eta geitura ta eransiera onegaz bere burua ta bere ondorengo guztiok galdu ginduzen.

Andra ezkondu batek bere senarra eztanaz edo ezkonbageak bear eztanaz bekatu egiteko gogoa artzen dabenean, ezkondua gomutetan da bere senarraz ta bai ezkondu bagea bere emetik etorriko jakon desonra, lotsaria ta kalteaz. Baña orregaitik bere menturatzen dira bata ta bestea, esaten dabela: menturaz senarrak jakingo eztau, menturaz ez nas seindun geratuko. Lapurrari bere ostuten dagoanean gogoratuten jako eskuak ezarten badeutsez, gitxienean bereak emongo deutsezela, presondegian lotuko dabela, azotatuko dabela. Baña onek bere laster konoletan dau bere burua, esan oi dabela: Menturaz ez nabe presotuko, ez nabe asmatuko, ezteust iñok jakingo. Alan bada, guk bere, gerotik gerora gabiltzenok, poztuten doguz geure buruok ta esaten dogu: Menturaz oraindiño itxadon deustentak itxadongo deust orain bere. Menturaz orain ezpadot bere, izango dot aurreranzean ondo egiteko gogoa. Eztira oraindiño denpora guztiak igaro.

Bago bai emen mentura franko ugari eta ez esperanza urri eskasik. Zer da au? Non da zenzuna? Non da gomutea? Zer egin da adimentuaz? Zeure salbamentua, ainbat joatzun gauza, betiraun guztiko adu on edo gaistokoa izatea ifini dagizula menturan? Eztozu pensetan mentura orrek menturaz mentura gaistoa emongo deustula? Eta norberak daben guztia menturatzea erokeria andia dala?

Menturaz onen ganean ederto berba egiten dau Sn. Juan Krisostomok era onetara: Esaten dozu ta esango dozu: Jangoikoak askori emoten deutso pribilejio au: gaztetan gaisto izana gaitik, itxadoten deutsele zartu ditezen arteraño ta orduan bear dan bide onean ifinirik ta penitenzia eginik, salbetan dira. Zer, bada, zuri alako pribilejiorik, mesederik eta graziarik emongo ete deustu? Esango dozu: menturaz bai, zerren batzuetan gertatzen da. Egizu gogoeta, zeure arimeari dirautsazula ta pensatu egizu, kontrara bere jazo litekela. Eta esazu: zer izango da itxadoten ezpadeust? Esango dozu oraingino: Eta zer izango da itxadoten badeust? Itxadon leizu. Baña obeago ta seguruago da, itxadongo ezpaleutsu legez bizitea ta gobernatzea (S. Juan Chrisost. hom. 22 tom. 4). Era onetara,



diño Sn. Agustinek bere (in psal. 77): Baldin Jangoikoak galdu ezpalitu gaistoak, seguru da, ziur ta duda bage da, eztituela galduko onak. Zegaitik eztogu bapere dudarik eztabena autuko? Zegaitik eztogu, menturak ta bada ezpada itxirik, seguruan jokatu? Esan oi dogun legez menturaz itxadongo deuskula Jangoikoak, esan daigun (jazo liteken gauza da) ameneko itxadongo ezteuskula; ta goberna gaitezaz itxadongo ezpaleusku legez; eta onela ez menturan, ezpada seguruan izango gara.

3 §.

Segurutzat dot Infernura doazan geienak gero baten menturan ta zorian ifinirik, atan fiaturik ta atan uste utsaz engaaturik joaten diriala. Beintzat alan joan zan arako Ebanjeliko Aberatsa. Bada, San Lukasek ebanjelistak diñolez (12): Aberats oni urte ona etorri jakan, bildu ta batu zituan ondasun ta frutu ugari ta asko eta ifini zan bere arteko gogoetak egiten, ziñoala: Zer egingo dot orain? Norako dodaz onenbeste ogi, ardao, garau, frutu ta ondasun? Ez dot eukiko lekurik bere eurok gorde-teko. Baña bakit zer egingo dodan, dirautso barriz bere buruari: lengo garautegiak, ardantegiak, okeluak, salak ta kamarak anditu ta zabalduko dodaz, toki, leku asko egingo dot. Eta gero sosegatuko nas, ardura guz-tiak largarik atsegintasun ta pozkariz ase beteko nas, diñodala neure artean: Orain sosega nadin, jan dagidan, edan dagidan, zerren ez dot eze-ren bearrik, ez dot gerokoren pelligrurik; badot etorkizunerako bear dodan betegarri guztia.

Asmu ta kontu ero oneetan zebillela Aberats arrotu au, kontuak ondo atera bage, enzun eban Zerutik dei bat zirautsala (ibi.): A, ero zoroa, buru zenzun bagea, zer ago esaten? Ze gogoeta darabilk? Egin yok iriak; gaur eskatuko jata eure arimea, gaur gorputzetik aterarik eroango deube. Eta gero orduan bildurik daukazuzan ondasunak norentzat izango dozak? Eroa deituten dau Aberatsa au, ta errazoiak: bada, zer da zorakeria andia-gorik, geroko denporaz bestearen eskuan ta menturan dagoanaz, bere eskuan ta seguruan baleu legez dispondu ta ordendutea baño?

Ikasi daigun bada besteren buruan zenzundunak ta begiratuak iza-tea: atera dagigun segurutasun bat besteen pelligrutik, artzen dogula Espiritu Santuak emoten deuskun konsejua, dirauskula (Eccle. 5): Biurto zaiteze lasterren Jangoikoa gana; bekaturik jagi zaiteze ta ez egizue egu-netik egunera berandutu ta luzetu. Bada gitxien uste dozunean, aztuago-rik zagozanean neurria beteko da, Jangoikoa aserratuko da eta gero ben-

ganzazko egunean, eriotzako denporan galdu ta apurtuko zaitu. Dirudi au adierazo gura ebala Espiritu Santuak esan ebanean (Prov. 3): Eztagiozula esan zeure adiskideari doiala ta datorrela, biar emongo deutsezula: baldin badozu emotekorik, emoiouzu bertatik. Esan gura dau egingo dozun mesede, dagizula laster, geroko zorian ta menturan itxi bage, luzemen-dutan ta joan etorrietan ibili bage.

Aldi baten itandu eutsen Alexandro andiari ea zelan irabazi zituan ainbat biktoria, anbat ondasun ta aberastasun, ainbeste Erri ta Erreinu? Eta eranzun eban laburki: ez ezer luzetuaz, ez ezerbere biaramoneko itxiz. Ez eban beinbere urrengo egunerako larga, egun berean egin al lei-kean zereginik. Etzan sekula gerokoan fiatu ta onela ain irabazi andiak egin zituan.

Ez gaitezen, bada, gu bere gerokoan fiatu. Zergaitize geroko atan, mentura bat al baditeke bere, baña ez segurantzarik, eta zorakeria andia da seguru bear dogun gauzea menturazko bada ezpada ifintea, biaramo-neko itxaromen ta pelligruan itxitea.



6. BURUA

Zelan dan geroago gatzago, bekatutik jagi ta urtetea.

1 §.

Sarri askotan Eskritura Santan irudindu ta bardinduten da bekataria bidea galdurik dabillen ardiak. Eta errazoiak. Bada gauza askotan dirudie alkar. Ardia bere lagunetatik alderatu ta atzeratuten danean, alako moduz bide onetik ta bere lagunetatik deslaitu ta atzeratuten da non geroago urrinago, galduago, deslaiago dago. Diru bat edo eleztun bat galtzen dozunean, an non galdu zenduan gelditzen da, ta bai idoro bere: ezta bere andik mugitzen, aldatuten.

Baña ardia ordutik ordura urrinduten da, basoan barruago sartuten da, geroago galduago egiten da. Alan bada, bekataria bere geroago galduago ta bere ekandu gaistoetan barruago sartzen da. Agaitik esan eban Dabid Erregeak (psal. 118): uts egin neban ta galdu nintzan ardia galdu deslaitua legez. Zerren bekatu bat egin ebanean, bertatik beste baten jausi ta zorigaistotu zan.

Ardia galdu barria danean erraz da arkitutea, billatutea ta idorotea; eta bai kandela bat bere barriz erexegitea amatatu barria, oraindiño oztu bagea danean. Alan da, bada, bekataria bere bekatu egin barrian: gai prest dago bekatutik jagiteko.

Kirikioak bere nekez ateretan dituz sabeleko ume latzak, baño neke-zago bere erruz. Bada, izanik bere narrua latza ta gaztaiña lakatza legez aranza zorrotzez betea eta umeak bere bera legez latzak ta aranzatsuak, sabeletik umeak atera bear ditunean euren aranzak ta lakatzak min egiten deutse; ta minaren minez, atzeratuten dau umeen jaiotza; sartzen dituz barrura ta an daukez al daian denpora guztian. Eta, zelan alan dituzan bitartean azi, anditu ta gogortuten dirian aek umeak; eta, besteti, atera bear edo il: andik azkenean, arri baten kontra estuturik, len egingo zana baño nekezago ta penazago erdituten ditu. Bada, au berau bizitza on bat egiteko luzemendutan dabillen bekatariak jazoten da. Zergaitik ze, zelan Jangoikoagana biurtzea ta obra onak egitea dan ume-egite bat legez, alan, zenbat geiago itxadon ta luzetuten daben ainbat nekezago onetara abia-

tuko da. Eta, beragaitik, obe ta errazago izango da len bait len obra onak egitea ta bekatutik jagitea.

Zeure lurrean zure baimena ta lizenzia baga etxe bat asten deustunean ordenaturik dauko legeak eragotzi al ziñekezala obra barria:

Bada, baldin obra akabatzera itxiten badeustazu, eraso leikezue jabetasunen bat daukela lur atan. Alan egin bear da, bada, bekatuetan ta bekatarien obretan: barriak dirian artean kendu ta bota bear dira; bestela gurako dau deabruak eraso ta esetsi, obrea zartu dala ta atan jabetasuna dabela.

2 §.

Errazago bada bere ondasun prendan ifinia ateretea ta kobrete a saldua baño; idoroten dira, orrez guztiaz, euren ondasunak prendan legez saldu bere egiten dituenak. Eta berberan jazoten da arimako gauzeetan bere. Esan oi dabenean bekatariak bildur diriala euren konzienziak lotsatuten dituela, bekatu bat edo bi baño egingo eztabela; oneek largatzeko usteaz ta gogoaz dabilzela bekatu egiten badabe, prenda ifinten dituez euren Arimak. Baña bildurtasun baga, Jangoikoaz, konzienziaz eta munduaren esateaz konturik egin baga, ardua baga dabilzenak salduten dituez Arimak. Prenda bat tabernara biralduten dozunean, dirautsazu tabernariari euki dagiela egun batzuetan a prenda, ta gero aen buruan aterako dozula. Baña zuk, zelan atera bearrean barrurago sartuten dozun, egunetik egunera prendaren gañean ardao geiago artzen dozun; alako eze azkenean, ikusirik zeure prendaren balioa edan dozula, prenda guztia tabernan itxiten dozu. Bada au berau zeure Arimaz bere egiten dozu. Esaten dozu, bekatu bat egingo dozula, ta ez geiago. Baña bat egin, ta bat oni beste asko eransiten deutsezuz ondotik; alako eze arimaren gañean bekatuaren zorra geitu ta kargetan dozu; eta azkenean prenda guztia, zein dan zure Arimea, tabernan, deabruaren eskuan ta mendepean gelditzen zara agaz, nok bere gauzaz legez, gura dabena egiteko.

Bekautik jagiteko luzemendutan dabillenari jazoten jako zenso ta intereseko diruaren irabazia pagetan eztabenari gertatzen jakona. Alangoari urtetik urtera zorra azi, anditu, eransi ta geituten jako; ta are geiago, baldin denpora luzeaz badago bibidertuten jako; ta orduan ezta errazago pagatzen. Ez eta bekatua bere ezta egonaren geroz obeto sendatzen. Bada, batetik, deabruak egunetik egunera zure Arimearen gañean esku-bide geiago artzen dau; ta, bestetik, zelan zu zoazan bekatu egiñaz



ta bekatutan egonaz, alan doa Jangoikoa bere zure Arimatik iges egiñaz ta urrinduaz, zeu lenengo urrinduten zarealako. Egizu kontu, egizu gogoeta ea zenbat urte dirian bekatuan zagozala ta bekatu egiteari darraiozula; eta idoroko dozu urte guzti aetan Jangoikoaganik urrindurik ta alde eginik ibilli zareala. Bada komunki joateko dun beste denpora bear oi da biur-tzeko bere. Bada orrela zuk bere joan dirian amar urte oneetan edo geia-gotan ibilli bazara Jangoikoa ganik urrindurik, beste orrenbeste urte bear-ko dozuz beraganduteko. Zelan, bada, uste dozu ainbeste denpora igaro dozun bidetik ain laster, urte baten edo bian, zeure zartasunean sarturik, zartuten bazara bere, biurtuko zareala?

Egia da, bai, alako mesedea, grazia, indarra ta gustua emon al leiola Espiritu Santuak zure gogoari ta borondateari; eta urrindutean baño lena-go ta denpora gitxiagoan zu biurtzea egin lei Jaunak. Baña, eztakizu zukan alan jazoko danez, alango mesederik ta graziarik egingo deutsunez.

María Birjiña ta San Josepe bere Esposo maiteak egun baten galdu eben Jesus seintxoak ezkutatu jakenean Jerusalem. Eta gero abiatu ziriane-an bere billa, idoro eben irugarren egunean. Denpora geiago bear izan eben arkituteko, galduteko baño. Alan dirudi, bada, denpora geiago bear dala bekatuak osatuteko, egiteko baño. Bada, darraiozunean bekatu egi-teari, Jangoikoganik urrinduten zareanean, geienez gaztea zara, sendo, osasundun ta indartsu zagoz; baña gero, Jangoikoagan biurtu ta urtu gura dozunean, gaixo zagoz, argal ta zarturik. Beraz, orduan gatxago izango da urtutea ta urregotutea, len urrindutea baño. Alan diño Profeta Dabidek (psal. 72): Zu ganik urrindu ta alde egiten dabenak, azken deungea euki-ko dabe. Eta Jangoikoak berak bere zemaituten ditu onelakoak esanik (Osee 9): Zorigaistokoak dira niganik alderatu ta urrindu ta iges egiten dabenak.

3 §.

Bekatuak itsaltu ta ilunduten dau adimentua, argaldu gomutea ta gaistotu borondatea: zenbat bekatu geiago ainbat ezerbere ezago adi-mentua, zenzuna, gomutea ta borondatea. Ainbat jaunago, nagusiago ta jabeago deabrua. Ainbat Jangoikoa ganik urrinago ta alderatuago. Ainbat indar ta eskubide al gitxiago ta argalago eranzuteko, eraso ta esetsiteko arerioa. Bada, au onela izanik, zelan uste dozu gero orain baño obeto onduko zareala ta bekatutik errazago jagiko zareala? Ura txikia danean ezin igaro badozu, zer egingo dozu andia dedinean? Aretx txikerrak,

oraindiño sustrairik eztituzanak ezin atera badozuz, zer egingo dozu irme sustrairurik ifinten diriane-an? Esan gura dot: orain bekatu gitxi dozunean ta gitxiok bere egin barriak diriane-an, ezin bapere erabagi ta abiatu zara orretatik jagiten; zer izango da, bada, gero bekatuz beterik ta actan luzero gogorturik zagozanean? Orain amar bekatuaz dozu jardukia, errierta ta auzia; gero eunegaz euki bearko dozu. Orain urte bat edo biko ekandu deungea dozu; gero ogei edo berrogeikoa izango dozu. Bekatu egiteaz moropilloak bibidertuten dozuz, kateak geituten dozuz, kargea astundu ta aziten dozu. Ze zorakeria da, bada, zuk uste izatea gero karga andiagooz obeto maneatuko zareala, orain txikiaz baño? Uste dozu gero amar bekatuen parkaziñoa obeto erdetsiko dozula orain bostena baño? Uste dozu gero gaixotasuna andiagotu dedinean, errazago izango dala osatutea ta sendatutea, txikia danean baño? Eztakizu Espiritu Santuaren esatea dala (Eccl. 10) gaixotasun zar luzeak neketuten dabela Mediki Osagilla, baña labur barriak egiteko gitxi emoten deuntsela, au laster osa-tuten dabela?

Egia au adierazo eutsan Angeru batek Ermuko Batar, Bakar edo Padar santu bati. Artu eban Angeru onek gizon baten antz-irudia ta joan zan (In vit. S. Arsen. apud Sur. tom. 4 pág. 257) Ermutar santu au egoan mendira; eskutik oraturik eroan eban baso barrura; eta an erakutsi eutsan gizon bat, egurra ebagiten zebillela. Karga bat eginik, estu ebanean, asi zan abiatzen ea jaso al baebanez. Baña ain karga astun pisutsua egin eban, eze ezin jasorik larga eban. Itxi ebanean, asi zan barriro egur egiten ta bere lengo kargea nagusitu ta anditzen. Andiagotu ebanean, artu eban ta asi zan len legez ikusten ea jaso al baebanez. Baña orduan gitxiago, zer-gaitik ze lendanik aziago ta andituago eban. Baña orrez guztiaz, asi zan irugarrenean bere tematuten, egurra egiten ta bere lengo kargea len legez andituten, uste izanik alan arinduko jakala ta errazago jaso ta eroango e-bala. Ermutar santuak, au ikusi ebanean, itandu eutsan Angeruari: ze zorakeria da dakuskuna. Uste dau gizon onek egur geiago eransirik kar-gea arinduko jakola? Eta andituz errazago jaso ta eroango dabela? Orduan eranzun eutsan Angeruak: Orrela da, bada, munduko erokeria bere; uste dabe bekatariak bekatu askogaz, karga astun pisutsuaz obeto jagiko diriala, arinaz baño. Esan oi dabe: orain nagi nas; orain esku artean darabiltzadazan gaistakeria ezin itxi neikez; oraindiño denpora gitxi baten euroetan egon bear dot, beste batzuk bere eransiten dodazala. Baña gero dirianak largako dodaz; guztietatik jagiko nas. Itsumen itsua, erokeria zoroa, uste badozu gero emetik urte bat edo bi barru, orain baño bekatu geiago dozunean, oxinean barrurago ta ondatuago zagozanean ta orain



baño erbalago, zantarrago, maskarrago ta argalago zagozanean, prestago, errazago ta arinago jagiko zareala bekatutik. Bota egizu zorakeria ori burutik, kendu egizu zeure gogotik ta sinistu egizu geroago gatxago, nekezago izango dala. Eta Obidiok diñon legez: gaur gai ta prest eztana, biar gitxiago izango da.

7. BURUA

Gerotik gerora ibilteaz artzen da ekandu gaistoa.

1 §.

Espiritu Santuak diño (Prov. 22): gaztetan artuten daben bideari darraio gizonak zartasunean bere. Orduan artzen daben bidea, ekandua, oitura ta usadioa eukiten dau gero bere; ezta andik mugitu ta aldatuten; ari oratu ta eransiten jako; denpora luzean bide bat euki dabenari ezta erraz bestera iruli, itzuli, biurtu ta eragitea. Ibai, erreka batek beti darraio lenengoan artu eban bideari. Ezta erraz bidea ta andik igarroteaz artu daben ekandua, abiadura ta ibilkuntza galdu eragitea. Onela, bada, ezta erraz izango denpora luzeaz artu dan ekandu txarra bere itxi, larga ta aldegitia. Zaldi bat, gaztea danean eziten da. Aragia, gelia edo okelea, barria danean gatzituten da ondo. Aretxa, landara txikia danean aldatu lei batetik bestera. Azkenez, gauza guztiak lenengotan artzen dabe euren oitura, ekandua, orma ta moldea ta, bein artu ezkerro, nekez itxiten dabe. Gogorturik bein, gatx biurtu ta besteratuten dira. Lapikoak luzero euki oi dau barritan eban usaiña ta ats ondakiña, diño Oraziok (ep. 2).

Likurgok, erakusteko Lazedemoniak zeritxen gizon batzuei zeñ indar andia eukan usadio ta ekandu batek, artu zituen txakurkume gazte bi ama batenak ta sabelaldi bateko bikotxak. Atarik bata, azi eban beti etxe barruan, subate, ezkaratza edo sukaldeko plater artean; bestea, barriz, azi eban kanpoan eiza edo kazako txakurrakaz batera. Enda gero andi egin zirianeanean, eroan zituzan esturik biak gizon aen aurrera; ta an askatu ta larga zituzan; ta largatzeaz bat batean, egotzi ta bota eutsen euren aurrera erbi bat ta aragi zati bat. Eiza edo kazan oitua bertatik abiatu zan erbiaren atzean ta jarraian; ta, barriz bestea, subatean aziak esetsi ta oratu eutsan aragi zati puskari. Gero zirautsen aurrean begira zegoanai: begira emen ta ikusi begie, Jaunak, zer egiten daben ekandu batek, zein indar andia dauken lenengotik artzen dirian oiturak, jarraiteak, usadioak, azierak ta asierak. Ara zelan txakur oneetatik batakin egin eutsan aragi zatia-ri, atara ekandaturik azi zalako; ta besteak jarraitu eutsan eizari, erbiari. Agaitik diño Espiritu Santuak (Eccli. 7): Semeak badozuz, eskolatu, dotri-natu ta irakasi egiezue txikitatik; ezi ta azi egizuz ondo seintxoak dirane-



tik. Zerren bein andi eginik, nekez ezi, eskuratu ta zeure agindura ta esanera ekarri ta ekanduko dozuz.

2 §.

Denpora luzean bekatuan egoteaz ta ekandutuaz, beste kalterik ezpaletor bere ezpada artzea ekandua, oitura ta aztura txarra, ori berori izan bear liteke asko ta lar bekatuan egotetik gordeteko ta len bait len bide onean ifini eragiteko. Bada, ain indar andia dauko usadio batek eze diño San Juan Krisostomok: Judeguak ugaritasun andiaz euken Mana zeritxan Zeru-janaria on gozoa, baña ain dau indar andia usantzak ta oiturak, eze etorri zirian esatera au baño gurago zituezala Ejitoko kipullak ta berakatzak ta aek jatera biurtu gura ebela. Eta agaitik diño Sn. Agustinek (in Enchirid. cap. 8 tom. 3): Bekatuak andiak ta izugarriak izan arren arinak, txikiak ta ezerezkeria bat iruditen jakoz aetan usatu, oitu ta ekanduten danari; ain ezerezkeria eze gero, andik ara gurago dituz estaldu ta ezkuta-tu baño, agertu, agiritu, kanporatu ta zabaldu.

Errege Dabidi, erregetu baño len emon eutsezanean Saul Erregearen armak ezin geiagoan onak bazirian bere, on baño kalte geiago egin eutsen, lotu ta eragozten eutsen, ezin ibilli zan eurekaz. Zergaitize ordugino beti Arzai ibillizan, ez egoan oraindiño armetara eginik.

Eta alan larga zituen, esaten ebala (2 Reg. 5): arma oneekaz ni ezin ibilli nindeke, zerren onetara eginik ez nago. Indazue onda mendel lokarri bat arri batzukaz: onetan egiña ta usatua nago; itxozue gitxi bat, ze nik egingo dot oneekaz neure eginbidea. Eta alan egin bere eban. Bada lenengo arriaz joeban bekokiendian Goliat gizatotzar arerio kubrela, josi eutsan lazkiro ta bota eban lurrera. Baña gero andik denpora gitxi barru egin zan Dabid alako soldadu famatua ta armatara usatua, egiña ta oitua, eze egun baten armarik baga, Saulen igesi joiala, artu eban Goliat andiaren ezpata andia, esaten ebala, etzala munduan beretzat alangorik, ez berak gurago ebanik. Zer adierazo gura dau onek? Len Saulen armak txikiagoak ta arinagoak izanik, anditzat ta pisutsutzat itxi zituan; ta orain Goliat andi batenak iruditen jakaz txiki arinak? Bai. Zerren len etzan usatua, etzan armetara egiña; baño gero egin zan, usatu zan, oitu, ekandutu zan; eta atara egiteak, oituteak, usatuteak len gatx zana erraztu eutsan. Bada, bein atara egiñari lan bear nekeak bere ez jakaz neke iruditzen, ez-titu ainbeste sentitzen; eta ez sentitzeko, eskuetako azala bere loditu, gogortu, sor-gortuten jako. Alakoari ez jakaz ain laster eskuetan sarna

pustilla edo narru-puxigak egiten; ta ez jakan aragiak eten ta eraziten. Bada San Juan Krisostomok diñon legez (hom. 3 depoenit, tom. 3): indar andia dauko usadioak, alan onean, zelan gaistoan. Eta diño San Jeronimok (ad Celantium): bekatuen ekandu deungeak gatx ta aldas gora egiten dau bertutearen bidea. Baña baldin a ekandua biurtu bada beste aldera, gaistotasunetik ontasunera, bertutearen bidea idoroko da leun, zelai, erraz ta geure atsegin ta erara. Eskribitzen ikasten asiten zareanean ezin mugitu dozuz atzak, lotuak legez dozuz. Zerren eztagoz atara egiñak. Baña gero bere usatu ta oituten dira, adiña eze, azkenean beste aldera begira zagozala bere, letren erdiak eskribituko dozuz. Alan ikusiko dozu dendari baten etxean bere, jostun onak abiadura andian prest ta laster ta ondo josten dau. Baña ikas-barriak astiro, geldiro, kontatuaz legez daroaz puntadak, josketak, zerren eztago Maixua legez gai, usaturik, egiñik ta aurreraturik. Agaitik diño Aristotelesek (lib. 2 ethic.): ez beingoaz, ezpada sarri ta askotan erago ta ekinteaz egiten da oitura, usua ta ekandua; ta bein artu ezkerro usadio bat, bein ondo ikasi ezkerro, gauza asko egiten dira gogoa ta borondatea beragan ifini ez arren, diñonez Sn. Juan Krisostomok (hom. 10, tom. 3). Askotan, atan gitxi pensatu arren, ziñatuten zara. Askotan, zer diñozun eztakizula, ezarten dozuz erneguak, juramentuak, biraoak ta aienak. Askotan, beste aldera begira zagozala, darabiltzuz eskuko atzak soñu-egiteko. Eta onek guztiok dira ekandu ta usadioaren jokoak, kolpeak ta tornuak.

Presondegian edo Karzelan sartzen zaituenean, sartu barri atan usain txarra, atsa ta kiratsa asmetan dozu, erraiak nastuten jatuz, sentikor zara. Baña gero, bein atara egiñik, surrak denpora luzean aek kirats atsituak arturik ta beterik erabillirik, sortuten zara, atara egiten zara, ondo deritxazu.

Egin zaite goxean gox jagiten ta ordu atan irazarriko zara. Egin zaite asko jaten ta edaten ta beti alan gurako dozu. Abereak eurak bere eztabe itxi gura lenengo etxe usatua, eztabe igaro gura len egon dirian ostatueta-tik ta tokitik aurrera. Ain indar andi dau usantzak, eze diño San Agustinek (3 fort. disp. 2 tom. 6): Askotan, ezaguturik obe litekela itxitea, ausitea ta aztutea darabilgun ekandua, eztozu orrez guztiaz largatzen ez austen, zergaitik ze aldats gora, neke ta gatx egiten jaku kendu ta itxitea a ekandua, oitura ta usadioa. Zer gura dozu geiago? Bada, esan oi da, ta egiaz, txikitatik meneno edo edena jatera egin dana gero pozoiaz edo edenaz azi ta mantendu litekela.



3 §.

Bada, baldin orren indar, al ta irmetasun andia badauko usadioak, zer egingo dau gaztetatik zartasunera giño bekatuan zarturik ta usaturik dagoan baten? Zelan itxiko dau zartzaroan gaztetan artu eban ekandua? Bildur nas itxiko eztabela. Bada San Juan Krisostomok diñoalez (hom. 32 tom. 2): ekandu urte askotakoa, griña zartua, zaori ta gaixotasun luzea ezta bertatiko sendagarriaz osatuten, ezta bein bateko bisiteaz sendatuten ta ez ain laster lengo egokera ta estadura biurtzen. Bada, zelan gaixotasun andiak osatu ezker bere itxiten dituan bere ostean errastuak, ondokoak, enparauak ta ondorengo ondakiñak, alan denpora luzean bekatuetan ego-teak itxiten dituz bere ondorengo oñatza gaistoak. Jeremias Profetak diño (cap. 13): Moroen erriko Moro baltzak bere narru baltza ta Katamotzak bere kolore nabarrak aldegin, itxi ta kenduten dituenan aldatu, itxi ta mugitu ditiu bekatari gaisto batek bere bere ekandu deungak, gaistake-riak ta bekatuak.

Alan ikusiko dozu gazte denporan jarraitu deutenari bekatu bati, oni beroni darraiola zarreran bere, ezer ezin dabenean ere, gogoaz, ber-baz atsegin arteaz baño ezpada bere. Bada San Agustinek diñoanez (de vit. eremit. ad sororem cap. 28, tom. 10): Zar gaistoak zartua gaitik bere, badau gogoa, indarra falta jako. Aoa doi doi, ozta, nekez idigiten dozu ta orrez guztiaz erneguak, biraoak ta juramentuak ezarten dozuz. Gorputza urteakaz astundurik ta makurturik ezin jaso dozu, baño alanbere berba ezeak, arinak, loiak ta zikiñak esan oi dozuz. Azkenez, len zetan jarraitu dozun, atan gero bere amesetan ta irazarririk bere idoroten zara. Eta zek egiten dau au? Usantzak, ekanduak: gaztetan alan egin ta jarraitu zenduan, ta gero usadioa bera azurretagiño sartu jatzu. Eta zelan zartu arren azur-rak gelditu jatzuzan, alan gelditu, oratu ta eransi jatzuz andik sortzen dirian mugidak, abiadurak, bizioak ta grina txar gaisto guztiak. Alan diño Job santuak: gaistoaren azurrak beteko dira gazte denporako bekatuz ta aekaz batera lurrean bere lo egingo dabe, eztabe beinbere itxiko. Bada San Gregoriok diñon legez (lib. 5 cap. 15 moral.): ekanduzko bekatuak jarrai-tu oi deutse bakotxari eriotza giño ta lur barruan sartu artegiño; eztabe ordura artean, ta ez an bere, geienetan itxiten.

Jangoikoak gorde zaizala usadio txar batek zugan ostatu artzetik ta usadio au ekandu biurtzetik. Bada dan legez etika deituten dan gaixotasun bat denpora luzero kalentura edo sugar luzeaz ta gitxi gitxika azur barrue-tan sartuteaz egiten dana; ta gaixotasun onek eztauko sendakizunik, mila-groz edo ezpada; ta izatekoz bere guztiz luzero; onela da denpora luzeaz

gogoan ta biotz barruan sarturik dagoan ekandu gaisto txarra bere. Au da etika txar zar sartua, atera ta osatuten gatx dana. Eta onelakoa gaitik diño San Agustinek (serm. 44 de verb. Dñi.): Sepulturako lur barruan sartua ta lurpetua dagoala; eta ganeko arri estalgia, jagiten ta arnasa artuten itxiten ezteutsana, usadio deungea dala.

Au berau emon eban aditzera gure Salbatzalleak berak Lazaro, lau eguneko il kirastua, zispuru ta sentimentu asko eginik biztu ebanean. Beste guztiak erraz ta atsegintasunaz zegoala biztu zituan; baño Lazaro irudiz nekez. Adietan emoteko zein gatx dan denpora luzean bekatuan usatua, ekandutua, oitua, usteldua, kirastua ta atsitua dagoan bekataria osatutea, sendatutea ta ondutea. Alakoa, atara elduten dana, Lazaro kirastua legez da: Jangoikoaren poderio al andiaz baxen, ezin erremedia ditekena.

Errazoi guzti onek adierazoten dabe gerotik gerora ibilteaz artzen dala ekanduzko usanza gaisto; eta usadio au, orioa oialean legez, sartzen dala gogoan ta biotz barruan. Eta dala engañamentu andia ta gure galdu-garria esatea gero onduko nas, gero obetuko nas, gero bide onean jarriko nas. Zerren geroaren ondoan gurako dozu beste gero luzeago bat. Eta, alan, gerotik gerora zabiltzala, usadioaz batean, jazo oi dana, eriotzeak artu ta azken txarra eukiko dozu.



8. BURUA

Zelan ekandu gaistoak gogortzen ta ardurabagetuten daben bekataria.

1 §.

Gauza deungea ta pelligruzkoa da, oraindiño esanik doian legez, bekatuetan egoteaz, irauteaz, jarraitzeaz artuten dan oitura, ekandua, usadioa. Baña orandiño deungago ta pelligruzkoago da usanza onen osteko ondo: azi atatik sortu, erne, jaio ta datorren garaua, ak emoten daben frutua, zeñ dan bekatuan itsututea, sor-gortutea, gaistoagotutea, ez larritu, ez arduratutea eta lotsea, ondrea ta prestutasun guztia galdurik, deungero egiñaz preziatutea, olguratutea ta gala ta banidade egitea.

Inguruan jira biran dabiltz gaistoak, diño Dabid Erregeak (Psal. 11): Babiltz, baña inguruka, probetxu baga, beti lengo lekura biurtzen diriala. Alan dabillenak egiten daben irabazi guztia da lurra oñazpitutea, estututea, zapaldutea, gogortutea. Eta, zenbat eta geiago dabilan ainbat zapalduago ta gogorrigo egiten dau lurra. Onelan, bekatariak bere bekatuan ibilteaz, usatuaz, sarrituaz gogortzen dau bere konzienzia, malluak gabiak jungudea gogortzen daben legez.

Adietan emoten dau Eskritura Santuak, umerriak, aumeak auzkumeak legez diriala gaistoak ta azkeneko egunean azkeneko aldean ifiniko dituela Jangoikoak (Math. 23). Auzkumea, gaztea dan artean, ona da jateko, samur dago, bigun dago; baña galduten dau adinak: gero ta gero doa galduaz, gogortuaz, zalduaz. Adinak, urteak aumea egiten dabe aker.

Bekatariak lenengoan, bekatu gitxi daukenean, dirudi oraindiño zer-bait balio dabela, samur dagoan lekutik, bigun dagoan zatitik atal, parte onik ta gozorik badabela. Eta, alan, orduan sermoiakaz, adibide onakaz, gaixotasunaz, bere lagunak ilten jakozala ikusteaz, trumoiak eta onelako beste era askotara ikaratuten da, minduten da, sentikor egiten da ta lotsaturik bere buruaz, etorkizunaz gogoratuten asten da. Baña bekatuz bete ezker, ekandu oiturazkoa artu ezker, usatu ta atara egin ezker, zartu ezker, gaistoten da, deungagotuten da, txartuten da eta ardura bagea egiten da eta aldez angeru gaistoakaz bardindu ta paretsu egiten da, aen antza artuten dau.

Angeruak bere adimentuz erdetsi al eban guztia, ez guk legez apurka, gitxika, zatika ta pensatuz, ezpada beingoan bat batean, batera ta osoro erdetsi edo alkanzatu eban; lenengoan artu eban bideari darroio beti ta jarraituko deutso betiko iraute guztian. Bein makurtu ezker alde batera, ezin zuzendu liteke bestera, ez atzera biurtu. Eta alan jazoten jaku guri bere ilten gareanean. Bada San Juan Damazenok diñoanez (lib. 2 orth. fid.): Angeruetan bekatuak egin ebana, egiten dau guban bere erio-tzeak. Oneek bekatu egin ezker ez euen erremediorik, ez eta guk bere bekatu mortal edo eriozkoan illezker. Bada, Angeru gaisto edo deabruen egotaldira urtuten gara gu bere, bekatu eriozkoa eginik, bekatuetan gogortzera, itsututera ta ez minik ta larritasunik, ez ardurarik artzera gatzanean. Angeru gaistoa beingoan galdu ta gogortu zan betiko; alan bada, gu bere, ez beingoan baña bai askotan ta bekatu asko eginenez eta eurotan usatuaz ta ekandutuaz, galdu ta gogortzen gara.

Eta alako bekatua gogortuz gerozkoa deituten da Espiritu Santuaren kontrako bekatua dala. Zerren artaraz gero maliziazkoa da. Eta zelan argaltasunez egiten dan bekatua esaten dan, Aitaren kontra dala; eta jakinezaz edo ignoranzia egiten dana, Semearen kontra dala; alan maliziaz, gaistakeriaz ta deungetasunez egiten dana bere esaten da Espiritu Santuaren kontra dala. Eta bekatu au da ain pelligruzkoa ta ikaragarria eze itanduten dau Sto. Tomasek (22 q. 4 et sep., q. 14, ar. 3): Ea parkakizun, parkagarri danez; parka al litekeanez. Eta lenengo eranzuten da: beintzat merezitez dan aldetik, eztabela parkaziñorik merezi, maliziazkoa, gaistotasunezkoa dalako. Bigarren eranzuten dau, maliziazkoa ezker, eztabala berez ta bere egitez, parkakizunetarikoa. Bada oi dirian legez gaixotasun batzuk ain andiak, gorputz guztia argaldurik, maskarturik, jausia, adore bagea ta ezindua ifinten dabenak ta gaixoari ain eranziak, oratuak ta eutsiak egiten jakozanak, non bere izatez ta egitez eztaben erremediorik, eztirean osagarriak, sendakizunak: Alan gaisto okerraren, gogortuaren, itsutuaren, ardura bagearen bekatua gatxa, gaixotasuna bere ain da andia, non beradanez berez ezta osagarria, ez parkagarria. Zerren osatuteko, sendatu ta sendotuteko, parkatuteko bear dirian sendagaiak, osagarriak, bitartetasunak berak bere erruz, maliziaz ta borondate gaistoz, bere nairguraz ta jakinen ganean itxiten dituz probetxu baga igarotera ta galtzera. Eta, alan, alango bekatua Espiritu Santuaren kontrakoa dana gaitik diño San Mateok (12), eztabala parkatuko mundu onetan, ez bestean.

Egia da, izanik Jangoikoaren miserikordia ta ontasuna neurri bagea, mugarik eztabena, jazoten da, alako bekatuak bere batzuetan parkatuten dituela. Baña, Santo Tomasek diñon legez (*ubi supra*), ez sarri, ez ugarita-



sunaz, ez askotan, ezpada gitxitan, milagroez legez. Eta esaten danean alako bekatua ez tala parkatuko, aditzen da ez tala parkatu, ez Jangoikoak eziñ parkatu leielako, edo batzuetan parkatuten ez tabelleko, ezpada gitxitan, meatz, ozta, nekez ta gatx parketan dituelako; bai ta, zerren maliziazkoa dan ta ez argaltasunekoa, eztabe alakoak berez parkamenik merezi.

2 §.

Itanduten dabe Teologoak ea zegaitik deituten dirian bekatari batzuk besten artean gogortuak, itsutuak ta Jangoikoak berak bere larga itxiak? Eta Jangoikoaren aldetik danez, ezta erraz jakitea, ezta erraz errazoia emotea ta idorotea. Bada Jangoiko maiteak alan bekatuan gogortuak, zein ganeko bekatari guztiai emoten deutsez mundu onetan dirauen artean salbetako ta bekatutik jagiteko bear dituezan graziak, argiak, laguntza, eskerak ta mesedeak. Aren aldetik da bear dana, ezta ezer falta, ezta utsik eskasik, urritasunik. Jangoikoak eguzki argi ederra legez, argi ta on egiten deutse onai ta deungai (Mat. 5). Eta San Pablok diñoanez (2 Timot. 2), guztiak salba ditezen gura dau; guztiai dei egiten deutsez; guztien biotzetan dago ate-joka, guztiai biotz-kisketadak biraltzen deutsez ta gura dau idigi dagion, diño Sn, Joanek (Apocal. 3).

Baña, orrez guztiaz, leku askotan Eskritura Santeak diñoan legez (Exod. 4, Roman. 9, Ysai. 6), bekatari batzuk, besten artean dirian legez gogortuak, itsutuak, Jangoikoak largarik legez bizi dirianak ta beragaitik Jangoikoak berak faraon legez sor-gortu ta itsututen dituenak: dirudi bear litekela Jangoikoaren aldetik billatu ta emon onetara dakartzen errazoi, kausa ta bidea. Eta idoroteko jakin bear dozue eze dakusenean gure Jangoikoak bekatuan jausirik ta sarturik gagozala, bide ta era askotara baliatzen dala guk bekatutik ateratzeko; maña ta traza askoz baliatzen dala, gu bide onean ifinteko. Zelan geure borondatearen jabe garean ta geure eskuan daukegun; zelan nai badogu baietz ta gura ezpadogu ezetz esateko libre gagozan, gure borondate libre onen erara ezertan bere eragotzi baga, deitu ta gakarz Jangoikoak beragana. Eta, geienetan, lenengo aldian ezteusku dedar ta indar andiaz deituten, San Pablori deitu eutsan legez. Baña dei egiten deusku gitxika, bigun, gozoro, maiñaz, konzienzia saminduaz, gaixotasuna biralduaz, Predikarien esatea kaz ta beste makina bat era ta moldez. Eta, onela, lenengo deituten deuskunean eranzuten badeutsegu, zur zoli irazarriak prest bagagoz, beraganduten abiatuten bagara, gero bigarren aldian biziago, sendoago, indartsuago deituten

deusku; eta onela irugarrenean, ganerakoan ta andik atxina edo aurrera. Alakoz eze, non azkenean osoro ta alde guztietan barrutik ta kanpotik deiturik ta mesedetarik bere grazian ta adiskidetasun zoriekoan ifinten gaituz geure erru ta deungetasun guztiak parkaturik. Baña lenengo deiera esker ta mesede gozo maiteaz konturik egiten ezpadogu, ez jaramon ta enzun-gor egiten badogu, eurokaz baliatuten ezpagara, biotz onaz ondo artzen ezpadoguz, biurtzen bada bere oraindiño barriz Jangoikoa lenengo mesedetara euretara; ta oraindo orduan deitzen bagaitu bere asko dan beste; eta aurrerako prestik badago bere, beste orrenbeste dei ta mesede egiteko edozein bekatari danik gaistoeneri; ez baña orduan, ezta komuniki aurrerago igaroten. Esan gura dot, len legez bai, baña ezkaituela orduan len baño indartsuago ta sendoago deituten ta mesedetuten. Eta au gure faltaz ta erruz.

Alan diño Jakintsu batek: Ezteusku emoten grazia bere gañezkoak, goi goituak ta eragingille andikoak, eztozuzalako ondo artuten komunak edo guztirokoak, guztientzakoak. Kenduten deusku bigarrenak, deungero usatzen doguzalako lenengoak. Zerren gauza txikian ta gitxian leiala ta prestua danari ondo emon dakikioz lan ardurazkoak ta andiak. Gauza gitxian kontuzkoa, fidela zinialako, sartu zaite Zeruko gloria andi bete gozoan, diño Jesusek (Mat. 25). Dirudi, bestetik, leiala ta esker onekoa eztanari emon jakona bere kendu bear lekikiola. Ondo merezi ta egiña da, aurrengo mesede txikiaz konturik egiten eztabenari eztaiozan emon andiak. Gureak dira erruak. Bada San Agustinek diñoenez (serm. 88 de tempor.): Eztau beinbere Jangoikoak itxiten gizona, baldin gizonak lenik larga ta itxiten ezpadau Jangoikoa. Mesede komunak, guztientzakoak ta berez asko dirianak emoten deutsez bekatari gogortuak, gaistoeneri bere, baña ez bere ganekoak, eragingilleak, oi-ezak. Eta agiri da ezetz. Bada zelan doian asko graziatik graziara, laguntzatik laguntzera ta mesedetik mesedera, grazia ta mesede euren ganezkoak oi dirianak baño andiangoak dituenak, bertati lenengo ukutuaz sentikortuten dira, abiatu ta mugituten dira, bide onean jarten dira. Edo beintzat badabe euren barruan atsekaba bat, konzienziaren lotsatasun, mintasun, erretasun andi bat ta ain andia eze ezin ondo euren bekatuetan egon, ez sosega dira. Baña mesede ta bitartetasun onen gañezkorik, komunak ta oi dirianak baño andiagorik ez dabenak eztabe alako konzienziako lotsatasunik, biotz-kisketadarik, bildur ikara andirik izaten. Lenago bai sosegatuak, epe ta presona seguruak legez dagoz, ta alan egotea da euren atsegin guztia. Alan diño, alangoakaz berba egiten dabela, Espiritu Santuak (Prov. 2): Deungero egitean ta egin ostean, guztietan atsegintasuna artzen dabe, atan poztuten dira. Beste



bein diño (Ibi. 18): Gaistoak bekatuen oxin ondarrera sartu ezkeru ta aetara luzero egin ta ekandutu ezkeru, ez dau ardurarik, konturik, bildurrik; ganeko gaistakeriak ezerekeria bat legez egiten dituz. Job santuak bere dino (cap. 15): presona egartsuak ur otza legez, edan ta irunsiten dituez bekatuak. Esan gura dau, erraz, ardura бага ta artan atsegin artzen dabela. Alakoai, dirian legez Jangoikoaren arerioak ta areriorik andienak, ezteutse emoten bere adiskideai edo arerio txikiago dirianai emon oi deutezan irazartasunak, zolitasunak, barruko dei ta berotasunak ta beste argi esker ta mesede ixil ezkutatu batzuk. Eta oneek ez emonik, eurak euren erruz itsutu, gogortu, nasaitu, zabartuten dira. Alan dino San Agustinek, faraonez berba egiten dabela (Serm. 88 de temp.): Jangoikoak bekataria larga ta itxitea, itsututea ta gogortutea ezta ez Jangoikoak berak a itsumen ta gogortasuna emotea ta ifintea. Baña da Jangoikoak ez argitutea, ez beratu, bigundu ta samurtutea, ta mesede bizi andi ganezkoakaz, bekatariak berak alan bere zorigatzez mereziturik, ez emotea; ta beragaitik alan itsu sor gor gogorturik itxitea. Onela aditu bear da ta au da Jangoikoaren aldetik emon al liteken errazoia zegaitik esaten dan, bekatari batzuk besten artean diriala itsuak, gogortuak ta Jangoikoak itsutu ta gogortuten dituela. Esan gura dau bigarren mesede andiak bere eskuz esteutsezala emoten ta itsu ta gogor ditezen permiti edo laketuten dabela.

3 §.

Zergaitik esaten dan, bekatari batzuk besten aldean diriala itsutuak, gogortuak ta Jangoikoak berak bere itxiak, bago gure aldetik bere errazoi bat, oraindiño argiago ta adietan errazagoa: ta da bekatariak bere bekatuetan luzero irautea, jarraitutea, ekandututea, oitutea ta egotea. Andik, alan egotetik itsutu, argibagetu, ilundu ta gogortuten da bekataria. Andik onera baño, gaistotasunera jausiago, makurtuago ta emonago geldituten da. Andik sustraiak egiten dituz. Azkenez, andik bekatua beretu ta beraganduten dau, jan ta edan бага baño geiago, bekaturik egin бага ezin egon litekela irudituten jakola.

Egiten dozu gaur bekatu bat, ta bekatu onezaz gomutetan zara arratsean, lotsatuten zaitu zeure konzienziak. Egiten dozu biar beste bat ta orduan bere gogoratuten jatzu. Baña gaur baño biar gitxiago gomutetan zara. Lenengoan sentikor, ta geroago gitxiago. Lenengo bekatua egiten dozunean, bildur zara, bigarrenean bere bai, baña lenengoan baño gitxiago. Eta ainbat egiten zara bekatua, ainbeste darroiozu ze alde guztitik bil-

durra galduten deutzazu: atara egiña, usatua ta oitua legez atan gozatu, poztuten zara; ta andik ara bapere ezpazendu baño geiago eztozu jaramoten, ez konturik egiten. Bekatu bat baño eztaukena mintsu da, sentikor da, bildur da, ezin sosega diteke; baña eun dituenak, bekatua bekatuari batu ta eransirik, bekatuz beterik dagoanak ez dau ardurarik, ez sentimendurik, ez bildurrik, ez konturik. Zerren usatuaz, oitua, ekandutuaz batean, itsutua, gogortua, ganora bakoa ta sustraiak eginik, bekatuetan barrurago, zakonago, ondatuago ta sartuago geldituten da.

Gizon batek, bere erritik kanpora, Indietara edo beste leku urrin batera urteten dabenan ta oraindiño bere erri urrearen inguruan, ondoan danean, sarri begiratuten dau atzera bere erriko mendietara. Baña aurrera igaro ezkeru, bere erria ta erriko lurak begiz galdu ezkeru, biurto ta itzultzen da beste aldera, joan bear daben ta doian leku atara; eta an bere begiak ta gogoa ifinten ditu. Bada au berau jazoten jako len ona ta Jangoikotarra izanik, aspaldi baten bekatu бага egonik, bekatu egitera abiatu, prestatu ta doianari. Abiadura ta asiera barri atan sarri askotan begiratuten dau atzera, itxi daben erri on prestu maiterari; agaz gogoratu ta gomutaturik, emoten ditu zizpuruak ta arrauziak, artzen dau bere biotzean tristura ta naibagea. Baña bekatuetan aurrera igaro ezkeru, lenago aztura, oitura, ekandu ta egite onak begi-ikustetik galdu, igaro ezkeru, gogotik larga ezkeru, bere gogo ta asmo ta biotz guztia ifinten dau orduan darabiltzen bekatuetan ta atseginetan. Eta andik ara, ezta lengo erria ta bizitzeaz konturik egiten; urrin, asago dago; oraingoak daroioz bere gogoa, zenzunak, almenak ta dan guztia.

4 §.

Bekatu bat egiten dozunean gaixotuten da Arimea: bi egiten dozunean gaixoagotuten da; ta asko eginez, atara egin, ekanduten zareanean ta ekanduturik, ekandutua legez, aetan goza ta poztuten zareanean orduan gaixoago zagoz, orduan urrinego dabil Arimea. Eta alangoak ez adibide onez, ez Predikarien esatez, ez bere lagunak ilten jakazala ikusteaz, ez beste onelako beste gauzaz, ezta konturik egiten, ezta jaramoten, ez onik ateretan, kaltea baxen.

Alakoari jazoten jako Jangoikoaz, gaixo bati Medikua gerta oi jakona. Mediku Osagillak emoten deutso gaixoari edari bat, purga bat; berez, bere egitez, beragan danez ona ta gaixotasunari ondo dagokana. Baña purga ona izana gaitik, gaixotasuna da ain andia ta indartsua, gaixoa ain



dago jausia, argal, maskartua, igaroa ta usteldua, eze ezteutso purgeak bapere onik egiten, gatz baxen. Osagilleak ta osagarriak eztabe errurik. Nogan, bada, dago uts egitea? Barruko gaixotasunean, barruko usteltasun ta prestaera txarrean. Onela bada, gure Jangoikoak Zeruko Mediku Sendagilleak emoten deutsoz bekatari gaixoari edariak, osagaiak, abisuak, deiak, adibide ta era askotako sendagaiak. Baña dirian guztiakaz bere ezta osatuten. Geiago bai orduan gaixoago egiten da, urrinego aldegiten da. Eta nok dau errua? Ez Medikuak, ez Jangoikoak.

Nok bada? Gaixoak berak, bekatariak berak: alde guztiz galdua, loitua, atsitua, kirastua, usteldua ta sustraiak eginik, bekatuz ta ekandu gais-toz beterik egoteak. Eguzkiak beratu ta bigunduten dau argizegia ta gogortu lur lupetza. Eta nondik dator au? Ez Eguzkia beraganik: zerren onek biak bardin berotzen ditu. Baña au dator argizegia ta lurra euren artean banaak izatea ta era biko izatea eukitetik. San Pedrok ta Judasek, biak egin eben bekatu; ta biak deitu zituan Jangoikoak; biai emon eutsen osagarri, bitartetasun, laguntza ta graziarik asko. Eta onez guztiaz, osatu ta ondu zan bata ta ez bestea. Osatu zan San Pedro Jangoikoaren graziaz ta gelditu zan osatu baga Judas, bere eskuz ta borondatez; eta bere gatxa sekula osatuko ezta.

Jangoikoak gorde zagizala bekatua ez sentitzera etortetik, bada alakoai dirautse Jangoikoak berak (Joan 8): zeuroen bekatuan ilgo zara, zerren atan gogortuak ta bildur ikara bageak zagozen. Eta diño Espiritu Santuak: Biotz gogorra dongero izango da bere azkenean.

Baldin itxiko bazendu arri andi bat eskuetarik, nora joango ete liteke, gora ala bera? Seguru da bera joango litekela. Bada Arima galdua ainbeste urtean, arria legez, bekatuan urtetua dagoana ta egongo dana norako da bere azkenean, Jangoikoak bere eskutik larga dagienean? Ezta zer itandu. Zorakeria andia da, arria bera legez, bekatuan dagoana bere ezta-la Infernura jausiko uste izatea. Bada, arria zein pisutsua dan ain pisutsuago da bekatua.

Bada zuk, igaro dirian urte guztietan beinbere ondo konfesatu baga, bekatuan gogorturik ta ardua baga zagozan orrek: zertara etorriko zareala uste dozu? Zelan dozu esperanza, itxaromena salbetako? Eztakizu, mundu onetako aldia dagizunean Infernua zuretzat dagoala? Zu lakoak gaitik esaten dala: jausi zirian arri astun bat legez ondarrera?

Bada onela, ezta gerotik gerora ibilli bear. Ezta denpora luzean bekatuan irau ta egon bear. Zerren a egotea da gure zorigaistoko galdugarria, ondamentia. Andik erne, sortu, jaioten da usadioa: usantzatik eder-eretxitea; eder-eretxitik bildurra galtzera; bildur ta ardurea galdutetik ez sen-

titzea; ez sentietarik itsututea, gogortutea; ta, azkenean, lotsea galdurik, atan preziatutea, poztutea eta baneria ta atsegiña eretxitea. Eta andik ara, gerorengo agaz konturik ez eginik, deungero dago, urrin dago, illaren antzekoa egiten da.



9. BURUA

*Gerotik gerora gabiltzala,
bete diteke bekatuen neurria ta osotu kontua.*

1 §.

Diño Salomonek, Jangoikoaz berba egiten dabela (Sap. 11): Jauna, zure gobernu ta ordenamentua ain da andia eta ain aurretik prestatu, eldu ta zabalduen da, ze munduko gauza guztiak kontuan, pisuan ta neurrian egiten dozuz. Pisua ta balanza dira Jaunaren juizioak, ezkutapenak ta sentenziak (Eccl. 11). Ez da gitxituterik, ez geiagotuterik; ezta lar geieirik, ez eskas laburrik; ezta jakinezik, ez ezneban usterik. Guztiak dakus, guztiak dakiz, ta guztiak berak bere eskuz, bere borondateaz batera, bear dan legez zuzendu ta disponduten dituz. Ain artez, zuzen, banaka, era on, ziur ta men daki Jangoikoak gauza guztien barria eze, gure buruko ulleak bere kontatuak ta neurtuak dituz; ta ez jatzu batxo bere ak jakin baga galduten, askatuten, ez jausten. Baita baki zenbatera elduko dan Zerura edo Infernura joan dirianean neurria. Eta berak bakarrik daki, ta ez bestek. Dau guztien kontua ta neurria, ta neurri ziur segurua. Alan diño ta irakasten dau Sto. Tomas Elexako Dotore ta argi argitariak (1 p. q. 2, art. 2).

Bekatuak ta bekatuzko obrak badoguz geure geureak ta geuk egiñak; alakoze eze, diño Jangoikoak Oseas Profeta S.aren aotik (cap. 13): Israel — au da kristiñaua— zeure galdutea zeuk zeuganik dozu, ondu ta obetutea barriz niganik. Bekatua zeurea da, parkaziñoa enea.

Baña orrez guztiaz, baki Jangoikoak gure bekatu guztien barria ta neurria; baki zenbat egingo doguzen ta zenbategiño itxadongo deuskun. Alan irakasten dau San Agustinek (lib. vit. Christian. tom. 9): Jakin daigun gauza bat, diño, eta da, itxadoten deusela bakotxari Jangoikoaren pazienziak bere bekatuen neurria bete artean, kontua kunpli arteraño; ta au kunpli, bete ezker eztabela geiago itxadoten, ezta itxaromen ez parkaziño-rik zer erdetsirik. Baki Jangoikoak zenbatera elduko dan gure bekatuen muga, marra, neurria ta kontua; eta bai ze andiak ta zelangoak izango dirian bere. Eta itxiten deusku neurri au betetan, kunpli ta osotuten. Erabagirik dauko onenbeste giño itxadongo deuskula. Permitti, larga ta laketuten dau eun edo berreun bekatu egin dagiguzan; edo gitxiago edo

geiago, berak daki zenbat: muga ifinirik dauko; ta ezta gura andik atxina edo aurrera igaro gaitezen. Job S. aotik emoten dau onen adieranza bat esanik (Job 38): Inguratu neban Itxaso neure mugez ta mugarriz; ifini neutsan ate-sarrallea ta esan neutsan: onegiño, kostaraiño etorriko zara ta ez aurrerago; emen geldituko zara, emen ausi eta istanda ta irardausiko dozuz zeure ekatxak, bitzak, bagak, olatu arro andituak. Itxasoak aserre danean, aldi txarra dabenean, goi-berak dituenean, dirudi ta esan lei ito, ondatu ta irunsi gura dabela mundua. Orduan alako moldez irakiten dau non, baldin bridarik ta lokarrik ezpaleu, Jaunaren agintaritzaren bean ta azpian ezpalego, lur guztia estalduko leuke. Baña Jeremias Profeteak diñon legez (cap. 5): Bauko Itxasoak bere marra, bere mugarri jakina, zein dan kosta ta kostako area ta lurra. Emen austen da, emen geldituten da, emen, arro soberbiatsua bada bere, baketu ta sosegatzen da.

Bada, Itxasoari legez ifini deutso Jangoikoak gizonari bere beragan danez bere neurria; neurtu ta señalatu deutso nogiño izango dan bere eldutea, bere muga, marra ta neurria. Eta gura baleu bere, ezin atarik aurrera joan ta igaro liteke. Abiatu liteke, gura izan lei, baña alperrik. Zerren gizonak libertade ta baimena gura badau ondo edo deungero egiteko euki arren; ezator ez andik, ezpada bekatuak bere borondatez ta nai-guraz egiten dituela, baña ez gura dituzan bekatu guztiak egin leikezala eta ez libertade ta gura izate ari, gura daben guztia iraunerazo al leiola. Zerren libertade onen agintaria ta nagusia da Jangoikoa. Berak libertade oni ta onen iraupenari, gitxien uste dabenean bekatariak, indarrrik egin baga, itxi eragiten deutso, artu ta daroian bide gaistoari. Asko estu dau edo lotuten dau beretu batez aurrerago. Eta alan ikusiko dozuz jende batzuk neurria beteteaz kontu gitxi eginik, bekatuak bekatuen ganean ardura baga egiten dituela; eta ain zin zinez ta borondatez, eze iruditzen jake ya an diriala ta ara eldutea ezerk ezin eragotziko ta atzeratuko leizela. Baña ikusiko dozuz alanbere, nos eta gogo egiazkoagoa atan ifini ta atara prestatu ta abiatuten dirianean, ordu berean, dala gaixotasunez, dala jausteaz, dala eriotzeak arturik, bere bekatua egiteko gogoaz, bide erdian geldituten diriala. Alan jazoko jakon Faraon Erregeari: Israeleko Semeen kontra iños baño gogo andiangoaz joiala, esaten ebala: alkanzatu, atzemon, erdetsiko dodaz, bengatuko nas, apurtuko dodaz, dirianak ezpataren ao zorrozтик igaroko dodaz (Exod. 5). Bada ordu berean, onela berba egiten ebanean, bekatuen neurria bete jakan, kontua osotu ta kunpli jakan, eta berun astuna balitz legez itxasoko ondarrera jausirik, azkendu zituan bere egunak, bere gogo ta asmo uts ero arrotuak.



2 §.

Itxasoko ontzi andiak pisu ta karga andia jasoten dau. Erdi giño beteagaitik, itxas ganean dabilz. Iru laurenak bete arren, oraindo ikusten da, agiri da. Guztia bete dedinean, ondatu ta itoten da, orduan estalduten da. Zerren ezta sobrarik lar geiegirik ganez eragin ezin leionik; ezta bere neurria baño geiago artu ta kabitu leienik. Bada, berberau jazoten jatzu, zure bekatuen kargaz astundurik, zuri bere. Egiten dozuz ogei bekatu mortal edo eriozkoak ta oraindiño bizi zara, itxadoten deutsu Jangoikoak. Egiten dituzuz berrogei ta oraindiñokorren bere itxadoten deutsu. Egiten dozuz irurogei ta, orrez guztiaz bere, pazienza dau, sufritzen zaitu. Egiten dozuz larogei ta orduan betetan da neurria, orduan bete betean dago, orduan ganez egiñik ontzia ondarrera legez, zu bere Infernuko zulora jausi ta ondatuten zara.

Baña eztot ez onetan esan gura itxadoten dabela nola-nai beti Jangoikoak, larogei bekatu egin artean; eztot esan gura eztala ordugiño neurria beteko ta ez orduan bere betetan dala. Bada, izanik asko ta lar bekatu mortal bakar bat Infernura joateko, menturaz asko izango dira bekatu bakar bategaitik an dagozanak, beragaz bakarrik bete zalako neurria. Lapur batzuk lapurkeria asko egin ezkeru urkatuten dituez ta, barriz, beste batzuk bertatik bat egiñik lotuten dituez. Auxe, bada, jazo, gertatzen jake bekatu asko edo gitxigaz Infernura doazanai bere. Batzuei itxadoten deutse Jangoikoak luzero; ta beste batzuei ez ainbeste. Eta zergaitik ez? Danik bekatu mortal txikiena bere egiten, bildur izan gaitezen gaitik; bada beronegaz neurria bete diteke. Eta, alan, diñodanean larogei bekatuaz neurria betetzen dala, bardin esan nei lenengoaz, bigarrenaz edo irugarrenaz bete leitekela. Bada nik bakarrik bardinza onegaz adierazo gura dot badala bekatuetan neurri bat ta aurrera ez igaroteko muga bat, marra bat, kontu bat. Eta lenengo bekatua egitearena bere bai; baño guztiz bere, andik ara urrengoa egiteko bildur izan bear gareala: zerren onegaz, lenengoaz egin eztana, bete liteke neurria.

Eta emetik atera giñei ta ikasi gauza asko. Lenengoa, zu ta ni egiaz zordun gareala geure Jangoikoari. Bada ameneko asko dagoz orain Infernuan, guk oraingiño egin doguzan bekatuak baño gitxiagogaz; ta guk geureak oraño, geiago balira bere, Jangoikoaz batean erremedia giñeiz. Bigarrena, ikasi giñei emetik beti euki bear dogula bildurra ta atzerapena bekatu egiteko: zerren ezta kigu zeñaz zarratu, erabagi, bete, neurtu ta itxiko dan kontua, lenengo egiten dogunaz, ala bigarrenaz. Eta guztien

barruan ikasi giñei ta atera onetarik, zorakeria andia dala guk geure buruan daroaguna ta esan oi doguna: bekatuak itxiten ta obra onak egiten gero asiko gareala. Bada, gogoratu bear genduke badala bekatuetan neurri bat, kontu jakin ziur bat ta guk disponduten dogun gero atara eldu baga, a kontua kunpli diteke ta neurria bete.

Diño Aristotelesek ta oni darraioan filosofariak (2 ex anim. cap. 4, text. 41): Bizi dirian gauza guztiak daukela euren neurria euren anditasunean ta bai txikitasunean bere. Gizona ezin dateke zigarra adiña txikia; ez zigarra bere gizona dun beste andi. Eta bizi dirian gauza guztiak daben legez euren anditasun ta txikitasunean euren puntua, geldiera, para ta neurria, alan dauke euren iraupenean bere euren denporea. Denpora bategiño irau al leie ta ez geiago: andik ara doaz jatsiaz, azkenduaz ta euren indarrean argalduaz. Animalia, abere batzuk geiago irauten dabe besteak baño ta aretxak bere. Baña guztiak dauke euren denpora jakin bat ta neurri bat. Onela bada, dauke bekatuak ta bekatariak bere euren neurria ta kontua, zenbat giño elduko dirian, ta bai denpora bere nos artean irau. Eta au denporau eldu ezkeru, neurria bete ezkeru, eztau Jangoikoak geiago itxadoten. Alan adietan emoten dau Eskritura santeak, esateaz (Esdrae 4, cap. 4): Zoaz ta itandu egiozu seindun dan andreari ea bederatzi ille beteak bete ezkeru euki al lieinez seiña sabelean. Eranzungo deutso ezetz. Ez eta beraz Jangoikoak bere, bekatuen neurria osotu, bete ezkeru, ezin euki lei, bere justizia beragan danez, bere aserrea agertu baga. Eta diño Isaias Profeteak (cap. 38): itxadoten dau Jangoikoak, gugaz misericordia eukiteko; adietan da itxadoten dabela baldin neurria bete ezpada, denporea kunplitu, eldu ezpada. Alan esan ta egin bere eban Jangoikoak berak Noeren denporan arako uriola, urjola, ugolde andiaz mundua ito ta ondatu ebanean (Genes. 6): Bete da lurra gaistakeriaz, gaistotu dira giza-kumeak, bete da maliziaz, ezta bada zer itxadon geiago, ondatu ta galdu daiguzan lurraz batera. Eta alan ondatu ta galdu zituzan zirianak.

Lurraz batera, ziñoan, bada lurra gelditu bazan bere, baño Glosak diñonez (Glos. Lyr. cap. 6 genes.): urjola agaz lurra bere meatua ta argaldua gelditu zan. Gai onetara ezta deungero eldu San Mateo Ebanjelariak ifinten daben bardintza bat (cap. 13), zeñaz baieztuten da bekatuetan legez egite onetan bere neurria bete artean, osotu, zoldu, zoritu ta eldu artean, itxadoten dabela Jangoikoak. Bardintza, irudintza au da era onetara: Gizon batek erein eban bere soloan gari garbi ederra. Baña gero nastugille gaisto batzuk egotzi ta zabaldu eben ganetik azi, lollo ta bedar txarra. Denporaz batean asi zirian azi biak, ona ta deungea, agertzen. Agertu zirianean esan eutsen serbitzariak Nagusiari: Jauna, zuk azi ona ta garbia



erein zenduan zeure solo ta lurrean, baña dakusgu onagaz batera erne, sortu ta jaio dala txarra bere. Gura dozu, bada, joan, atera ta batu daio-gun gaisto a? Ez, eranzuten deutse, eztot ori gura. Itxozue gitxi bat, zago-ze oraindiño; larga egizuez azi biak ona ta txarra azten, anditzen, elduten; ta orduan igitatu, ebagiko dozuez guztiak. Eta onak ardura onaz ta metak kontuz bildurik ta sortan baturik gordeko dozuez ta gaistoak bere alkar-turik surtara botako dozuez. Ez eban gura Ugazabak bere sasoiara, zorita-sunera, mugara ta denporara eldu artean inok ukutu leizen, ez eta eldurik ta eginik gelditi zitezen.

Alan egiten dau bada gure Jangoikoak bere onakaz ta gaistoakaz. Itxadoten deutse guztia zoritu artean, muga ta neurriara eldu artean. Eta gero, orduan, onak bere Gloriara jasoten ditu ta gaistoak sekulako peneta-tara botatzen ditu. Frutuak itxiten dozuz onduten, umaotuten ta bere sasoiara elduten; alan itxiten ditu, bada, Jangoikoak bere onak ontasunean ta gaistoak gaistotasunean elduten ta neurria betetan.

4 §.

Gure Jangoikoak, ikusirik jarraioela gaistakeriari jendeak, esan eban biotz-min andi bateaz, zerren berak gura ez ebana munduko bekatuak erazo eragiten eutsen: Neuk egin neban gizona neuk desegingo, ezindu, bagetu, galduko dot; kenduko dot lurraren ganetik (Genes. 6). Onetarako deitu eutsan Noe zeritxan gizon bati, zein beste zazpi persona bere etxe-tarra kaz idoro zan on ta justua; ta ari esan eutsan: Bete da mundua beka-tuz, maliziaz, ganez egin dau Gaistakeriaz; eta alan erabagi dot guztia urjola bategaz ito ta ondatutea. Baño emon gura deutset astia, epe, den-pora ta bitartea biziteko ta penitentzia egiteko eun ta ogei urte. Bitarte onetan zuk, dirautso Noeri, besteai adierazoteko, zeure etxeakoak salba-tzeko ta animalia, abere ta bizikor guztien bizitzea gelditu dedin, egingo dozu ontzi bat, kaxa, utxa, barku andi bat, esan dirian gauza guztiak artu ta gorde al leikezan bat. Eta alan egin bere eban. Eta an sartu zirianak bizirik salbatu ta iges egin eben ta ez besterik.

Orain emen gogoratu da gauza bat, ontzia egin-eragitearen ganean. Esan eban Jangoikoak itxadongo ebalu eun ta ogei urte. Baña, baldin kon-tua ondo ateretan badogu, idoroko dogu ez ebalu eun urte baño itxadon. Bada, agiri da eze ontzia egiteko mandatua, agindua euki ebanean, Noek bost eun urte zituan ta gero seireunera eldu zanean etorri zan uriolea. Zer esan gura dau onek? Opa, eskiñi, promestu itxadongo ebalu eun ta egei

urte ta ez itxadon eun baño? Non dira ganekoak? Ze eskastasun, ze labur-tasun, ze urritasun da au? Zergaitik eztau bere promesa osoro kunplitu betetan? Eranzuten dau San Juan Krisostomok (hom. 25 in genes. 7, tom. 1): Egia da promestu, eskiñi ta agindu zituzan urteak bete baga biraldu ebalu Jangoikoak uriolea. Eta au izan zan miserikordia santearen seña-le andi bat. Bada, ikusirik geroago bekatu geiago egiten ebela ta aurreran-tzean bere alan jarraituko eutsela; ta itxadoteaz, denpora geiago emoteaz on baño kalte geiago etorriko jakeela, bekatuaren zauriak gordinago, saminduagoko ziriala, loiago egiten zirielu, errukiturik Jangoikoa, pena gitxiago letorkien amoreta gaitik, gitxitu eutsen denporea ta laburtu ogei urtez emon eutsen epea, promesa ta berbea. Alan eranzuten dau San Juan Krisostomo berak. Eta errazoi ona da au. Baña ez nik darraiodan gauzea adietan emoteko. Onetarako idoroten da beste bat San Jeronimo gan ta ene ustez ez deungea (Vid. Jeronim. de ques. hebraic. super hunc loc.). Eta da errazoi: Eskeñi eutsen itxadongo eutsela eun ta ogei urtean, baño ez eban eun baño itxadon, zerren eun ta ogei urtean egin bear zituezan bekatuak, edo egin bear etzituena, eunean egin zituezan, eun urtean neu-rria bete eben. Eta, zelan neurria bete ezkeru ez zegoan zer geiago itxa-don; alan, zelan eurak tematu, porfiatu zirian bekatu egitera ta neurria betetera, erabagi eban Jangoikoak bere eurari bizitzea laburtutea ta ogei urtean denporea urritu ta gitxitutea.

Onetarik atera giñei bear gendukela, bizitzea gaitik baño ezpada bere, bekatu egitetik atzeratu ta onen neurria betetzetik gorde, jagon, iges egin. Alan zirautsen Jeremias Profeteak Judegei: zeuroen buruen arerioak, Jangoikoa gaitik egin gura ezpadozue bere: zegaitik, zeuroen on probe-txua gaitik ta geiago bizitea gaitik bada bere, etzara bekatuetatik gorde-ten? Eztakizue bekatu egiteaz ta onekaz neurria betetuz bizitzea labur-tuten dozuela? Eta, onelan, ilgo zintekezan baño lenago ilgo zareala? Zerren kontua, neurria kunplitu ta bete ezkeru eztago geiago bizitzarik.

Eskeñi, opatu ta agindu eutsan Gure Jangoikoak Abram ta bere ondokoai emongo eutsela Judeako Erreinu ta erri ona. Baña ez eutsen eskeñi ta bertati emon. Eta, zergaitik ez? Eranzuten dau Jangoikoak berak (Genes. 15): Ezteutset berpetatik emoten, oraindo bete ta kunplitu ezti-rialako Amorreo Erri atakoen bekatuak. Onek neurria bete dagienean ta kontua osotu daienean, orduan kenduko deutset aei, ta emon Abran ta arian ondorengoai.

Ez eban irudiz ta ustez alan egin Sodoma ta Gomorra erri bekataria kaz. Onek esan ta bertatik, geiago itxadon baga, Zerutik su ta garra biral-durik erre ta auts biurtu zituan. Zergaitik ze ordurako neurria oso betetu



eben. Eta onen ganean diño San Agustinek (de vit. christian. tom. 9): Ejenplu onegaz adierazoten jaku ta erakutsi argiro bakotxari, bere bekatuak bete dituenen, betetan jakazala bere egunak bere; ordura artean itxadoten jakala ta ez geiago.

Eta, baldin oraindiño esan doguzan gauza guztiok egiak badira, zelanbere dirian egiak: baldin Jangoikoak erabagirik badauko itxadotea, neurria bete artean ta ez geiago, zer uste ete dozu zuk, orain giño buruan ulle dozun baño bekatu egin dozun orrek? Zer dakizu urren egi-ten dozun lenengo bekatuan, zuk zeure neurria beteko dozunez? Kontua konplutuko dozunez? Zer dakizu lenengo egingo dozun bekatuaren begira dagoanez Jangoikoa, zure egunak akabetako ta mundutik ateretako? Ondo gogoratuteko ta beti buruan eukiteko da gai au, gogarte ta puntuau. Baña zuk puntu ta lan onegaz ta beste onelakoaz bere, kontu gitxi eginik, zeure gero zorigaistokora laster zoaz ta betibere gero onduko zareala ta zeure neurria ezjala oraiño bateko esan oi dozu.

Baña zer izango da zure gero ori, etorkizun ori eldu baga, zure bekatuen neurria bere neurri betera eldu badedi? ta zure bizitzea bere akaba badedi?

Gogoraziño au berau, beste baga, asko izan bear leuke ez geiago gerotik gerora ibilteko; eta bai, beintzat, bekatu bat egitera zoazanean, a egitetik iges egiteko, gorde ta atzeratuteko. Bada, gogoratu bear zenduke egitera zoazan bekatu ori dala, menturaz, zure azkeneko bekatua ta beragaz zuk zeure neurria betetan dozula, bada ez zagoz seguru.

Lar bere asko dira oraindiño koan egin dozuzan bekatuak, orre-gaitik bere, itxiten zaitu Jangoikoak, itxadoten deustu oraiño. Beraz, uste izan itxadon ziñei, eztozula oraingiño neurria bete. Baña bete ziñei urren-go egiten dozunaz; bada alan, a egitetik gorde bear zara.

Eta alan igaroak igaroak diriala, egiñak alik ondoen erremediatu dagiguzan ta aurrerazanean geiago egitetik albatanez, aldaigun guztian gorde gaitez. Bete bere puntu au, neurria beteteko pelligru au gogoan darabilgula. Eta bizi gareala ez bekatuz ta gaistakeriaz, ezpada ontasunez ta egikera onez neurria beterik, azkanean Zeruko gloria, gozotasuna ta betiko atsegintasun erdetsi al daigun legez.

10. BURUA

*Asko balio dau Jangoikoaren miseriakordiak,
eta zelan bear dan beragan itxadon fidatu.*

1 §.

Santo Tomasek diño (v.p.q. 129, art. 6): Fidanzia edo konfianza da esperanza sendoa, indartsua ta ustez ondo irmetua ta segurutua. Dozunean adiskide bat aberatsa, altsua ta zeure egiteko guztietan leiala, fededuna, mena ta zin fin probatua, alakoaren berba ta esate bat dirutzat artzen dozu; bere eskentza ta opa agindute bat, emotzat legez dozu; aren promesetan, kiñuetan ta adieranzetan bere sinismen ta konfianza andia dozu. Bada orrela, errazoiak eukiko dogu guk bere fidanzia andia ta esperanza beroa geure Jangoikoagan ta bere miseriakordian. Zerren agan idoroko doguz fidatu ta itxadoteko arkitu al ditekezan segurantzarik andienak ta egiazkoenak.

Lenengo, bera da gure adiskidea ta ain adiskide, ze Zerutik lurrera jatsirik izanik gu bere arerioak beragaz adiskidetuteko, bere bizitzea bere borondatez emon eban, dirauskun legez San Pablok (Rom. 5).

Baita bere da aberatsa, ondasunduna, al, poderio ta eskubide andikoa. Bada Zerua ta lurra, Zeruko ta Zerupe guztiko gauzak bereak, berak egiñak ta bere eskuko ditu, diñoanez Dabiden aotik (Psal. 23): Egin bitez esateaz, egin zituan; ta bagetu, ezindu, ezereztu bitez esateaz, ezerberz-tuko litekez (Psal. 32). Ezta ibilterik, ez mugitzerik, ez irauterik, artu emoterik, ez esan-egiterik aren borondate, nai-gura izatea baga (Actos 4).

Bada fintasunaz, bere berbean leiala ta jabe izateaz, ezta zer esanik: Begiratu egizue munduko jeneraziño guztietara ta idoroko dozue ezjala iños iñor galdu, Jaunagan itxadon dabenik; ta ez bere premiñan, bear dan bidean, bera beartu dabenik, bere bear dabena baga gelditu. Agaitik diño Dabidek (Psal. 54): gura bada zu zugaz ondo joan dedin ta ondo urten ta jazo dedin, ifini egizu zeure esperanza, itxaromena, biotza, gogoia ta ardu-ra guztia Jangoikoagan; bere ganera bota ta egotzi egizu. Zerren munduaren eretxian, irudiz ta ustez erremediarik, sendagairik ez daben egitekoai bere berak arkitu, idoro ta emongo deutse buru. Dirudi au adierazotera emotea gaitik, askotan larga ta itxiten gaituela geure Jangoikoak estu-



retan jartera, egitekotan sartutera ta Zerutik baño erremediorik ezin euki giñeien estura ta larritasunetara etortera; lurraz ta lurreko sokorru, jabe ta bitartetasun ta laguntasun guztiaz esperanza bageturik, etsiturik, estuturik, larriturik, Zerura ta Zeruko laguntasunez balia gaitezen amorea gaitik. Alan diño San Juan Krisostomok (hom. 17, tom. 1): Egitekoak egin bear dirianean, galdu aginean dabilzenez, orduan euki egizu zuk iños baño esperanza geiago: bada, orduan erakutsi ta agertuko dau Jangoikoak bere al, eskubide ta poderio andia; ez egitekoaren asieran, baño bai estuera ta premiñarik andienean. Ta iñondik erremediorik, igesbiderik ezta dirudienean. Bada, orduan da Jangoikoaren laguntzaren, bitartetasunaren denporea, zoria. Beraz, orduan bear dozu zuk Jangoikoagan ta bere miseriordia, ontasan ta prestutasunean itxadon, fidatu, esperanzatu.

Eta, alan egiten dozun denporan ezta ez Jangoikoak uts egiten. Lenago bai, bere ontasuna, leialtasuna, miseriordia, eskubidea, altasuna ta prestutasuna erakustea gaitik, orduan lasterrago, prestago, arinago egiten dau, orduan elduten jatzu: orduan zuri, uste bere etzenduan bidetik, biralduten deustu erremedioa. Jakin dagizun beste erremedio guztiak akabatu, azkendu dirianean bereak asiten diriala. Jakin dagizun, beste guztiak ezin ezer eginik, itxi zaituzenean ak al dabela ta orduan faboretuten zaituala.

Alan faboretu ta ontartu eban Jonas Profetea iru egun ta gaubez itxasoan baleak sabelean bizirik erabilli ebanean. Alan faboretu, zaindu, jagon ta gorde zituan Israeleko semeak, itxas-bazterrean, Errege Faraonek alde guztietarik inguratuak ta ezin iges egin eukeen legez, ustez artuak ta lotuak zituenean.

Alan faboretu eban Susana Lege zarreko andra garbi, on, prestua, bere senarrez kanpora beste bategaz izan ebala, guzurrez, faltsiaz salatirik, arrika iltera eroiela. Azkenez, alan gorde eban Daniel Profetea leoi amurratuen artetik, ao ta atzamarretatik osorik, bizirik, gatzik areanbere baga atera ebanean.

Nok esan eukean gizon batek iru egun ta gau balaren sabelan ibilli ezkerro bizirik leorrera urtengo ebala? Nok sinistu eukean Israeleko Semeak, itxaso bazterrean ain estura andian egonik, Faraonen esku gogorretatik iges egingo ebela? Eta Faraon persegille bera bere ekertsitu guztiaz an bertan gelditu, ito ta ondatuko zala? Nok uste eukean Susana gais-totzat kondenaturik ilteko Plazara atera ezkerro ainbeste onra ta alabazan etxera biurtuko zala eta bere salatzalle akusatzalle Agure zar malsinak bere lekuan bere orde z kondenatuak eriotzara izango ziriela? Eta nori gogora etorri lekikion Daniel santua leoi goseakillak euren erdian ta agindura atzamar artean eukirik, gatzik egin baga, apurtu baga ta irunsi baga

itxiko ebela? Onek dira Jangoikoaren mirariak, berak bakarrik ta ez beste egin leizenak. Eta egin zituan onen fabore, eurok estuera andi andian ziranean, euren esperanza guztia konfianza andi bate gaz Jangoikoagan ifini ta josi ebelako. Alan ifini ez ebelako, Israelgo seme Egitoko erbestetik, deserritik urten ebenetarik etzirian Josue ta Kalef baño eskeñi jaken errian sartu. Zerren guztien artean, onek biok bai baño, ez eban bestek Jangoikoaren promesetan ta esanetan bear zan esperanza, itxaromena, sinismena ta konfianza euki.

2 §.

Abiatu zan egun baten san Pedro itxaso ganean Jesu Kristo bere Maixua gana joaten. Eta abiatu ta asizan bertati oñez, ontzi baga, leorrean baliz legez ur ganean ibiltan, segurutasun ta esperanza bategaz, joanik bere Jaun ta Jabeagana bere lagunaz batera, itxasoak jasoko ebala, etzala itoko, ta ez ondatuko. Eta ez zan onetan engañatu. Bada sinisteak ta esperanzeak iraun eutsan bitartean jaso eban itxasoak, etzan ondatu, leorrean adiña seguru, irme ta gogor ifintan zituan uren gañean onak. Baña axe bat jagirik, ekatx bat eregirik, itxaso anditzen ta areriotuten asi zanean asi zan San Pedro bere izututen, ikaratuten, bildurtzen, dudatzen, esperanza ta konfianza galduten.

Eta, zelan joian esperanza sinistea galduaz, alan joian itxaso barrura bere sartuaz, estalduaz ta ondatuaz; alako eze, azkenean guztiz onda etzedin Jesusek eskua goian, gañean eukiteko, emon bear izan eutsan, zirautsala (Math. 14): Ha, fede gitxikoa, zergaitik dudatu dozu? Zergaitik etzara lenengo gogoan ta sinistean irme egon? Sinistea euki eban bitartean ondo joan jakan, orduan jasoten eban itxasoak. Baña otz epeldu zanean bere sinistea, fidanziak uts egin eutsenean, uts egin eutsan itxasari bere jasoteko ta bere gañean eukiteko indarra ta poderea. Agaitik diño Dabid Erregeak (Psal.): Jaunagan itxadoten dabenak Siongo basoa ta mendia legez izango dira: a lainbeste irme, sendo, seguru ta indartsu.

Bada orrela ori danez beraz, asko balio dau esperanza egiazko batek, indar andia dau itxadote on batek; ain andia eze dirudi asko izango dala esperanza santu au berau baxotxaren egitekoetan ta batez bere azkeneko orduan, izan arren bekatariarik gaistoena, salbaziñoko bidean ifinteko. Ez orrelakorik. Dirudi, baño ezta alan: ezta esperanza bera asko izango. Egia da asko balio dabela, indar andia daukela Jangoikoagan itxado-teak; baño adietan dala egite onakaz batean ta bere neurrian, lar geiegi baga. Zerren lar geiegi guztiak dira gaisto, urrengo Buruan esango dan legez.



11. BURUA

*Jangoikoaren miseriakordian fiaturik
ezta penitentsia egitea geroko itxi bear.*

1 §.

San Agustinek diño (de vera et fals. penit.), Jangoikoaren miseriakordian geiegi fiatuten dirianataz berba egiten dabela, onelakoak esan oi dabela, uste guzurrezkoaz: Errukiorra da Jangoikoa, miseriakordia duna, biotzbera, maitetasunez ta ontasunez bete; eta, alan, eztogu zer saiatu, tematu ta estu-larritu bearrrik obra onak egitera. Eta, bada ez da ezeren pelligrurik, bardin da biar edo gero. Euki giñei esperanza, seguranza ta sinistea bizitza luzea emongo deuskula; eta nos nai, zartasunean ta ilteko orduan bere, gure bekatuak, gaistakeriak ta deungero egiñak guztiak parkatuko deuskuzala. Bada Jaun batek ain onak, ain errukiorrak, ain bigunak, ain gozoak ta maitegarriak ezin bestela egin lei, ezin gatzik iñori egin leio.

Gugaitik Zerutik lurrera jatsi zan; gugaitik bizitzea galdu eban; gugaitik bere odol guztia emon eban; eta odol onegaz bere Aita ta gure arteko aserrea ta areriotasuna kendurik, bekatuen zorra oso osoan kitutu ta ordetu eban; ta katibutasunetik aterarik libertasunean ifini ginduzan. Eta Jangoikoak, onelako gauzarik egin baño len, lege zarrean bere gaistoak eurak kondenetan zirian ta ez besterik. Ori danez orain eztira gaisto guztiak kondenetan edo gaistoak erraz obetu, onduten dira. Zergaiti ze, bestela, ze diferentsia, ze banatasun legoke lenagoko denporetarik orain-goetara? Edo ze probetxu, ze on genduke guk Jangoikoa mundu onetan ibiliaz ta neketuaz? Eta, Jangoikoak esan beban bere (Math. 8, 20) asko diriala deituak, baño gitxi autuak; orregaitik bere ez dogu guk Kristiñau fededun sinisleok zer izutu, zer ikaratu, ez bildurtu: Bada Kristiñauak baño eztira salbetan eta gitxi dira Kristiñauak, Kristiñauak eztireanean aldean. Eta alan, esaten danean asko diriala deituak, adietan da Jentil fede bageak, Moroak, Turkoak, Judeguak, Herejeak ta beste, Elexa Santatik kanpora mundu guztian zabaldurik dagozanak diriala deituak; baño gitxiak, kristiñauak eurak diriala autatuak ta ez besterik.

Onela diño San Agustinek esan oi dabela bekatari itsu askok. Baña parterik geienean diño deungero ta ondo deungero. Berbakuntza gaisto

au gure arerio asmutsuaren buruan pensatua da, asmatua ta sortua da ta andik urtena ta jaioa. Bada, orain Jangoikoaren Semea gizondurik il ezkerro, errazago bada bere salbetea ta bekatutik urtetea len baño; baño orain bere urten ta jagi bear da bekatutik; ezta, erraztasun aren esperanzan, bekatuan egon bear.

Arerio gaisto onek, gure Jangoikoari tenploaren ganera tentetako eroan ebanean, esan eutsan legez: bota egiela andik beera bere burua, zerren Angeruak jasoko ebela, minik ta kalterik artzetik gordeko ebela (Math. 4). Alan dirautsu zuri bere orain: bota egizu, ezarri, egotzi egizu zeure burua, gogoan darabiltzun bekatu orretan; kunpli egizu zure guraria ori; etzaitz iñolako atzeratu. Bada, izanik Jangoikoa ain ona ta errukitsua, ez jatzu damutuko, ez jatzu kalterik ez zorigatzik etorriko. Zugaitik bizitza emon ebanak, ainbeste neke-pen igaro zituenak, ezta ez onek guztiok alper galdu ditezen gurako, etzaitu galdutera itxiko. Bota egizu, bada, orrela zure burua, egizu bekatu, fia zaite, ez egizu ezeren bildurrik.

Auxe berberau da deabruaren berba-egikunea, bere eskolan, ikaslekuan irakurria; an ereina ta andik zabaldua. Jangoikoaren ontasunetik ta Pasiño Santuko merezimenduetarik ta balio anditik gura dozu artu bidea, okasinoa ta ausardia bekatu egiteko ta bekatuan egoteko. Ain andia da itsutasun au ta bekatari galduen kontu txar au, eze gure Salbatzalea kexetatu ezpazan bere gugaitik igaro zituen neke, garratzmin, lotsaria ta erioztaz; baño kexatu zan, mindu, sentikortu zan bide bage ta eskerbagetasun onegaz, esaten ebala (Psal. 128): Ene sorbaldaren gañean egin eben egur bekatariak, an euren gaistakeria landu, luzetu ta zabaldu eben. Esan gura dau, gaistoak euren gaistakeriak egiteko ta aetan luzero egoteko, aztuten dabe zimendutzat ta okasiñotzat nik nire sorbaldan ganean artu nituen azoteak, kolpeak, penak ta mintasunak. Eta euroetan fiaturik, euroetan esperantzaturik ta kontu eginik, bardin nik eurak gaitik pagatu, kitutu, ordetu nebala, asartuten ta aurretuten dira bekatu egitera, esan oi dabela: Errukitsua da Jangoikoa; maite gaitu, ondo gura deusku, berak ta bere odolaz erosiak gaitu: men menera, estu estura gatozanean uts egingo ezteusku, larga ta aztuko ez gaituz; ori danez, artu giñei esku ta baimena bekatu egiteko. Baña, ai, kontu txarra da ateraten daben au. Esan bear da miseriakorditsua dala gure Jangoikoa onelako lotsabageak, onen loi atsi-tuak sufrietan dituenen.



2 §.

San Basilio beste berbakuntza batez baliatuten da gai onen ganean berba egiten dabenean, esaten dabela (homil. sup. psal. 32): Eztidilla iñor Jangoikoaren miseriakordiaz geiegi, lar askoegi fiatu, zergaitik ze Jangoikoak gure egite guztiak kontuan, pisuan, neurrian kontatu, pisetu ta mugatuten dituan legez, alan bere ontasanaz, miseriakordiaz, errukitasunaz bere, kontuz, pisuz, neurriz, estutasunaz, justiziaren erara baliatzen da. Espiritu Santuak diño (Prov. 28): Idoro dozu ezti? jan egizu, bada, neurriz; bear bear dozuna bakarrik ta ez geiegi ase-bete, errebesatu eztagizun, aotik biurtu eztagizun.

Justizia min da ta garratz; eta miseriakordia gozo ta ezti. Baña ezti ta gozotasun atarik, ezti gozoa izan arren, ezta lar jan bear; ezta, miseriakordiaren eztitasunean fiaturik, bekatuik egin bear. Bada, alan egitea ezti geiegi jatea da.

Espiritu Santuak berak diño (Eccle. 5): eztagizula esan miseriakordiotsua dala Jangoikoa ta zeure bekatu guztiak parkatu deutzuzala, zerren miseriakordia ta justizia ur jagokaz Jangoikoari, alkar baturik dagoz ta justizia bekatariari begira dago. Miseriakordiaren gozotasunari begiratuten deutzuzun legez, begiratu bear deutzazu justiziaren garratztasunari bere. Bada, Jangoikoagan ain andia da justizia zein miseriakordia. Miseriakordia ta justizia bardiñak dira pisuan, balantzan, neurrian.

Egia da, Santo Tomasek diñoan legez (22 q. 21, art. 2): Berez danez obeto jatorko Jangoikoari ta prestago ta makurtuago dago miseriakordia, justiziara baño; bai ta parkatutera bere, kastigetara baño. Eta alan, egiten dau askotan gugaz miseriakordia, guk merezi baga, bere ontasan ta errukitasun beragaitik; baña ez gaitu beinbere kastigetan, eztau gugaz use-tan bere justiziaz, arbintasanaz ta aserreaz, guk lenagotik geure bekatua kaz artara beartu baga. Baña izateaz danez, ainbat justizia zein miseriakordia dago Jangoikoagan; agertu ta ikusiko dan legez beste munduan emengo miseriakordiazko denpora au igaro dedinean. Agaitik diño Dabid Santuak (Psal. 10): Jauna, miseriakordia ta justizia kantatu deutzudaz; biak bardin, ain ondo bata zein bestea.

Miseriakordiaz bakarrik, justiziaz konturik egin baga, berba egiten dabena eztaiki zer esaten daben; eztau alakoa justiziaren anditasuna ikusten, ezagututen, oartuten. Eta ara zelan eztaikusen: Zuk diñozu miseriakordiosoa, errukitsua dala Jangoikoa ta ondo diñozu ta uste dozu. Baña zuk Jangoikoa ontasan ta miseriakordia andikoa dala autortu ta diñozu-

nean begiratu bear dozuz justizia, aserre ta bere gogortasunaren inguruak ta kolpeak bere; oneek gogoraturik ta begiraturik esperanza, itxaromen, itxadote au utsak, zoroak, zimendu ta errazoi bageak larga dagizuzan.

3 §.

Justiziaren lenengo kolpea, deskarga, goiberatutea izan zan goian, Zeruko Angeruetan, Luzifer soberbiotsu ta bere lagun gaistoen ganean. Zeruko Angerurik ederrena, aurrengoena ta Jangoikoaren adiskiderik andiena bota ta ondatu eban justiziak soberbia, andiuste, goitura, arrotasuneko bekatu bategaitik betiraun guztiko sekulako Infernuko nekaldi garratzetara. Eta Angeru guztien lenengoa, nagusiena, aurreratuena ta agintaria egin zan Deabru ta Deabru guztien buru, aurreratzalle ta Kapitai. Zanik ederrena, politena, galantena, argiena egin zan ezainena, itsusiena, baltz, ilun, izugarriena ta gaistoena. Maitegarriena, gorrotogarriena ta goiena, beerena. Alakoz eze Isaias Profeta Santuak, ain jauskera andiaz mirariturik, itanduten deutso Luzifer berari (Isai. 14): Zelan orrela jausi zinean, Luzifer? Zelan jausi zinean egun sentiko izarrik argiena, goxean gox, egunsentian sortu ta jagi oi ziniana? Ain gora zengozana? Andia ta ikaragarria izan zan Zeruan Justiziak egin eban kolpe ta kastigu bildurgarri au.

Baña egin eban lurrean bere beste bat, ez txikiagoa, baldin erremediorik ordenatu ezpalitxaio; eta zan Adanen bekatuari emon jakon kastigua. Zeruan Luziferrek berak egin eban bekatu; eta ezta miresteko bakotxak bere bekatua pagetea, norberak eginiko bekatua gaitik penatutea. Baña lurrean besteren bekatua gaitik, Adanena gaitik, aren ondorengo guztiak, oraindo jaio baño len, euren Amaren sabelean sortu ta biztuten dirian potian, unean, bertatik geldituten dira eginik bekatari loi ezainduak. Eta ainbeste urteen buruan etxakola aztu Jangoikoari a bekatua, nor eztau miraritutun? Non emon lei justizia gogorragorik?

Errukiorra, miseriakordiotsua da Jangoikoa ta, bere miseriakordia ta ontasan guztiaz, begira jagoko Infernuan dagoan bati: ikusten dau ta ikusiko dau zelan milla urtean ta amar millan penatzen dagoan. Eta orregaitik bere, alan ikusia gaitik bere, an bere lekuan itxiten dau. Etxako bapere biotzik austen; eztau areanbere alan dagoanaren on-bearrak errukituten. Lenago bai poztuten da, atsegin artzen dau, alan penatuten ikusteaz; ta gura dau pena dedin; baita andik jagi ta urteteko esperantzarik baga pena dedin. Gogortasunaren andia! Justiziaren gogorra! Zuk diñozu erru-



kiorra dala Jangoikoa. Baña onetan dirudi justiziadunago dala; ta justiziak goiartu, azpitu, benzututen dabela miserikordia. Eta errazoiar dirudi alan, zerren ezta beste munduan izango gaistoentzat miserikordiarik.

Miserikordiatua da Jangoikoa, baña esan bear da justiziatia bere dala, zerren munduari parkatutera ezin ezerberek bigundu ta makurtu eban; ez ekarri maitetutera, ezpada bere Semearen eriotzeak.

Miserikordiaduna ta errukitsua da Jangoikoa eta, orrez guztiaz, Noeren denporan zortzi presona ez beste guztiak uriola bategaz ondatu ta ito zituan. Bardin Sodoma ta Gomorra inguru ta auzoko beste erri batzuekaz, su ta garra Zerutik biraldurik, erre zituan. Bardin Datan ta Abiron lurak euren lagun gaistoa kaz irunsi zituan. Eta orduan oneek guztiok Infernura jatsi zirian. Eta orain bere infernuratuten dira Kristiñau eztirianak. Eta bildur nas Kristiñauetarik bere geienak arako bidean dabil-tzela, bada geienak deungero bizi dira, deungero konfesatu.

Eta esaten danean asko diriala deituak ta gitxi autuak, Kristiñaua kaitik bardin adietan da. Bada, non da Kristiñaurik, Kristiñaua legez bizi danik? Beardan legez Jangoikoa maitetu ta serbitzen dabenik? Bere mandamentu edo agindu santuak gordetan dabenik? Bear dan prestaeraz sakramentu santuak artuten dituenik? Edo bere naikunde, deseo, gurari txar bat egitetik Jangoikoa gaitik atzeratuten danik? Ete dago munduan bat alakorik? Bai, bagoz batzuk, zerren Elexa Ama Santa ezin legoke alakoak baga. Baña gitxi. Eta onegaitik Eskritura Santan bardintuten dira Kristiñau onak arri preziatuaz, adierazoteko arri preziatu legez Kristiñau on gitxi dala ta neurri txikikoak diriala onak. Eta, zelan beste arriak preziatuen aldean askozaz geiago dirian, alan geiago diriala kondenetan dirianak, salbetan dirianak baño; alakoz eze Salomonek diño: ero gaistoen neurria azken ta muga bagea dala; neurtu ezin leizala kondenetan dirianak.

Bada, asko kondenetan badira Kristiñau fededunetarik bere, zegaitik zu bere, kristiñau sinislea izan arren, etzara bildur izango kondenatuko dirianetarik izango ete zarean? Oraindiño asko bota ditu Jangoikoak Infernura; zegaitik, bada, etzaitu zu bere ezarriko, botako, egotziko, baldin ara bota dituzan antzera bizi bazara? Uste dozu zuretzat lege barriren bat ifiniko dala? Uste dozu Jangoikoa an goian zu baga ezin egon diteke-la? Edo zu ara ez eroateaz bere gloria galduko dabela edo gitxituko jakala? Ze aurre-bide, burupe, ze pribilegio, ze merezimendu geiago dozu zuk orain, Infernuan dagozanak euren denporan eukena baño, baldin aek legez bizi bazara, ez aek legez kondenetako ta an egoteko iñora urten baga? Eta Jangoikoaren miserikordian fiatuten bazara, eztozu gogoratu-ten orain Infernuan dagozan zorigaistoak euren denporan zu orain legez

fiatuten ziriala? Jakin egizu eze miserikordiak onai gloria legez, justiziak bere gaitoi infernua emoten deutsela.

4 §.

Izan agaitik Jangoikoa biotz beraa, errukiorra, miserikordiatua, ezta ez emetik artu bear biderik, ez okasiñorik, ez ausardiarik, ez atrebenziarik bekatu geiago egiteko. Bada au liteke kontra-menenoa, edena edo pozoia eden edo beneno egitea; Jangoikoaren miserikordiaz ta ontasunaz kontrara usatutea; eta bai miserikordiarik eztan lekuan bere, oña irmetutea, pelligru galgarrian ifintea. Badira biderio batzuk, begi-orde batzuk gauzak dirian baño andiago irudi erazoten dabenak. Eta jazo daiteken gauza da, alako begi-ordea kaz zubi batetik igaroten zareala, zubia dan baño zabalago iruditurik ta zubirik eztan lekuan oñak ifinirik, jaustea zubi azpiko oxinera ta an ondatu ta itotea. Bada, Zeruko Gloriara igaroteko zubia miserikordia da ta, baldin miserikordiaren zubi onetarik igaro gura bado-zu zuk, ausardia geiegiaz fiaturik, esperanza zoro uts baten begi-ordeak ifinirik eta iruditurik, Kristiñau zarealako ta Jangoikoaren ontasuna andi zabala dalako, ori beragaitik beste baga salbatuko zareala, engaña zintek-kez, uts egin ziñei ta miserikordiaren zubirik eztan lekuan esperanzaren oñak ifinirik, justiziaren oxinean jausi zintekkez. Bada, Jangoikoaren ontasuna ezin geiagotan andia, neurri ta muga bagea izana gaitik, ezta ez adituten ta ez orregaitik adierazoten anditasun ak zuri bekatu egiteko bidea ta okasiñoa emon bear deutsula. Sn. Agustinek diño (in Psal. 39): Ezta Jangoikoa alako moduz miserikordiosoa, non justiziari bide bagerik egin-go deutsan.

San Agustinek berak diño (in Psal. 58): Kastigatu daiguzan geure bekatuak, egin daigun aen penitencia, baldin gura badogu erdetsi Jangoikoaren miserikordia. Zerren ezin Jangoikoak parkatu leio bekatariari bekatuetan dagoan artean, euroetan atsegin artzen daben bitartean, euroetatik alde egitera abiatuten eztan artean. Ezta Jangoikoaren miserikordia orrenbesteraño elduten, ez zabalduen. Eta ez ain aurrera eldu ta luzetute au, eztator bere miserikordiaren eskastasunetik, urritasunetik, laburtasunetik, ezpada gauzaren ezinkizunetik. Ezta esaten miserikordio-soa dala Jangoikoa bekatuan dabillenari, alan dabillenean ta ibilteko gogoa dabenean laketu ta parketan deuselako. Baña esaten da miserikordiosoa ta errukiorra dala, arako bere bekatuak bear dan bidean itxirik, denporaz beragana etorririk ta alegi guztia egiten dabenari ukatuten ezteuselako



bere grazia, parkamendua ta adiskidetasuna. Eta asko da au ta onela egitea miserikordiosoa izateko.

Enzuten dozunean, biotz beraa, errukiorra ta miserikodiotsua dala Jangoikoa poztuten zara, atsegiña artzen dozu; ta enzuna gaitik ziuarra, kastigatzallea, gogorra ta justiziata bere dala eztozu ardurarik artuten. Bada Eskritura Santuan, Jangoikoak eskeñiten dituan mesede andi, gozo, miserikordiazkoak justuentzat, santugaientzat, ondo, artez, zuzen, prestutasunean bizi dirianentzat dira; eta barriz zemaia, menazuak, kiñadak, justiziaren garraztasuna, gogortade, aserre ta kastiguak gaistoentzat, zu ta zulakoentzat dira. Ze zorakeria, bada, da au: zuretzat dirian zemai, menazu ta kastiguaz ez konturik, ez ardurarik, ez bildurrik artzea; eta zuretzat ez tirian miserikordiazkoak solatsez, gozotasunez, atseginaz artutea? Miserikordia santugaia, justua, zu ez legezkoai dagokie. Ez dozu zuk bekatuan zagozan artean atan parteletasunik, ez ikuskizunik; ez dozu orduan, Jangoikoa miserikordiosoa dala enzun arren, zer pozturik. Bada orduan justiziak bai, baña miserikordiak eztauz zugaz berba egiten, ezta orduan zurea. Aparta zaite bekatutik, alde egin zaite bide deunge orretatik, urten egizu egotaldi bildurgarri orretatik ta izango da zurea; iges egizu bekatutik ta izango dozu parte. Baña bitartean, justizia euki egizu zuretzat ta itxi egizu miserikordia euren bekatuetatik alde egiten dirianentzat. Zerren bestela, eragotzian gura dozuz eskuak sartu, bestearena gura dozu zeuretu, jabetu.

5 §.

Esango dozu beti dala on esperanza, beti bear dala itxadon. Eta ondo diñozu, egia da, alan da. Baña nos ta zelan beti? Bekatu egiñ ezkerro, baña ez egitorduan.

Ezta Jangoikoaren ontasunean fiaturik bekatutik egin bear. Susana Andra Santeak gurago eban jende gaisto batzuen eskuetan jausi, Jangoikoaren miserikordiaren mendean baño (Dan 13). Baña Dabid Erregeak gurago eban gizonakaz baño Jangoikoaz disputatu, kontuak emon ta beragaz bere deungero egiñak igaro (2 Reg 24). Eta biak, alan Dabidek zelan Susanak, eroien kontu ona. Bada Susana zan bekatu egin bagea ta Dabid bekatu egiña. Eta bekatu egin ezkerro, Jangoikoaz kontutu bear gara; ara laster, an konfiatu, aren miserikordiaz baliatu bear da. Zelan Zesar edo Erregeak kondenatuak apelatu eban Zesar beragana, Zesar aserratua ganik, Zesar ez aserratua gana; alan bekatariak bere bear

dau apelatu Jangoikoaganik Jangoikoa gana: Jangoiko justiziazkoa ganik Jangoiko miserikordiazkoa gana. Bekatu egin ezkerro, ezta beste biderik, ezta beste erremediorik. Baña iñor bekatu egin bagea danean, Susana legez, obe da egitekoak alde onetarik egitea, obe da gizonakaz disputak eukitea ta aetatik etorri al dakiozan kalteak itxadotea, eze ez Jangoikoagan ta aren miserikordian fiaturik bekatu egitea.

Baña guk kontrara, okerretara egiten dogu. Konturik euki baga gero-ko etorkizunaz, uste dogu gero Jangoikoaren miserikordiara iges egingo dogula. Orain geure eskuan daukagun denpora onetan bekatutik ez egite arren eztozu atseginik itxi gura ta ez penarik, nekerik artu; gurago dogu etorkizuneko pelligru ta gatx gogorrai jarraitu, oraingo neke apur bati baño. Eta zek egiten dau au? Fiatzeak, kontu egiteak bardin gero Jangoikoaren miserikordiak guztia parkatuko deuskula ta erremediatuko gareala. Kontu txarra! fiatze eroa.

Fiatzen zara bekatu egin ezkerrozko kalteak erremediatuko dituala Jangoikoak eta etzara fiaturik ta ez gomutetan erremedia al leikezala bardin zuk bekatutik ez egin arren, etorri al litxakezuzan atsekabak ta egitekoak. Bear eztauz fiatzen zara ta ez bear danean. Bear eztauz iruditzen jatzu andia Jangoikoaren miserikordia ta ez bear danean. Amar ezkuto bear dozunean edo beste premina ta estura bat dozunean eztauz fiaturik, eztozu uste baldin ondo bizi bazara, bekatutik egiten ezpozu Jangoikoak zure premina ta beartasun ori estaldu al leizula. Eta alan, zeure esperanza bageaz egiten dozu bekatu, ostuten dozu, egiten dozu lapurkeria bat. Eta egiten dozu lapurkeria ori esperanzaz gero bardin Jangoiko errukitsuak parkatuko deuskula orrelako bekatua. Itsutasunaren andia! Orain Jangoikoaren adiskide zareanean, bekatu baga zagozanean ez dozu esperanzarik Jangoikoak zugatik ezer al daikeala, zure beartasuna estaldu al leikeala; eta gero, arerioa zareanean, bekatuz betea zagozanean uste dozu, guztiak parkaturik, bere grazia ta gloria ain gauza andiak, balioitsuak ta erdetsiteko gatxak emongo deusuzala. Gauza errazean eztauz fiaturik; gatxean, barriz, bai. Bekatu egiten dabentzat daukazu Jangoikoa andi, zabal, prestutza eta bekatu egin baga ondo bizi dirianentzat uste dozu dala estua, zekena, urria, prestubagea. Guztian zabiltz ta gabiltz nasutuak, itsutuak, uts egiñak.



6 §.

Ez uts egiteko ta bear dan legez esperanza eukiteko, zer egin bear da? Dabid Erregeak eranzuten dau (Psal. 4): egizu on, al daizun egite onetan emon zaite ta orduan itxaron egizu Jangoikoagan. Zerren bestelako esperanzak gitxi balio dabe.

Egun baten etorri jakazan Frai Gil santuari Kardenal batzuk bisitetara. Eta bere bisita azkendurik, joate orduan esan eutsen, arren, eskatu legiola Jangoikoari eurekaitik. Eranzun eutsen Frai Gilek: Jaunak, eurok nigaitik egin beardabe, zerren nik baño euroen Mesedeok siniste ta esperanza geiago dauke. Baña, zelan al diteke ori orrela, zirautsen Kardenalak?

Zerren gu gabiltz munduaren barruan sarturik, aberastasunez beterik, ondasunez, atsegiñez ta zorionez ganez egiñak; Zu, barriz, penitentzietan, egite onetan, munduko zereginetatik kanpoan ta, orrez guztiaz bere, diñozu siniste, itxaromen, esperanza geiago daukegula zuk baño? Bai, dirautse. Bada bizirik Zuen Mesedeok bizi dirian legez pozik, ezeren bildur baga, salbetako esperanza ta segurutasun andiaz dabiltz. Baña ni nabil bildurturik, ikaturik, ea zer bekatari andi onegaz jazoko dan; ta beragaitik eurok nik baño esperanza ta siniste geiago dabe.

Ikusiko dozu persona batzuk malizia, malsintasuna, engañu ta guzur utsa baño eztiñan dan Santuenak baño buruak gogorago dituztela ta salbetako esperanza geiago dabela; alakoz eze, zatozanean aekaz berba egitera esango deusue ez leukela euren esperanzea zurez trukatu; eztaukela iñorbere euren buruak baño santuago, ez prestuagotzat; beste edozeinek beste ondo Jangoikoari eskeñiten diriala. Eta bitartean begietagiño bekatuaren oxin ondarrean sartuak dagoz. Itsutasunaren andia! Deabruaren engañamentua! Uste badabe ta uste badozu bekatuetan zagozala Zerua emongo jatzula, miseriordia egingo jatzula, ori da Jangoikoaz ta Jangoikoaren ontasunaren barre ta mezprezio egitea; ori da esperanza esperanza bagea, konfianza eroa, itxaromen gañez egiña, larregia. Eta ezta ori esperanzea bere, ezpada ausardia, atrebenzia, uste utsa, presunziñoa, nai-gura eroa; eta miseriordia elduten dan baño aurrerago zure deseoa luzetutea. Orrez geiago, ori da Espiritu Santuaren kontra dirian bekatuetatik bat. Eta alan, miseriordiaren esperanza bekatu egiten dabenak ezta miseriordiari berezi. Zerren alangoa miseriordia beraren kontra dabil. Alan adierazoten dau San Basiliok, penitentziaz berbatuten dala (tom. 25 de poenit.): Penitentiaren esperanza bekatu egiten dabenak

ezta bide ona artuten, ezta penitentiak balio daion merezi. Eta era onetara esan lei miseriordiaren esperanza bekatu egiten dabenaz bere ezta-bela onek bere miseriordiari berezi.

Gura bogu errukitu dagigun geure Jangoiko maitea, enzun gagizan, lagun dagigun ta euki dagian gugaz errukia, abia gaitzean bere gura alde-tik, presta gaitzean geure eginbidea egitera, bekatutik alde egitera ta mandamentu Santuak kontuz ta gogoz gordetera. Onela bai, baño bestela, bestelako esperanza guztiak eztera esperanzak, uts alperrak dira, zorakeria dira.

Bada, onela, eztozu miseriordiaren esperanza bekatu egin bear; ta ez aren ustean penitencia egitea ta ekandu txarrak itxitea geroko luzetu bear. Lenagotik bai, zerren Jangoikoa dan ain ona, biotz beraa ta errukiorra; zerren ain maite gaituen; zerren bekatu egin ta bertatik ezkaituen kastigetan; zerren itxaroten deuskun ta, azkenik, zerren ainbeste on, esker ta mesede egiten deuskuzan, agaitik beragaitik, atarik okasiño ta bide arturik, bear genduke bestela egingo genduan baño obetoago egin aren borondate ta nai santua; eta, baldin bekatu ta gaistakerietan oraingiño ibilli bagara, onek guztiok largarik, prestuak ta leialak izatera abiatu ta erabagi; ta alako moldez, taiuz ta moduz aurrerantzean gobernatu non, azkenean, Jangoikoaren miseriordiaz batera erdetsi daigun guretzat ordenaturik, agindurik, eskeñirik ta prestaturik dagoan pozkaria gozoa, zein dan Zeruko gloria.



12. BURUA

Gerotik gerora ibilteaz galduten dogu denporea.

1 §.

Gerotik gerora zabiltz; aurten gaisto izanik, urrengo urtean ondu ta obetuko zareala diñozu. Izan bedi, bada, alan; zuk diñozun legez, uste dozun legez ta gogoan darabiltzun legez jazo dakizula, gerta dedilla ta, aurten gaisto izanik, zure gero orretan, etorkizunean obetu zaitezala. Ori orrela balitz bere, non da, batetik, urte onetan egin al ziñaiketan irabazia ta aurreratzearen meritua? Bada, Kristiñau on batek urte batean obra on asko egiten ditu ta bai bear-saria, merezimendua ta arimazko ondasun andiak irabazi ta erdetsi. Kristiñau onak urte baten aurreratuten dira; baña zu, aurreratu bearrean, atzeratuten zara bekatu ta gaistakeria asko egiten dozuzala. Ea, bestetik, non da bitartean, urte onetan, zure gero orretara eldu artean galduten dozun denporea? Ene semea, gorde egizu denporea, diño Espiritu Santuak (Ecl. 4). Aurrean daukezunean zakioz zerren, bein joanik, ezta biurtzerik ta erdetsirik. Okasiñoa bekokian, aurreko aldean, ulletsu da; baña atzean, kokotean motz, soil, erbal, ullegea, ulle bagea. Aurrean bauko nondik lotu, nondik oratu, baña ez atzean. Beraz, aurrean dozunean probetxa ta balia zaite; zerren atzeraturik, joan ezker ez dau esku-tokirik, ez lotu ta oratuteko kirteñik. Bada, okasiñoa legez da denporea bere. Beragaitik dirautsu Espiritu Santuak (Eccl. 9): Orain, denporea eskuan daukazun artean, egizu al daizuna; eta ori prest, orain, laster; zerren gero, zuk joan bear dozun infernuko leku atan ezteutsue balioko ez errazoiak, ez jakituriak, ez alegiñik andienak. Itxiten badozu, zelan eztakizula, orain esku artean dozun denporea igaroten, egin da, galdu da, ezta geiago biurtuko. Agatik diño San Pablok (Galat. 6): denpora dogun artean, dagigun ondo.

Esan begi Aristotelek (4. Phisico) nai dabena denporea gaitik; baña, gure konturako, denporea da len, orain ta gero gauzak ibiltea, igarotea ta igaroaz batera igartutea ta akabetea. Denpora beti doa. Senekak diño (libr. 6. natural q. 8): Denpora igarota ta etorkizuneko eztira gureak. Joana, joan; etorkizuneko, etorkizun; oraingo au da gurea, ta ez besterik.

Eta oraingo denpora au bere ain gitxia, laburra ta pitia da, eze diño Santo Tomasek (1 p. q. 66. a. 4. ad 4 et 5): Denporatik ez dogu ezer bere, orain bat baxen: iraute apur bat, puntu bat ta ez geiago. Egia da, baña, zelan puntu onek, orain onek batu, bildu, lotu, alkartu ta josi legez egiten dituan alkarregaz igarota ta etorkizuna, joste onek gomuterazoten deusku igarota; ta etorkizunaz bere esperanza ta itxaromena emoten deusku. Eta, alan, gomute ta akordu onegaz, itxaromen ta esperanza onegaz batean igarota ta etorkizuneko oraingoaz loturik ta bat egiñik, ez jaku oraingo, presentekoa ain labur eretxiten ta iruditen. Zerren guztiak alkarturik legez ta bat balira legez artuten doguz ta onela uste eragiten dabe bizitza lueza, diño Senekak (de brevit. vitae c. 13).

Baña, dana dan legez ta bear dan legez denporea artu arren, idoroko dogu ezerez bat dala, gitxi bat, argal mee labur bat dala. Oraingo au gozatu giñei, etorkizuneko deseatu ta igarota alabatu, mezipreziatu edo aitatu ta izentatu. Igaroak eztau erremediorik: a joan zan; etorkizuneko eztakigu emongo jakunez; presentekoa, oraingo ain da txikia, laburra ta igarokorra, eze orain bere, bigarren berbea asi dodaneko, igarota da lenengoa ta lenengoaren denporea.

Izan da esan dabunik denporea eztala ezer, bere gomuterik, akordurik, gogorik ez danean. Eta alan, lo datzanari ez jakala orduko denporea ezer irudituten, ezabela sentitzen, ezpaltiz legez igaroten jakala. Zerren orduan eztau atan pensetan, ez gogorik eukiten.

Uragaz gura nenduke bardindu ta konparatu denporea. Bada denporea ta urak alkarren antza, irudia dauke. Ura beti doa, batak besteari darraio. Igarota aurrera doa ta etorkizuneko atzera dago ta aurrean dagoanak gitxi iraunten dau. Eztau iñok igarota dan uretik artuten, ez etorteko dagonetik bere: aurrekotik, igaraiten, aurrean dagoanean artu bear da. Alan da, bada, ta alan egin bear da denporeaz bere: aurrean daukazunetik artu ta aprobetxa zaite. Bada, bestela, axe ona danean bela egin bagea gelditzen dan ontzia legez, gelditu zintezkez zu bere.

2 §.

Denporatik gauza labur txikia, *orain* au dogu ta ez besterik. Baña, nork esango dau zenbat balio daben *orain* onek? Iraute, iraupen, bitarte ta asti txiki labur onek? Ainbat balio dau eze, baldin orain Infernua dagoan bati emongo baleuskioe aukera, ea zer geiago gurago leukean bere eskuan: ala mundu guzti au bere ondasun guztia kaz, ala ordu baten den-



pora ta bitartea, seguru da, ez ordu baten denpora, ezpada begiak gora jasote baten bitartea bere len autu ta gurako leukela ta obetzat eukiko leukela, munduko andikeria, atsegintasun ta dan guztia baño.

Zergaitik ze a apurra, danik txikiena bere, ondo emon, bete ta enpleaturik asko leuke ordugiñoako falta ta uts egite guztiak erremediatuteko, osotu, kitututeko ta Zeruko Gloria irabazi ta erdetsiteko.

Esan oi da gauza bat preziatua ta baliotsua dala puska gitxi bat izan arren beste andiago batek baño geiago balio dabenean; eta alan esaten da gauza preziatua dala urrea. Beraz, egiaz da gauza preziatua, estimagarria ta baliotsua denporea, zerren dan gitxiena biotzeko damu oso egiazko bat asko da salbaziñoa irabazteko. Eta ezpabere itandu egiozu bere azkeneko orduan ain laburki ta laster Zerua irabazi eban Lapur Santuari, ea zer eretxi jakan denporeaz; ea gauza estimagarria ta ezertan euki ta maitetua danez. Eta ak, probatuak legez, esango deutsu baiez, estimagarria dala, baliotsua dala, eztabela munduan bere parerik.

Ain da gauza andia ta aberatsa orain esku artean dogun denporaren orain au eze, Purgatorioko penak mundu onetako neke guztiak alkar-loturik, oraturik ta erantsirik baño andiagoak izanik, geiago balio dau, geiago egin ta kitu-saritutun dau Jangoikoaren aurrerako orain emen munduan obra onetan emoteak, gero Purgatorioan urte batean penatzen egoteak baño, diño Doktore batek (Lodulphus ex Saxonia 1. p. cap. 20). Oraingo egunak balioko dau orduko urtea. Alan adierazoten dau Ezekiel Profeteak (cap. 4): Emon neutsun eguna urtetzat. Esan gura dau: Emon deutsudaz, emoten bere deutsudaz egun asko, ain aberatsak, baliotsuak ta prezio andikoak eze aetarik batek balio dau ta balioko dau urte bat. Bada, gero urte bategaz egin daitekera ta egingo dana egin liteke orain egun batean. Eta errazoia dau, zergaitik ze gero izango eztana orain dago merezietako, aberastuteko, zorianduteko ta ondasunak aurreratuteko: dala indarra, aukera ta libertadea. Eta bardin, zergaitik ze era biko penak dira: bata da *bestek emoten deuskuna*, bestetatik eldu ta etorri jakuna, zelan dan Purgatorioko penea ta jatorkuzan gaixotasunak.

Beste bat da *pena artua*, geuk geure borondatez artzen doguna, zelan dan egiten dogun penitentzia, baraututea, oraziñoan egotea, erromeria santuak ondo ibiltea. Eta pena onek, geuk geure borondatez artzen dogun onek eroaten deutso aurrea beste peneari, bestek emoten deuskunari, pazienziak artua izan agaitik bere. Zerren Purgatorian dagoanak gura leuke andik urten ta libratu ta bai gaixoak bere osatu, sendatu ta sendotu.

Baña, orain geuk gure borondatez egiten dogun penitentzia ta artzen dogun nekea, alde guztiz da borondatezkoa, baliotsua ta Jangoikoari eder

jagokana. Eta alan, onek daroio Purgatorioko peneari ta gaixotasunekoari bere urreak beste diru guztiai daroien aurrea ta baliotasuna. Zerren, Jangoikoak begiratuten badau bere igaroten dogun penara, baño are geiago begiratuten dau artarako borondatea. Bada alan, orain penatu, barautu ta penitentzia egin bear da. Zergaitik ze oraingo pena txikiak, geuk borondatez artuten dogunak geiago balioko dau Purgatorioko ta gaixotasuneko neke andi latz gogorak baño. Eta alan, dirudi Purgatorioan dagozanak eztabela ezerbere damu andiagorik, nola denporea galdu izanaz, deungero emonaz ta euren buruak euren borondatez gitxi bat baño ezpada bere ez penatu izanaz munduan egoienean. Orregaitik esaten dau Sn. Juan Krisostomok (hom. 57. in Joan. 9): eztozu begiratuten beste gauza guztiak len itxi bear diriala galtzera, denporea baño? Zerren urrea ta zillarra kobratu litekez galdua gaitik, baño ez denpora.

3 §.

Ezta munduan gauza balio andiagorik, diño Sn. Bernardok (ad scolast.), denporea baño; baño, ai, ezta gaurko egunean gauza ezerbere eza-gorik idoroten. Eztozu ezerez ain kontu gitxi egiten, zein denporaz. Nor da, itanduten dau Senekak, denporeari zor jakon prezioa emoten deutse-nik? Eguna mereziten daben legez estimetan dabenik? Bitzaren bardin, ezerezaren pare daukagu denporea. Dirudi gura gendukela askotan ezpalliz bere, bada gabiltz jakin бага zertan igaro; ordu baten gagozanean, bigarrenean bagiña desetan dogu. Esan bear da aberats gagozala, munduan dan gauzarik aberatsena ta baliotsua orren franku ta gitxitan darabildunean. Bada, alan zuk eta nik bere denporea galtze onegaz, probetxu бага igarotera itxiaz ondo kontu estua emon bearko deutsagu Jangoikoari.

Iru era, modu edo gisara esan al liteke galduten dala denpora. Lenengo, bekatu egiteaz ta bekatuan egoteaz. Bekatu egiten zagozanean, egin ezkeru ta aetan zagozala igaroten dozun denpora, emozu galdutzat. Ak denporak eztau ezerbere balio zuretzat. Lenagotik bai aetan zeure arime ta arimako ondasun guztiak eta komunki gorputzekoak bere galduten dozuz, ura beera legez joatzuz. A da denporarik galduena ta galgarriena, negargarriena.

Bigarren, galtzen da denpora gogoeta ero, zoro, uts, arro, bapere balio eztaben batzuetan egoteaz. Zeu bakarrik, alperrik, zeure erara, egitekorik бага, ondo jana ta obeto edana zagozanean eta batezberre oean



loz aserik, ardurarik baga zatzazanean, egiten dozuz zeure artean milla asmo ta gogoeta, milla torre ta gaztelu. Egiten zara Aita Santu, egiten zara Errege, aberastuten zara, egiten dozuz panparroitasun ta balentia asko. Jatortzu joko eder bat, irabazten dozu. Onela darabiltzu zeure buruan ta gogoan, alan balira legez, gura zendukezan gauza batzuk. Eta sekula alan izan, jazo ta gertatuko ezpadira bere, orrez guztiaz, alan pentsatzeaz bera-gaz, gogoraziño uts eroetan egoteaz atsegiña artzen dozu. Eta bitartean eztozu gogoratuten zuk ateratzen dozun probetxua denpora galtzea dala ta ez besterik.

Irugarren, galtzen dabe denporea gorputzeko atsegiñetan ta gustu zikiñetan ibilteaz. Esan oi dozu: igaro dagigun denporea, jokatu dagigun, dantzatu, josta ta diberti gaitez. Eta, barriz, ez jatzu gogoratuten bitartean denporea galduten dozula. Bada San Bernardok diño: Jangoikoagan pentsatzen eztozula igaroten jatzun denpora guztia egizu kontu galdu dozula. Alan diño San Jeronimok bere: Obetu ta onduten ta gauza onen bat egin baga igaroten jatzun denporea uste egizu galdu dozula. Ezta asko gauza deungerik ez egitea; ezta asko ez gaistotutea, ezpada ze ondu bear da, on egin bear da; ez aurreratutea atzeratutea da, zerren bitartean, beste kalterik ezpada bere, denporea galdu ta probetxatu baga igaroten da.

Kontu egizu eze orain dozuzala berrogei urte. Eta kontu egizu bere ta gogoratu zaite zeinbat obra on egin dozuzan berrogei urte orreetan; ta arkituko dozu eze, baldin zin zinez ta gogo oso guztiaz abiatu ta emon izan bazina, berrogei urte orreetan egin dozuzan egikera ta obra on guztiak egin ziñekezala urte batean. Bada orrela galdu dozuz beste urte guztiak, berrogeitatik ogeta emeretziak. Ze kontu emongo dozu, bada, urte aena? Berba alper guztien kontua emon bear ko bada, zer ainbeste urte galduena ta alperrik emonena? Errazoiak diño Jeremias Profetak (Tren. 1): Deitu eban denporeak nire kontra. Guk galtzen dogun denpora berak salatuten gaitu, a bera jagiten da gure kontra.

Beste gauza guztiak besterenak dira, baña ez denporea: au gurea da, diño Senekak (Epist. 4). Orain esku artean dogun denporea prestatuten deusku Jangoikoak, emoten deusku ta itxiten deusku geuretat. Eta gura dau probetxa gaitezen, egite onetan emon dagigun ta, alan emonik bere, eskatuko jaku kontu ta errazoiak: baldin Meza enzun badogu, ea ondo ta atan pensetan dogula enzun dogunez. Baldin barau egin badogu, Oraziñoan egon bagara, Pobre eskekoari limosna emon badeutsagu, oneek obra onak dira, gauza guztien kontua eskatuko jaku, ea baneriaz ta eder eretxite arren, munduagaitik ala Jangoikoa gatik eta gogo onagaz ta beardan legez egin doguzanez. Alan dirausku Dabid Profetak

Jangoikoaren izenean berbatuten dala (Psal. 74): Denpora neure aldetik artzen dodanean, eriotzako orduan ain estu kontu artuko dot, eze egite onak bere ea ondo, men menean ta bear zan legez eginak zirianeaz examinatatu, arakatu, ikusi ta juzgatuko dodaz. Obra ona bere, baldin ondo ta gogo onaz egiñak ezpadira, gaistotzat emonik kondenatuko ditu Jangoikoak.

4 §.

Baldin oraingo denporau, orain eskuen artean doguna ondo emoten ezpadogu, gerta liteke etorkizuneko kenda ta ukatutea. Eta, orrez guztiaz, ain da andia gure zorakeria ta itsutasuna, eze uste dogu lengo denporea deungero emon arren, aurrerokoan bere ukatu ez jakula denporea. Baldin Merkatarik batek emongo baleuskio bere Semeari diru pilo andi bat maneatu ta emon legian tratuan ta Merkatarintzan ta, alan tratua ikasirik, berak berez zerbait irabazi legian. Eta, orduan, seme onek bere Aitak emoniko diru guztiak urtuko balitu jokoan, jan edanean, gaistakerian ta arloterian, errazoiak liteke Seme au bildur, ez leuskiola beste bein bere Aitak dirurik emongo, ez fiatuko ta len emonak bere kenda ez legiozan. Alan bada, errazoiak gu bere bildur izan bear gara, kenda eztaigun geure Jangoikoak etorkizuneko denporea, igarota ain dongero emon ezkerok. Alan, Noe santuaren denporan, eun ta ogei urte biziteko eskeñi ta promestu arren, kenda eutsezan azkeneko ogeiak, lenagoko eun urteak deungero emon zituezala orduko gizonak. Au adierazoten dau Dabidek diño-anean (Psal. 54): Gizon gaisto odol-ixurleak, gizon iltzalleak, gerragillak, maliziadunak ta engañatzalleak eztituez euren egunak erdizkatuko, erdibituko, ezтира beste alakoak eztirianen erdia biziko.

Batzuk, euren gazte denporan odol beroa daukanean, biziten dira Jangoikorik, eriotzarik, infernurik, kontu emon bearrik ezpalego legez libertade andian, milla bekatu, gaistakeria, engañamendu egiten dituezala, gorputzari al dituezan atsegiñak ta gozarotasunak emoten deutsezala. Baña gero, zartzaroan odola otzten asten jakenean, asten dira etorkizunaz gomutetan; ill bear dabela, ilkorrak diriala ta illte orduan kontu estua emon bear ko dabela gogoratu ta oartuten. Eta, andik ara alan euren buruari oartu ezkerok, itzultzen dabe planea, iruli ta biurtzen dabe orria beste aldera; eta, len gaistoak baziran, gero onak, prestuak, zurrak, begiratuak, kontuzkoak ta ardurazkoak egiten dira. Alangoak *zati bitan erdibituten dituez euren egunak*. Bada erdi bata, gaztetasuna, deungero ta txarki



emon baeben bere, beste erdia, zartasuna, ondo azkenduten dabe. Eta au da azkenean ondo erdibitutea; gaisto izatea itxirik ona egitea, San Pablo batek legez egitea.

Baña, barriz, beste batzuk gaztetasunean dira onak, prestuak, debo-toak, bertutera emonak eta zartzean gaistoak, okerrak, deungeak. Asitean on ta akabatzean gaisto, Judas izan zan legez. Onelakoak erdibituten dituez euren egunak: zati ta erdi bi egiten dituez. Bada zartasunean gais-toak badira bere, gazte denporan onak izan zirian. Baña au da deungaro, txarto egunak erdizkatutea, zerren onetik gaistora aldatuten dira. Eta ain-batik ainbatean deungago ta pelligruzkoago da zartzaroan gaisto izatea, gaztetasunean baño.

Baña, azkenez, beste batzuk ezituez iños erdibituten euren egunak. Bada, alan zarreran zelan gaztetan dagoz buruz sarturik gaistakerian ta bekatuan. Eta, alakoak dakusenean euren egunak laburtuaz ta akabatuaz doazala, eriotzea urtu ta elduten jakela, kontua emon bear dabela: orduan, zelan igaroaz kontu txarra emon daben, eztira komunki enzunak izango; ez jake euren berbai sinisterik emongo, ezta euren esanetan iñor fiatuko. Alan esan eban Angeru batek onelakoakaz berba egiten ebala: eztzala izango geiago denporarik, akabatuko ziriala geroko gero guztiak (Apocal. 10).

Egin ta asmatu giñeiz milla gogoeta, itzul-inguru, iges-bide ta asmo; baña, gero ta gero bere, ezin iges egin giñeikian: ordura, denporara ta puntura eldu ta bildu bearko gara. San Gregoriok dakar onetarako jazoe-ra edo gertaldi bat eta diño (Hom. 12. sup. Evang. eta 4. dialog. c. 38): Krisaorio zeritxan gizon gaisto batek bere azkeneko orduan zegoala, munduan egin al zirian erregu ta eskariak egiña gaitik, ezin erdetsi ebala biaramoneko luzemendua. Estutu ta larritu zanean, gura eban apur bat luzetu; gura eban biaramona giñoko denpora irabazi; berba eder asko aotik atera zituan; promes, eskentza ta dedar asko egiten zituan; askotan egun bateko epea ta astia eskatuten eban. Baña guztia alperrik. Dedarrez, oioz ta promesetan zegoala, bere egunak akabatu zituzan, arimak urten eutsan ta betiko ondatu zan Infernuan.

5 §.

Bada, onela, bapere zenzunik badogu ezkara gerotik gerora ibilli bear; eztoгу aurrerakoan denporarik galdu bear. Lenago bai, len galdu doguna bear dogu orain irabazi, kobratu ta sendatu. Baña zelan edo ze

moldez irabazi ta kobratu al liteke? Bada, joana joan da; igarora igaro da; ezta aren biurtzerik ta ez eskuratuterik. Eranzuten dau San Gregoriok berba gitxitan ta laburki (lib. moral. c. 28): Denpora igarora erosi ta geu-retuten da nos eta bizitza gaisto igarora, barreka ta pozkaria txarretan galdu doguna negarrez, neke ta penitentzia egiazkoa kaz erosi, kobratu ta irabazten dogunean. Esan gura dau: Denpora igarora, deungero emon genduen, esku artetik joan jakuna erdetsiten dogu, orduko atsegintasun-ordean, orain neke-pena bibidertuak artuten doguzanean. Orduan egin bear genduzan egite onak eta orain egin bear doguzanak oraintxe egiten doguzanean. Au berau da Santo Tomasek bere, Satisfaziñoaren ganean berba egiten dabela, dirauskuna (in addlit, q. 15. a. 1. ad 4): Gizonak denpora igarora ezin osotu ta kobratu badau bere, baña orrez guztiaz erremediatu lei, lenagoko utsak ta len egin bear zituan gauza onak egiten dituzala etorkizunean. Baldin len Meza bat enzun bear zendula itxi bazenduan, konfesatu uts egite ori ta gero etorkizunean bi enzun. Baldin lengo denpora igaroran egun baten barau egin bear bazenduan ta ezen-duan egin, lenik konfesatu bekatu ori ta etorkizunean barau bi atera. Onela denpora igarora dongero emona erosi, erremediatu, kitutu, ordetu ta irabazten dozu nola bait edo moduren baten.

Ordu biko bidea igaroteko dozunean ta ordu atatik bata alperkerian, jan edanean ta arloterian igaro dozunean, ze bitarteko zeure bidea denporaz, ilundu, berandutu ta gaubetu baga azkenduteko? Jazo jatzun utsa bete ta estalduteko? Zer? Gelditzen jatzun ordu atan ain zinez, gogoz, egiaz ta bizkor lastertu ta abiatuten zara non, ordu biko bidea, baten egiten dozu; ta onela bete ta estalduten dozu lengo utsegitea ta alperkeria. Bada, onetara guk bere gure denpora, oraingiño alperkerian ta gaistakerian deungero emon doguna orain ontasunean bibiderturik ta laster egiñaz bear dogu kobratu ta erdetsi. Alan esaten da ardiak bere, arrats aldean arinago ta lasterrago janez bere goxeko gitxi jana erremedietan dabela. Orregaitik, mastiaren Jabeak bere, arratsaldean bear egiten asi zirian langillai ta atxurlariak emon eutsen ainbat alogera ta bear-sari, zein goxetik bear egin ebenai. Zerren arrats aldean asi zirianak ain ziñez ta gogoti emon zirian esku bearrera ta lanera, eze oneek danpora gitxian besteak askoan lainbeste lan egin eben.

Bada, au berau egin bear dogu guk bere orain arrats aldean, zartzaroan, geure egunok akabetara doazanean. Orain badakusgu ia adinara ta urte andietara sartuaz, zartzeaz goazala, eriotzako portura urtuten gareala, emengoaz egiteko urrean gabiltzala. Orain, bada, orain estutu bear gara, orain bear deutsegu eskuai eragin. Orain bakotxari berea biurtu,



orain arerioaz baketu, adiskidatu ta berba egin. Orain bizitza barri on bat asi, ezi geure griña gaistoak, jarraitu Zeruko bideari, maitetu bertutea ta zaletu Jangoikoaren gauzetara. Orain etorkizunean, gerokoan pensatu. Orain egia guztiaz, biotzezko damu benetako bategaz ta geiago bekatu-rik ez egiteko borondate irme sendo bategaz, lenagotik konzienzia ondo examinatuturik, argiro osoro ta egiaz konfesatu; konfesatu ezkeru, aldegin bekatuzko okasiñoetatik, lagun txarretatik; ta ez geiago aetara biurtu. Onela, denpora igarua, ain gauza estimagarri ta balio andikoa, gerotik gerora ibiltean galdu doguna al dan ondoen erremediatu, kobratu, erosi ta irabaziko dogu.

13. BURUA

Gaztetik zartasunera penitenzia luzetuten dabenez.

1 §.

Espiritu Santuak diño (Eccl. 12): gomutatu zaite, akorda zaite zeure Jaungoikoaz gazte denporan, zartzaroko atsekaba ta nekeetara eldu baño len, zeintzuek gaitik datozeanean esango dozu: ez tira nire gogorako, ez tira nire gustukoak, ez tira gai prestu. Gazte zanean bitartean, aala, indarra, osasuna dozun artean bear egizu, orduan zakioz lanari. Zerren, zartu ezkeru, zartasunak berak emongo deustu egitekorik asko.

Ainbat ainbatean, ederrago dira Jangoikoarentzat gaztetasuneko egite onak, zartzarokoak baño. Zergaitik ze gaztetasunekoak berez obeak ta ederragoak dira. Aginduten eban Jangoikoak Lege zarrean frutu guztietarik emon ta eskeñi legiola primizia len-jaioa edo sortua; guztietatik parte bat eta parterik onena, prinzipalena, estimatuena, zelan oi dan komunki lenengoa. Jangoikoak berak aginduten eban usoetarik, ez uso aziak, andiak, zarrak, ezpada usakumeak ekarri legioezala. Gazteak gura zituan ta ez zarrak. Zerren usoak zeinbat gazteago ainbat bigunago, samurrago, obeago, gozoago. Onela, bada, dira gaztetasuneko obra onak bere zartasunekoak baño gaiagoak, estimagarriagoak, obeagoak, baliosagoak. Eta alan da gure Jangoikoa bere aezaz gutiziago, naiago, zaleago. Alan diño Mikeas Profetaren zazpigarren buruan (Miche. cap. 7): gox eldu ta onduten dirian ikoak gura zituan nire arimeak. Presona gazteen lenengo egite onak gura nituzke, aetarik nas zale ta gura, aek egiten jataz on ta gozo.

Agaitik da teologoen esana gizona, adimentura elduten danean, ordu beran dagoala bearturik biotza Jangoikoaga jasotera, aren agindu santuak gordetera, gogoan artzera, fede esperanza ta karidadeko egikiaiak egitera eta errazoi naturalak ta argi berezkoak erakusten deutesen erara bizitera.

Pintatzalle batek egingo baleu imagiña eder bat alde guztiz galanta, polita ta apaindua; imagiña onek, baldin ezagera ta adimenturik baleu, nori lenik begiratu bere ete leuskio? Seguru da Pintatzalleari berari, bere Egilleari. Bada onela, gizonak bere, Jangoikoak berak bere imagiñara, antzera, irudira ain ederto egiña dan ezkeru, adimentura, adinara, ezage-



raren mugara elduten danean orduan bertati bere Egilleari berari, izatea emon deutsanari begiratu bear deutso, aren serbizioan, aren esanak ta aginduak gordeten emon bear da bereala. Onegatik ziñoan San Pablok (2 Timot. 2): Errazoi da, ondo ikusia ta egiña da, bear egiten daben langilleak berak lenen bere frutuetarik probatu ta jatea. Eta San Pablo berak diñoanez (1 Corint. 3): zuek zaree ta gu gara Jangoikoaren lur-lana, apaindua ta landua. Errazoa izango da, bada, Jangoikoak berak, langilla ta bear gilla ona legez, bere lan-bearra lenik proba dagien; eta adimentura edo errazoiaren argira elduten garean ordu atatik gure egite on guztien primizia ta lenengoa probatu dagien.

Baña ai, ai, ai, ta millatan ai! Nor da bere lenengo frutuetarik bere egiteen asieratik Jangoikoari gustatu eragiten deutsenik? Non da kristiñau goxtarririk? Goxetik ondu, umatu ta elduten danik? Gazte danik Jangoikoa serbitzen dabenik? Ai ene, errukitasuna (diño Mikeas Profetak), zerren ni egin nas ude-azkenean, besteak batu ta bildu ezkeru, mats ondar-mondak ta ondakin enparaubak billa dabillena legez. Onenak bestek eroan ta jan ditu. Ezteuste mats-morda bat bere, ez eta garau bakar bat bere aora eroan neikenik itxi. Bada, auxe bereberau esan lei gure Jangoiko onak bere. Zerren gure gaztetasuna bestek daroa; lenengo obrak bestek bilduten ditu. Ezer gelditzen baiako bere, bill-ondoak, ondarrak, azkenak, enparatuak, ondakiñak, gerorengoak, zartasunekoak geldituten jakaz. Eta deungago dana, oneetatik bere txarrenak, ustelenak.

2 §.

Dirudi eze desonra lotsagarritzat daukela oraingo jente gazteak ondo bizitea, bekaturik egin baga egotea. Euren egin-bidea, Jangoikoari zor deuten serbitasuna, geroko, zartasunerako larga ta itxiten dabe, esanik: E, oraindiño ezta ilteko pelligrurik, sendo nago, osasuna dot, gaztea nas; eta gaztea, gazte antzu, gaztea legez bizi ta gobernatu bear dau. Zer esango leuke munduak ta mundutarrak eurak bere, baldin orainganik itxi ta agur egingo baneuskio? Or elduko da zartzarua, denpora geldia, umoa, zorakeriak itxiteko. Orduan bai, orduan onduko nas, orduan munduari atzea emongo deusats ta deboziñoan sartuko nas. Baña, ordura artean dibertitu nadin, poztu nadin, atsegin artu dagidan, munduari jarraitu dagiodan, nakion gogotik, goza dagidan, barriz beragana bihurtuteko gogorik eztauken bat legez; ase, bete, aspertu nadin, ken orrik pensamentu triste, ilun, itsal, gogaikarria; geldi zaitzeze beste denpora baterako.

Au da oraingo presona gazteen gogo ta asmoa; eta au da bizitza guztian gazte izatea, ero, zoro, utsa izatea; ta azkenean, azken txarra eukiteko pelligruan, arriskuan ta zorian ifintea.

Baldin bazeunko esperanza ta segurutasunik emendik urte bere barru erdetsiko zendukezala Jaun andi bateganik ondasun, aberastasun, kargu ta errenta andiak: ez liteke zorakeria andia bitartean, ordugiño denporan Jaun onen kontra ibiltea? Bada au baño andiago da zuk egiten dozun erokeria. Bada, zuk gura dozu emetik urte bete barru edo geroago, zeure zartasunean ondu, obetu; zuk gura dozu orduan Jangoikoaz adiskidetu ta aganik esker mesedeak erdetsi; eta, alanbere, bitartean, ordugiño denpora guztian, zeure gaztetasunean Jangoikoaren kontra zabiltz, agaz arerioturik zagoz ta arerioa legez bide-bage asko, naibage ta iraina asko egiten deutsezula bizi zara. A, ze bidea, ze bitartekoa, ze moldea ta ze modu ona a ganik zartzarua erremedioa, mesedeak, graziak ta gura dozuna erdetsiteko.

Zartasunean zerbait balioko dabenak gaztetik bear dau adierazo ta agiri. Fruturik izango daben Arbolak lenagotik loratu bear dau. Jakintsua ta Letradun andia izango dan Gizonak aurretik bear dau eskolatu. Gazte denporan armarik esku artean erabilli eztabena, zelan zarreran Kapitaituko da? Espiritu Santuak diño (Eccle. 25): Gaztetasunean bildu eztozuna, zelan idoroko dozu zartasunean? Gaztetan luzero gaistoa izan bazara, zelan beingo baten ta laster onduko zara zartasunean? Bada, Espirituaren esana da: gaztetasunean gizonak artzen daben bideari darraio gero bere zartzean. Gaztetako ekanduak, oiturak, usadioak, mañak jarraituten deutse bati zartasunean bere; ta orduan jausiago, makurtuago ifinten dabe bat ta len baño biziroago esetsiten deutse. Bada, dirudi eze deabrua bere orduan irmeago, indartsuago gelditzen dala aren kontra. Alan adierazoten dau San Juan Ebanjelistak, diñoala (Apocal. 12): Begiratu egizue zuek lurra ta itxasoa; deungero doa zuekaz, zerren jatsi da deabrua zuetara aserre andian, jakinik denbora gitxi daukala. Guztiak tentetan ditu deabruak; baña geiago, obeto ta irmeago zarrak. Bada, zelan oneek, luzenaz bere, ezin asko iraun leikean, denpora gitxi laburra dabe, akabetako urrean dagoz; eta akabeta atan dago betiko ondo edo deungero izateko zoria ta gora bera; agaitik deabruak bere akabatze atan biziroago daragoioe; orduan iños baño geiago euren artez, mañaz, asmuz ta al guztiaz baliatzen dira. Orduan zakuko tranpa asmutsuak ateretan dituez; dakiezan jokoak jokaturten dituez; eta, ikusirik denpora gitxi daukeela tentetako, gitxi onez al dagien guztiaz baliatuten dira.



Bada, onela, pelligru andia jarri gura dau zartasuneraño bekatuetan egon gura dabenak. Eta, barriz, zer izango da, askori jazo jakena zartuko dirian ustean, zartu бага bere adinarik onenean il badadi? Eta, alan, ilten ezpada bere, ze gauza on egin lei zartzaroan, edade edo adin argal atan? Eta orduko ondo egiteak zer balio al lei? Izugarria da San Basilio onen gañean diñoana (Orat. 4 de poenit.): Zartasuneko tenplanza edo begiramentua ezta begiramentua; ezina da, ez besterik; indarraren eskastasuna da, al izanaren faltea; ezin eginez egotea; nai ta naiez gelditzea; adinak uko egitea; gura izanaren ezin egiña; bekatua bera aurreratutea; ez guk bekatua, baña bai bekatuak gu itxitea. Gaixotasunean gitxi jatea ezta gitxi jatea; orduko barautzea ezta baraua, zerren baliz ganarik, bago borondatea. Alan da bada geienetan zartzeko tenplanza) begiramentua, bekatuak itxitea ta baraututeaz bere: ezinezkoa da ta ez borondatezkoa. Orregaitik diño San Krisostomok (homil. 50. in Math. 24): Eztot uste presona zarrak merezimendu asko izango dabela bere zar denporan onestua, garbia, moduzkoa, sosegatua izateaz; zerren adinak berak artara lagunduten deuto, edadeak eta urte askoak eurak atara dakarde, gurago badau bere ezin lei bestela. Ze esker uste dozu izango dabela ta ze merezimendu, zar ezin duak arerioari bidera armaturik ez urteteaz? Arratsean gox, denporaz ta ordu onean etxeratuteaz? Amorentasunean ta desoneskeriako ibillera txar zikiñetan gaztea legez ez ibiltean? Danzan ta olguran ez ibilteaz?

Gai onen ganean bere, beste guztietan legez, ederto esaten dau San Agustinek (ad fratres serm. 6): Batzuk gura dabe bere gazte denporan bizi euren gogora, bekatu ta gaistakeria asko, guztiz bere desoneskeriak egiten dituela. Eta gero, baldin zartuten badira, gloriatu ta alabetan dira esanik: Gu jende garbiak, onestuak, kastoak, begiratuak ta kontuzkoak gara; eztogu, Jangoikoari esker, desoneskeriarik egiten, ez bear eztan presona loiakaz lagunduten. Baña, zegatik eztozue egiten? Ezin dozuelako. Bada, orrela, ezinari eskerrak ta ez zuen borondateari.

Orain zuek uste dozue eze jende garbiak, onestuak ta kastuak zarea-la ta kastidade orregatik Jangoikoaren begietan sari andia eukiko dozuela. Gauza oneek onak dira, merezimenduzkoak dira, sarituko ditu Jangoikoak. Baña sari ta pagamentua oso bete izango dabenak itxi bear dau bekatua bekatu egin aldaikean denporan, ta ordu berean artu bertutea. Bada, San Krisostomok diñoan legez (in Math. 3): Eztira ez adiña edo edade guztiak era guztiko bekatuetarako on, ez eta gai. Ez dagoko zartasunari amorentasuna eta ez komunki gaztetasunari abarizia, kutizia, zekentasuna. Gauza guztiak dituez euren erak, denporak, sasoiak. Da ereinteko denpora ta bai bilduteko bere. Eta ero-zoro andia da, bildu ta

batu bear dan denporan, ereintera doiana. Gaztetan bear da erein, landu ta bear egiñ ta zartzean bildu, artu, gozatu ta probetxatu. Alperrik egingo dok txoria, baldin gazte danik ezpadagik abia, diño esakera euskaldun batek. Zuk gura badozu gaztetan alper egon ta gero zartzean lan bearrak egiten asi, ori da zenzun бага ibiltea, gobernu ona auste, bildu bear danean ereitea ta gelditu bear danean bear egiten astea.

Gobernu ta ordea ohea dabe erleak euren artean. Erle gazteak gazteak dirian artean kanpoan dabilta ta bear egiten dabe. Baña, zartu ezkerro, etxe barruan, erlausean dagoz, eztabe kanpora urtetan ezpada atsegiña artzen, an gelditzen dira. Zerren zartzarua atako da, sosegetako, geldi egoteko.

3 §.

Egia da edozein denpora dala ona Jangoikoa serbitzeko; edozein urte, edade ta ordutan dago prest gure Jangoiko maitea parkatuteko bekatuak bekatariarik andienari, nai dala gazte denporan, nai zartasunean, nai eriotzako orduan, baldin bekatariak penitentzia egiazkoa egiten badau. Nos nai, diño, prest egongo dala parkatuteko ondo prestatzen danari; ta alan aditu bear da len esan dogun guztia. Baña ezteuto Jangoikoak iñori penitentzia egiteko biaramonik promestuten, aginduten, eskeñiten, ez opatuten, ez atarako segurantzarik emoten. Alan diño San Agustinek (de verbis Dni. serm. 6): Zartzean penitentzia egiazko egiten badozu, on da. Baña kontua, lana ta puntua da ea zartuko zareanez; eta zartuten bazara bere, ea zartasun atan penitenziarik egingo dozunez, ea lengo urte sendo gaztetan asi eztozuna gero edade argal erbalean akabatuko dozunez.

Ea gaur baño emonago, oratuago, eransiago ta josiago zagozanean sosegura, atsegiñetara, mundutasunera, zeure gustu ta nai-guretara, ea orduan burua neke-penatuko dozunez. Ea orduan leneko ekanduak, usadio ta oitura txar gaistoak itxirik, ekandu on batzuk artuko dozuzanez. Eztakit: nik beintzat dudatzen dot. Eta, nok eztau dudatuko? Zergatik ze, sendo indartsuak jasoten eztabena, argalak zelan maneatuko dau? Baldin bazeunkaz abere, zamari edo zaldi bi ta karga bi, ez liteke izango zorakeria kargarik astunena argalenera emotea? Au berau egiten dau, bada, penitenziaren kargea zartzaroiari egozten deutsanak. Gaztetasuna sendoa da, indartsua da, gaia da on egiteko, bear egiteko ta Jangoikozko gauzetara emoteko. Baña zarrera argala da, on-bearra da; berak dau bere buruaz egitekorik asko. Zarra eztago barau andietarako; belauniko oraziñoan luzero



egoteko, ibilte neketsuak erronomia santuetara egiteko, nekaldiak ta lazta-sun nekezkoak igaroteko. Zarrak bere zartasuneko gaixotasunaz ta argaltasunaz penitenziatzko lan gogorrik nekez egin lei. Zelan, bada, orduan egongo da gai egite onak maitetuteko?

Gitxi dagoz zartzaroen gaztetan baño zalago, arinago, zoliago. Elefantea deritxan animalia andi batek bere gazte denporan belauinak ta gañerako iuntura ta lokazurrak zal ditu; erraz biurtzen da ta batuten da; baño, zartu ezker, gogortu ta osotuten jakaz, alakoze eze baldin orduan jausten, etzaten edo etxuten bada, ezin jagi da, ezin zutik oñen ganean ifini da. Eta bein gogortu ezker ta atara egiñik, lo egingo badau, ifinten da zutik aretx baten kontra ta onela sostenduten da. Bada Elefante gazte ta zarraren artean arkituten dan banaa edo diferentzia, idoroten da presona zar ta gaztearen artean bere: gaztea zal, bizkor, arin dago; zarra, barriz, gogor, nekor, astun, etxuna, askatua ta jausia.

4 §.

Baña onelako diferentziarik edo baanik ezpaliz bere, ezta zartasunera begira egon bear: Zerren zartzeko denpora eldu baño len ta gaztea zarean artean bere mesede asko egiten deustu Jangoiko maiteak: azten zaitu, mantendu, janzi ta bizirik zaukaz. Ezta, bada, errazoia zuk bere bitarte atan, zeure gazte denporan, esker-mesede muga bageak bere esku prestutik artzen dozuzanean, berari esker-onak biurtzea, bera alabatu, onratu ta serbitzea? Zuri Jangoikoak beti egiten deustu on; zergaitik, bada, zu bere ezatzakaz esker onekoa erakutsiko denpora guztietan? Zuretzat Jangoikoa beti da frankoa, ugaria, prestua, esku zabalekoa; zelan, bada, zu ain dollorra, zekena, eskasa, urria, eta esku itxi laburrekoa bera-gaz, zeure gaztetasuna, urterik onenak berari ukaturik, gaistoena, deungena, txarrena, ondarrak, ondakiñak, zartasuna emoten deutsezula? Onena, uruna munduari; gaistoena, lausoa, zaia Jangoikoari. Ondakiñera, ondarrera datorrenean gauza bat, gitxitu ta gaistotuten da, diño Senekak (Ep. 2). Ondarra gitxia da ta a gitxia bere txarra. Urun-lorea, onena, gaztetasuna daroa arerio gaistoak; eta gero gura dozu kontenta dedin Jangoikoa zaiatz, zartasuneko ondarrakaz? Aserretuten zan Jangoikoa animalia itsuak, errenak, gaixoak ta indar-jausiak opa ta eskeniten eutsezanean. Bada alan, errazoi geiagoaz aserratuko da zugaz bere, zerren zartasuna da itsua, argala, indar-bagea, eta zuk orixe opa deustazu.

Zartasunean begietako ikustea laburtuten da; belarrietan gorrieria egiten da; belauinetan azurrak gaisotuten dira; indarra gitxituten da; jateko gustua galduten da; loak iges egiten dau; ikarea etorten da; azala tximurtuten da; ulela urdinduten da; burua ule-bagetuten da; arnasea kirastuten da. Eta, azkenez, presona zar bat otz-beratu, min-beratu, ezaindu, aserratu ta on-beartua geldituten da; alde guztitik errukigarria; eta, baldin lenago gatx estaldurik euki badau, orduan guztiak agertuten dira. Onetariko batek, bada, gogo gitxi izan oi dau penitentzia egiteko; eta edozein denporetan artuko badau bere Jangoikoak ondurik datorrena, danik zarrena ta gaistoena len izan arren; baño gatx da lengo denpora guztia, Jangoikoa azturik, deungero emon dabenak zartasunean bear dan penitentzia egiazkoa egitea. Egin lei Jangoikoaren graziaz lagundurik; Ebanjelio Santuan dakusku bizitza txar bat eginik, azkeneko orduan Zerua irabazi eban Dimas Lapur Santua. Baña nik esan gura dodana da eztala orren erraz: gitxitan au jazoten dala; eta geienetan bizitza gaistoari darraio eriotza txarra.

Bada, au onela izanik, gaztetasunetik asi bear da Jangoikoa serbitzen, penitentzia egin, ekandu onak artuten, lagun gaistoetarik iges egin, sarritu sakramentu santuak, kontuz bizi, ta ez gerotik gerora, gaztetatik zartasunera luzetu penitentzia.



14. BURUA

Zartasunean bere penitentiariak egiten eztabenaz.

1 §.

Eskritura Santuak diño(Reg. 13): Urte bateko seiña zala Saul erregetu zanean ta urte bian izan zan Errege Jerusalem gañean. Baña, zelan au dateke onela? Bada seguru da urte bat baño geiago eukela Saulek erregetu zanean; bai ta gauza jakiña da urte bi baño egon zala bere erregetasunean. Egi da: alan da. Baña, zelan asieran zan malizia bagea, urte bateko seiñaren edo umearen antzera; eta egote onetan iraun eban urte bitan ta ez geiago; eta Jangoikoaren aurrean eztira kontuan artuten onean emoten direan urteak baxen; beragatik esaten da urte bateko Seiña zala Saul Errege sartu zanean ta urte biz egon zala barru atan, ta ez geiago. Bada, urte bian baño etzan egon bekaturik egin baga.

Senekak diño (Epist. 23): Jente batzuk asten dira biziten bizitza itxi bear dabenean; eta, baldin onezaz mirarrituten bazara, esango deutsut beste mirestikoago dan gauza bat; bada beste batzuk biziten asi baño len itxiten dabe bizitza: zerran obra onak asi baño len akabetan jake bizitza. Zer da gauza ezainagorik, diño Seneka berak, biziten asten dan zarra baño? Len bear da asi, lenago bear da ikasi, prestatu, abiatu. Eta, zelan zarra ezin asi leitekean biziten, agiri da obra ta egitekoak gaitik berba egiten dabela Senekak leku onetan, ta ez adina edo edadea gatik.

Ezaina da zartasuna giño Jangoikoa serbitzen ez astea; ezainago orduan bere ez astea; ta are geiago ezainago, itsusiago ta deungeago orduan gastakerietara emotea ta lotutea ta deungetasun barrura sartutea. Batzuk zartzean asten dira onduten, obetuten ta bertuteari jarraituten; eta obe da iños baño, nos; baña ori da bidea igarorik etxean egon bear leukenean, abiatutea, asitea; andi eginik, apendiz ikasle egitea; urdindurik, eskolara joatea. Eta onek guztiok dira gauza ezainak, deungero irudiak, denporatik kanpokoak.

Gazte denporan ibilli zinian gazte zoro, buru arin, deboziño gitxi; beti promestu ta gogoan zerabillan zartzaroan mirariak egingo zenduzela, orduan santutuko ziniala. Bada, orain zartu zara, zeure promes, positu ta berba andien epean ta mugan zagoz; nos, bada, onduko zara?

Nos kunpli ta beteko dozuz lengo berba ta gogo ederrak, nos penitentzia egingo dozu? Baña, ai, zuk orain bere itzulpideak, atxakiak, iges-bideak idoroten dozuz; luzementuak aurkituten dozuz; ta, azkeneko urte ta adinean zagozala gitxi gogoraturik, gaztea baziña legez zabiltz ta bizi zara. Ez eban onela egiten Senekak, jentil fede-bage bat bazan bere, esaten ebanean (Epist. 6): Zartu baño len abiatu nintzan ondo bizitera; ta zartu ezkerero ondo iltera; gaztetan euki neban kontu bizitzeaz ta zartzean ilteraz. Zartu ezkerero, itxi bear da bizitza ta biziteko gogo; eriotzeaz bear da disputan ta auzitan ibilli; ta onetarako egin al guztiak prestatu.

2 §.

Zartzea, atso-aguretutea, urte askoan bizitea, au berez ona da, Jangoikoaren esker-mesedea da. Bada, San Pablok diñon legez (1 Corint. 4): Gure gorputz au, Arimaren kanpoko ta gañeko estalgi au zartuteaz ezaindu ta banatuten bada bere, ariman obetu ta barrirrotuten da egunetik egunera. Presona zarrak, berak ikusi, ezagutu ta dakizan legez mundu zoro onetako erokeria, joan etorria, gora beraren barririk, ordu dau gaztetasuneko maña ta ekandu txarrak itxiteko ta bere bururaz gomutatu ta oartuteko. Baña gaztea dana zori, pelligru ta arrisku andian bizi da. Eta orregaitik Dabidek zirautsan Jangoikoari (Psal. 101): Ez egidazu deitu, Jauna, neure egunen erdian. Itxi egidazu arren zartutera, urdindutera, aguretutera ta azkeneko urte betetara eldutera. Zartasuna, beste gauza askotarako bere bai, baña guztiz bere emoten da gaztetasuneko uts-egiteak bete ta sendotuteko. Eta orretarako orduan lengo odol bizi-bero erexe-giña otzituten da; sosegua ta epetasuna etorten da; eta adimentu ta zenzunduna bada, etorkizunaz ta gerokoaz gogoratzen asten da. Dan presonarik nasaiena, ardura bagenak bere arratsean etzeko atek itxi ta zarratuten ditu; erri andietan gaubaz denporaz jenteak sartu ta atarteak itxiten dira; ardiak iluntzean arinago jaten dau; zisneak iltera doianean bere soñua biziroago egiten dau. Alan dagiela presona zarrak, adierazoten dau San Pablok (Hebr. 10): Zeinbatego ikusten dozuen azken eguna urreratuten jatzuela, ainbatez lasterrago abiatu, prestatu, estutu ta arduratu zaitez. Gorde zaitez orduan nagitzetik, zabartzetik, ardura bagetasunetik. Bada, orduan da mena, mina, azken adina ta pelligru guztien gañeko peligrua. Eta, zelan ainbatik ainbatean ederrago dirian Jangoikoarentzat gaztetasuneko serbitzuak, egiteak ta obra onak zartasunekoak baño; alan, bestera, egiten jakaz ezainago, itsusiago ta gorrotogarriago zartasuneko



uts egiñak ta gasitakeriak gaztetasunekoak baño. Zerren zartzarokoak eztira jakin ezak, ezautu bagez ta ignoranziaz egiñak; ezpada maliziaz, nai izanaz, borondatez ta gogoz begiak itsuturik legez egiñak.

Ezta gai onetara deungero eldu Espiritu Santuak diñoana (Eccle. 25): Iru erako bekatu edo bekatari gorrotatu ta ikusi ezin dodaz besten gañetik; eta dira pobre soberbioa, aberats guzurtia eta zar zoro zenzun bagea edo zar amorantea.

Dakuskun, bada, orain ea zergaitik deritxazan Jangoikoari deungero iru bekatu modu oneek; bada, dirudi eze badala oneek baño bekatu andiagorik. Eta alan, pobrea soberbioa edo andiuste goitua izatea, dirudi pekatu arina dala; eta geiago dirudi zorakeria ta adimentuaren falta, malizia baño. Zerren pobrea zek soberbiatuko dau? Aberatsa bere guzurtia izatea, dirudi bekatu arina dala; beintzat asko da andiagorik. Bada, gizon zarra bere arrotu ta bere burua andizkatu ta alabetea, ta gazte denporako zorakerietara biurtutea, gizonari gerta lekikiona da; bago bekatu andiagorik. Zergaitik bada, oneek onela izanik, diño, orrez guztiaz, Espiritu Santuak iru bekatu oneek gorrotatzen dituela? Ezta gatx eranzutea.

Baldin iru erako bekatu onei begiratzan badeutsegu kanpotik, gañetik, azaletik, badira eurok baño andiagoak ta Jangoikoak bere gorrotoago dituenik. Baña, baldin barrutik, mamitik artuten badogu, Espiritu Santuak onetan zer eran gura deuskun idoroko dogu: maliziaz, premia bage, gulleriaz, bere nai-guraz, biderik, okasiñorik ta tentamendu bage egiten dirian bekatuak diriala gaistoagoak, ezainagoak; eta onelakoak dira iru mueta onetako bekatuak, zeinzen gomutea orain egiten dogun.

Probea, eskekoa guzurtia izatea ezta ain miresteko: bada bearrak gauza asko eragin leiz. Aberatsa bere soberbioa, arroa ta andigurea izatea oi dana da; bada, eztaben legez iñoren bearrak ta eukitea ondasunak ugari, onek soberbiatu, anditu, axetu, arrotuten dau; bada, presona gazte bat bere egiteetan ta joan etorrietan arina eta zoroa izatea ezta on, baña dirudi, gitxi bat bada bere, adinak, edadeak, gaztetasunak estalpetuten dabela. Baña probeak ze bide dau soberbiatuteko? Aberatsak guzurtia izateko? Presona zarrak gazte denporako gira bira ta zorakerietara biurtuteko? Bekatuok ta guztiz bere zartasunekoak ez dabe eskurarik, atxakirik, iges-biderik eta ez edertzeko bere biderik; eta agaitik ditu ain gorroto Jangoikoak.

3 §.

Aldi baten leketu eban Jangoikoak banatu ta apurtu legiela arerioak Jerusalem Uri eder famatua; itxi ta permiti eutsen agaz gura eben guztia egin legiela. Eta, zelan Jangoikoak eztaben iñor iños kastigetaz bidebagez, emoten dau errazoa Jeremias Profetak ea au zegatik egin eban Jaunak, esanik (Jerem. 1): Jerusalem erri bekatariak zituzan oñak lupetz loiz zikindurik; eta etzan bere finaz gomutetan. Esan baleu legez: oñak zituan loiturik, lupezturik, zikindurik ta orregaitik galdu dot Erriau. Baña, izanik oi dan gauza, lurrean dabilten oñak loiturik ibiltea: zer esan gura dau orrek? Baldin arpegia euki baleu loiturik, dirudi errazoa eukala egin ebana egiteko; baña, oñak gaitik zer antsi da, ze ardura da, zer esan gura dau? Bada, ori beragaitik diño, oñetako loa gaitik galdu zala; bada, zelan zartasuna da azkeneko adina, edadea ta bizitzaren bazterra, marra, muga, ondarra, alan dira oñak bere gorputzaren azkena ta kabua. Eta alan, oñetan loi izateak esan gura dau zartasunean zala loa, zikiña, gaisto okerra; eta etzala bere azkenaz bere gomutatu eta agaitik galdu zala. Zerren zartzaroen gaistoa dana eta orduan bere salbamentuaz ta arimaz gomutetan ezta gax dala galdu bage iges egitea.

San Ziprianok diño (de 12 abusion. 2): Zelan arbola bat dan alperra, utsa, orri eta lorearen ondoan fruturik eztakarrenean, alan da gizona bere gizon alperra, balio gitxikoa, bere gaztetasuneko lorea, berde edo ezetasuna igaro ezkerok, egite onen fruturik bage dagoana. Gizonak, iños bere izatekoz, bear leke ogei urteetan izan bizia, bizkorra, arina; ogeta amar urteetan indartsua zala, sendoa; berrogeietan zenzun ta adimentuduna; berrogeta amarreetan diruduna, ondasunduna; eta irurogeietan debotoa, bertuoso, konzienzia onekoa. Andik aurrera konzienziarik eztabenaz, bere griña txarrak eziten eztituenaz, bere gaistakerietatik atzeratuten ezta-naz ez egizu konturik euki; euki egizu galdutzat. Eta euki egizu galdugotzat orduan barrero zaletu ta emoten bada gaistakerietara ta bekatuetara; azaz etsitu edo esperanza galdu egizu: ezta gaur geiago gauza onik egingo.

Alakoak menaza edo zemaituten ditu Jeremias Profetek berba estaldu batzuen azpian, esanik (Jerem. 6): Ai, gure zorigaistokoak! galduak gara, egin dau gureak: zerren akabetako urrean dago eguna; eguzkia beerratu da ta gerizea bere luzetuago da arratsaldean. Adietan emoten da one-gaz galduak goazala, ez eguzkiak arrastegian geriza andiagoo ta luzeagoo egiten dabelako; ezpada gure arratsaldean, zartzaroen, adina itzultzen ta



beeratuten doianean ta joakunean, orduan bekatu egiteko ta biziteko naigurea gietu ta luzetuten jakulako; eta zarrago gaistoago egiten garealako, agaitik diño galduak gareala.

Ondo dakigu Zeruan sartuko danak eztabela euki bear bekatuorik, orbanik, mantxarrik, tximurrik (Ephes. 9). Bakigu larga ta itxi bear diriala lenagotik ekandu ta oitura deungeak. Eta zuk gaztea ziñanean, etzala orduan lekurik ez astirik penitenzia egiteko, ez gaistakeriak itxiteko eta zartasunean, falta baga, guztiak largako zenduzela. Bada orain an zara; aror non eldu zarean; zartu zara; ta orrez guztiaz iños baño barrurago sartuten zara bekatuetan; etzara bapere obetu; len baxen gaistoago ta okerrago egiten zara. Ze gogo dozu, bada? Zertan zagoz? Zeren begira zagoz? Zartasunaren? An zara. Epearen, denporaren? Bete da; kunplitu da. Kunpli egizu bada zuk bere zeure berbea eta promesa, zartuten ziñianeko emon zenduana.

Esango dozu: badot orandiño beste epe bat beste asti bat, beste denpora ta eraldi bat bere; ez tira oraindo denpora guztiak igaro. Egia da esan nebala zartzean onduko nintzala, ordurako zan lengo astia ta epea. Baña artu nei bigarren bat bere. Bada, oraindiño zartu nasana gaitik bizi niteke geiago bere. Eta alan, azkeneko urtean ilteko aurrean, falta baga, falta ta uts guztiak atarako ta beteko dodaz. Orduan neure berbak gordeko dodaz, promes guztiak beteko dodaz. Ordura artean ezta lekurik, ezta zer berbatu bear, ezta zer ardurarik artu bear.

Au da presona zoro galduen kontua; ta urrengo Kapitulu edo Buruan agiriko dan legez, azken txar bat eukiteko señaleak ditu.

15. BURUA

Eriotzako ordugíño bekatuan egiteko gogoa daukenaz.

1 §.

Senekak diño (Epist. 27): Il bitez zu baño len zure bekatuak. Oneek lenetik, zu gero. Ez egizuz eriotzara giño zugaz euki. Bada bestela, pelligruan jarri zintezkez; zerori illik, aek bizirik gelditu ez titezen. Zartasunaraño bekatuan dabillena perill andian dabil; zer izango da, bada, zartu ezkeroz, andik atxina eriotzako ordu giño beti barrurago sartzen dala, beti alan dabillanaz ta ibilteko gogoa, asmoa, borondatea ta ustea dabenaz?

Ez neunke esan gura zein pellibru andiak dirian eriotzako ordu atan; bada, gura ez neunke iñori bildurtuteko, ikaratuteko, izututeko, larrituteko, esperanza ta itxaromena galduteko biderik emon gura. Baña ezin nengoke zerbait esan baga. Bada, orduko esperantzak asko galduten ditu. Eta dakust eze, nik orain emen emon neikezan bildurtasunak baño, orduko pelligruaren barririk ez eukiteak kalte geiago egin leikezala.

Baña, lan onetan sartu baño len gura neuke jakin zeinkian gauza bat, eta da: Zelan egiazko penitenzia dan Jangoikoaren doa ta mesede egite bat, Jangoikoak berak nai dabenean emon leiena, alan egiazko penitenzia a, nos nai dan dala, eriotzako azkeneko orduan bada bere, salbatzeko asko da. Eta alan, salbatu zan Dimas Lapur santua bere azken orduan, ordugíño bekatuan egon ta ibilli ezkerro. Oraingíño, bidezkoak gara ta garean bitartean, igaro gintekez aurrera, baita biurtu bere atzera; egin giñei on ta bai deungero bere. Zerren borondatea, naia, gura izatea libre geure eskuan dogu. Eta alan diño san Agustinek (Serm. 11 de Verb. Dni.): Ezta iñogaz etsitu edo desesperatu bear; ezta iñor bere galdutzat euki bear, Jangoikoaren pazientzia ta ontasunak penitenzia egiteko itxadoten deuten artean, mundu onetan dauken artean. Beste leku baten diño San Agustinek berak (de Eccles. dogmat. cap. 80): Seguru dakigu, duda baga sinisten dogu, azkeneko arnasan aurkituten danean bere, penitenzia egiazkoak bekatuak parkatuten dituela. Eta Jangoikoak berak diño Ezekiel Profetaren aotik (cap. 13): Ezteutso bekatariari bekatuak kalterik egingo, bekatutik urten ta jagiten dan egunetik aurrera. Itzuli bedi bekataria, biur-



tu bedi Jangoikoa gana, nai dala azkeneko orduan, nai akaberako arnasan dagoanean; eta orduan bere, enzuna izango da. Bizirik dagoan artean, arnasea beragan dauken bitartean, baldin oraindiño adimentua, zenzuna, burua on badauko, ezageran, gomutean, akoreduan badago, aserretu ta etsituten ezpada, biotz biotzetik Jangoikoa gana biurtzen bada, badauko bere bekatuen damu osoa: onela izanik ez dau zer etsitu, eztau desespera bear, eztau zer esperanzarik galdu bear, zergatik ze eztago oraindiño orduan erremediatik kanpora.

Bekatuena parkaziñoa erdetsiteko egin bear da penitentzia; eta penitentzia egiteko asko da puntu bat, buru itzultze bat, begi itxi-idigite baten bitartea, Jangoikoaren graziaz batera. Bekatu mortalean bere zorigatxez jausi dana ezin salba liteke penitentzia egin baga, au da, albadedi konfesatu bear da; baña ezin konfesatu bada, asko da salbetako Kontriziño egiazko bat; eta da eukitea damu eta biotz min egiazko bat, Jangoiko ain ona ta maitegarria ofenditu dabelako, proposituaz gero aldaieanean konfesetako; eta besterik ezin danean, au da asko salbetako.

Erremedio au dauke itxasoan, bide bakar baten edo Sazerdoterik eztagoan beste edozein lekutan konfesatu baga ilten dirianak: kontriziño egiazkoa, biotzezko damua ta dolorea. Au dabe asko, baldin bear dan legez ifinten badabe damu osoau; baña au bere ezta ain erraz egiten zelan batzuk uste daben: Jangoikoaren grazia, laguntza ta zia andiak bear dira akto kontriziñoako oso egiazko bat egiteko; eta, beragaitik, izango da on sarrri kontriziñozko egikaiak egitea, lenagotik atara oitu ta ekandueta.

Penitentzia oni, biotzezko damu oni, dolore oni deritxa latinez *contritio a verbo contero*, zeñek esan gura dau zatitzea, puskatzea, samindutea; zergaitik eze bekatuz arritu ta gogortu zan biotza damuaz, doloreaz, errukiaz zeatu, beraatu ta zatitzen da; eta Jangoikoaren laguntzaz euki ta irabazi lei bekatarririk andienak denporarik laburrenean ta instanterik txikienean. Zerren San Basilioko diñoak legez (Orat. 4 de poenit.): Penitentiaren indarra ta balioa borondatearen erabagian dago eta ez denporaren luzetasunean. Alan diño San Agustinek bere: Penitentzia egitean ezta ainbeste begiratu bear denporaren neurria, zelan dolorearena. Damu egiazkoak, biotz biotzetik onduteak, garbai fin bero batek geiago egin lei denpora gitxian, dolore nasai otz epelak denpora askoan baño. Dolorea bear da neurtu ta konsideratu ta ez denporea. Au berau oraindiño adierazoten dau San Agustinek, esanik (Serm. 67 de tempor.): Penitentzia ezta ez urteen kontuaz egiazkoa ta balioa egiten, ezpada biotz barruko doloreaz, damuaz, errukiaz, garbaiaz, atsekabeaz ta minaz.

Zelan bekatua arimetik kenduteko ta aterateko gauza bi bear dirian: bata Jangoikoaren aldetik, aren grazia ta laguntza; ta bestea guretik, gure naia, gura izatea ta borondatea; eta gauza guztiok, gure aldetik bear dirianak bere, zeintzuk Jangoikoak lagundu baga ezin egin giñeiz; alan Jangoikoak bere grazia emotea, guk grazian artutea eta onezaz batean bekatua kendutera prestatutea egin ditekete laburki, eriotzako azkeneko kabuan bere. Bada, bekatu egiteko asko dan legez istante bat, asti ta denpora gitxi bat, borondatezko gura izate bat; onela asko izango da, bekatu a bere erremediatzeko bere puntu bat, istante bat, gogoa beste aldera itzultze bat ta irmetasunaz Jangoikoa gaitik bekatua larga ta itxite bat. Zerren miseriakordiosoago ta errukiorra da Jangoikoa, justiziatia baño: parkatzera prestatgo, makurtuago dago, kastigetara baño. Onela, bada, eriotzako kabuan, azkeneko orduan bere, egin lei Jangoikoaren laguntzaz batean egiazko penitentzia ta erdetsi bekatuen parkaziñoa. Au egia da ta egia onetan eztago dudarik, bada ezpadarik.

2 §.

Bai, baña bada duda ta duda andia, ea azkeneko ordu atan egiazko penitentiarririk, bear dan damurik izango dabenez bekatariak? Autortuten deusut euki leiela orduan bere. Baña kontua da ez izango dabenez. Eta ezta munduan eriotzako ordugiño bekatuetan dagoanaren salbaziñoaz dudatuten eztabenik, segurutasunik emoten dabenik. Lenago bai, Eskritura Santa ta Elexako Doktore jakintsu guztiak ain estu ta bildurkioro berba egiten dabe orduko penitentiarririk, eze dirudi aen esatez ta ustez ezatala bat bere salbetan ordura artean bekatuan irauan dabenetatik.

San Mateo Ebanjelistak diño (14): Erregutu egizue, eztedilla zuen igesa jazo neguan edo zapatuan, zein orduan zan Domeka. Zergaitik ze zelan neguan dirian euriak, laprasturak, loiak ta lupepetzak, ezta ona bidean ibilteko. Eta Jaiegunean bere eragotzirik egoan bide luzeak ibiltea, urrin joatea. Bada, eriotzako ordua da negua ta jaiia. Da negua, guztia dagoalako penaz, nekez, egitekoz betea. Da jaiia, orduan lan bearrak itxi bear dirialako ta astegunetako neketarik atsegindu ta aste guztiko egite onez gozatu. Beraz, onela len bear da arerio gaistoen eskuetatik iges egin ta ez ordugiño egon ta luzetu.

Soñeko janziera barriak Pazkoarako egin gura dituenak lenagotik bear dau prestatzen asi, lenagotik bear dau oiala ekarri, neurria artu ta jostertera emon. Zorakeria andia liteke gox bera giño dendariari deitu baga ta



beste gauzak zuzendu, maneatu ta abiatu baga egotea. Bada, erokeria andiagoa da eriotzako orduraño arimearen bizitzeaz ez konturik eukitea ta uste zoro utsa eukitea ordu larri estu bildurgarri atan, ain denpora laburrean prestatu ta apainduko dala. Agatik Alexandro andiak bota eban soldadu bat bere laguntzatik: zerren arerioak urreratu ziriane, pelea asi bear zanean, asi zan armak garbitzen ta prestatzen.

Denpora estua ta zeregin andikoa da eriotzako denpora: gatx da orduan egiazko penitentzia egitea ta izatea, guztiz bere len deboziñoan ekandutu eztanerentzat edo ordura artean beti gaistoa izan danarentzat.

Eta zelan dan gatx errazoi askogaz ontzatu edo probatu lei. Lenengoa: orduan munduko egitekoak, zeregiñak, zor-artzekoak, artu-emonak, seme alabak, seiñak, ondokoak ta guztiok baño geiago gaixotasunak berak, orduko doloreak, neke-penak ta minak eragozgarri andiak ifiniko deusuez, nastu, samindu, zorabiatuko zaituz; zeri lotu eztaizula, zeure buruaz ta egin-bideaz azturik iminiko zaitue.

Sukar edo kalentura andi bategaz, inka edo alboko min bizi andi bategaz edo beste gaixotasun andi bategaz mindurik zagozanean, dolore ak berak emoten deusue zeregiñik asko, ezteusue bestetan pensetako bere astirik emoten.

Zer izango da, bada, dolore guztien gañeko doloreak, arimea gorputzetik aterateko asko danak, eriotzeak artzen zaituenean? Ze balentia, fanfarrerria ta gauza andi uste dozu egitea orduan? Egiazko penitentzia, izanik ain gauza andia, egitekotsua ta osasundunari bere lanik ta zereginik asko emoten deusua, gura dozu zuk danik denporarik estuenerako, gatxenerako, gaixorik zagozanako, bai ta eriotzeko azken ordurako luzetu?

Orretan adietan emoten dozu eztozula iñosbere penitentiari egin gura. Bada, osasuna dozunean, aala dozunean eztozu egiten. Alan diño Doktore batek (Hugo, de sacram. p. 4, c. 5). Agatik diño San Agustinek (serm. 17, ad frat. en erem.): Bakotxak bear dau zeinbat lasterren biurtu ta urtu Jangoikoagana al daginean: Zerren al dabenean gura eztabenak, gura dabenean eztau al izango. Beintzat ifinten da ez izateko pelligruan.

Bada onela, len bait len prestatu ta abiatu bear da; bada, bestela, gatx izango da eriotzako orduan, gaixotasunaz ta minaz astundurik, ganorabageturik ta adore baga zagozanean penitentzia egitea, bear dan gogo ta berotasunaz Jangoikoagan biurtzea ta emotea. Zerren orduan, dana dala, gaixotasunak emongo deusue egitekorik asko.

3 §.

Orrez geiago, gatx izango da eriotzako orduan bear dan bidean penitentzia egitea: zergaitik ze penitentiak eta beste edozein obra onak bere, egiazkoa ta baliokoa izateko, egin bear da gogoz, amorez, borondatez, onez ta libertateaz, eta ez premiaturik, ezin bestez, edo bildurrez. Eta, barriz, azken orduko penitentiak dirudi borondatearen kontrako, ezin geiagokoa, nai ta nai ez egina; ta ez bear dan lakoa, ta ez bear dan legezko librea ta borondatezkoa. Alan diño San Agustinek (serm. 57 de tempor.): Gaixoaren penitentzia, penitentzia gaixoa da: bildur nas il dedin iltean baño egiten ezтана.

Eta Dabid santuak diñonez (Psal. 6): Ezta iñorbere eriotzako orduan Jangoikoaz gogoratzen. Baña, zer esan gura dau berba egikune onek: ezta iñor eriotzan Jangoikoaz gogoratu ta gomutatzen? Bada gu orduko esperanzak bizi gaitu; ta esperanza onegaz eztozu orduguiño gaistakeria bano egiten; eztozu orduraño Jangoikoaren akordurik, gomuterik. Baña orduan danik gaistoan bere asten dira konzienziako gauzai begiratzen, bateri ta besteri parkeska ta, beste gauza guztiak itxirik, al guztiaz Jangoikoagan pensetan.

Au onela izanik, zelan diteke egia Errege Dabidek diñoana: ezta iñor eriotzan Jangoikoagaz gomutatzen? Ezta gatx eranzutea. Zergaitik ze, batz, len esan dan legez, orduan gaixotasunak berak, gorputzeko gatxak emoten deusue bakotxari egitekorik asko; eta barriz, bestea, zerren pelligrua dan orduko gomutatzea ta gogoratzea, gomutatzen bada bere, ez gomutatzea legez, bildurrezkoa ta nai ta naiezkoa izango da ta ez bera dan legezkoa. Bada, San Agustinek diñonez (serm. 10 de sanct.): Bizi izan dan artean Jangoikoaz azturik egon danak merezi dau bera bere buruaz aztu dedin iltean; eta, gomutetan bada bere, ak gomuteak eztagion ezer balio. Eta irudi bere au ezteusela ezer baliatzen, bada, geienetan alakoak iges egiten dabenean gaixotasunetik lenagoko bekatuetara biurtzen oi da.

Onelakoaz berba egiten dabela Dabid Erregeak diño (psal. 65): zeure bertutearen askotasunean guzurra esango deusue zeure arerioak. Zer esan gure dau esakera onegaz? Ara, irudintza oneekaz adituko dozue: Zaldun bik alkarren artean areriotasuna, gorrotoa, ikusi ezina dabenean ta alkar desafiaturik ta peleako lekura deiturik, komunki sendoenak ta indartsuenak goiartuten dau, azpiratuten dau, lurrera botatzen dau, oñazpituden dau ta ezpateaz an bertan igaro gura dau. Orduan lurrean datzanak, ikusirik bere burua ta bizitzea ilteko zorian, pelligruan ta estura andian,



dirautso bere arerioari: ai, Jauna, erregutzen deusut, arren bada, parkatu dagidazula, bizitzea kendu eztagidazula, euki dagizula nire errukia.

Oraintxe dazaut zugaz deungero egin dodala, uts egin dodala, dollorkeriaz portatu nasala; baña berbea emoten deusut emendik aurre-ra zure serbitzaria izango nasala. Onela humiltasunaz berba egiten deusot; onela erregututen deusot. Eta besteari, ustezko erregu errukigarriok enzunik, biotza austen jako, errukitzen jako, parkatuten deusot, itxiten deusot jagitera. Baña jagi ta bertatik, emon dituen promesaz ta egin jakan mesedeaz kontu gitxi eginik, bere lengo gorrotora ta areriotasunera biur-tzen da. Onelakoari bere arerioaren indarrak, nagusitasunak ta geiago al izateak guzurre esan eragin deusot ta promesarazo kunplitzen eztabena. Bada, orregaitik diño Dabidek: zeure bertutearen askotasunean guzurre esango deusue zeure arerioak.

Alan, gaixo batek bere gaixotasunean ta marinalak itxasoko ekatxe-tan estu estuan dabilzenean promes asko eder egiten dabe, santutu, ondu ta obetuteko gogo artzen dabe, deboziño bizi egiako bat erakusten dabe. Baña, au guztiau bildurrez egiten daben legez, gaixotasuna, ekatxa, esturea, pelligrua igaroten danean joan zan aen deboziñoa, ausi zirian aen eskentzak ta, deungego dana, andik ara len baño gaistoago egiten dira. Onelakoai gaixotasunaren ta pelligruren indarrak guzurre esan erazoten deutse ta promesa erazo kunplitzen eztabena.

Karzelan edo presondegian dagoanak egiten daben ordenuak ta tes-tamentuak eztabela ezer balio diño legeak (ff. de eo qui metu). Alan, bada, eztabe asko balioko gaixotasunean ta eriotzaren karzelan ta esturan dago-anak gura ta gurez, ezin geiagoan, azalezko nai bategaz egiten dituzan promesak ta penitenziak bere. Zerren oneek guztiok dirudie diriala borondate bage egiñak ta ez amorioz ta biotzez.

4 §.

Antioko Errege gaistoa gaitik diño Eskritura Santeak (2 Macab.): eriotzako ordura eldu zanean damu andi bat erakutsi ebal, promesa ta eskentza eder asko egin zituala; ainbat eze zirudian santu bat bere berbe-tan; bada, santu balitzan legez, ziñoan beste gauza askoren artean: justua ta errazoizkoa da Jangoikoaren mendearen azpian egotea; eta gizonak Jangoikoaz bardin bere burua ez eukitea.

Eta, orrez guztiaz, onela berbatuten bazan bere, diño Eskritura santa berak leku berean: Gaisto au erreguka egokan Jangoikoaren, baña alpe-

rrik, bada ez egoan parkamena erdetsiteko denporan. Zerren erregu ok ta Jangoikoaz gogoratute au eriotzaren bildurak eragin ta erasoten eutsa-zan. Onen ganean diño Soto jakindunak (4. sentent. d. 15, q. 3, a. 6): Ez eban Antioko Erregeak parkamendurik erdetsi, zergaitik ze ez eban bear-zan denporan penitenziarik egin. Baña ak bere azkenean egin eban abia-tzea ta penitenziaren irudipena ifinten jaku geure begien aurrean adibide-tzat ta espillutzat, jakin dagigun gaixotasun aren ta eriotzaren estutasune-tik sortzen dan penitenzia askotan dala utsa, alperra, guzturia ta balio gitxikoa. Dakutsunean bere denpora guztian gaistoa izan dan bat, gaixo-tu danean eta ia iltera doianean, asten dala batari ta besteari parkeska, bakotxari berea biur-tzen, bere ondasunak zatitzen eta arrausi andi batzu-kaz begiak Zerura irulten, Jangoikoari eskentzen, ez egizu ez orregaitik uste izan seguru ta ziur ziur dabela alakorik bere salbaziñoa. Lenagotik lenagotik gaixotu baño len ta eriotzako estura baño len bear da larga bekatua ta gauza onetara emon. Bada bestela, gaixotu ezkerozko debo-ziñoan eztago zer fiatu, ez da segurantzarik. Eriotzako deboziñoa geiene-tan eriotzaren bildurretik erne, jaio, sortu ta elduten da, ta ez Jangoikoaren maitetasunetik. Gaixotu ta txartu ezipaziña lengo otzaran, etxagutzan ta bizi lekuan egongo zinian.

Baldin lenagotik, gaixotu baño len, bekatua etxiten badozu, gogo ona artzen bozu ta albatenez zeure lenagoko uts egiteak sendatzen zabil-tzanean eriotzeak artzen bazaitu, jakin egizu orduan, munduko bekatari-rik andiena izan bazara bere, salbatzeko bidean zagozala ta salbatzeko esperanza andi bat euki ziñaikela.

Baña, bestela, Jangoikoak gorde zaizala, bekatuan ta bekatu egiteko gogoan ta borondatean zabiltzala zeure azkeneko gaixotasunak idoroten bazaitu. Bada, baldin onelako epetan arkitzen bazaitu, pelligruzkoak dira zure ondorengo konfeseteak, errukimenduak, deboziñoak ta egiten dozu-zan beste onelako egikiaiak bere, guztiz gitxi balio eztagien, indar gitxiko-ak ezan ezтитеzen.

Eztot neure burutik berba egiten; alan diño San Agustín batek (Homil. 41, de vera et fals. poenit.): Osasuna dabela bere bekatuak kon-fesatu ta penitenzia egiten dabena eta andik aurrera ondo bizi dana, ondo ta seguru urteten dau emendik. Baña bere azkenerako ta azkeneko gaixo-tasunerako gauza oneek egitera itxadoten dabena, eznas seguru, ezna go ziur ea ondo ta seguru urteten dabenez. Seguru nagoanean, esaten dot seguru nagoala; eta eznasanean ez nasala. Esan nei orduan bere egin leie-la penitenzia, baña ezin emon nei ziurtasunik. Eztiñot kondenatuko dala; eta ez salbatuko dala bere. Ez nas fiatuten, ez nago seguru, eztagit. Onela



berba egiten dau San Agustinek. Eta orain diño esaten dau geiago bere: Nazu, diño, dudatik urten? Gurozu seguruan jokatu? Egizu penitentzia sendo zagozanean; itxi egizu bekatua larga al dozunean. Bada, bestela, baldin zuk egin gura badozu penitentzia gaixorik zagozanean, iltera zoazanean; bekatua bere itxiten badozu ezin egin dozunean; eztozuz zuk orduan itxiten bekatuak, ezpada bekatuak zu itxiten zaituze.

Ze esker edo merezimendu uste dozu izango dozula, ia ezin geiago ziñeenean ta iltera zoazanean, tratu gaistoak itxitez, batari ta besteari zeure ondasunak itxitez ta zatitzeaz? Bada ezin eroan daikezuz. Baldin gauza on guzti orreek egin bazenduz osasuna zenduanean ta zeure burua alan onerako zein gaistorako zeure naiguran zenduanean, dirudi indar geiago euki ebela, baliosoagoak izango ziriala, segurutasun andi bat emon eutsuela ta zugaz ondo joango zala. Baña zeure azken ondarrean, ia ezin geiago irauñ ziñeielā ikusirik ta estuturik egiten dozun obra onean ta penitentzian ezta zer lar fiatu. Bada pelligru da orduko obra on a ta penitentzia izan eztidin bear liteken zindoa ta egiazkoa.

Ezpedi bada inor egon penitentziarik egin baga ta bekatuak itxi baga ezin daikean denpora giño; egin begi bakotxak berari dagokana bere borondatearen jabe dan artean, denporan, orduz ta gox. Bada, San Agustinek diñoanez (de vera et fals poenit.): Asko enganatu ditu arrastegiko errukimenduak, penitentzia belukoak, damu berandukorrak. Arbola batzuk dagoz udaren azkenean denporatik kanpora asten dirianak loratuten edo bigarrenez loratzen. Baña lora aetatik gitxi loratu ta gelditzen oi dira: gitxi eldu, eransi, oratu ta frutatuten dira; nok zelan eztakiala igartu, zimeldu ta galdu oi dira. Alan, bada, dira bere bizitzaren azkenean, gaixotasunean ta iltean deseo onez betetzen asten dirianak bere. Orduko deseoak, nai izateak, gurariak neguko lorak dira, denpora txarrekoak, artu, oratu, eransi bageak, fruturik eztakardenak, deseo bakar utsetan igartu, makaldu ta amatetan dirianak.

5 §.

Faraon Erregeak Israeleko semeen atzean, eurak ilteko gogoaz, joan zanean, ikusirik urak beragana zetoza, esan eban (Exod. 14): Iges egin dagigun, biurtu gaitez atzera, eztagigun gura dogunik; zerren Jangoikoa heuren aldetik dabe jendeok. Abiatu zan bada atzera, emon eban igesari, baña alperrik, berandu gomutatu zan; faraon arin, agudo, prest ebillan, baña urak lasterrago; an bere lagun guztiakaz ito ta ondatu

zan. Alan jazoten jake, bada, geienetan geienai, eriotzako orduan euren gaistakerietatik etzera biurtu ta iges egin gura dabenai. Abiatu ta asten dira, egiten dituez alegin batzuk, baña ez asko, ez bear dirianak, ezpada otz epelak, argal erbalak eta onela artzen ditue eriotzako ur korrontak.

Joab eta Abner Kapitai biak gerra andi bat zerebillen alkarren artean. Eta, azkenean, ikusirik Abnerek deungero joakola, benzutu urrean zala, esan eutsan Joab bere arerioari (2 Reg. 2): Zer da au, Joab Kapitai fama-duna? Zeren billa ta zer egiteko gogo ta asmo artu dozu? Akabatu gura ete nozu? Asko egin dozu, ni baño geiago zara, itxi egidazu bizitzea. Orduan eranzun eutsan Joabeek: Egiaz dirautsut eze, baldin goxean berba egin bazeustan, jentea zabalduko zala, bakean guztia geldituko zala ta enzuna izango ziniala. Esan baleutso legez: Eta zer? egun guztian orain artean ene kontra ibilli zara, atan zeure soldaduak, zeure al, indarrak, al ta asmo guztiak emon dozuz; eta gero orain arratsaldean ia artua zagozanean, geiago ezin dozunean, gura dozu baketu ta adiskidetu? Bada ez, ez: belu da, berandu da, ezta orain denpora, alperrik berba egiten dozu; orain ene aldia da, len zurea zan legez. Orra emen non dozun argiro adierazorik bekatari batek bere bizitza guztian bekatuetan Jangoikoaren kontra gerra ibillirik, eriotzako orduan, ia jausi danean, Jangoikoaz gertatzen jakona.

Alakoari ta alakoai esango deutse Jangoikoak Abimelek Erregeari ta beragaz zirian lagunai Isak Patriarkak edo Aitaurrenak esan eutseena (Genes. 26): Zetara etorri zara orain nigana, len ikusi ezinik, gorrataturik ta zukan botarik erabilli dozun gizon bategana? Alangoiai esango deutse Ebanjelioko bost Birgiña nagī-alperrai esan jakena (Math. 25): Zoaze, kendu zaitze ortik, etzaituedaz ezagututen; itxi da atea; ezta idigiterik; berandu zatoze ta ordu txarrean. Alakoai esango deutse: zuek al izan dozuenean, etzenduen onik egin gura izan; zegaitik bada orain ezin dozunean, nik zuei jaramongo deusuet? Azkenez esango deutse: Non dira oraingiño serbitu dozuezan Jaunak, Ugazabak, Nagusiak, jabeak? Maitetu dozuezan bekatuak, atsegintasunak, olgurak ta gaistakeriak? (Deut. 32). Zoaze aetara, aek lagundu daiezuela ta itxi nagizue ni orain bere, oraingiño itxi, aztu, oñazpitu, despreziatu nozuen legez. Konpon zaitze, balia zaitze aezaz. Zuek len egiten zeusten barre ta burla; alan bada, aldiz, nik bere orain egiten dot zuekaz. Zuen eriotzan barre egingo dot.

Onela esango deutse, eriotzako ordugīño bekatuetan ibillirik, ordu atan euren bekatuak erremeditatu gura dituzanai penitentzia guzurti bategaz. Eta errazoi az onela esango deutse: bada, orduan gura ta gurez ta ezin bestez datoz atara; eta nai ta naiezko egite onak guztiz gitxi balio dabe.



Onelakoak gura dabe bizi diraño Deabrua serbietan egon; gero, barriz, ilterakoan Jangoikoagana aldatu. Baña ori da legearen kontra, zerren Legeak diño (Leg. si plures in ff. nov. lib. 5): Arbola bat bere denpora guztian bere ondo ta sustraiz zure ortuan edo lurrean egon dana, azkenean besteren ortu edo lurrera makurtua gaitik eta ebagiten dabenean besteren lur artara jausia gaitik, zurea izango dala ta ez jausirik datzaneko lurreko Jabearena. Alan, bizi dan artean deabruaren serbitzuan sustraiak eginik egon dana bere, izan daroa geienean deabruarena ta ez Jangoikoarena, orduan beragana makurtutea gaitik.

Eta aretz bat zutik eta oñean dagoanean makurturik, dagoan aldera jausi oi dan legez ebagiten dabenean, alan zu bere bizi zorean artean nora zagozan makurtua, ara jausiko zara ilten zareanean. Eztozu, bada, uste izan bear, ez jatzu iruditu bear, baldin bizitzan sendo, indartsu ta osasunaz zagozanean ezkerrera makurtua ta alderditua bazagoz, gero gaixotasunean ta eriotzan eskoatara biurtu, jarri, makurtu ta zuzenduko zareala. Bizitzeari darraio eriotzeak: nolako bizitza, alako eriotza.

Ur guztiak urtetan dabe itxasotik. Iturriak, erretenak, errekak, ibai guztiak dauke ama bat. Baña, orrez guztiaz, ur aetatik batzuk dira gaziak, gesalak, beste batzuk gazak; batzuk gogor astunak, beste batzuk bigun arinak. Eta errazoia da, zergaitik ze, zelakoa dan lurra nondik igaroten dan ura, alakoa gustua oratuten jako urari. Lurrak gozotasuna edo a bage-tasuna emoten deutso. Lurrak ondu edo deungetuten dau. Alan eriotzea bere, zelan bizitzatik igaroten dan, bizitzeak ondu edo gaistotuten dau. Zelakoa dan eoten dan euna, miesea ta oiala, alakoa izango da oialaren albiñua, ertza ta kabuko altsiak bere. Bada onela, zelangoa dan bizitza alangoa izango da bardin bizitzaren ertza, marra, bazterra, azkena, ondoa ta kabua, zein dan eriotzea. Ondo bizi dana ondo il daroa; dongero bizi dana deungero il oi da.

6 §.

Jazo diteke, gerta ta ikusi diteke Jangoikoaren sekretu estalduz ta ordenamendu beneragarri, ondo bizi izan dana deungero iltea, azkenean bekatuari leku emon ta galtzera etortea, ontzi bat ordugiño ondo ibillirik Portuan sartzean galduten dan legez. Bai ta gerta diteke bere bizitza guztian gaistoa izan dana azkenean ondu ta salbetea, Dimas Lapur Santua legez. Baña onelakorik oraingüño gitxitan jazo da eta menturaz ezta sekula gertatuko. Geienetan edo beti ondo bizi dana ondo ilten da; eta deun-

gero bizi izan dana dongero ilten da. Au da bide arteza, erreala, zuzena ta segurua. Beste guztiak dira bide zearrak, estuak, gatxak, ondamendiak, galdugarriak, utskorak, laban laprastgarriak ta pelligruz beteak.

San Agustinek diño (de discipl. christian. lib. unic.): Deungero iltearen bildur zara ta ez deungero bizitearena. Bada, ezin deungero il leiteke ondo bizi izan dana. Eta jakiteko au alan dala bago señale andi bat. Bada, bakotxa bere osasunean dagoanean zetan daukan gogoa, atan oi dau ta azaz berba egin oi dau gaixotasunean ta eriotzarakoan bere: atan idoroten da amesetan ta burukaletan bere; au da asko adietan emoteko bizi dan legez il bere egiten dala. San Pablok diño (Galat, 6): Gizonak zer ereiten daben, a bera bilduko dau. Eta itanduten dau San Mateo Ebanjelariak (cap. 7): Ete da iñor aranzetatik matsak edo elorrietatik ikorik bilduten dabenik? Bizi izan dan artean gaistakeria zabalduen ta ereinten ibilli danak gero, barriz, bere azkenean santu bat legez ill uste dabena aranzetatik matsak ta arretatik ikoak, gaistakerietatik on eder gozoak bildu ta artu gura ditu: ezin dateken gauza deseatu ta gura dau.

Bere denpora guztian galdurik ta bidea uts eginik ibillirik, eriotzako orduan, ilunduten asten danean, bide onera ta artezera, zuzenera biurtuko dala uste dabena uts egiten dau. Len bear da, len. Zergaitik ze, eriotzako ordua ordu iluna, itsala, añotsua, geriztua, nastua ta ekatzez betea da. Ezta itxasoko ekatxik ontziko Kapitai bati lan, ardura, bildur ta zeregin geiago emoten deutsanik. Orduan, len erraza zana bere, gatxa ta neke-tua egiten jako. Ontzia itxaso zabalean denpora ederraz erara dabil, alde batera ta bestera, or-emen, ara ta ona erraz timoiaz (lemaz) itzuli gira bira erabilten da, gobernatzen da. Baña bazterra, marrara, kostara jo ezker, ezta gobernatzerik, ez eta nola nai abiatzerik, ez maneatuterik. Denporea argi dagoan artean, edade edo adin onean ta osasunean zagozanean, ontzia itxasoan eguraldi onaz legez zeure gogo onean zagozan artean, eskuai eragin egiezu, abia zaite, orduan lastertu, maneatu ta estutu zaite. Bada, bestela, eguraldi txarrak, gaixotasuneko minak ta eriotzako gatxak ta ekatxak artu ezker, kostara, bizitzaren bazterrera, eriotzea urtu ezker galdua zara, egin da zurea, miraria bat izango da zu salbetea.

Itxi egizu, bada arren, burutik buruan darabiltzun zorakeria ori: egunetik egunera, gerotik gerora, eriotzagiño luzetuz ta epe artuz, orduan erremediatuko zarealako uste utsaz ordugiño bekatuetan egote ori. Bada, ondo dakizu ekatx andi batez kostako atxetara jotera doian ontzi kargatua ez dala pelligru бага, lenago bai galdutzat daukazu alako ontzia. Alan euki egizu, bada, galdutzat zuk bere zeure burua, bekatuz beterik ta astundurik eriotzako kostara jotera zoazanean; beti beti gero ondu ta obetute-



ko zareala diñozunean; eta bekatu egiteko gogoaz, usteaz ta borondateaz zagozala, eriotzako azkena aurkituten zaituanean. Zergaitik ze artara ezkerro gitxi dira ondo libratuten dirianak, galdu ta ondatu baga iges egiten dabenak.

Bada onela, orain badozu osasuna, indarra, zenzuna, adimentua ta zeure burua zeure eskuan; orain ezpazara oraindiño gaixotu, ez eriotzako esturan jarri; orain bazagoz libre eta, gura badozu, ondo edo deungero egin zifñaien denporan; orain bada, orain, men menean jarri baga, gatxak nastu ta artu baño len, gaixotasuna jaundu ta jabetu baño len egizuz gero egitekoa gogoa dozuzan gauza onak. Eta orain diñot, zerren, zelan orain egiten dozun guztia gaixotu baga, eriotzako esturan ifini baga ta iñok beartu baga, eraz, gustoz, borondatez egiten dozu: Ori izango da gauza andia, estimatua, indartsua, eragillea, baliokoa, Jangoikoari eder eretxiko jakana ta merezimendu andia azkenean Zeruko gloria ta betiko zoriontasunak erdetsiteko.

16. BURUA

Limosna egiteaz ta andik sortuten dirian zoriontasunak.

1 §.

Espiritu Santuak diño (Eccle. 3): Urak amatetan dau sua ta limosneak esetsiten deutse bekatuai. Urak sua legez, limosneak ilten, amatetan dau bekatua. Bardin diño San Mateok (cap. 5): Zorionekoak dira errukiorrak, zerren oneek erdetsiko dabe miserikordia edo errukia. Onegaitik diño Dabidek bere (Psal. 40): Zorionekoa da beartsuaren, eskekoaren, probearen errukia daukena, zerren au egun txarrean, eriotzako orduan gorde ta libratuko dau Jangoikoak. Eta diño beste bein Espiritu Santuak (Eccle. 29): Gorde egizu limosnea probearen biotzean ta ak zugaitik erre-gutu ta eskatuko deutso Jangoikoari gatx guztietatik gorde zaizala. Azkenez, gauza alabagarriak esaten dira limosna gaitik eta salbetako ta arimea seguratuteko da bitarteko ezin geiagoan andia biotz biguna, errukiorra ta limosnagilla izatea.

Egia da, alan da, andia da zelanbere limosnea eta, Glosak diñon legez San Agustin ganik aterarik (Glos. Lirana in eccle. 29): Miserikordia bera da, ta ez besterik, illai lagunduten deutesena, arima joanai arinduten deutsezanak euren Purgatorioko neke-penak.

Baña eztozu ez izan bear limosneak berak, Sakramentu batek legez, bere indarrez ta berez bekatua amatatu ta paratuten dabela. Eztau berak orretarako indarririk asko. Da, bai, bitarteko andi bat Jaunak prestatzeko zure biotza urteteko bekatutik ta egiteko egiazko penitentzia.

Alde batetik, dozun guztia probeai emon agaitik baldin, bestetik, bekatuan bazagoz eta artan azkentzen bazara, ezer balioko ezteutsu zure limosnak, on-egiteak ta errukiorra izateak. Alan diño Sn. Pablok (1 Corint. 13): Dodan guztia probeai emoten badeutset bere eta neure burua erretan itxiten badot bere, ezer balioko ezteuste, baldin karidaderik ezpadot. Esan gura dau: Limosna ta beste egite on miserikordiazkoak bere entero gitxi probetxatuko deutsela bekatuetan dagoanari.

Baña orrez guztiaz bere, asko ta andiak dira limosnari emoten jakazan alabanza, onra ta andizkak. Eta errazoiaz ta ondo merezirik emoten jakaz. Bada, limosneak berak indar asko ezpadau bere bekatutik atereta-



ko, baña bai bauko atera eragiteko. Zergaitk ze, dirudi Jangoikoak bere ontasuna gaitik artuko dabela okasiñoa ta bidea errukiorra danari, zerren errukiorra dan, miserikordia egiteko. Zure limosnak, zure biotz-beratasunak beratu, bigundu ta austen deutso Jangoikoari biotza ta emoten deutso bidea zuri mesedeak egiteko. Zeure errukiortasunaz ta miserikordiaz gaituten zara, abiatu ta prestatu Jangoikoa ganik miserikordia irabazteko ta artzeko; ta Jangoikoa bere andik asten da zuri on egiten ta bere grazia emoten. Onetarako, egi au baiezututeko ejemplo ta gertaldi adigarri asko ta miragarriak idoro ditekez; baña nik oraingoan eztot bat baxen ekarriko. San Bonifazio Martira denpora baten ibilli zan andrakume eder aberats bategaz galdua, aragizko bekatu loi zikiñian zikindurik ta itsuturik. Eta bazituan Bonifazio onek beste ekandu gaisto asko bere: edalea zan, jokolaria zan, biraogilla zan, alangoak oi diran legez. Gauza bat eukan ona: Biotz beraa, errukiorra, ongilla, prestua ta limosnagilla zan. Alde batetik bekatu asko egiten bazituen, bestetik probe eskekoai eskua zabalduen ekian. Eta onela, bera bere Jangoikoak mesedetu, ontartu ta faborezitu eban, biotzean ukutu eban, argi santu batzuk, gogoeta on batzuk emon eutsezan. Eta gero oneekaz batean biurtu eban beragana, andik aurrera egite onetara emontzan ta azkenean Martir iltzan. Ikusi egizu zer egiten edo eragiten daben limosneak, errukiorra ta miserikordiotsua izateak. Ain jako eder Jangoikoari errukitasuna ta bearturik ta premiñaturik dagoanari on egitea, non berari bere andik errukituten jako a on-egillea; eta orain edo gero erakusten deutso ta emoten bide onean jartzeko bidea, San Bonifaziori emon eutsan legez.

Abia gaitezana, bada, errukiorrak, biotz beraak, ongillak ta limosnagillak izatera; bada, asko ta andiak dira andik ta atarik jaioten dirian probetxuak, ondasunak, zorionak, irabaziak ta aberastasunak.

Eta beste askoen artean iru dira limosnaren probetxurik andienak. Lenengoa: bekatu baga dagoala, Jangoikoa gaitik egiten dan limosneak mereziten dau Zeruko Gloria ta geituten dau Jangoikoaren grazia. Bigarren probetxua da: limosneak kitutu, ordetu ta pagatzen ditu bekatu parkatuen pena denporazkoak, guztiak edo zati bat, emen edo Purgatorioan pagatu bear ziranak. Eta Eskritura Santuak esaten dabena Danielen aotik: bekatuak limosna gaz kitutu edo erredimitu egizuz.

Irugarrena da: limosneak ondasun asko alkanzetan dituz Jangoikoa ganik. Zorionekoak dira errukiorrak, zerren arkituko daben miserikordia edo errukia (Math. 5). Eta, alan, zure limosneak azi ta geiagotuten dau zuretzat Zeruko saria ta anditu grazia ta merezimendua; gitxituten dau Purgatorioio neke-pena; ta erdetsi Jangoikoa ganik esker mesede ta onda-

sun asko. Jakin bear dogu ze limosnagillari, biotz bigun ta errukitsua danari egingo jakola miserikordia. Eta zerbait emoten badeutsegu orain emen Jangoikoaren eskean dabilenari edo beste edo zein obra on egiten badogu, ori gero idoroko dogula beste munduan ta ez besterik.

2 §.

Jakin dagigun ezteutsagula eskekoari aserrerik, agirakarik, oñoterik, berba gogorrik, eranzuterik, kargurik egin bear, ez eta gauza txarrik esan bear. Baldin emoteko gaien bagara edo deboziñorik badogu, emon dagiogun ta generakoan itxi daigun. Bada probea, ondoen dana bere, on bear da, premiñaduna ta errukigarria. Billosik dago, oñutsean ta ortozik dabil, soñeko zar zarra eten adobatuaz dabil, eztau aldatuteko alkondararik eta ez etzateko oerik; eztaki jataldi ta bazkari on baten barririk. Asko dau bere lazeria, eskasia, beartasuna ta miseria. Beraz, ez jako alangoari aserrerik, eranzuterik, oñoterik ez erriertarik egin bear. Bada, alan egiteaz, batean ezpada bestean, peligruan jarri zintekez uts egiteko eta probea bere probetasunez ganera bere gogoan ta biotzean zauritua, mindua, gogaiturik ta tristetua biraltzeko. Eztot uste itanduko deuskula Jangoikoak probe onari ala gaistoari emon deutsegunez, ezpada ea emon badeutsegu. *Daigun ongi ta ez begiratu nori; egizu on ta ez begira non.*

Aberatsak legez probeak bere Jangoikoak egiñak dira. Aberatsa ain billosik jaiou zan zein probea. Eta Jangoikoak gura izan baleu, egin leikean probea aberats ta bai aberatsa bere probe beartsua. Eta, alan, orain bere askotan adu, suerte ta fortuna trukatu ta aldatuten dau, probeak aberastu ta aberatsak pobretuten dituela.

Pobreak sufrituaz, pazienza izanaz ta ongilla kaitik oraziño egiñaz bear dau salbatu; eta aberatsak bere bere ondasunetarik zabalduaz, zati-tuaz, probeari emonaz prestatuten dau Zeruko bidea. On geiago egiten deusku pobreak guri eskatuaz ta guganik artuaz, guk ari emoteaz egiten deusaguna baiño, zerren guk ari labore gitxi bat, ogi otzun bat, arto zati bat, marai bat edo beste onelako gauza apur bat emoten deusagu, baña guk andik Zeruko gloria irabazten dogu.

Are geiago, probeari emonaz geure deskargua ta zorra ordetu ta kitututen dogu: bada, Jangoikoak orain guri emoten deuskuzan onak, ondasunak ta aberastasuna, eurokaz ta euroetarik geure buru ta etxeoak mantenduteko ta estaduko igaroipide onean eukiteko bear doguna artu ta generakoak pobre bearrenai zor jake.



Eztituz inolako Jangoikoak larga ez itxi pobreak mundu onetan deslari, arturik ta sustentu baga: aberatsen ardurara larga ditu. Eta agaiti emon daroioe aberatsai eurentzat bear dabena baño geiago, geiago ori pobreaki zabaldu, emon ta aldatu dagien. Orregaiti diño San Juan Krisostomok (hom. 77 in cap. 15 Joan.): Laketu edo permitietan dituela Jangoikoak munduan direan pobreak, onei on egiñaz salba ditezen aberatsak; limosnaren bitartez bekatuak garbitu dagiezan. Bada, Jangoikoaren ontasuna ta prestutasuna ain da andia non orain zuk dozuzan ondasun orreek, Jangoiko berarenak ta Jangoikoak emonak izan arren, orrez guztiaz, zuk orreetatik probeai emoten deutzazunean, zeuretatik emongo bezeunskio legez estimetan deutsu Jangoiko maiteak: bai ta orretarik bere burua zure alderakotzat zordun erakusten dau; ain zordun eze, diño Espiritu Santuak (Prov. 19), probeari emoten deutzanak Jangoikoari emoten deutzala. Eta emon bere, zelan? *Faeneratur*: Zensuan, interesean, irabazian, bearturik ta obligarazorik legez, prinzipala irabazia kaz biurtuko deutzala. Eta emengo irabazia txiki laburra da, ezta seguraturik euneko bat bere; baña Jangoikoarena andia da, geiago da euneko eun baño.

Zer gura dozu geiago? probeari emoten deutzazunean Jangoikoaren izenean, berari emongo bazeunskio legez estimetan dau Jangoikoak, ain askoan dauko. Eta au ezta miresteke, bada, orain emen gure artean bere dakuskunean gizon batek gure aide edo adiskide bati mesederen bat gure amoreta gaiti egiten deutzala, urrengo okasiñoan esker onak gizon ari berari emoten deutzaguz; bitartean eztogu onik, ordugiño geure buruak zordun deutzaguz. Zer egingo deutse, bada, Jangoikoak bere maitetasuna gaiti pobreak sokorridu ta mesedetuten dituenai? Ze esker ta sari, ze pagamentu emongo deutse onelango errukiorrai?

San Martinek bere kaparen erdia probeari emon eutsanean agertu ta erakutsi zan Jangoikoa gau artan berean, kapa a gaz estaldurik, ziñoala banidadez edo alabanzaz legez: ikusi egizue, ikusi egizue ze balentia egin dabten Martinek, zelan kapa onegaz estaldu naberen, zer emon deustan. Bada, San Martinek a kapea eskekoari emon eutsan ta ez Jangoikoari; baña, orrez guztiaz, Jangoikoak, zergagaiti ze bere izenean emon eutsan, diño ber berari emon deutzala.

Alan esango deutse azken juizioko egunean bere eskoatara dagozanai, doazala sekulako gloriara; ezkerrekoai, barriz, betiko peneetara. Zerren eskoakoak gosetu zanean jaten emon eutseen ta egarri zanean edatekoa. Baña ez ezkerreko esker gaisto gogor erruki bageak. Eta, Jauna, itanduko deutse orduan guztiak: nos idoro, aurkitu ta ikusi zenduguzan

guk zu gose-egarriak illik? Eranzungo deutse: pobre eskekoak ateetara etorri jatzuezanen: Orduan aen artean, aekaz batera, ni nintzan an.

Eta alan, pobreak eskatuten deutzazunean kontu egizu a pobre eskekoa dala Jangoikoa bera, bada aren izenean eskatuten deutsu, bere izenean emoten deutzazu ta Jangoiko berak bere berari emongo bazeunskio legez estimetan deutsu. Alan diño San Juan Krisostomok: Ezta antsi edo inporta ala probeari ala Jesu Kristori emon jakonez; eztau batak baño besteak geiago monta ez balio: guztia da bat ta bardin da, ainbat da.

Eta oraindiño San Krisostomo berak, kontuan imini ezkerre eztedilla inor agaitik miraritu, diño: Bardin ez, eze geiago dala nolabait ta merituago probeari Jangoikoaren izenean emotea, Jangoikoari berari bere presonan baiño: zergaiti ze presonak berak ta presonaren presenziak obeto dakar ta beartuten dau bakotxa, presente eztagoanaren esanak ta aginduak baño. Eta alan, alde zergei Jangoikoak aginduten dabten probeari emotea, Jangoikoa berari emotea baño.

3 §.

Beragaitik, bada, ezta pobre eskeko ta Jangoikoaren izenekoa ezer baga bota bear, ez eta atean luzero dedarrez gogaiturik euki bear. Bada, argal jausteak eskekoaren dedarrak ta deiak eta askotan berariak bere buruaren koitak, negar soñuak, erren egiteak, eridak erakusteak, adore bagetasuna, gose ta premiñak adierazoteak, gure biotzaren gogortasuna, otzatasuna ta erruki bagetasun akusatu ta salatuten dabe. Gu bagiña emoteko prest, prestuak, esku zabalak, kontuzkoak ta borondatetsuak, ez leuke eskekoak alango pensurik, asmurik ta arterik asmatuko. Baldin pobrea bada maliziatia, bere bearrez ta gure erruz da maliziatia; asmagilla ak baño, guk artan falta geiago dogu; bere bizitza ataretako ainbeste asmu ta itzulpide egitera beartuten dogu. Alan diño San Juan Krisostomok (hom. 57 ad popul.): zure errukitasun, miserikordia ta karidade gitxiak, zu biotz gogor ta esku itxia izateak emoten deutzala bidea probeari alango fingimentuak egiteko, bada bestela, ezin ekarri zaitu limosna egitera eskeko errukigarri gizagaisoari.

Probeari emongo deutzazunean, gitxi edo asko emoiizu bereala, prest, laster. Baldin doi doian bazagoz, gitxi badozu, gitxi ori gogo onaz emon egiozu; ta, baldin aberast bazagoz, ganez, ugari, abundo badozu, emoiizu asko.



Jerusalengo tenplua egitean, ta egiñez gero bere, bazebillan obraren eskea; ta bazan atearen aldean bere utxa bat, limosnea gordetako toki, zepo ta ontzi bat an bakotxak borondatez gura ebana emoteko; orain bere gure Elexetan oi dan legez.

Bada, tenploko utxa, kaxa edo ontzi (*Gazofilaxio* zeritxan) onetan aberatsak asko emoten eben: batak amar, besteak ogei ta bakotxak al ebana ta zelan eukan; eta oneen artean eldu zan andra pobre bat ta onek marai bi bakarrik emon zituan. Jesu Kristo gure Salbatzalleak au ikusirik, esan eutsen elexan egozanai andra pobretxo ak geiago emon ebala, aberats guztiak baño. Zerren andra onek beretzat bear ebanetik emon eban, baño aberatsai, emonak emonik bere, franko geldituten jake. Emon egizu, bada, dozunaren erara, bada a gaz da kontentu Jangoikoa; baldin ezpadozu emotekorik, euki egizu damu ezdozulako geiago; ta damu agaz batean, euki egizu borondatea, baldin bazendu emoteko. Zergaiti ze, Jangoikoa begiratuten badau bere emotea, baño geiago borondatea. Ez dabenak borondateaz kunplietan dau; baño dabenak borondateaz batera bear dau kunplitu, bete ta egin. Eta egin bere, zelan? ez eder eretxitea gaiti, ez baneriaz ta ez mundua gaiti, ezpada Jangoikoa gaiti. Eta orduan bere ixil sekretoan, iñok eztakiela, aalik ezkutuen; eskoaiak emoten dabela ezker-rrak jakin eztagian moduan, Ebanjelio santuak dirauskun legez. Eta, albaliz, limosnea artuten dabenak bere ez leuke jakin bear nondik jatorkan ta noindik eldu jakan a ondasun edo mesedea. Bada, orduan Jangoikoa berak azkeneko egunean guztiak zure onra anditan mundu guztiaren aurrean agertu, erakutsi ta kanporatuko ditu. Eta zuk bere orduan, orain dozun deseo ta nai gura, zuk egiten dozuzan limosna ta obra onak munduak jakin dagizan, kunplituko dozu. Bada orduan guztiak jakingo ta agertuko dira.

Eta ezta asko eske jatortzun pobreaki emotea; orrez geiago, bein Jangoikoa zuri emon ezker asko geiago ondasun, informatu bear zara, itandu ta jakin ea iñor bada errian pobre bearturik, premiñaturik, gose danik, sabel utsik dabillenik, lotsaz eskean ibiltan azartuten eztanik. Eta, guztien buruan, kontu euki beozu danez pobre gaixorik: zerren pobretasuna ta gaixotasuna gatx bi dira. Alangoak dira alde guztiz on berrak, lastima ta errukigarriak; alangoak sokorrietea da merezimendu andikoa ta zeruko gloria irabazteko, bai ta bere mundu onetan dozuzan ondasunak segurututeko, azi geiagotuteko bide ona, zabala ta segurua.

4 §.

Batzuk uste dabe pobreaki emoteaz pobretuko direala; eta uste uste ero onegaz dirautse eske datozanai Ebanjelioko bost Birgiñak euren lagun-nei zirautseena: zoaze ortik, ken zaitzeze, billatu egizue beste leku baten, jazo eztidin zuei ta guri falta egitea. Jangoikoa lagun daizuela; emoteak gitxitu, urritu, eskastu ta laburtuten ditu gauzak; eztogu geuretzat bere sobra, lar ez geiegi. Eztabe gogoratuten onelangoak pobreaki emoteak, ez pobretu, ezpada aberastu ta zorionduten dituela etxeak; gitxitu ez eze geitu ta askotuten dituela onadasunak. Espiritu Santuak berak dino (Prov. 28): Pobre bearturari emoten deusana ezta bearrena edo premiñan arkituko; emolle eztana azkenean bearturik, premiñaturik ikusiko da. Geiago diño Espiritu Santu berak (Prov 11): Batzuk euren ondasunak zatitu ta emoten dituez ta, orrez guztiaz, beti dagoz aberats; eta, barriz, beste askok euren gauzak emon ez eze besteena ostuten dituez ta, orrez guztiaz bere, beti dabilz eskean, beti eskas, on bear ta premiñan. Dirudi onek artuaz pobretu ta besteak emonaz aberastuten diriala, garia ereintzen dabenak legez: ereina baño asko geiago artzen dabe.

Amak umeari ugatza emotea legez da eskekoari emotea bere. Ama seiñari ugatza emonaz eznetuten da; ez emonaz antzutu ta leortuten jako bularra. Esan lei ereitea legez dala limosna emotea. Garauea ereintzen da ta esku batean piloka batu ta bilduten da. Ereintean garau azi bakotxak ta batutean buru beteak: bota iru edo lau garau ta dakarz gero eunka. Baitabere da au urpuzuak legez: ur puzu batzuk dira berariaz egiñak, bean ondoan zimenduan iturria dabenak; gauza jakiña da onetariko pozuatarik urik ez atarea gaiti eztala ura geiago anditu ta aziten; eta atara arren bere eztala gitxituten, zerren ateraten adiña edo dun beste sortu ta jaioten dan. Alan, bada, dira pobreaki emoten dakienak bere: emoten daben beste orren beste emoten jakee. Eta emoten ezpadabe, esku ta biotz gogorrak badira, eztira agaiti aberatsago egiten, pobreago baxen. Zerren aserratuten da Jangoikoa, berak ain esku prestuaz zuri emonetik emon gura eztozunean.

Alan aserratu zan Ebanjelioko aberats zeken kutiziosoaren kontra. Aberats au, diño Ebanjelio Santuak (Luc. 16), ederrik janzi ta apainduten zan ta jan edan andi beteak egiten zituan; ezin esan lei onegaiti bakarrik joan zala infernura, bada ederrik janzitea ta mai ona eukitea dirudi berez eztala bekatu andia, beintzat munduak eztauko alangotzat. Bestetik, Ebanjelioak eztirausku aberats onek beste faltarik eukala. Zergaiti, bada,



kondenatu zan? Adietan da kondenatu zala atartera eske etorri jakon pobre gose, billos, premian egoanari ez eutsalako bere mai ase beterik, asetutekorik janaririk bear ebanik emon, ez eta jaramon bere. Andik bere burua ta bere ondasunak galdu zituan. Andik beartu ta probetu zan ta ain premiña andira etorri zan non, azkenean, bere aoko miña ezetu ta bustiteko ur tanta txorta bat bere ezin eukiteko pobretasun ta beartasunera etorri zan.

Zelan egiten dituan galtzera ta atzerapen andiak pobreaki atzea emoteak, alan egin daroaz gorapen ta zorion miragarriak probe beardunari bere beartasun ta premiña estalduteko eskua luzetuteak. Eta gogoratute au ta andik datorren irabazia galduten dau biotz gogorrek, limosna egiteko gogo ta borondaterik ez dabenak. Eta egiteko gogo daukanak bere, baldin berak bere eskuz, bizi dan artean, egiten ezpadau, gauza jakina da irabazi aren parte andi bat edo zatirik giena galduten dabela, onen ondoko urrengo Buruan agertu, azaldau, erakutsi ta adierazoko dan legez.

17. BURUA

*Zelan limosnak ta beste egite on borondatezkoak bere,
zeuk zeure eskuz edo bestearenaz, zeu bizi zareala,
ondorengoai itxi baga egin bear dozuzan.*

1 §.

Gauza ziur, jakiña ta bapere dudarik eztaukana da obe, on ta probe-txuago ta meritu geiagokoa izango dozula orain zeuk, bizi zareala ta osasuna dozula, zeure eskuz pobreaki emoten deutzazunaz, gero ilterakoan edo eriotzako orduan aginduaz baño. Baña, zuk oraingo ta geroko euki arren ondasun andiak, orain bapere ez ta gero iltera zoazanean prestutasun andiak egiteko gogo dozu. Aberats zagoz, ondasunduna zara, askoren jabe zara eta baukazu bai borondatea ondasun orreetarik pobreaki itxi ta zatituteko.

Baña nos? Gero, iltera zoazanean; guztia emen nai ta naiez, ezin bes-tez, ezin geiangoan larga bear dozunean. Bitartean diñozu: neure ondasunak neuk gura dodaz gozatu, zaindu, maneatu ta gorde; eztot oraindiño bagetu gura; eztot eurok baga gelditu, ez billostu gura. Baña gero, erio-tzako denporan, azkeneko ordenamentuan ta testamentuan, aginduko deusat onenbeste señalatu ta izentaturik pobreaki emon dagioentzat. Eta, baldin Purgatoriora banoa bere (bada gitxi doaz Zerura an sartu baga), bertatik bertati ta laster urteteko onenbeste meza aterazo dagizala ta beste obra on asko ene izenean nire ondasunetatik egin dagizala aginduko deusat.

Onelan diñozu egingo dozula: bestearen bitartez, eskuz ta ondoko-aren kontura ta zeuk zerorrek bapere ez. Baña, ez liteke obe egite on guzti orreek bizi zarean artean zeure eskuz egitea ta orreen bidez ta bitartez Purgatorioko lexi gorietara joan baga egotea, eze ez gero ara zoazanean erremedioa, ordea ta kitusaria egitea? Preso zareaneko erremedioak billa-tuten dozuz ta preso sartututetik gordetan etzara.

Orrez geiago, limosna, obrak onak ta ondasunak gerokoen kontura itxirik adierazoten dozu atzetik ta urrinetik gura dozula argi egin daizuen. Zer esango zenduke, gau arrats ilun baten pausu estu, gatx, arrisuk pelli-gruzko baten igaro bear daben batek esango baleuskio bere otseñari dabi-



lella atzetik, ta atzetik ta urrinetik argi egin dagiola? Alan dira, bada, euren limosnak, egikai onak ta obra miserikordiazkoak, eurak euren eskuz egin leikeezala, bere ondoan, urrinetik ta illezkero besteai eginerazoteko gogo, asmo ta borondatea dabeenak. Ori da, esan oi dan legez, *usoa* joan ta *sareak* an ifintea legez.

San Basiliok diño (orat. 14 de mort. Et homil. 7 in divit.) eztabela iñok, il ondoko limosneaz limosgillea izan dalako, alabzarik izango. Obeto ziñaike eta seguruago jokatu ziñei, baldin gero besteren eskuz egingo dozuna orain zeurez, zeuk dakusula egingo bazendu. Bada, San Basilio berak diñon legez, zeure ondasun guztiak edo zati bat eriotza oste-rako itxi gura izan arren probeai, nondik jakingo dozu edo nok oartuko deutsu nos eta zelan ilgo zarean? Nor dozu atako fiatzalle? Zeinbat dakusgu uste baga, bat batean, beingoan, berbatxo bat egin baga, Jesus bat esan baga ilten diriala? Baita bere, sukarrak edo kalentura andi batek zorabiatu, euren testamentu, manda ta aginduak asi ta akabatu baga geldituten diriala? Zergaiti, bada, gura dozu zuk bere menturaz zeure adi-mentuan egongo etzarean denporarako eta astirik bere, gogorik, ezagera-rik, zenzunik, ez bururik izango eztozun denporarako zeure egitekoa euki ta luzetu?

2 §.

Aurrerago goazan. Baldin orduan eriotza aurrean zenzuna, astia, denporea, beta eta epea bazeunka bere, esan nei zure orduko limosnak entero gitxi balio dabeela. Bada dirudi ta esan lei, gura ta gura ezkoa dala ta ez borondatezkoa; batez bere, len al zenduala berariak ordugüño luzatu dozunean. Zerren orain zeure ondasunak eztozuz gitxitu gura, ezin dis-pondu ziñeiz atarako; bada dirudi gero bere ilteko ustea, il bearra ezpa-zendu etzendukeezala itxiko, ez eurretarik emongo.

Orrez geiago, zure geroko, azkeneko orduko, gerorengo denporako ondasun emoteak dirudi guztiz gitxi balio dabela zuretzat. Bada, zure ondasunetik ta zure izenean egiten badira bere aek gauza onak ta limos-nak, baña askotan eztozuz zeuk egiten. Gaixotasuna jatorzunean, zelan estura andian, larritasun, bildur ikara ta pausu gatxean igaro ta ikusten zarean eta orduko doloreak bere andiak direan, orduan zeure ondasun ta esku arteko gauzaz kontu gitxi egiten dozu, zergaiti ze andiangoak aztu era-zoten deutsue besteez. Orduan zeure ondokoak ta an bertan aurrean dagozanak zerbait gurako dabe eta, zelan bear dan, alan egin dagiela itxi-

ten deutseezu. Ain nekez ta penaz batu ta bildu zenduzan ondasunak eta ain ardura andiaz ta ain kontuz gorde ta zaindu zenduzan aberastasunak ta irabaziak, gero ain nasaitasun ta ardura gitxiar largetan dozuz; len gorde ezinik, orain zabaldu ezinik; len estua, zekena, esku laburrekoa ta itxia, orain, barriz, prestua, emollea, zabaltzallea ta ongille andia. Orduan iñok ezer badiraustu, au alabetan dozu ta askotan, zer diñozun bere ezta-kizula, baiez esaten dozu. Neure denporan onelango ikusi dot. Eta alan, dirudi orduan egiten dozun guztia bestek egiten dabela ta ez zuk. Ikusi egizu, bada, ea ze probetxu, sari, merezimendu irabaziko dozun bestek egiten daben onagaz.

Errazoiak diño Espiritu Santuak (Eccli. 14): eriotzea baño len egio-zu on zeure adiskideari ta dozun indarraren erara luzetu egiozu zureue esku pobreaki. Bein baten Santa Luziak erregutu eutsan bere Amari (Surio in vit. S. Luciae): Ama, gero egingo ebana, geroko begira egon baga, egun beretik egin egiala, gaixorik ta eriotzako esturan jarri baga, osasundun ta sendo egoala berak bere eskuz bere ondasunak emon egio- ezala pobreaki. Baña eranzun eutsan Amak orain oi dan legez: ene alaba, itxozu oraindiño puska apur bat; ni zartu nas, laster ilgo nas; eta orduan zuri dodan guztia largako deusut; zeuk egingo dozu gura dozuna. Eranzute au bere Amak emon eutsanean erago eutsan barrero bere ala-bak, zirautsala: ene Ama maitea, uste dot, dirudi ta esan lei eztaba Jangoikoaren aurrean orren eder, gustu, gogoko ta ondo eretxia norberak ezin gozatu daben gauza bat emotea ta eskiñitea. Alan bada, emon egizu, Ama, sendo ta osasuna dozun artean zure ondasunetan agintaritzta ta eskubidea dozun artean, esan edo eranzun eztaizuen ilterakoan emoten dozuna gura ta gurez ta premiaturik emoten dozula. Errazoi, conseju ta adibide au enzunik, egin eban Amak alabeak gura eban guztia; ta berpe-tatik, geroko begira egon baga, berak bere eskuz zatitu zituan bere onda-sunak probeetara.

Orain menturaz emen esango dabe batzuk: au onela izanik, gaixo batek bere gaixotasunean ta azkeneko ordenamentu edo testamentuan egiten dituzan agintzeak, mandak, eskeñak, limosnak ta beste egite onak eztabe ezer balioko, utsak izango dira, alperrik egingo dira. Egia da balio-ko dabela ordukoak bere; baña lenagokoak askozaz obeak dira, baliotsua-go, sari-gai ta merezimentu geiagokoak dira. Alan irakasten dau San Juan Krisostomok (homil. 10. in cap. 81 ad Doma. tom. 4), zeñek diño obea-go, merituago ta biotzeko prestutasun geiago bazan bere, zeu zeuk zeure eskuz, bizi ziniála ta osasun oso sendoan zengozala pobrea sokorrietea; baña, orrez guztiaz bere, len uts egin badozu bere, eztaizula edolabere



eriotzako orduan itxi limosnak egitea edo agindutea; bada, orduan egiten danak bere, ez asko, baña zerbait balioko dau, Jangoikoaz gomutetan zareala adietan emongo dau.

Osasuna dogun artean geure eskuz alegiña egin daigun; baña gero egiteko gure urrengoen ta besteen eskuz dagigun zerbait. Mundu au bidezkoen ostatua da ta igaroaz goaz emen.

Gure sekula betiko ostatua, erria ta etxea beste munduan dago. Eta bakotxak bere errira ta betiko eukiko daben etxe ta bizi-lekura biraldu daroa al dagiana aurretik; eta bai gero ezer geldituten bajako bera doianean, bera gaz batera daroa. Alan guk bere egin bear dogu. Orain osasunean gareala geiena eta, gero, denporan ta eriotzako orduan bere, al dagiguna egin bear dogu. Biraldu ta aldatu daigun aurretik denporaz ta lenagotik ta daroagun geugaz bere.

Baña orain limosnak ta beste miserikordiazko edo errukizko obrak ta borondatezkoak itxirik, eztagoalako euroetan ain pelligru andirik, berba egingo dogu urrengo Buruan obra justiziazko, premiñazko, konzienziakoen ganean; eta erakutsiko dogu ze obligaturik ta bearturik gagozan geuk geure eskuz egitera, ondokoen kontu ta ardurara larga baga.

18. BURUA

*Obra justiziazkoak, konzienziatz zor dozuzanak
ondokoai itxi baga, zeuk egin bear dozuz.*

1 §.

Baldin obra miserikordiazkoak, karidadezkoak, zelangoak direan pobreai on egitea, billosak janzitea, gose egarri danari jatea ta edatea emotea, bakotxak eta norberak bere eskuz, bizi dala, irabazi andirik eukiteko egin bear baditu: zeinbatenaz bakotxak bere eskuz, urrengo ondokoai itxi baga, egin bearko ditu obra obligaziñozkoak, justiziazkoak, konzienziatz zor dituanak? Zelan dirian gauza ostua biurtutea, zorrak kitututea, eregi dituan testimonio guzurrezkoak osotutea, eragin dituzan kalte ta gaistakeriak erremedietea?

Baldin obra miserikordiazkoak ta borondatezkoak zeuk zeure eskuz egiten ezpadozuz, ez besteai egin eragin, egia da, eztozula orduan merezimendurik izango, baña ez bekatu mortalik bere. Bada obra miserikordiazko edo errukizkoak agaiti deituten dira miserikordiazkoak ta ez justiziazkoak, zerren denpora beartuan, ordu estu ta premiñazkoan baño ez gagoz bearturik aek egitera. Baña obra justiziakoetan, bear bearratz dirianetan, bestela berbatu bear dogu. Bada, eurok kunplitu ta betetara bearturik gagoz bekatu mortalen pena pean.

Eta eztozu, ez, uste izan bear ondokoen kontura itxiaz kunplietan dozula, zeuk orain badozu ze gaz. Ez eta urrengoai ze gaz pagatu señalaturik, izentaturik ta apartaturik. Bada, esan oi dan legez: *jan leiz otsoak ardi kontatunak*; alan, zure urrengoak, ostekoak, atzerengoak bere artu lei bereztat zuk señalatu deutzazunetik. Eta, zegaiti ibilli bear zara señalakizunetan ta besteai konzienziako kargu karga emoten? Ori liteke zeu kondeneatea ta besteri kondenetako bidea emotea. Zeuk zor dozuna zeuk pagau egizu. Zeuk egin gura ezpadozu, zelan batek egingo dau zugaiti?

Esango dozu: ez dot, baña, ze gaz pagatu. Baldin ezpadozu, ezinak eztau legerik: orduan etzagoz bearturik pagatzera ezinak dirauan artean. Ez eta ez zagoz obligaturik pagatzen, baldin artzekodunak berak kitu parkatuten badeutsu. Orrez geiago zor deutzazunak berak, ez ezin bestez gura ta gurez, ezpada bere nai guraz ta borondatez itxadon ta epea emo-



ten deutsunean, orduan luzatu ziñei pagamentua, epe edo denpora artaraño, baña ez geiago. Pagatu al daizula pagatu baga jabearen borondatearen kontra ondasuna eukitea bekatu da. Eta au bardin adietan da zor jakina gaiti eta autortu, deklaratu edo agertuaz, zein gauza ostuaz, ixilik eronanaz, konsejuz edo langunduz besteai lapurreta egiteko bidea emonaz. Eta zein batean, zein bestean pagatu bear da iñori kendu jakona.

Eta ezta ez asko autortu ta agertutea zorra; ez eta gero zeure ordeñuan edo testamentuan, ilterakoan ta azkenean biurtuteko, kitutu ta pagetako gogo ta borondatea eukitea. Bada, baldin albadaizu, zeuk bizi zarea la aalik lasterren ta bertatik pagatu bear dozu zeure zorra; bai ta biurtu bere gauza ostua ta bide bagez artua, ezkutatua, kendua ta deungero erona, dala tratuan, dala saldu erostean, dala pisuan, neurrian, tranpak jokoa egiñaz ta beste olango gaistoz kalte egiñetan: gai onetan ezta asko ondokoai kargu itxitea.

Nabarro Doktoareak diño (Manual. restit. cap. 17): ilte orduan, berak pagau al dagiala, pagau baga bere urrengoai testamentuan zorrai eranzuteko ta ostua biurtuteko ordenamentua itxiten deutsanak deungero egiten dau ta eztoa seguru bere konzienzian mundu onetarik bestera. Beste bein diño jakitun onek: zordun dala dakienak ta justiziak biurtutera beartu artean pagau gura eztabenak bekatu mortalean bizi da.

Batzuk bekatutzat badaukee bere gauza ostua paga zaga eukitea, baña ezteritxe ta eztaukee bekatutzat zor jakina ta autortua luzetutea. Esan daroe: bakit ta baki jabeak bere zor deutsadala; autortuten deutsat, ezteutsat ukatuten ta badot pagetako bere gogoa ta borondatea. Deritsazu autorturik ta pagetako gogoa eukirik, ainbeste gaz kunplietan dozula. Baña engañetan zara; bada, bataz, gogoa bere ezta asko, ez autormena bere, zerren zure gogo ta borondate onagaz probetxu gitxi izango dau jabeak pagamendurik eztanean. Eta, besteti, osasun sendoan pagau al dabenak, gaixotu edo il arteraño egin gura eztabenak aditzera emoten dau, baldin gaixotasunik ezpaliz, ez eriotzarik, kontu gitxi artuko ebal. Eta au dakusgu alangoetan: bada, gaixotasunetik iges egiten badabe, ezta be jaramoten ta uste dabe aldi atan ta barriri gaixotu artean libre ta seguru dagozala.

2 §.

Zuk gura dozu zeuk egin bear zenduan deskargua ta egin eztozuna zure ondokoak egin daiela. Baña, uste dozu zure dirua edo ondasunak,

zuk zeure ondokoari zeure zorrak ta obligaziñoak pagetako itxiten deutsazuna ez jakola zure ondokoari bere zuri lainbeste on, gozo, eder eretxiko? Eztozu uste? Eztozu gogoratuten zuk legez ak bere bere denporan gozatu gurako dabela? Eta esan bere bai bere artean: niri neure aurreroak ta lengo igaroak itxi eustan ondasun au bide bagez ta deungero bere tu eban ta, orregaitik bere, ez eban biurtu ez kitutu, beti berak euki eban. Bada, ez nas ni bere a baño beartuago biurtutera. Egia da ak niri, bere ondokoari legez, agindu eustala biurtu negiala; bada, nik bere alantxe aginduko deutsat nire urrengoari, semiparte eukiko dabenari. Baña bitartean, nire aurrengoak legez, nik bere gozatu gura dot ta euki neure denporan. Begira emen zelan batak besteari itxirik eztan pagurik, ez biurrerarik sekula egiten: bai ta andik ara zelan zeure burua galduten dozun ta zeure ondokoa bere galduteko pelligruan ta bidean iminten dozun. Bada, pelligrua da ak bere zuk baño geiago jaramon ta kitutuko eztabela. Ai, eta zenbat meza, zenbat sufragio ta arimakari, zenbat bederatzurrin ta urtebeteko, zenbat onra, memoria ta testamentuko aginduak dagozan egin ta bete baga, batak bestari itxirik ta dirianak larga eginik.

Emen dator ederto San Antonino Florenziakoak San Pedro Damiano gaz dirauskuna (Damian ep. 5. c. 8. S. Antonin. 2 part. sim. c. 1 § 5): diño, bada, bein gizon santu batek ikusi ebal bere espirituaz infernuko suaren erdian eskalera bat; ta eskalera lenengo mallan edo pausuan Konde bat, Jaun andi bat. Eta gero ikusi zituala beste zazpi Konde etorki berekoak bata bestearen semeak, ondokoak edo urrengo herederuak eskalera atan egozala. Eta zelan lenengo Kondeak bere kondetasuna, maiorazgia ta ondasuna bide bagez ta deungero eroanik ta bereturik eukan ta il zan biurtu baga egokion Jabeari; beste orren beste egin eban bere urrengoak, bigarrenak, irugarrenak ta zazpigarrenak; batek bere ez eban satisfaziñorik, deskargurik egin; eta, alan, guztiak batak besteen atzean ta jarraian kondenatu zirian.

Auxe ber berau jazoten da egunean egunean jente batzuen artean. Egiten dozuz lapurretak; bide bagez eroanik ta zeureturik dozuz ondasunak; eta zuk, edo eztozu jaramoten edo itxiten dozuz paga zage zeure seme edo ondokoen esperanzan; eta bai ak bere besterenean eta alan beste urrengoak bere; eta, andik ara batak besteari itxirik ta guztiak largarik, itxi oi dira iños kunplidu ta kitutu baga.

Ez eban, ez, ori egin Zakeo aberatsak, ziñoanean (Luc. 15): Jauna, neure ondasunen erdiak emoten deutsedaz pobreai eta, baldin iñor engañatu badot, biurtuten dot lau bider geiago. Eztiño *emongo dot*, ezpada *emoten dot*, orain, bertati, geroko itxi baga. Eta, iñori ezer kendu badeutsat,



ori bere neure eskuz, bizi nasala, gaixotu baño len, neure ondoko ta urrengoai itxi бага, *biurtuten dot*. Nai borondatezko obrak, nai konzienziatzkoak berak bere eskuz egiten zituan. Eta alan egin bear dau baktotxak etorkizunetan ibilli бага, baldin gura badau merezimendu andirik erdetsi ta irabazi ta bere konzienzia segurantzak segurutu.

Irakurri dot bein gizon batek zituala iru egazti *azor* deritxanak, beste egaztiak eskura ekarten ekien eiztari guztizkoak. Bere azkeneko orduan aetarik bata itxi eban zor batzuk pagetako, bigarrena bere seme batentzat ta irugarrena arimarentzat mezak aterateko. Aror non gero andik laster egazti oneetarik batak iges egin eban egaz ta etzan geiago biurtu, ikusi, ez agertu; orduan esan eban semeak iges joanzan egaztia zala bere aitak mezak aterateko itxi ebana. Zein gitxi esan eban beretzat itxi ebana zala. Etzaitze zeure ondokoen esperanzan, itxaromen ta ak egingo daben ustean fiatu; bada, baldin zeuk bizi zareala zeure arimaz konturik orain ezpadozu ta zeuk eginiko utsak ta bide bageak zeuk erremediatu, kitutu, ordetu ta osotuten ezpadozuz, ez egizu uste izan, ez sinistu gero zure ondokoak, urrengoak ta geroakoak zeu zeuk baño obeto egingo dabela.

Guztiok gura dogu salbatu, guztiok nai dogu Zerura joan ta guztiok dogu itxaromena; baño itxaromen utsa, esperanza alperra ta, ustez, probetxu gitxitakoa dabe arako, eukirik zegaz, eranzun bage zorrai ta gauza ostuai, egin бага ondokoen kontura largatzen dabenak. Bat dogunean, bi gura doguz; bi ditugunean, iru. Ondo edo deungero, artez edo oker, zuzen edo makur atsegin ta gozo egiten jaku artutea, azi ta geitutea ondarena; baño gatx, neke ta aldas gora gitxitu, laburtu ta biurtutea: onetan min artuten da, garratz deritxagu, atzerapen andia emoten dau. Baña min ta pena artuko bada bere, biurtu bear da, kitu bete bear da. Eta obe da bategaz Zerura joatea, amarregaz infernura baño.

Eta obe bere da zeure umeari edo ondokoari itxitea gitxi ta on eze ez asko ta deungero. Gitxi onek, ondo irabazi onek, baktotxari zor jakona emonik ta osoturik geldituko dan apur zati gitxi au azi geiagotu ta askotuko da; baño, bestela, guztia galdu, laburtu ta gitxituko da; irugarren belaunekoetara gitxi edo ezerbere elduko ezta, zerren gauza ostua da sitsa edo sagar ustela legez, zeñek alboko oial ta sagar on osoak galdu daroaz.

Begira, bada, orain ta gogoratu egizu ea zorrik edo besteren gauza deungero eroanik dozunez; bada, oneek eztira borondatezkoak, ezpada justiziazkoak, bear bearrak, nai ta nai ezkoak, konzienziatzkoak; eta zeuk zeure eskuz orain denporaz ta mugonez besteen begira egon бага pagatu egizu, amatau egizu. Onelan eginik zeure umeak ta ondokoak arrisku

andirik aterako dozuz; eta zeu bere, lenagotik deskarguak eginik, atsegin andi baten ta salbamentuko bidean orain ganik jarriko zara.

Ez egizu aztu San Agustinen esate au: *ezta parkatuten bekatua ezpada biurtuten gauza ostua*. Beste bekatuak ondo konfesaturik parketan dira; baño au bere oñean geldituten da al daizula biurtuten eztozun artean. *Errestituziñoa edo kondenaziñoa*: milla bider dei au enzuten da Pulpitotik, baño geienetan alper alperrik; ostuten da, baño marai baten balio biurtuten ezta. Emon oi dan igesbide ta atxakia da esatea: jauna, ezin dot. Baña, zelan alko dozu, zu darabiltzuzan baneria, soñeko eder kostotsuak, jan edan geiegiak, jokoak, obra barri bear bearrak eztirianak? ta beste milla onelako? O, zeinbat arima sartuten dituan deabru gaistoak sare, amu ta lakio onetan! O, zeinbat arima irunsi dituan infernuak, baktotxari berea ez biortutea gaiti! Eztabe balio errezu luzeak, mezenzuteak, limosnak, barauak; utsak ta guzurrezkoak dira konfesiño ta komuniñoak ta, egin arren penitenziarik arrigarrienak, eztago zuretzat salbaziñorik, al daizula biurtzen ezpadozu bide bagez kendua ta ostua. Biurrera au egin bear dozu, ez zeuk gura dozunean, ezpada zeinbat lasterren ta prest. Ezin badozu beingoan guztia, zatika aldaizuna ta gero ganekoa. Bestela, konzienzia txarrean ta kondenetako ondamentuan zagoz.



19. BURUA

*Zeinbat kalte egiten daben juramentuak
ta juramentu egiteko ekanduak; eta zelan bear dan
zeinbat len oituzko usadio au larga.*

1 §.

Zelan gure lenengo Aitak gure naturaleza au bere bekatuaz orbandu, ezaindu, arrazatu ta gaixotu eban, andik gara aserrekorrak, sentikorrak ta on bearrak. Andik gara ontasunera baño gaistakeriara ta dongetasunera jausiangoak, makurtuangoak ta emonagoak. Andik dogu adimentuan itsutasuna, memorian argaltasuna, borondatean malizia. Andik eldu bere da guzurak esatea, alkar ez sinistutea, batak besteagan segurantzarik, konfiantzarik ez eukitea ta beti sospetxa ta bildurrean ibiltea. Eta au kalte andia da alkarren artean bizi bear dabenentzat; eta ain andia non, beti alan segurutasun, fidanzia бага bizitea, ezta bizitea. Bada, kalte andi au erre-medietako idoro eban Jangoikoak bide bat, zein da juramentua. Dakutsunean ezteutsuela sinistu gura ta bear danean sinistu zagizen, egin ziñei orduan juramentu egiaz ta premiñaz: ekarri ziñei zeure esanaren agertzalle edo testigutzat Jangoikoa, guzurrik esan ezin leikena ta gauza guztien barria dakiana. Eta, onelan, testigu onegaz batera emon dagien fedea ta sinistea diñozun esanari. Onetarako esan eban Jangoikoak (Deuter. 6): Zeure Jangoikoaz bildur izango zara eta egingo dozu aren izenaz juramentu.

Eztozu egin bear juramentu jainko falso uts guzurrezkoaz, zerren atan bide bagea egin ziñeio Jangoiko egiazkoari, beroni dagokan onra besteri emonaz. Bada, juramentu egiten dozunean dakartzu Jangoikoa zeure esanaren testigutzat; ta onetan adieraztoen dozu Jangoikoa dala egiatia, mena, arteza, guztia daikeana ta dakiana eta, izanik au onra andia Jangoikoarentzat, eztator ondo alango onrarik besteri emotea. Egia da egin leitekela juramentua Zeruz, lurrar, santuaz ta beste kriaturaz bere: aei ez jake Jangoikoari dagokan onrarik emoten alango agurrik egiten; ta egiten bada, aek aitaturik ta izentaturik juramentu, ori da Jangoikoaren kriatura miragarriak direan aldetik.

Dirudi orain lege barrian ezin juramenturik egin leitekela inolakoz, ez inogaz; bada, Jesu Kristok dirausku ebanjelioan (Math. 7): Esan begie besteak gura dabena, baño nik dirautsuet inoskotan juramenturik eztagizuela. Onen antzera ta erara diño Santiago Apostoluak (Jacob. 7): Guztien gañetik erregututen deusuet, neure anaje maiteak, juramenturik bapere eztagizuela, ez zeruz, ez lurrar, ez beste; eta izan bedi zuen berba-egikuna: ez, ez; bai, bai; ez edo bai. Bada, orrela, dirudi eztala inos juramenturik egin bear. Alan da, egia da ta alan dirudi. Ezta juramenturik bat pere egin bear premia egiazkoa eztanean ta egia bestela probau al ditekenean. Baña, premiña danean ta egia probau ta baiezteuteko beste biderik eztanean egin diteke juramentu. Bada, juramentua bere etorkiz, berez ta izanez Jangoikoa onratuteko itxi zan; ta bere finez ta zuzen bidez ordenatu zan egia indarra ta balioa emoteko; auziak aldegitiko; diferentziak, dudak, bada ezpadak erabagiteko, akabatuteko; bakea sortu ta sartuteko; ta aserreak ebagiteko. Orregaitik diño Dabid santuak (Psal. 52): alabatuak izango dira Jangoikoaz juramentu egiten dabeenak. Enda San Pablo Apostoluak diño (Hebre. 6): gizonak eurak baño andiangoaz egiten dabe juramentu ta orregaz akabetan dira euren arteko disputak, diferentziak ta auziak, juramentuaren bitartez; zerren, juramentu emon ezker, egiaztu ezker, auzirako lekurik eztago.

Beragaiti gauza ona ta santua ta Jangoikoak berak ordenatua da juramentua. Baña, orrez guztiaz, egin lei bekatu juramentuan: Bada, gauza ona ta ezin geiagoan santua bada bere komuniño beneragarria artutea, baño adietan da ondo ta santuro errezibitea eta ez bestela. Alan da, bada, gauza santua ta ona juramentua bere, baño ori ondo egiten danean, egiaz, gauza onaren ganean ta premiñaz egiten danean.

2 §.

Juramentuak ondo, zuzen ta bear dan legez egiña izateko iru gauza, iru lagun ta kondiziño bear ditu; eta dira: egia, premia ta ona edo zuzena. Alan diño Jeremias Profetak (cap. 4): Lenengo, juramentua bear da egin egiaz, ziur ta seguruzko egiaz eta ez dudan. Bada bestela, egiten dan juramentua, dan gauzarik txiker ezer ezer baten ganean izan agaiti bere, bekatu mortala izango da.

Guzurraz juramentu bat egitea, munduak alangotzat ezpadau bere, bekatu andiangoa da lagunaren ondasuna ostutea baño, desoneskeria bat egitea baño; bada, juramentuak Jangoiko bera bere presonan ukututen



dau eta beste bekatuok ez jakoz ainbeste eldu ta urreratuten. Imini balegi Errege batek Legea biziaren penan eztagiola inñori belarrondokorik emon; ta, orrez guztiaz, jazoko balitz emotea; alangoak bide bagea egingo leuskio Erregeri, bere lege edo agindua ausi ebalako. Baña oraindiño andiago egingo leuskio Errege berari bere presonan emonik. Alan da, bada, guzurrez juramentu egitea atan Jangoikoa bera bere presonan ukututen da. Bada, Jangoikoa aitatu ta izentatuaz guzurraren aitor, agertzalle ta testigutzat ekarte da; eta au da bekatu andia, ezaina ta lotsabagea. Beragaiti, bada, juramentu egiteak kontuz ta ondo begiraturik egin beozu; eta beti egiaz, beti zeure ustez ziur ziur dakizula, dudarik bagea zagozala.

Bigarren, bear dana da premia ta bearturik baño ez juramentutea: ezta asko egiaz ta egiaren ganean egitea; orrez geiago begiratu bear da eztedilla egin alperrik, utsetan, ezerezkeriaren ganean, aurrera ta atzera begiratu bagea, aidean ta ganora bagea. Juramentuaz baliatu bear da purgaz lege. Purga garratz mina ezin bestez, gaixorik zagozanean, premiña dozunean baxen artuten eztozu; ta orduan bere alik gitxiena; eta, baldin bera bagea igaro albadaizu, eztozu artuten. Alan egin bear da, bada, juramentuaz bere: ezin geiangoan, premia, bearturik, zeure fama ta onrea joatzunean, justiziak atara beartu ta zakartzanean. Zergaitik ze, bestela, ez edo bai asko danean, esate bakarrak balio dabenean juramentu egiten badozu, egiaren ganean balitz bere, bekatu beniala edola bere edo gitxienez egingo dozu. Ezta idoroten egin ebala San Pablok eguño juramenturik, ezpada eskribituz edo paperean. Zerren eskribietan dan gauza obeto pensatuaz ta gogoratuaz ifinten da bereala solasean esaten dana baño; baita bere atan egiaz ta premia egin bear dozu juramentua.

Irugarrena: ezta, ez, asko egiaz ta premia juramentu egitea, bada, orrez geiago, egin bear da gauza onaren ta justuaren ganean ta ez gatx ta deungero egiteko asmoan. Egiten dozunean juramentu ausi bear deutzazula persona bati burua edo beste gaistakeria bat egin bear deutzazula, gai onetan bekatu egiten dozu alango juramentua egiteaz ta beste bekatu bat a juramentua kunplietez; juramentu txar au eztozu kunplitu bear. Bardin, juramentu egiten dozunean gauza on batzuk ez egiteko: pobreak ezer ez emoteko, inñori ez ezer ordeaz emoteko, Elexa Santeak beartuten zaitueanean baño ez baraurik egiteko edo astegunean mezarik ez enzuteko, bekatu egiten dozu onetariko juramentua eginaz ta etzagoz kunplietara bearturik, ta obe da ez kunplietea.

Baita bere juramentu egiten badozu ezerbere balio eztaben gauzeen ganean ta euretarik ezpadator kalterik, ez eta kunplituaz probetxurik, zelan dirian maian jarritan etzareala lenengo jarriko; etxean sartutean,

etzareala aurrezko sartuko; edatean, eztozula lenengo edango; onelango juramentua egiteaz eztago bekatuak, beintzat mortalik, ez eta ez kunplietez bere. San Pedrok esan eutsan bene benetan, juramentu eginik lege, Jesu Kristori (Joan, 13): ezteustazuz sekula niri oñak garbituko; eta, orrez guztiaz, itxi eutsan garbituten; ta ez eban onetan bekatuak egin. Bada, onelango juramentuetan emoten da aditzera geure aldetik dagoanaz, kortesiaz, alan gura gendukela. Baña itxi giñei geure burua benzututera bekatuak bagea, San Pedrok itxi eban lege.

Eta juramentu batzuk begiraten daben lege orain presenteko gauzai ta beste batzuk etorkizunekoai ta gerokoai, guztietan bear da egia. Eta etorkizunekoak egin bear dira gauza onaz, malizia bagea, engaño bagea eta kunplietako usteaz, gogoaz, borondateaz, baldin kunplietez kalteren batzuk, inñok len uste eztabenik, sortu ta agertuten ezpada, Herodesek juramentu egin ebanean agertu, jazo ta gerta zan lege.

Herodesek, benturaz gogoan gatxik ez zeukala, eskiñi, opa, agindu ta promestu eutsan neskaxa dantzari bati emongo eutsala eskatuten eutsan guztia. Eta orduraño ondo egoan juramentua. Baña aror non gero, eskatu eutsanean San Juan Bautistaren burua, galdu eban juramentuak indarra; etzan bete ta kunplidu bear. Dira beste juramentu asko, batzuk zemaituzkoak edo menazuak eginik; beste batzuk maldiziño edo biraozkoak, gurasoak euren umeai, nagusiak euren otseñai egin daroakeezanak. Guraso ta nagusien birao onek beti dira bekatu, adibide txarra, eskandaloa ta bekatuak bagea emoten deuseelako. Bada, andik ikasten dabe umeak bere biraoak, añenak, madarikaziñoak ta infernuko berbakuntzak esaten; ta, aregeiago, gurasoen biraoak geienetan edo beti elduten dira umeetara, geldituten dirialako madarikaturik, Noeren lloba Kanaan madarikaturik gelditu zan lege.

3 §.

Juramentuan dan gauzarik txar deungena, galdugarriena, arrisku ta pelligruzkoena da onetariko artuten dan usadio ta ekandua: premiña bagea, egia edo guzurren dan begiratu bagea, makilla bat edozein jo ta astinduteko eskuan beti darabillana lege, aoan juramentua, berba guztietan juramentua erabiltea. Ez eta bai asko dan lekuan berba bat esan ta enzuteaz guztia eginik egoana, nor ezta larritu, bildurtu, ikaratuten enzunik: Kristoren pasiñoa; Kristoren gorputza; Jangoikoaren odola ta beste onetarikoak? Nori ez jakaz buruko ulleak lazuten? Espirituak berak diño



(Eccle. 25): juramentu asko egiteak, beti biraoka egoteak laztuten ditu buruko ulleak; eta kristiñau onak alangorik ez enzutea gaiti belarriak itxiten dituez, burua beste aldera biurtuten dabe.

Juramentu asko egitea, beti biraoka ta erneguan egotea infernuko usantza da ta infernua egin oi dan berbakuntza madarikatua da. Bakotxa bere berba-egikunan ezagututen da nongoa dan: franzes berba egiten badau, Franziakoa dala; espainolez berba egiten badau, espainarra dala. Onelan, bada, bakotxa bere madarikaziño, birao ta añenectan da ezagun nongoa dan: infernukoa dala. Eta San Pedrori bere maixua ukatu ebanean zirautseen legez (Math. 16): eztozu zer ukatu, Jesusen diszipuluetariko zara, zure berba egitean agiri dozu, ezagun zara. Alan esan lekikio biraogille bati, ernegari bati, juramentu ta madarikaziñoa darion bati: zu aetarikoa zara, infernukoa zara, erneguan ta biraoan adierazoten dozu, ezagun zara. Bada, ori da infernuko berbakuntza, betiko soñua, an ta angoen artean usatzen dana. Infernua dagozanak, ezin sufriturik ango min andi garra-tzak, pena ta naibage latz arrigarriak, beti dagoz ernegaturik, gogaiturik, birao ta maldiziñoa; alan dirausku San Joan Ebanjelistak (Apocal. 8): pena ta nekeak estuturik, gau ta egun dagoz biraoka Jangoikoaren kontra.

Kristiñau onak, birtutetsuak, Jangoikotiak oitu ta ekanduten dirian legez orainganik emen lurtean gero Zeruan egingo daben ofizioa egiten ta ikasten, Jangoikoa alabatzen, zeruzko berbak esaten, alan infernurako bidean dabilzanak bere asten dira orainganik infernuko ofizioa egiten, erneguak, biraoak ta madarikaziñoak egozten ta ezarten.

Ikusikozuz guraso ta ugazaba askok laketu edo itxiten deutseela euren seme alabai, otseñai, serbitzariak gura dituezan birao ta añen guztiak esaten, artan damurik, lotsarik artu baga, arpegi ilun itsal bat erakutsi baga ta askotan ontzat artu ta enzuten dituezala kastigurik emon baga eta eragotzi baga. Oneek ta onelangoak dira Eskribau Fariseoak legez, zeintzuk laketu ta gura izan eben egin egioezala Jesus gure Salbatzalleari ta aren izen santuari etxeoak ta beste guztiak gura zituezan injuriak, irainak, bur-lak ta mensprezio guztiak. Fin gaistoaz egin eben oneek ta alan egingo dabe alangoak dirianak bere.

Infernura joateko señaie andienetarik bat da juramentu ta biraoak egiteko ekandu ta usadioa eukitea. Usantza au daukenak badauke bere lotsea bere bekatuak konfesetako, baña ez papere lotsarik, atzerapenik ez ardurarik biraoak esan dituela konfesetako, aitortu ta agertuteko. Alangoak, konfesetara datozeanean ta itanduten jakenean ea ze bekatu egin daben, bertati, baneriaz legez ta onra balitz legez, juramentu ta biraoak iminten dituez aurrez aur lenengo asitean. O, Jangoiko maitea, zuk

begi onez begiratu egiezu ta erremediatu egizuz alangoak; ukutu egizu euren biotza ta argitu euren adimentua, ezagutu dagien bein edo bein euren ekandu txarra, bada, bestela egindau aenak, galduak izango dira.

4 §.

Jangoiko beraren onra ta bere izen santuarena ain dabiltz batera alkaturik, baturik ta ur ze, baldin Jangoikoaren onra ifinten bada legeko lenego aginduan edo mandamentuan, bere izen santuari dagokanaz berba egiten da bigarreanean. Andia da Jangoikoaren izen santu adoragarriari zor jakan onrea, egin bear jakan agur, buru makurte ta erreberenzia eta egin bear jakan alabanza ta andizketa beneragarria. Beraz, onela, andia, ezaina ta lotsagarria izango da bere izen santua utsik, alperrik, premiña baga, ganora ta lotsa baga, egiaz ala guzurrez dan konturik egin baga erabilteaz egiten dan bekatua.

Bazenus gizon batek, mezako kaliza aldaretik arturik, bertan edozeini, agiri dirian arlote, prestuez, billau, eskean dabilzanai ta beste eraguztiko jenteai emoten deutseela kantoit ta ardantegi guztietan edaten, zer esango ete zenduka? Bertati suak arturik, esango zenduke ori zala luterotasuna ta heregiaren antzekoa, gauza deunge ezaina ta eztakizula ze kastigu ordenatu bear litxakion alangoari. Bada, kaliza baño gauza andiango ta onra geiango zor jakona da Jangoikoaren izen santua. Eta kaliz bat orrela darabiltenak kastigu latza merezi badau, zer zorko jako Jangoikoaren izen santua ain sarri, ain ardura ta lotsa gitxiaz, ain alper utsik ta kontu gitxi eginik erabilteko ekandu deungea dabenari?

Juramentu egitea da diño gun gauzaren bat sinisterazoteko ta baiez-tuteko Jangoikoari deitutea, izentatutea, aitatuea, Jangoikoa agertzalle, testigutzat ekarte, ifintea. Eta baldin diño zuzan berba siple, alper, eze-rezkeria guztietan deituko bazendu Errege edo beste Jaun andi errespetogari bat testigutzat, mereziduko bazenduke emon egizun edozein kastigu darabilzulako alango persona ain estimaziño ta kontu gitxian: zer mereziko dozu eta ze kastigu ondo etorriko da orretarako ta gomutaziño, aitatze ta izentaziño guztietarako Jangoikoa bera, Errege guztien Erregea, testigutzat dakartzunean juramentu egiten dozun bakotxean?

Ezin esan lei ze andia ta ezaina dan atan Jangoikoari egiten jakon bide bagea, iraina ta ofensa; eta bekatariak berak bere bere buruari dakarkion kalte ta zorigatxa. Agaiti diño Espiritu Santuak (Ecl. 25): etzaitze oitu ez ekandutu zeure aoan sarri erabilten juramentua, bada, jauste asko,



beaztopa ta arrisku dago orretan. Berba ta barriketa asko egin daroanek euki oi dituan legez peligrak, batean ezpada bestean, bere berba larretan uts egiteko ta bidez kanpora ibilteko; alan juramentu asko egiten dituanek bere begiratu baga, ardura ta konturik baga, dauko pelligrua juramentu batzuk dongero egiteko. Adiña pelligru ta arrisku dauke eze, onelango ekandua dabenak, begiratu baga egiaz ala guzurrak dan, prest ta erabagiak dagoz egiaren ganean legez guzurraren ganean juramentu egiteko: onelangoak juramentu egiten daben bakotxean bekatu egiten dau ta infernuko bidean ta ondandian bere burua ifinten dau.

Orregaiti Salomonek, ondo ekizanak legez, juramentu egiteko ekandu ta usadioari darraiozan kalteaz esan eban (Eccles. 23): juramentu asko egiten dabena gatxez, gaisotasunez, zorigatxez, bekatuz ta gaistakeriaz beteko da eta ezta aren etxetik alde egingo zorigatxa, an izango da jazoe-rra ta gertaldi txarra, idoro ta aurkituko da bear eztana. Eta alan, kontuan bagagoz ta baldin ondo oartuten badogu, enzun ta ikusiko dogu persona ernegariak, biraogillak mundu onetan bere jazoera deunge asko euki daro-ela; ta ernegu onek dakardezala beste bekatu ta dongetasuneetara jausi ta ondatutera eta azken adu gaistoko bat eukitera.

5 §.

Bekatu andia ta ondo andia, ezaina ta probetxu bagea da juramentua ta juramentu egiteko ekandua ta usadio zitela. Oraindiño ostutea ta deso-neskeria baño bere ezainago dirudi: bekatu onek eztira ain mirarituteko, zerren euroetan atseginen bat, gustu ta probetxuren bat aurkituten da. Baiña juramentuan ezta probetxurik, atsegintasunik ez gusturik.

Baita bere gauza desonragarria ta lotsagarria da juramentua. Bada, berba guztietan juramentu egiten dabenak adietan emoten dau guzurtia dala ta bere esanai, testigu baga, sinisterik ezin emon lekikioela. Gizon bat diñozan berba guztietan esetsi ta kontra emongo baleuskio batek eta esango baleuskio, ezteutsugu sinistuten, alperrik zagoz berbaz, ekazuz testiguak baldin gura badozu sinistu daizugun, gai onetan desonra lotsa- garria emongo zeuskio. Era onetara, berba guztietan juramentuten dabenak ta juramentuaz bere berba guztiak probatu, baieztu, sinisterazo ta ontzatu gura dituanek bere buruari desonra emoten deutso: bada, iku- sirik ezteutsela sinisten, dakarz testiguak, au da juramentuak, eurokaz batean sinistu dagiontzat.

Jente prestuak, egiatik ta menak damu artuten dabe euren berba bakar bati sinistu gura ezteutsenean ta juramentu egitera beartuten ditue- nean. Eta, baldin zu alan beartuten bazaituzte, zeuk daukazu errua, zeuk orretarako bidea emoten dozu; alan diño San Juan Krisostomok, zerren ain prest ta erraz juramentu eginik, beragaiti ain sarri artara beartuten zai- tue. Munduak balekus, diño San Krisostomo berak, eztozula papere jura- menturik egiten ta ez guzurrik esaten eta beti egiaz, kontuz ta ziur berba egiten dozula ta fama onean bazaituzte, sinistu egidazu orduan zure berba uts bakar bati ta kiñu bati ta siñu bati bere siniste geiago emon leuskiola juramentu, birao, ta ernegu asko egiten dituzanari baño; baña, zelan zarean guzurtia, guzur utsa, faulerua, barrixua ta berba-lapiko bat, ber- agaitik ezteutsue sinisten; ta, orregaiti, zerorrek bere, zeure guzurrik sinis- terazo gura izanik, juramentuak ta madarikaziñoak esan oi dozuz.

Baña, zeinbat eta zuk juramentu guziago, ainbat eta nik gitxiago sinistuko deusut. Bada, guzurra gorroto eztabenak eztau gorroto izango juramentu guzurrezkoa; eta guzurra esateko atzerapena eztabenak guzu- rraren ganean bere juramentu egitera ezta atzeratuko. Eta, bein guzurrian probau ezkerro, jazo oi dan legez jente juramentutsuakaz, ez jake andik atxina alangoai sinisterik emoten. Eta au da guzurtien kastigua: egia diño- enean bere ez iñok sinistea; eta eztau merezi bere sinistu dakion. Bada, esan oi dan legez: otzara, zesto, otarra bat egiten dabenak egin leiz eun bere; guzur bat diñoanak esan leiz geiago bere. Egatiari guztia sinisten jako, guzurtiari arean bere ez.

San Pablo Apostolua ain egiaz biurtu bazan bere ta santutasun andiaz prediketan asi bazan bere, orrez guztiaz, Jerusalemara joan zan lenengo aldian igeska ebiltzen beraganik bere lagun Apostoluak, ez jaka- zan fietan zergaiti ze uste eben lengoa zala ta len legez euren kontra ebi- llela. Alan da, bada, guzurtia, bein guzurrian artu dana eta bai beste edo- zein faltatan topatu dana bere. Ez jako andik aurrera alangoari belu berandu giño, puska baten aspaldi baten probau arteraño sinisterik emo- ten ta emon bere bear ez jako.

Ez eta ez jako absolbiziñorik eta parkamendurik emon bear bein, bitan ta geiagotan juramentu egiteko ekandu txarra kenduko dabela kon- fesoreari berba emonik, barrero konfesetara biurtzen danean bapere ondu baga, alegiñik egin baga, ekandu ta usadio deungea kendu baga. Zelan amorentasun ta okasiño desonestuan sarturik edo iñoren gauza osturik daukena ezin absolbitu leiz adiskidetasun txarra alde egin artean ta gauza ostua al badai biurtu arteraño, alan, juramentu egiteko ekandu gaistoa dabenak bere ezin absolbitu leiz usadio deungeak dirauan bitartean ta



kenduteko pruebak egiten eztituan artean. Bada, orduan bekatuaren estaduan, egotaldian ta tokian dago. Au gogoratu bear dabe Konfesoreak alangoak belaunetara datorkazanean, bada eurai au dagokie.

Eta dirudi onena izango litekeala bein erakustea, irakastea ta adierazotea alango juramentugillai zein arrisku ta pelligru andian dagozan; eta gero gitxi baten absolbiziñoa luzatutea: doazala orduan ta datozala barriro obeto prestaturik ta obeturik andik amost egunen epean ta, bitartean, abiatu ditezela euren ekandu gaistoa larga ta kendutera. Gero, barriz, biurtuten dirianean badakus obetu diriala, alegin ta ardura andiaz edo kendu edo gitxitu dabela usadio txarra, gai onetan absolbidu leiz, bestela ez.

6 §.

O, neure Jangoiko maitea! zer izango da nigaz? nire min guztia dago juramentura oitua, ekandu onetan sartua ta zartua, guztia artara emona, eztakit bestela berba egiten. Zer egingo dot bada? Zelan erremediatu ta osatuko nas gatx zorigaistoko onetarik? Kendutera gatx au egin gaitez, dirausku San Juan Krisostomok: betiko bota daigun aotik oituzko ekanduzko usadio gaisto au; ezi daigun miña, laburtu berbeak; kontuz berba egin ta, gura badogu, kendu giñei; bada, orretarako, diño santuak berak, arean bere gasturik ezta bear, ez neke latzik artu bearrik ta ez denpora luzerik emon bearrik, ez aldats andirik igaro bearrik. Gogo sendo on bat artutea, egiazko ta benebenetan gura izatea da asko; orrenbestegaz dago eginik; auxe da asko aldegitoko ekandu deungau. Oitu zara berba asko esaten, ekandutu zara berba guztietan juramentuak ezarten? Oitu ta egin zaite orainganik esaka gaistoak aldegiten. Gura bozu, egin ziñei; ta, baldin egiten ezpozu, adigarri da eztozula gura.

Esango deustazu: gura neuke, bada, erbestetu ta urrindu niganik ekandu oituzko au, ta indazuz sendagarri batzuk orretarako. Ona emen: lenengo erremedio osagarria da artutea goxean gogo, asmo ta borondate egiazko sendo bat egun atan juramenturik ez egiteko, miñaz kontu eukiteko; eta, baldin jazoten bajatzu orrez guztiaz jaustea, emon zeure buruari pena edo kastiguren bat, dala bularra jotea, dala lurra mun egitea, limosna egitea, jatekoa gitxitutea, denpora luze baten ixilik berbatu baga egotea, *Jesus* askotan esatea, Maria santisimari zerbait errezetea ta onelako neke ta laztasunen bat egitea. Eta orduan onelan saiatu ta abiatuten zarea-nean, zure nai gura baga ekanduak goiarturik, jausten bazara juramentue-

tan ta uts egiten badozu, eztozu onetan errurik, ez bekatirik. Bada, au jazo liteke ta izan diteke ekanduaren indarraz ustekabeaz, borondatearen kontra ta erru bago.

Bigarren erremedio edo osokaia juramentu egiteko usadio itxiteko da esatea juramentuaren orde, juramentuaren lekuan berba-egikun au: bai seguru, ez seguru; alan da, ezta onelan; egia dirautsut, sinistu egidazu, ez nagizu geiagora beartu. Onelan gure Salbatzalleak berba egin oi eban: *egiaz, egiaz esaten deitsuet*. Onelan berba egizu, bada, zuk bere; ta zagoz juramenturik egin bago. Egongo zindeke egin bago, baldin juramenturik egiten eztozun egunean amar eskutu irabazteko segurantzaz ziurra bazeunko. Bada, amar eskutu baño askozaz geiago balio dau zure arima Jesusen odolaz irabaziak.

Bijoa, bada, orrela urrin juramentua ta berau egiteko usadio, ekandu gaistoa, infernuko berbakuntza igar, ezain, gozo bage au, arimea galduteko baxen ezer balio eztaben au. Eta betor gaur ganik, gero luze bago, egiaz berba egiteko ta, juramentu guztiak itxirik, ez eta bai, ez seguru, bai seguru esateko usadio ta ekandua. Bestela, berba egiten dozun bitartean jakinik zagoz arrisku bildurgarrian bizi zareala, infernuko bide zabalari darraiozula ta azkeneko orduan estura larrian aurkituko zareala.



20. BURUA

Zeinbat kalte egiten dituan aserreak ta areriotasunak eta zelan bear dan len bait len areriotasunetik urten.

1 §.

Betibere lenengotik artu dogun lana bota edo aldegiten dogula, baña al baitanez darraiogula ta artara dispondu, dendatu, prestatu, abiatu ta biurtuten gareala, idoroko dogu gure gero onek persona areriotasuen, erriertatsuen ta aserrekoren artean bere badabela bere ostatua, tokia, jarlekua; oneetan bere kalte andiak egiten dituala. Bada, adiskide bategaz austen dozunean, baldin bertati osotutera, alkartu ta bat egitera abiatuten ezpazara, jakin egizu gero ta geroago gatxago egingo jatzula, atzerago, urrinduago ta ardurabageago iraungo dozula bere areriotasunean; alangoz eze, diño San Agustinek: aretx landara aretx andi gogorra egitera datorren legez, aserretasuna bere dator gorroto andia izatera.

Orregaitik diño Senekak (lib. 1. de ira. c. 8): gauza ona da aserrearen lenengo suari, mugidari ta abiadurari kontuz begiratutea, azi gaisto au azi, sortu ta garautu baño len atera edo ebagea. Beragaitik dirausku San Pablok (Ephes. 4): eztedilla eguzkia sartu zure aserretasunaren ganean; au da, eztagizula irau eguzkia sartu artean zeure aserrean, etzaitela joan oera bengetako deseoaz, etzaizala artu gaberorteak baketu baga: akaba dedilla aserrea, demandea, erriertea ta auzia eguzkiz eguzki. Bada, bestela, su txatar txikia andituten dan legez aserrea, ikusiezina ta gorrotoa bere geiagotuko da; ta bein andituz gero nekez gitxitu ta amatauko da.

Zelan geure gogo ta gustuko gauzak gogoz ta pozik artu ta atsegiña emoten deuskuen, alan gogo kontrakoetan tristetu ta aserratuten gara. Eta ain deungero daroagu ze, ezin egon gara orduan, beintzat aragiaren aldetik, aserratu baga, gorrotau baga, sentikortu baga ta bengetako guraria baga. Ardi bat otsoa ikusteaz latztu, larritu, bildurdu, izutu ta ikaratu ten dan legez, alan egiten gara gu bere arerioa ikusteaz, beragaz aurkitu ta idoroteaz. Orduan aragiaren aldetik ezin egon gara aserratu baga, min artu baga, barrua irakin baga, su ta garrak artu baga. Beragaitik diño San Juan Krisostomok (hom. 13, tom. 2): aragiak ezin arerio gaiskiña maitetu lei; ez eta sentidu baga itxi egiten jakan bide bagea, dollorkeria, billauta-

suna, iraina ta azpizapotasuna. Baña bai arimeak amatu, maitetu lei: zerren arimeak libertadea dau, bere jabe da, bere burua bere eskuan dau. Aragiak, barriz, ez dau libertaderik, ez bere burua bere eskuan, bere aginduaren azpian.

2 §.

Zelan dirian gorroto modu bi, bata naturala, berezkoa, aragiarena eta bestea librea, borondatezkoa; alan dira bi maitetasun ta amorio, bata naturala, aragiarena ta bestea librea, naizkoa, borondatearena. Jesus gure Salbatzalleak euki eban eriotzearen alderakotzat atzerapen au edo ez gura au: naturalki edo aragiaren aldetik gatx egiten jakan eriotzea ta orregaiti zirauntsan Aitari: Nire Aita, al badei, igaro bedi ni ganik Kaliz garratz min au, eztagidala nik eriotzarik artu. Baña onegaz batera izan eban amorio librea ta, alan, bere nai guraz ta borondatez iltzan.

Eta onetan da agiri egon litekezala alkarregaz gorroto naturala ta amore librea. Euki giñei arerioaren alderako gorrotozkoa, amorezkoaz batera. Eta gorroto naturala edo aragiarena bekatu ezpada bere, baña bai komunki librea, borondatezkoa. Gaisto batek zeure aita il deutsu, zeuri bere egin deutsuz billaukeria, prestueztasun ta laburtasun asko; asmau deutsuz guzurrezko falsiatsunak ta gaistakeriak; gai onetan ezin zengokez sentimentu, gorroto ta griña natural edo aragizkoa baga. Baña gorroto natural berezko onek ezteutsu amore librea kenduten, eztau borondatez gorrotora beartuten eta ez arerio gaiskileari parkatu ta on egiten era gozten: agaiti libre da zure borondate.

Eta, agaiti, askotan on ta mesedeak egiten deusaguz guri deungero ta esker gaistoz eranzun deuskun arerioari. Eta beragaiti arerio persegilla gaiskiña maitetu ta ametako mandamentua, legea ta agindua emon eutsan Jangoikoak arimeari, borondate librea ta berak gura dabenarako daukanari; eta ez aragiari, aragiaren gurariari, naiari. Eta, alan, bide bage bat egiten deusunean bajatorzu alde batetik bengetako ta ordea biurtuteko mugida bat, nai bat, griña txar bat, guraria andi bat; eta barriz, beste aldetik, gauzea ondo ta astiro pensaturik, aurrekoa ta atzekoa, igaroa ta etorkizuna ondo gogoraturik, atzeratuten bazara benganza artutetik, orduan aragia aserretuten da ta ez arimea, diño San Krisostomok (hom. 13, tom. 2). Eta au da arimaren eta gorputzaren, espirituaren ta aragiaren arteko gerra arrisku ta peligrizkoa ta bitoria glorioso: batak gorrotatuten dabena besteak maitetuten dau; batak fabore, besteak kontra egiten dabena.



Aragiaren gorroto naturala, berezkoa, aragiaren lenengo mugida ta griña, aragiaren aserretutera ta bengetara bat batean prest ta konsideraziño бага esetsi ta abiatutea, au berau bakarrik uste бага, gura ta gurez legez jazotea ezta bekatu. Bekatu izateko errazoiak euki bear dau leku ta parte, adimentuak ezagutu, borondateak erabagi ta guratu.

Oraindiño esan gura deusut batzuetan ezta goala erru edo bekatuak borondatezko aserrean, aserretu baldin bear danean. Eta, alan, aserretuteaz legez ez aserretuteaz bere egin leiteke bekatu. Errazoiaren kontra ta bide bagez aserrateua, bengantzaren billa ibiltea dan legez bekatu, alan aserratu bear danean ta aserretuteko okasiñoa danean ez aserretutea izango da bekatu; alan irakasten dau San Juan Krisostomok (hom. 12, tom. 2), zergaiti ze, bear danean ez aserrateuak, pazienza ta epetasun geiegi eukiteak, uts egiñari ez jaramoteak, enzungor ta ez-ikusit egiteak ta ez kastigatuteak emoten dau okasiñoa ta bidea falta geiago egiteko, bizio ta gaistakeriak burua goratuteko ta geituteko eta, ez bakarrik gaistoak, baita bere onak gaistakeriara konbidetako.

Aserratu bear danean ez aserrateua, sentikortu bear danean ez sentietea, beti bat, beti euli makala, geldoa, mamukioa, bigun berau izatea ezerberezatasuna da, ez gizontasuna. Santo Tomas Erakusle andiak diño (2. 2, q. 158, a. 8): geiegi aserretutea dan legez bekatu, gitxiegi edo bapere ez egitea bear danean ezta bekatu бага. Bere denporan modu onean, justutasunak eskatuten dabenean aserrateua ta alan aserraturik zemaitutea ta neurri onez kastigetea gauza ona da ta santua. Ain santua non, diño San Basiliok (hom. 9, de ira): aserratu бага, apur bat edolabere koleran sartu бага ta beragan biztu бага ez tira gaistakeriak zuzen kastigetan, ez bizioak sustraitik ateretan eta ez obra onak benetan egiten.

Eta diño San Agustinek (hom. 16, de verb. Dni): eztau aitak bere semea ondo zuzenduko gitxi bat bizitu ta aserratuten ezpada. Aita batek bere soseguan dagoala, zerbait estutu ta bizitu бага, aserre puska bat erakutsi бага, eztau ondo kastigauko bere semea; ezteutso irakasiko zer egin bear dabenean. Bear danean bear da gar gitxi bat, arpegi ilun bat, begi biurte bat erakutsi, zorroz berba egin, zerbait sumindu ta aserratu, batez bere oner ondu gura eztabenean semeak. Onetarako dauko aitak esku ta eskubidea semeari gogor berba egiteko eta bai etxe ta errietako buruak ta kargudunak bere agitarintzaren azpian dagozanen kontra jagi ta aserrateuteko, uts egiteak jagi ta jarraituten direanean. Alan aserratu zirian Moises ta Matatias (Exod. 31, Machab. 2) idolo edo jainko falsoak adartzan zituezanen kontra. Alan Jesus gure Salbatzalleak bere, biztu zanean

illen artetik, gogor berba egin eutseen bere Diszipulu batzuei, deituten zituela adimentu bageak, sinist gogorak ta sinistuteko atzeratuak.

Alan San Pablo Apostoluak bere zemaitu zituen Galaziako jentekak (Galat. 5), zirautsela: O, Galata zenzun bageak: nok erotu ta zorabiatu zaitue, len legez orain bere egia ez obeditu ta sinistuteko? Berbok desonragarriak, garratz miñak zirian Galatarrentzat; baña zirialako biotz onez ta borondate obeaz esanak, ez eban orretan bekatuak egin. Au berau da San Agustinek bere diñoana (lib. eterod. cap. 19): ezta anajaren kontra aserratuten anajak dabene bekatuaren kontra aserratuten dana. Alangoak bekatua gorrotuten dabe, ez bekataria. Gorroto dogu suak emoten dabene kea eta maite dogu sua bera. Ezin ikusi dogu gaixotasuna, baña bai gaixoa bera. Onetan egin oi dogu medikuak, barberuak, osagille batek gaixoaz egin daroana. Onak penatuten dabe gaixoa, minduna; ebagiten dabe, odol ustu ardura бага, kendu aragi zatiak, emon edaria garratz samiñak: arerio batek legez ta gaikin baten erara darabilde gaixo gizagaixoa. Baña, guzi au egiten dabelako gatxaren kontra ta ez gaixoaren kontra, ez gogo deungeaz, ezpada maitetasunaz ta osatuteko borondate onaz; beragaitik egiten dabe guztia ontzat eroaten, maitetuten da eta leku oner ezarten da. Alantxe bear dira, bada, errazoiak batera borondate on bategaz egin falta ta uts egiteak erremedietako, bizio txarrak kenduteko ta bekatuak aldegitteko, egiten dirian errietak, aserreak, zemaik, oñoteak, dedarrak ta agirikak bere estimatu, maitetu ta ontzat artu.

3 §.

Baña begiratu ta gorde bear da bakotxa bekatuen kontra esetsi, eraso ta aserratuten danean larregi aserraturik, geiegi koleraturik; maitetasunez, amorez, gozotasunez ta borondate onez egin bear dabene kolera gogorrez, benganzaz, su ta garrez egitetik. Gurasoak, predikariak, ugazabak ta besteai irakasteko, zaindu ta gobernetako kargua dabenek eztabe orrenbeste kexatu ta irakin bear non, ganez eginik, geiagora igarorik, amore gorrotora biurtu leien. Beragaitk diño Profeta Santuak (Psal. 4): aserre zaiteze ta ez egizue bekatuak. Aserratu bai, baña bere neurrian, mugonez, pazienziaren muga ta marra igaro bage: falteari bai, baña faltadunari gorrotorik, malsintasunik euki bage.

Zeure umea, otseña, ogipekoa edo kargukoa zuzendu, arteztu ta zenzundu gura dozunean, askotan zeu jarten zara zenzun bearrago. Zeure umea zenzundu ta zuzendu gura dozunean ain aserre, kolera ta su andian



sartuten zara, ain itsuturik, zenzun bageturik ta pazienziatik kanporaturik ta urtenik ifinten zara, ain ernegaturik ta ainbeste birao, añaen, agiraka, dedar egiten dozu, ze etxe guztia darabiltzu goikoaz bera; ta azkenean zeure ume ta otseñen faltea baño, zeurea andiagoa egiten da eta zeu errukigarriago, erremediakizunago ta zenzun bearrago jarten zara.

Bada, ez bestela, baiña errazoiak ta modu onean falta ta faltaduna erremedietea gaitik neurritz aserrateua gauza ona da ta santua. Eta onelan, aserrateuari deritxo *zelo onezko aserrea*, amorezko ta ondo gurazko aserrea. Beste aserre bat da borondate gaistozkoa, bengantzazkoa, gorrotzkoa, ikusi ezinezkoa, ez bekatua erremedietako, ezpada bekatari berari gatx emoteko euki oi dana; eta oni deritxo *biziozko aserrea*, bekatuzko aserrea, errazoiaren kontrakoa, intenziño deungekoa, borondate txarrekoa, lar-geiegia, ganez egiña, neurritik urtena, marratik kanporatua, mugatik atarea.

Onetarik, onelan ganez egitetik, larregi aserrateuetik sortu, jaiio ta ernetan dira kalte andiak, erriertak, berba deungak, juramentuak, biraoak, madarikaziñoak, diferenziak, auziak, gorrotoak, eriotzak eta bere buruaren ta besteen kalte gogor zori-gaistokoak, galduerak ta makina bat gauza txar negargarriak. Gauza askok kalte egiten deutse kristiñauari; eta eurentarik bat ta ondo andia ta besteen buru ta sustraia da ira, kolera, aserretasuna, bengetako guraria zitela. Onok arima ta gorputza zaurituten ditu, onok biak gaixotuten ditu, egunak laburtuten ditu, osasuna gitxitu, norbera makaldu ta denpora baño len burua zuritu ta ulleak urdinduten ditu. Alan adietan emoten dau Espiritu Santuak (Eccl. 30). Eta Senekak irakasten dau (par. 18) gorde bear dala baxotxa geiegi aserrateuetik, alde egin bear dala koleratik, kontu euki bear jakola aserrakuntzeari ta ari ez bakarrik bizitzaren maitetasun prestua gaitik, baita gorputzeko osasuna gaitik bere. Zergaitik ze aserrakuntzak, bengetako griñak, barruko gorrotoak, errenkoretasunak, kolerak ta suak arimeari ta gorputzari kalte egiten deutso, biei sentierazoten deutso, biak minberatuten ditu, biak gaixotuten ditu.

Eta alan, persona koleran sartuak, biziegiak, erreak, aldi txarrekoak, sugartuak ta aserrakorrak ez oi dai begi ordekoen bearririk, eztitu bere umeen umeak bere inguruan ikusten ta gitxi onetarikorik zartuten da. Bere barruko koleraren suak ta irakiñak errai guztiak erreten deutzaz, egosi, kiskortu ta ustelduten deutzaz. Eta alan, ikusiko dozu bere egitez exetuak ta bengatzalleak dirian personak, baldin berpetatik bereaz urtetan ezpadabe, bengetan ezpadira, egosten ta desegiten diriala. Eta, baldin bengetan badira, euregaz urtetan badabe, eskuak odolteua jazoten bada

bere, gero damutuak, penatuak, gogaituak, nai bagetuak ta minduak dabiltz. Alangoz eze, nola nai, nai bengaturik, nai bengatu bage, nai bere gogoaz kunplitu, nai ez bereak arten, ezta alangoentzat ezpada damua, sentimendua, naibagea, atsekabea, pena, gogaitasuna ta mintasuna.

Eta ezpabere, begira egiozu aserraturik, arerioturik dabillan bati zelan berba egiten daben, zelan aotik bitza darion, zelan begiak su txatar bi eginik dituan; ezin azalak artu dau, lurra ostikoka joten dau; jatorkazanakaz berba egiten eztau jaramoten; ezteutso iñori errespetorik, begiramenturik, ez lotsarik. Ero, zoro bat dirudi: aurrera ez atzera begiratu bage; etorkizunen konturik egin bage; guztiak guzurtuten ditu, desonretan ditu, mesprezietan ditu, il ta ondatu gura ditu. Begiratu egiozu, bada, alango bati ta ikasi; ta zenzundu zaite beragan. Eta jakin egizu zeu bere, aserre zareanean, alan zagozala, a dirudizula, zoraturik, buru bageturik, zenzun bage, konorte bage ta itsuturik ifinten zareala, ordi baten antzera barregarria zareala.

4 §.

Aserre dan persona batek ezitirudi lengoa. Agaitik zirautsen Platonek bere ikasleai (Fulgen. 1. 7, c. 2), aserre zirianean ifini egiela aurrean espillu bat ta an ondo ikusi egiezala euren buruak. Eta Senekak diño (1. 2 de ira, cap 36): batzuei on egin daroioela, aserre dirianean, euren buruak espilluan begiratuak. An ikusten da, an da agiri, an argiro agertu ta ezagututen da ze aldaturik, ze besteturik, ze etxura bagea, ze ezaindurik ifinten dan aserreaz aserreduna. San Juan Krisostomok diño (hom. 25 in 3 Joan. tom. 3): Balekus bere burua aserre dan personak, aserre danean ez leuke, ez, barriz ez aserrateuteko beste adibiderik bear. Bada, orduan ain dago ezaindua ze ezaintasun ak berak gorde lei aurrerantzean ez geiago aserreturik. Koleran dagoanak ainbeste erokeria ta umekeria esan ta egiten dau, ze berari begira dagozanak lotsatuten dira bera ikusiteaz ta berari enzuteaz.

Eta alangoak eurak bere, beragan biurtuten dirianean, bada koleran dagoana eztago beragan, nok esan lei zeinbat damu, garbai ta naibage artuten daben? Zer azken ondo gaistoa idoroten daben? Ze on bear, triste, jausia geldituten dan? Orduan oartu ta gogoratuten jako bere adiskideak ikusi dabela eta bai bere arerioak bere; guztiak begira egon jakazala; eta berak bere aldi txarrean ta koleran egin dituzan erokeria zoragarriakaz adiskideak damu ta naibagea artu dabela eta arerioak atsegiña, gozo ta



poza. Orduan erretan jako bere barrua, tristetu, mindu ta lotsatuten da. Eta guztiz bere, baldin bere aserrear gatzik iñori egin badeutso, kolperik emon badau, barberuen bearrean iñor imini badau edo bere berbeetan iñok preñarrik artu badau; emen dira zinak eta minak, an dira kexak, gogaitzeak, larritzeak, erneguak, agirakak, birao ta añenak. Orduan jarriten da bere buruaz gogoetan, esaten dabela San Juan Krisostomok diñoana (hom. 4, tom. 5): Zer neban nik egiteko atan sartuteko? iñor injurietan ta ofendietan ibilteko? Esamesa ta berba zorrotz astun minduak esateko? Deungero berba egiteko? Kolpeak emoteko? Ondatuko al dira, azkenekoak egingo al dituez onelango egitekoak, ni onelango egitekotan ifini nabena, onenbestera ekarri nabena. Baldin eznagoanean banengo, gordeko ninteke barriz onelako itsumendirik, zorabiatuak, aserrakuntzarrik. Onela esan daroa beragan biurtuten danean, oztu danean, aserrea emetu ta amatau dabenean. Onexee dira aserrakuntzaren errastuak, oñatzak, enparauak, ondorengo ondakiñak, oneek dira disputa, demanda, errierta ta gorrotoen frutuak: arimea galtzea, gorputza neketutea ta tristura andi baten azpian damaturik ifintea ta itxitea.

Gizon aserratu sukarra edo kalentura dabena pulsu legez da, kexatua dago, eztau sosegurik. Gau ilun bat dirudi: gau ilunean dabillena ezta ezaututen ze kolore daben gauzak, zein dan berdea ta zein gorria edo urdiña; alan, gizon kolekatuak bere ezta ezagututen non berba ondo egiten daben ta non deungero, nos dojan artez ta nos makur: konorte baga, itsutua, itsumuka dabil; ilunetan dabillena legez or emen, baterik bestera estropezu, beaztopa guztiaz egiten dau, bidetik kanporaturik dabil.

Onelangoetan deabru asmutsuak bere egiten ditu orduan bereak. Lapurrak dabiltzan legez gau ilun ta axetsuen begira ostuteko; eta otsoa denpora txar, euritsu ta mudatuen billa artaldeko ariai esetsiteko; ta arraintzallea ur loi nastuen billa, arraiñak artuteko; alan deabru lapur fiñak, otso goseakillak ta arraintzalle jakintsuak legez, billatu, aurkitu, idoroten ditu erak bere gaistakeriak egiteko ta zelataka dago nos dirian kole-
ra, gorroto, ikusiezin ta aserrearen iluntzak, ekatxak, ur loiak, okasiño ta eraldiak.

Persona areriotu, aserratu artean bere gogara, gusto ta atsegin andian dago deabrua: an dago bere erara aukeran, an idoroten dau ondona goa; an dau bere ostatua; an bide batez mandatu bi egiten dituz, zerren aserretzallea ta aserratu, biak baten beretuten dituz. Eta au ezta mirarituteko, bada, ezta bekaturik kolekan itsutuak, sutuak, sor gortuak dagoan batek eztaiketanik. Eta ezta zurtasuna alangoakaz, alan daragoiengan,

batutea, alkartutea, lagundutea ta sartutea. Batez bere aen artean ordirik edo zure areririk bada, orduan urrindu zaite, iges egizu, gorde zaite; ez beragana urreratu, alde egizu, larga egizu, bego ta betor bere ganera etorriko dan okasiñoa, galbidea ta kaltea; bada, bestela, peligrua da zure ganera etorri eztidin. Ordiak eztaiki zeri daragoion; ta arerioak bere bes-
teri emon gura deusana mina, zuri emongo deusana. Beragaitik, etzaita alangoakaz sartu, ez lagundu, ondo begiratu baga ta zeure burua kontuz gorde baga. Bada, aserrea itsua da, ordia da ta arerioa bere okasiñoaz baliatuten da.

Bada, baldin kolekarek ta bengetako deseo ta naigura ordenubageak ta errazoitik kanporatuak ainbeste kalte egiten badau, alan itsutu, izutu, zoratu, zenzun ta adimentutik ateraten badau eta deabruak bere orduan, kolekatuen artean danean, bere jokoak jokaturen baditu, kontu andia kolekari euki bear jako, egin bear jako guardia, billatu bear jako osagarria, abiatu ta dendatu bear da laster medizina, sendagarriak, erremedioak artzera. Eta nos? Len bait len, zeinbat lasterren, geroko luzetu baga. Bada, suaren antzekoa da koleka ta ondo dakizu sua txiki puska dan artean errazago dala amatutea eta iltea.



21. BURUA

*Aserrea amatetako ta ilteko lenego osakaia
edo erremedio da bakotxak, bere ekandu aserrekorra
ezaguturik, agaz kontu eukitea.*

Gorputzeko medikuak eta sendagilleak mediziña ta erremedio asko ikasi, billatu ta aurkituten dituezan legez gorputzeko gaixotasunak osatuteko, alan arimako medikuak bere, dazauenak zer dan kolera ta aserrearen ondorengoak, zein dan arimeko gaixotasuna, billatu, idoro ta agertu ditue konseju, abisu, adibide ta osagarri asko arimako eritasun au sendatuteko, aurrerakuntzak biztuten daben sua ilteko eta bai biztu, isio ta erexegin eztidin kontu eukiteko.

Lenengo erremedioa, osakaia edo bitartekoa da noberak bere burua, kondiziñoa, ekandua ta griña txarra ezagututea, bere buruaz gogoeta egi-tea aserrekorra danez; koleratsua, bengatzallea dan ala ez; jauskor danez bizio onetan. Eta, baldin alan bada, peligrua badazau, sentikorra bada, pazienzia gitxikoa bada, iges egin ta gorde alango okasiño ta laguneetatik, presentetan dirian peligruetatik, jente artera urten ta joaterik eta bai zereginetan ta karguetan sartzetik.

Batzuei okasiño danik txikienean sua oratuten jake; suzkoak dirialako, txatarrak, txingarrak, garra dirialako. Onen ganean ederto diño Senekak: Egur ezeari ta sendoari su andiak bere nekez erexegiten deutso; baña igarrari, arroari txatar batek bere erexegiten deutso, atarako egiña, prestatua, gaitua, abiatua dagoalako. Alan kolera ta aserratasunean bere jazo oi da. Ikusiko dozu geienetan gauza txiker bate gaiti, okasiño txiki bate gaiti, ezerezkeria bate gaitik aserratuten diriala asko; bai ta eriotzak bere egin ta jazoten diriala; zergaiti ze, aserratutea eztago ainbeste egitekoaren balioan, zein personaren kondiziñoan. Batak ardurarik eztabenaz, bestea jausten ta aserratuten da.

Antioko Sofista deituten zan ak, bere kondiziñoa ezaguturik, ez eban bein bere lagun artean ibilli gura eta ez, atarako bazan bere, erriko kargetan sartu gura. Gizon gaikin bat legez izu zan, bildur zan; igeska legez, basotua, erbestetua legez ebillan. Eta itanduten eutsenean ea zegaiti ta zeren bildur zan edo zegaiti uxaturik ta iges egiten eban, eranzun eban: Iges egiten dot dazaudalako neure kondiziñoa; ez nasalako prestu ta gai

jente arterako; eztodalako okasiñoan sartu ezkeru neure burua neure aginduan; ez nasalako neure buruaren jaun ta ez jabe; bertatik izutu, konorte bagetu ta aserratzen nasalako; errea, ernegaria, jauskorra nasalako; danik okasiñorik txikerrena, kiñu siñurik txikiena gorrotauteko, muturtuteko, makertuteko, ernegu gogaikarrean jarteko asko dodalako.

Ez nauko ez besteren bildurrak iges egiña: neure bildurrak, neure buruaz fiatu ezinakar aek karguak ez artutera, besten laguntzak itxi egitera. Onelan eranzun eban Antioko onek. Beragaitik diño Platon jakitunak persona aserrekorrak, situak, koleratsua adimentutsuak direala ta gai onekoak gauza on asko ikasteko, baña ez erriak gobernetako ta ez eskola eukiteko. Bada, orretarako pazienzia bear da, epe ta sosegua bear da; ta askotan ikusia ez ikusi legez, enzuna ez enzuna ta aditua legez irudirazo bear da.

Alan Kotis Traziako Erregeak bere, ikusirik ta ezaguturik onetan argala zala: bereala lenengo okasiñoan kolera ta aserreak burura igon, nagusitu, jaso ta goratuten jakala; sufrimenturik, eroanpenik, pazienziarik bapere ez eukala; sentikorregia, biziegia zala eta beragan, pazienzia eukiterra egin agaiti bere, bertati lenengo gertaldian ta okasiñoan jausi ta laprastuten zala, abiatu zan alegin guztiaz aserraldi guztietatik iges egitera, burua gordetara. Eta alan diño Plutarkok, egun baten Kotis Errege oni ekarri eutseela presente estimagarri bat, maiontzi eder balio andiko bat, baña bideriozkoa.

Artu eban ontzi polit au ekarlearen eskutik estimaziño andiaz; emon bere eutsazan esker onak ekarleari ta biraltzalleari edo emolle ongillari. Baña bertati ekarlearen aurrean berak bere eskuz ta guztiak ekusela urratu ta apurtu eban ontzi eder baliotsu au, ziñoala: Bakit, dazaut ta dakust egun gitxi barru nire otseñak ta serbitzariak ausiko dabela presente eder au; eta izanik ni ain bizia, errea ta kondiziño txarrekoa, menturaz geiegi aserratu ta larregi sutuko nas; eta neurri бага ta bear baño geiigo kastigatu neiz neure otseñak. Bada, lenagotik erremedioa ifini daidan, aldegin daidan okasiño etorkizun au; apurtu daidan, zatitu, puskatu ta ausi dagidan orain ontzi eder au neure eskuz koleratu бага, gero ez aserratutea gaitik. Zelan esan, alan egin eban, barreka egoala, guztia berak bere eskuz ausi eban. Askok alabatu ta andizkatuten dabe Errege onen egite au, baña gitxik jarraitu. Au zan zer jazo al lekikion: lenagotik, aurretik begiratutea, bere burua ezagututea, etorkizuneko peligrurik gordetea, kolera ta aserrakuntza amatau ta ilteko lenengo erremedioa.



22. BURUA

*Kolera ta aserrea ilteko bigarren erremedioa
da dirakien lapikoari egiten jakana aserrakuntzari bere egitea.*

1 §.

Gizon aserratua dirakian lapikoa legez da; eta irakin atarik jagiten da ke bat, laño bat, zeinek, Poetak diñoan legez, adimentua itsutu ta ilunduten dau. Bada, lapikoari lar dirakienean, ganez doianean, iru moduz emoten jako erremedioa. Lenengoa da sutik atera, alderatu ta urrindutea. Bigarrena, egurra kendu edo gitxitutea. Irugarrena, ur otza ganetik emotea, bota ta egozte. Onela, bada, aserrez, ikusiezinez, gorrotoz bere arerioren kontra dirakianari bere, iru erremedio ta bitarteko oneek emon bear jakaz; eta eurok artu bear ditu bere aserrakuntza ta gorrotoa amatau ta oztuteko ta eurok gorde bear ditu kontuz.

Lenengoa, sutik atzeratea: au da, aserratuteko okasiño, arrisku, bide ta pelligruetarik aldegin, iges egin, urrindu. Bada, zelan ez erretako bitartetik onena dan sutik urrindutea, alan erriertak, aserreak ta gertaldi txarrak alde egiteko bitartekorik onena da jente aserrekor, puntoso ta bide-riozkoetarik iges egin ta gordetea. Persona aserrekorrak aranza, elorria legez dira; eztira onak eskuaz erabilteko, min egiten dabe oratuten badira. Su-arria dirudie, barruen dauke su-geia, asko da kalzaiduaz jotea. Agaiti esan eutsan Rebekak Jakob bere semeari: Ene semea, aserre da Esau zure anajea, zure kontra kolera bizian sarturik dago; alderatu zaite beraganik, ezkutau zaite, etzaite egun batzuetan agertu eta bitartean oztuko da, sosegatuko da, joango jako aldi txarra. Bada, esan oi da: Ikusten eztaben begiak eztau minik. Alan, Jesus seintxo txikiak bere iges egin eban Herodes persegilla gogorra ganik.

San Pablo Apostoluak dirausku (Rom. 12) emon daiogula itxadote, epe, asti, leku ta amore irari, aserreari. Adierazo gura dau gorde gaitzela persona aserrekor etatik, aserratuteko bide ta okasiñoetati, auzitan sartutetik, errierta, kimera ta aserraldietatik. Bada, bein sarturik ta estropezu eginik, kalopean lau oinka doian zaldia legez kolera sartu ta berotu ezkerro, gatx da gelditutea, gatx da aurrerago igaro baga, gorrotoan sartu baga gelditutea. Beraz, onelan dirakian lapikoari, bere irakian geldituteko, emo-

ten jakan erremedioa emoiuzu zuk bere zeure buruari, zeure bengetako guraria ta aserreko irakina oztu ta amatetako. Sutik atzeratu zaite, okasiñotik aparta ta iges egizu.

2 §.

Bigarren erremedioa lapikoari bere irakian geldierazoteko da egurra kendutea, sua gitxitutea. Alan da, bada, kolera ta aserredurearen irakiña oztuteko ta amatetako erremedioa berba deungak ez ataratea, gogor ta astun erakusten jatzunari eme ta bigun erakustea, ixilik itxitea, enzungor egitea, ez jaramotea. Sua egurra geituteaz geitu, azi ta andituten dan legez eta kenduteaz gitxitu ta txikertu, alan gorrotoa ta aserrea bere berba asko, gaisto ta gogorak irausirik geitu ta bizkortuten da; ta ez eranzuteaz txikitu ta amatauten da. Zuri zeure arerioak gauza asko dirautsu: lapur bat zareala, engañatzalle bat zareala. Ta gero azkenean, San Basiliok diñoan legez, saietak botatzen dagoana legez, buruan dituanak dirauen artean, pensa alak edo dakizanak esan arteraño, ezta ixilduten.

Orduan ak deungero berba egiten dau; ta zuri bere deritxazu deungero berba egiten dabela. Ta alanbere, zuk ari beste orrenbeste edo geiago ta dongago dirautsazu. Zeuk deungago eranzunaz gura dozu erremediatu. Baña engañetan zara. Bada, ori da arriaz arria jotea, bioen su ta garra biztutea, lлага zaoria geiago zabaltzea ta areriotasunean ta aserrean barrunago sartzea. Zuri begia ateretan deuntsunari, zeuk bere arena aterateaz, ezta andik zurea oratu ez osotuten, ez bere lekura biurtzen. Kolpe bat emoten deuntsunari, beste bat zuk berari emonaz, ezteutsazu onela zeure buruari kenduten besteak emona.

Lapur bat zareala dirautsunari eranzuteaz ordi bat dala, ezta kust irabazte andirik egiten dala. Baldin beti gelditu gura badozu azkeneko berbea zeuk esanaz; ta ez beinbere largatu, ez amore emon ta zeureaz urten, orduan ezta akabatuko gerrea ta aserrea. Lenago bai, ordia asko edateaz egartsuago dagoan legez zerren ardoak berotu ta erretan daben, alan areriok bere, alkar eranzuteaz geiago areriotuten dira.

Nai badozu ixildu dedin arerioa, zagoz ixilik; gura badozu gelditu dedin, geldi zagoz, sosega zaite. Nai bozu atsemon ta amatau dedin sua, egurrak kendu egiozuz. Bada, au da bigarren erremedioa dirakian lapikoa geldi erazoteko, aserrea amatetako: egurra kendutea, biderik ez emotea, ixilik largatzea, enzungor, ez-ikusi egitea.



3 §.

Irugarren erremedioa dirakian lapikoa ganez eginik doanean geratuteko ta beeratuteko da ur otza botatzea. Onela, aserrezko kolera atsemeteko ta sosegatzeko da berba gozoa, emea, biguna esatea ta eranzuera umildea emotea. Bada, Espiritu Santuak diño eranzuera eme gozo bigunak gozotu, eztitu, beraatu ta austen dabela bengatzallearen aserrea; baña berba latz gogor min garratzak biztuten dabela aserrea. Gauza miragarria da bigunak bigundutea gogorra; gozoro ta mee berba egiteak mansotu, sosegatu ta beraatutea aserrea ta kolera.

Espiritu Santu berak diño miñaren eskuan dagoala eriotzea ta bizitza, gerrea ta bakea. Nai bozu adiskidetu ziñei zeure arerioa; eta bai geiagor areriotu bere. Emon eiozu ura, berba egizu bigun ta gozoro: sua amatauko da, gorrotoa ta ikusi-ezina akabatuko da. San Juan Krisostomok diño gizon baketsua, mansoa, sosegatua ta berba onetakoa gozoa dala beretzat ta besterentzat atseginezkoa; alakoaz guztiak gura dabe tratatu, guztiak gura dabe ibilli ta egon. Baña aserrakorra, sentikorra, jauskorra beretzat ta bestentzat da galgarria: alangoa ganik guztiak iges egiten dabe, guztiak aldegiten dira, iñok ikusi ezin dau.

Nik uste dot munduan danik eztabela alan palagutuko, ez sosegatuko, ez bigunduko zeure arerioa nola zeuk. Bañan, zelan edo zegaz? Berba onakaz, begitarte pozaz, txera ta moduzkotasanaz, agur biotzezkoaz, ondo berba egiñaz ta, guztion ganetik, era danean, okasiñoa agertzen danean on egiteaz. Alan diño San Pablok: emon egiozu zeure arerioari jaten gose danean ta egarri danean edaten; ta onela bilduko dozu ikatz beroak aren buruaren ganean. Esan gura dau: ikatz biziak alkartuten dirianean sua egin, biztuten dan legez, alan arerioari egiten deutzazuzan esker mesedeak ta serbizioak biztu ta egiten dabe beragan amorioaren sua, bakea, adiskidetasuna. Eta batez bere zeu aurreratuten bazara berari egun onak emotera, berba egitera, presente bat biraldutera. Onak arerioari biotza ausi ta irabazi ta ostuten deutso; onak begia maitetuten deutso; onak beartuten dau bere bengatzeko gogo ta asmoa beste aldera itzulitera.

Eta, baldin faltak zureak badira, zeu bazara errudun, orduan zu zagoz obligaturik aurreratutera, berba egitera, parkaziño eskatuteko, baketutera. Eta uts egiteak bere bestearnak badira, ondo egingo dozu ta jente prestu debotoen artean ondo aitatu izango zara, euren artean onra izango dozu ta zeure arimarako asko irabaziko dozu, atxakia bat billaturik edo antz irudina eginik, gatzik arean bere erakusi bage, len legez berba

egitea ta arerioa gana joateaz. Onela atzeratu, otzitu ta amatetan dira aserreak ta gorrotoak. Baña zu andi ni andi gogorturik egoteak, anditasunetan ibilteak, amorerik ez erakusteak atzeratuten dau bestea egin gura deutzan ona egitetik ta itxiten dau adiskideturteko bidea ta atea.

4 §.

Orain onen ganean esango dozu: baldin eranzun bage itxiten badot, ordea biurtzera egiten ezpanas edo neu agur egitera aurreratuten banas, esango dabe ezerez bat nasala; bildur nasala, egiak esan deutzazala ta alan neure buruaz fiatu izan bagez, berba eske nabillala. Baña, baldin bein zerbait badirautsat berak niri baño gogorrako berba egiten badeutsat, esango dabe gizona nasala, neure onraz preziatzen nasala ta galanto egin dodala. Sinisten dot batzuk alan esango dabeela. Baña ori diñoanak izango dira kristiñau gaistoak, Jangoikoaz baño munduaz kontu geiago daukeenak.

Eta munduko kontua bere eztabe alakoak ondo ateretan. Bada, mundurako bere onra andiagor da arerioari ondo egitea deungero egitea baño, ez eranzutea eranzutea baño. Bada, ez eranzuteaz, ez jaramoteaz emoten dozu adietan ez dozula errurik ta arerioak ganora bage berba egiten dabela. Alan diño Sn. Krisostomok: ze gaiti uste dozu, diño, aberatsak barre egiten dabela pobre eskeko bat dala dirautsenean? Dakialako ez tala alan eskeko pobrea. Alan, bada, zuk bere barre egiteaz arerioaren esanai, ez ezer eranzuteaz, ez jaramoteaz adietan emoten dozu ez tala zer diñoan, egiatik kanpora dabillala.

Eta, are geiagor, San Krisostomo berak diño: Eztozu obeto lotsatuko zeure arerio gaiskillea, zelan sufrituaz, sentimenturik ez erakusteaz, bakean largateaz. Zelan arri gogor bati edo sentimenturik ez daben beste gauza bati kolpeak emoten deutzazanak emoten deutzan bere buruari kalte geiagor ta atan probetxu bage neketu ta zatituten dan, alan ansiarik ez daben bati edo konturik egiten eztabenari, bere maliziaz daragoionak bere emoten deutso bere buruari min ta gatx geiagor.

Egun baten itandu eutseen Dionisio Filosofoari ea zegaz egin leion gizon batek bere arerioari damurik ta nai bagerik andiena. Eta eranzun eban berba gitxiz ta laburrakaz: Prestua beragaz izateaz. Arerioak gura leuke betibere idoro zupan uts egiteren bat; ta idoroten dabenean atsegin artzen dau; ta idoroten eztabenean damu. Ta andik esan oi da oker dabilanak, utsegiteetan jausten danak atsegin emoten deutzala bere arerioari.



Bada, orrela, zuzen ibilli zaite, ondo bizi zaite, ez zeure burua arrotu ta aurreratu; prestutasunez porta zaite, ez porfiatu, ez tematu, ez jaramon. Zerren, ur otza dan legez lapiko irakinak ganez ez egiteko erremedioa, bai ta sutik aldegitza ta egurra kendutea, alan da aserrakuntza ta gorrotoa oztuteko ta atsemoteko bigarren erremedioa, dirakian lapikoari egiten deutzazuna, zeure kolereari bere egitea.

23. BURUA

*Aserrea ta gorrotoa amatetako irugarren erremedioa da
ez orduan porfiatu, tematutea, kalera igaro artean ixilik egotea.*

Irugarren erremedioa ez aserraturako ta kolera amatauteko da Libio Filosofoak bere dizipulu ikasle Teodosio Enperadore Agintariari emon eutsana, zirautsala: Bakit, Agintari Jaun andia, aldi askotan aserratu ta kolera sartuko zareala. Bada, ordurako adibide on bat emon gura deusut. Alan zagozanean ez egizu porfiatu, ez tematu, ez kejatu, ez bertati abiatu: itxazu puska bat, ez albatanez ezer egin, ez esan, ez aurreratu ezertara, A, B, C ta onei darraion letrak esan artean edo aek atako denporea, bitartea ta astia dirauan artean, aldozun pazienza, epetasuna eukirik.

Onetara diño Espiritu Santuak: Errierta denporan eztaizula aotik txitik atera laster. Konseju ta adibide berau emon eutsan Atenodoro filosofoak Oktabio Augusto Enperadoreari, beronen etxerik urteteko egoala. Eta Enperadoreak ain gogoz artu eban adibide au, ze urte bat geiago euki eban bere Jauregian ta laguntzan bere konsegerutzat. Beste askok bere gorde dabe adibide au, idoro dabe aserrearen kontrako osagarritzat, erakusi dabe esatez ta egitez ona dala kolera denporan apur bat itxadotea, balanzas legez gelditzea, ez beingoan ebagitea, ez ezer esatea. Konsejari txarrak dira kolera ta forfia.

Senekak bere diño aserrea ezi ta goiartuteko, errierte ebagiteko erremedio andia ta segurua dala piska bat sosegetea, itxarrotea, ez porfiatzea, ez eragotea. Bada, Zizeronek diñoanez: ezta gizon aserratuak beinbere eukiko bear dan neurria kontuan egoteko; arriskuan dago gitxi edo askotan uts egiteko. Eta alan, aserre zareanean bildur izan zaite, etzaite aurreratu, ez egizu orduan egin gogoak emoten deusun gauzarik. Bada, orduan itsu edo zoro adimentu bagea zagoz: deserrazoia bera arrazoizko irudituko jatzu. Marinelak denpora ona danean bide egiten dau; baña ekatx denporan geldi dago. Alan, zuk bere aserre zagozanean denpora txarrean zagoz, ekatx denpora da ta orduan zagoz geldi, zagoz kaian edo portuan, zagoz etxean, sosega zaite, ez ezer egin ez esan denpora ederra eldu arteraño, aserrearen ekatxak dirauan artean.

Bada, Menandrok diñoan legez: Aserraturik egiten dozun guztia idoroko dozu gerorengo, deungero egin dala. Bai ta Senekak bere badiño



aserrearen ta erriertaren azkena ta akaberea dala damuzko negarraren asierea. Herodes izen onetako lenengo Errege jentilak il eban Mariannes bere emaztea koleran zeloak gaiti, gogoak emon ta berpetati ta ain laster, laburki ta arin ze, munduak jakin ebaneko, egin zan kolpea. Baña gero, aserrea ozturik ta obeto informaturik, jakin ebanean egia ta erru bage il ebalala ain min ta damu biziaz artu eban, ze etorri zan erotuteko puntura ta etxeko bazter guztietan ebillan zorabiatuik negarrez ta deadarrez bere emazeri deiaz ta bere billa; onetan bere lengo zorakeriaren ganera beste andiagoa egiten ebalala.

Aserrea ta koleran zagozanean egiten dozuz erokeria asko ta gero, aserrea igaro jatzunean, jatortzu erakeria orren damua ta nai zenduke egin ezipazendu. Eta alan, len bestearen kontra aserratzen zinean ori, zatoz zeure buruaren kontra aserrautera, diño Senekak. Aserrearen egiteak eztira beinbere onak ta osoak: beti datoz zerbait eskas, urri, artzaren ta txakurraren umeak direan legez. Bada, amak koleratsuak direan legez, alan dira umeak bere faltatsuak: artzaren umeak illak legez gogorak ta txakurrarenakitsuak sortuten dira.

Andizkatua da Artxita Tarentino, bere burua koleratua ezaguturik, esan eutsalako bere lagun bati: zeatu, manatu, apurtuko zindukedaz, baldin aserre ezipanengo. Esker onak emon eiozuz ene koleran egonari ze, bestela, artuko zinduan zeure egunak; bai ta alabetan da Platon famatua, zerren bere adiskide bati, bere koleran bere mutila, zeatu eutsana, kastigatu ez egian bildurrez, barruan sartu zituan eskuak. Begira zelan Filosofo jakitun, zur, adimentudun oneek gordeten zirian euren aserreetan: bildurtasun andiaz gobernetan zirian euren aserraldietan. Bada, baze-kien gizon koleran sutua zoro baten antzekoa zala, ez egoala beragan, etzala gizon.

Orregaiti diño San Basiliok zorakeria labur bat zala aserrezko ira ta kolerea. Eta uste eban Platonek bere gizon aserratuaren ta adimenturik jausiaren erokeriak ez ebeela beste diferenziarik, ezipada batek gitxiago ta besteak geiago irauteak baño. Bada, aserratuari lasterrago igaroten jako bere aserretasuna zoro zoroari bere erotasuna baño. Baña ganerakoan, bata aserre ta bestea ero direan bitartean ain ondo lotu, estu leie bata zein bestea. Bada, orduan biak dira bardinak, biak dira ero zoroak.

Eta, zelan dan erokeria andia zoraturik adimentua galdurik dagoanari prediketua, konseju ematea ta polito berba egitea; alan da, bardin, erokeria ez txikia aserre andian itsutua, sutua ta erre dagoanari, alan dagoanean, moduzkotasunaz berba egitea; bere arerioari parkatu daiola esatea. Bada, bere bero atan, kolerak lenengo oratutean, abiaduran ta

indarrean ezta bere buruaren jaun ez jabe. San Agustinek diño: aserrez beterik ta itsuturik dagoana eztago prestaturik konseju onak artzeko. Kontrara bai, orduan alako gauzarik inok adirazo ta aitatzen badeutso, aitetute berak ernegarazoten deutso, erneguz erre ta biraoka asten da. Eta alan, baldin aserre dirianen edo auzitan dabilzanean artean onik atera, bakeak egin edo adibide onik emon gura badozu, ez bereala lenengo egunean egin: itxozu, larga egizu, baldin gura bozu kolpe segurua emon, puska bat otzitutera, alkar batutera ta bat egitera. Medikuak bere ezteutso gaixoari gorarengo puntuan dagoanean ezin bestez baño purgarik emoten.

Onegaiti, bada, ondo da onelakoetan Libio Filosofoak emon eban adibidea artutea: aserre danean, apur bat itxarotea, piska baten ezer egin baga igaro, larga ta itxitea. Zerren, Stazio Poeteak diñon legez: Porfiak, tema, aserreak eztau gauzarik ondo egiten, guztia asten dau dongero ta akabetan dau deungago. Larga bear da, bada, piska bat oztu ta igaroten. Bada, au da aserrea amatetako irugarren erremedioa, ak dirauan artean ez ezer egitea, ez esatea, ez aurreratutea; ta geldi ta ixilik egotea.



24. BURUA

Aserrea amatetako laugarren erremedioa da gogoratutea, arerioak egiten deuskuezan bidebageak Jangoikoaren kastiguak direala.

1 §.

Laugarren erremedioa, osakaia, bitartekoa kolera ta enkina, gorrotoa, ikusi-ezina ta aserrea atsemon ta amatetako ta arerioak egiten deutsun bidebagea, lapurtasuna, iraina ta ofensa sufritu, irunsi ta eroateko da gogoratutea Jangoikoaren ordenamentua ta baimenak direala ta bere eskutik datozala arerioak egiten deutsuzan atsekabeak, gatsak, naibageak: berak laketu ta permititu dituala aren purgak. Onegaiti gure Salbagilleak esan eutsan bere eriotza aurrean San Pedrori: Eztozu gura neure Aitak emon deustan Kaliza edan daidan? Eriotzea artu daidan? Ak agindu ta ordenatu dituan neke-penak sufritu daizadan?

Jangoikoaren ordenamentu oni begiratuten eutsan Dabid Errege santuak madarikaziñoak ta biraoak egozten eutseezanean; ta, alan, esan eutsan Abisairi biraogillea kastigatu gura ebanean: Itxi egiozu madarikatu ta biraotu nagian Jangoikoaren aginduaren erara. Bada, eukiko ez leuka gizon biraoti orrek orrelako atrebenzia, azartasunik Jangoikoak laketu ta eskua emongo ezpaleutso; larga, bada, esan daian gura daben guztia, kumpi ta bete daian Jangoikoaren agindua ta naia.

Arerioak Jangoikoaren azoteak, zartak, zigorrak dira. Arerioak Jangoikoaren mandatariak, bidalduak, borreroak dira. Beraz, ezkara aen kontra aserratu bear. Bada, ze erru dauko azoteak? Ze erru berduguak? Baldin persona batek austen badeutsu arri bateaz burua, arriak ze erru dauka? Zegaiti joko dozu arria? Txakurrak egin daroa ori: largarik preso-nea, arriari esetsitea.

Job santuari esan eutsenean aren ardiak, kameluak, abereak ta beste ondasunak kendu eutseezala lapurrak, ez zan bapere aserretu, ez eta gorrotorik artu lapurren kontra: Zergaiti ze bazekian lapurrek Jangoikoaren justiziako mandatariak ta prebosteak ziriala; ta Jangoikoak alan laketurik ostu eutseezala bere ardiak ta generako ondasunak. Eta, alan, lapurren kontu gitxi eginik, esan eban: Jaunak emon, Jaunak kendu,

Jaunak gura izan daben legez egin da: izan bedi, bada, Jaunaren izena bedeinkatua.

Dakusanean ume batek bere amaren eskuan zigorra edo zartea ta agaz jo gura dabela, geiago begiratuten deutso amari, zigorrari baño: bada ondo daki, baldin amak nai ezpadau, ezteutsala zigorrak minik egingo. Alan, bada, guk bere arerioak ditugunean ta aek kalteak ta bidebageak egin edo egin gura deuskuezanean, geiago begiratu bear deutsagu Jangoikoari ta aren miserikordiari arerioai baño. Bada, arerioak, Jangoikoak laketu edo permititzen ezpadeutse edo atzeratu gura baditu, ezteuskue kalterik, min ez gatzik egingo ta, onegaiti, gure Salbatzalleak esan eutsan Pilatosi: Etzenduke nire ganean eskurik, baldin ezpaleutorzu an goitik.

Zeure arerioak bidebage asko egiten deutse ta bakusaz Jangoikoak bidebage oneek; bakiz ta, gura baleu, ezleukizue orrelakorik egingo; baño eztitu eragozten. Bada, San Agustinek diñoalez, zeure arerioak egiten deutsuezan injuria ta bidebageakaz, edo gura dau Jangoikoak probatu, ikusi ta esaminatu finak ta egiazkoak direanez zure egiteak ta merezimentuak, edo zure pekatuak emen kastigatu, beste munduan ez kastigatzea gaiti; edo, azkenez, oneek pazienzia ta gogo onez sufritu ta eroanik sari andi bat zeruan emoteko.

2 §.

Arerioak, fortuna txarrak ta munduko gora berak dozuzanean ta bidebageak eta irainak egiten deutsuezanean, orduan Jangoikoari begiratu bear deutsazu, azaz gomutatu, agaz konsolatu; ta zeure artean pensatu oneek guztiok Jangoikoak biralduten deutsuzala; eta nos eta mundu onetan deungego igaroten dozun, ainbat eta obeto joatzula beste mundurako, zu nor bazara. Eta Jangoikoak uste baleu etzareala beretzat izango, alako penarik ta nabagerik ezleuskizula emongo: lenago bai, largako zendekez gura dozun guztia egiten ta zeure gustura biziten.

Medikuak esperanza guztia galduten dabenean itxiten deutso gaixoari nai dabena egiten, jaten, edaten; ezteutso ezer eragozten, etsiturik ta esperanza bageturik dakusala gaixoa. Baña, osatuko dalako esperanza daukanean, eragozten deutsaz gauza asko, gauza zalegarri asko kentzen deutsaz. Onela gure Jangoikoak bere, dakusanean pekatari gaixoa salbatu ta osatuko dala, eragozten deutsaz gauza asko, ezteutsaz laketuten atsegiña ta gustu txarrak; emoten deutsaz purgak ta naibageak; gura dau euki



daizan arerioak ta oneek egin daioezala bidebageak. Ta au guztiau da señaile ona. Bada, onetan agiri da eztabela Jangoikoak larga ta desanparatu pekataria, eztabela esperanza galdu.

Eta au da atsegin andia arerioak dituanentzat ta bidebageak eroaten dituanentzat: jakitea ta gogoratutea oneek guztiak direala Jangoikoaren purgak ta azoteak ta guztiak bere onerako. Eta, alan, arerioa ganik bai, baña Jangoikoa ganik, adiskide guztien ganeko adiskidea ganik datozanak legez, gogo ta borondate onaz artu bear doguz. Alan gogoratu ta artuko bagenduz, ez gintekez oi dogun legez jasoko arerioen kontra; ez gintekez orrela egosi, erre ta minduko geure barruan.

Esango dozu etzareala ez aserratuten arerioaren kontra esan edo egiten deutsun injuriagaiti; ezteutsazula orregaiti gatzik gura; bada, dakizula oneek guztiok Jangoikoak laketu edo permititen dituala. Baña deungeroztat daroazula bere gogo ta borondate zitel gaistoa gaiti. Bada, zuk ari biderik emon baga ta bidebagerik egin baga, orrez guztiaz, alan esetsi ta gatz gura deutsun. Onela diñozu, baña ez ondo. Bada, zuk ezteutsazu begiratu bear arerioaren borondate gaistoari, ezpada zeure Jangoikoaren borondate borondatetsuari. Bada, aren borondatea da arerioak egiten deutsuzan gatzakaz zuri on egitea; eurokaz gura zaitu orain mindu emen, bestean ez kastigetako.

Llaga zauri gaisto bat burdiña goriaz jo baga ezin osatu danean, etzara jagiten burriñaren kontra erretzen zaitualako ta min egiten deutsalako; etzara onen zoroa izango. Pazienciaz daroazu dakizulako burdiña ori darabilan barberuaren intenziño ta borondatea ona dala. Alan da, bada, zure Jangoikoaren gogoa ta borondatea bere ona ta onera emona, zure arerioarena txarra, deungea ta okerra bada bere. Beragaiti Jangoikoaren borondateari begiratu bear deutzazu ta ez arerioenari.

Eta, baldin au onela estimatu ta gogoratuten badogu bear dogun legez, erremedio andi bat idoroko dogu geure barruan sosegatzeko ta ez aserratuteko geure arerioak egiten deuskuzan kalte, injuria ta gaistakeriak gaiti.

25. BURUA

Aserreari lekuri ez emoteko boskarren erremedioa da gogoratutea zelan dagoan zure arerioa aserre danean.

Aserrea, kolera ta gorrotoa amatetako, arerioaren kontra ez ifinteko, benganzatik atzeratuteko erremedio ona da gogoratutea zelan, ze moldez, ze egokeran dagoan zure arerioa aserraturik dagoanean, bengatu gura danean, zugaiti dongero esaten dagoanean. Eta ikusiko dozu aserrean dagoan arerio ori, zelan dagoan itsuturik, zoraturik legez, zenzun baga, adimenturik kanpora urtenik. Bazeunka ta bazenkus zeure anaje bat burua galdurik, konorte bage, zoroturik ta adimenturik kanporaturik, zeuri ta bere buruari kolpeka egin ta esaten dituala burura jatorkazan erokeria ta gaistakeria, damuago izango zenduka zeure anajearen kalteaz ta aren alan izateaz, zuri esan ta egiten deutsuzan bide bage ta injuriaz baño. Onela, bada, bear dozu euki damu geiago zure arerioak koleran suturik ta itsuturik bere buruari egiten deutsan kalteaz, zuri egiten deutsunaz baño.

Ume batek edo kalentura sukarrean beroturik dagoan batek edozein gauza esan arren, etzara bapere gogaituten, ez zeure sosegua galduten. Bada, bakizu ta dazauzu eztakiala zer diñoan, ez zer egiten daben. Eta orregaiti onelakoak gaiti eskatu eutsan Jesu Kristok bere Aitari, zirautsala: Aita, parkatu ciezu, bada eztakie zer egiten daben. Koleran dagoana gaiti pensatu egizu, diño San Krisostomok, eztagoala beragan, eztala bere buruaren jabe, burukala daukala; ta baldin alan pensetan badozu, erraz eroango dozuz egiten deutsuzan ofensak.

Persona aserrean sartuak ta sutuak eztazau bere burua, eztakus iñor, eztanzu ezer, itsuturik dago, eztaki zer diñoan, ez zer darabilan. Eta itsua jaustea, or emen jo ta estropezu egitea ezta mirarituteko; ezta orregaitik bat aserratu bear, mindu bear. Eta aserratuko bazara, zeure buruaren kontra aserra zaite ta ez itsuaren kontra ta ez koleran sarturik dagoanaren kontra. Bada zu zagoz argiturik ta bestea itsu, zu zur zoli ta a zoro eroturik, zu zeure zenzunean ta adimentuan ta a andik kanpora aterarik. Alan, bada, sufritu begi zur zenzundunak eroa; argituak itsutua ta aserre eztagoan aserre dana. Beragaiti, erremedio ona da arerioari parkatuteko, sufrituteko, aren esan egitei ez jaramoteko, konsideratutea zelan ta ze modutan dagoan koleran dirauan artean.



26. BURUA

*Aserrea amatetako seigarren erremedio da
ez jakin gura izatea zer diñoen gu gaiti jenteak.*

Bakean, soseguan ta aserratu bage egoteko ezta bide gaistoa gu gaiti jenteak zer diñoaren billa ta itanduten ez ibiltea. Senekak diño: ezta on, ezta konbeni guztia jakitea, ikustea eta enzutea; igaro bitez gauza asko guk jakin baga; bada, eztakienak eztau damurik artzen. Gura badozu sosegu ta epetasun onean ta aserratu baga egon, ez geiegi itandu, ez geiegi arakatu ta billatu. Billa dabillanak idoroko dau ta, batean ezpada, bestean bere burua egitekotan sartuko dau, arduraren baten ifiniko dau.

Ezta on barrendari izatea; ezta on zelataka egotea, ez eta egiten dirian gauza guztiak jakin gura izatea. Askotan ekarten deuskuez kontu barriak, esa mesak: urliak au diñoala, urlizeak bestea diñoala; onelakoak ta alakoak esan direala ta geu bere gogoaz gagoz enzuten. Baña gero, jakin dogunean, idoroten dogu gura eztoguna; ta andik gatoz jaustera aserrean, koleratu ta minduten gara. Emendik gatoz gauza asko egin bear izatera osotuteko geure onrea, egin bearrak etzirian alako gauzak enzun ezpa-genduz. Eta alan, obe da gauza asko ez jakitea. Eta dakigunean bere, ondo da ixilik igarotea, ezpaganiz legez egotea; ez jabetutea esanaz, ez-ikusi egitea, ez jaramotea; ixilik igarotean, geure barruan egotea kanporatu baga.

Errege Saul gaiti erregetu barrian deungero berba egiten eben jente batzuk ta ori ain ur ta argiro ze Errege berak enzuten zituan. Baña burua beste aldera biurtu ta disimulatu eban, enzungor eginik. Ta andik biztu al zitekean su guztia amatau eban. Egun baten Arkelao Erregeari, kalean igaroten zala, bota eutsen ura burutik bera: eztakigu ala berariáz ala ustekabez zan. Baña bere laguntzan joiazanak asi zirian esaten ori zala azartasun andia, atrebenzia ta lotsabagetasun ezaina; ta, baldin kastigetaz ezpazan, urrengoan beste orrenbeste egingo ebeela. Baña bertati Erregeak sosega zituen esanik: Zagoze bakean ta geldi: ezta ezer egin. Ur au bota dabenak ez nau ni busti; ez ekialako ni nintzala. Ez eban bere ganera artu ta onela obeto ta errazago erremediatu zan ta amatau zan biztutera joaian sua.

Bespasiano Enperadoreak ain kondiziño ona ta onera emona eukan, ze gura ez eban legez edo personari ez egokan legez, iñok deungero berba

egiten ebanean, disimuletan eban edo berba jokolariz, txantxaz, irri barre solasezkoz edertuten eban; ta onela, berari egokion onrea gaz geldituten zan, ezer galdu bage. Alan Errege Antigono bere idoro zan egun baten bera gaiti deungero berba egiten eben jente pilo baten ondoan; ta esan eutseen: Zoaze urrinago, Erregeak enzun eztaizuen. Bera gaiti ta bere kontra berba egiten egozan ta berak aparta zitezela esan eutseen ta andik bera alabatua ta besteak lotsatuak gelditu zirian.

Jakin ezkeru, enzunezkeru, beragan artu ezkeru gatx da aserratu bage, sutu bage, benganzara abiatu bage, kolperik egin bage edo auzitan edo erriertan sartu bage gelditzea. Ze erremedio, bada, ze bide, ze bitarteko gatx guzti oneetarik iges egiteko? Ez ezer itandu, ez billatu, ez jakin gura izan; ta jakiten danean bere, egon ezpalegi legez, ez jabetu esan danaz bere gaiti, ez beragan artu; ta egin bere burua itsu, gor, mutu. Au da erremedioa aserririk ez erneteko ta biziteko bakean, pozik, konsolaturik, biotzeko erretasun bage.



27. BURUA

Aserrea amatetako beste erremedio batzuk, laburrago ifiniak.

1 §.

Sufrimentua ta pazienza eukiteko, bata besteaz ez aserratuteko ta bakean biziteko konsideratu daigun, Adanen seme guztiok, batez bere kristiñauok bat gareala ta gorputz onen burua Jesu Kristo gure Salbagillea dala. Alan diño San Pablok: Gorputz bat gara guztiok Jesu Kristo gan ta bata bestaren zatia. Bada onela, alkar maite izan bear dogu, gorputzeko zatiak alkar ondo artu, alkartu ta maitetuten direan legez.

Gorputzeko zatietan ez da enbidiarik, ikusi ezinik, benganzarik. Oñak serbituten dau eskua ta eskuak oña. Oñak beaztopa edo estropezuza gaiti, ezteutso eskua kolperik emoten. Agiñak miña usegitea gaiti, nok agaiti ateretan ditu aginak? Begiak leku goragoan dagoz oñak baño; baño, orrez guztiaz, begiak maite dituen oñak, eztitue desprezietan: aldaien guztian alkarri lagunduten deutsee; eta, baldin alkar ondo artuko ezpadira, euren kaltera etorriko liteke. Begiak argituten ezpadituez oñak, oñak estropezuaz minduko dira ta begiak negartu.

Sabelak jaten ezpadau, zankoak argalduko dira; eta bai sabela bera bere tximurtu. Ez laguntzeaz, ez konpondu, ez ondo artuteaz batek bere buruari kalte egiten deutso. Eta beragaiti, au ikusirik, gorputzean zenzun ta zati guztiak alkar ondo artu, lagundu ta maitetuten dira. Eta batak edo besteak uts egiteren bat eukia gaiti, alkarri parkatu, sufrituten deutse. Onela guk bere, bada, alkarri sufritu ta parkatu bear deusagu; ta amorea euki ta erakusi; garealako gorputz bateko zatiak ta parteak.

2 §.

Baita aserre ta gorrotoa oztuteko on da esku-lan bat egitea, bearrari ekitea; beste gauza baten pensetea ta gogoa aldatu ta zabaltzea. Alan egin eroiala, diño, Klimas zeritxon batek. Koleraren gaixotasunaz ukuturik asmetan zanean, aldatuten zan beste egitekoetara; asten zan kanta soñuka ta, onela, bere gatxa ta aserrea aztuten jakazan ta soseguan gelditu.

Bai ta erremedio ona da aserrea atzeratuteko, gogoratutea zeu bere uts egite askotan jausten zareala; ta orregaiti eztozula zeure buruaren kontra emoten. Erremedio au gogoan eukan Senekak esan ebanean: Egon diteke aserratu bage injuria ta bidebagea artzen dituana, baldin ordu berean badirausto ixilik bere artean bere buruari: Nik bere egin dot nosbait onenbeste. San Gregoriok diño: Ura suaz amatetan dan legez, alan gorroto ta aserrea bakotxak bere utsegiteak gogoratuaz. Bada, lotsatuten da edo lotsatu bear liteke besteri ez parkatuteaz, berak parkakizun edo parka bear geiago edo ainbeste dabenak. Ezta zurtasuna faltetan jausten danak faltetan uts egiten dabena estutu ta kastigetea, zerren, bestela, berak bere bere burua gorrotatu ta kastigatu bearko leuka.

3 §.

Bai ta aserrea ta gorrotoa kenduteko on da adiskide bat, Mezenas bat alboan eukitea. Ak, iluntzera ta jaustera zoazanean, aserreak itsuturik zorakeriaren bat egitera zaroazanean, soñekotik tiratu leizu, abisatu ziñei, esan leizu jausterik gorde zaitezala. Gizon bat joian bein gogo ta asmo guztiaz prestaturik beste bat iltera; ta, ikusirik bere adiskide batek zelan joian, itandu eutsan: Nora zoaz orrela armaturik? Eranzun eutsan: Urliak iltera. Eta, zer izango da baldin ak zu ilten bazaitu? Ez nintzan orrezaz gomutatu. Adiskideak onela atzeratu ta biurtu erazo eutsan.

Askotan egin eutsan ofizio au Zesar Augusto Enperadoreari Mezenas bere adiskideak. Eta guztiz bere egun baten Agintari onek kole-ran itsuturik emon eban sententzia gaisto bat ta bere aginduz jente andia eroien galduera; orduan Mezenas bere adiskideak eskribidu eutsan ta biraldu eutsan karteak eskutik eskura, bera jente artean urrin egoala, ta bakarrik zirautsazan berba laburrok: *surge carnifex*: jaki zaite karnizerua, ikusi egizu zer egiten dozun berdugu orrek. Enperadoreak, artu ebanean a karta ain laburra ta ain zuzena, nok egin zan, izenik ezpazeunkan bere, ezagutu eban bere adiskidearen letrea ta eskua. Artu eban parte onera ta, bertati bere falta ezaguturik, aserreak eragin eutsala ikusirik, parkatu eutseen guztiai.

Asko balio dau adiskide leial on bat bere alboan eukitea, ak egiak esan daiozan; ta ezer esan bagea bere, ukonduaz ukutu ta begiaz keñu egin dagion. Bada, batzuetan geiago egiten dau kiñu siñu batek, miñak baño. Gauza bat egitera zoazanean eta zeure adiskideak dirautsunean eztagizula egin bear ezpada, atzera zaite a egiterik. Bada, orduan obeto dakus zure



adiskideak zuk baño; bada, zu zagoz atara erabagirik, pasiñoturik, itsuturik ta eztozu dan guztia ikusten. Baña zure adiskideak eztauko pasiñorik, argi ditu begiak ta dakus dan legez ta bear dan legez.

Ezjat eguño neure adiskidearen abisuaren kontra egin dodan gauzarik ondo jazo. Medikiak bere, munduko onena bada bere, gaixorik dagoanean beste medikuen eskuetan itxiten dau bere burua; bestez baliatu ta gobernetan da, bere buraz fiatu bage. Koleran dagoan bat gaixorik dago. Bada, osatu gura badau, begiratu ta obeditu begio bere adiskideari; goberna bedi aren konsejuz, adibidez, abisuz; bada, atan idoroko dau ona ta ez bestela.

Azkenez, da erremedio ona ez aserratuteko ta aserreak dirauskun gauzarik ez egiteko gogoratutea eta geure artean pensetea ze gauza ona, gozoa ta baliotsua dan ez disputan sartzea, ez benganzaren billa ibiltea ta bakean egotea. Ze neke da arerioari parkatutea? Ez bapere, diño San Juan Krisostomok: bada, ezta orretarako itxasorik igaro bearrik, ez bide luze-rik ibilli ez mendi ganera igon, ez dirurik gastatu, ez gorputza zatitu, ez beste nekerik bear, ezpada gura izate bat, borondatezko nai bat ta ez besterik. Baña lan andia ta pena nekegarri latz garratz mina da ez parkatutea, ea nondik eta zelan bengauko dan beti asmetan ibiltea. Eta ezpabere, gogoratu egizu ta gomuta zaite arako alkar ikusi ezinik, aserraturik, are-rioturik ta bengatu ezinik ibilli zanean denporaz eta gero bakean, areriotasun bage egon zareanean edo zagozanez; ta ikusiko dozu ze diferenzia dan bien artean, zeinbat doian bataganik bestera. Ikusiko dozu len aldi askotan laguntza batzuetarik alderatu bear zeunduala, an zegoalako zure arerioa. Bai ta ikusiko dozu len zengozala gerran eta orain, biktoria irabazirik, bakean. Bada, San Krisostomok diñoan legez, areriotasuneko bitoria eztago bengetean, ez ordea kitua biurtzean ta bibidertutean, ezpada parkatutean ta injuriak biotz onez sufrietean. Bada, orduan zure arerioa, zeure burua ta deabruak goiartuten dozuz; eta arimea ta gorputza bere bakean, soseguan, seguruan ifinten dozuz. Eta au da erremedio, bitarte ta bide ona, andia ta alabagarria zeinbat lasterren, gerora begira egon bage, areriotasuna largetako, bakean biziteko ta ez aserratuteko.

28. BURUA

Lenengo errazoia arerioa parkatu ta maite izateko da Jangoikoak aginduten dabelako.

1 §.

Esan dogu zeinbat kalte egiten daben bengetako deseo txarrak; ta andik sortu, erne ta jaioten direan gorrotoak. Bai ta ifini doguz osagarriak, erremedioak, sendagaiak ta gogarteak ez aserratuteko, ez bengetako, aserretasunean ez irauteko ta kolera ametetako. Bada, orain jakin ta gogoratu bear da onen ganean gauzarik bearrena: ea zelan bear garean geure arerioaz gobernatu; ea bear dogunez arerioa amatu ala gorrotatu. Eta, baldin amatu bear badogu, ea zegaiti, ze bidez, ze aginduz au alan egin bear dogun.

Lenago, Lege zarrean legea deungero aditurik, ez eukeen pekatutzat arerioa gorroto izatea; bada, zelan legeak aginduten eban adiskideak maite izatea ta ez eban ezer esaten arerioak gaiti, ez konturik artuten onen ganean, andik ateretan eben ez egoala arerioa amatu bearrik. Baña Zerutik lurrera jatsi zanean Jangoikoaren Semea, erakusi eban zer egin bear zan onetan, ziñoala: Adiskideak maitetuteaz ze irabazi ta ze esker, merezimentu ta sari uste dozue izango dozuela? Jentil fede bageak, Jangoikorik ezagututen eztabenak ta jente gaistoak bere ori egin daroe; onek bere maite ditue euren adiskidak ta ongillak.

Arerioak arerioak amatu bear dozuez; dongero egiten deutsuenai on egin bear deutsazue. Zeinbat eta geiago deungago aek zuei eranzuten deutsuen, ainbat eta geiago ondo egiezue aei. On egiñaz dongero egiña goiartu ta benzutu bear da. Au da Jesu Kristok esaten deuskun legea ta agindu barria. Baña esango deustazue: Zegaiti on egin bear deutsegu deungero egiten deuskuenai? Zegaiti maite izan bear dogu arerioa? Errazoi asko gaiti.

Lenengo errazoia, alde guztiz lenena, bearrena, ezer ezin esan giñeien legez esku ta oñez estu ta lotuten gaituana arerioak ametako da Jangoikoaren agindua ta borondatea dalako, alan guk egitea. Nai dabenak gura dabena esan begi; baña nik aginduten deutsuet zuei onetsi, maitetu, amatu daizuezala zeureon arerioak, persegillak, gaiskillak, diño Jesusek.



Pitagoras Filosofo andiaren ikasleak ez eben beste aginduaren bearririk, ez beste errazoirik gauza bat egiteko, ezpada jakitea euren nagusiak agindu eutseela. Nagusiak esan dau, nagusiak agindu dau: bada, alantxe egin bear da. Au zan euren berba egikunea. Eta guretzat, guk geure arerioak maite izateko ezta asko izango jakitea Jangoikoak aginduten dabela arerioak amatzea?

Presona bat ofensa, bidebage bat egiten deusunean jazoten da beste batzuk bitartekotzat sartutea bakeak egiteko ta konpontzeko. Lenengo jatortzu zeure lagun bat, zeure ideko bardin bat, zeure adiskide bat, ta ak dirautsu: Bakit urliak injuriatu zaituana, baña damuturik, errukiturik dago, ondo dazau deungero egiña ta esana; eta alan, neure amorea gaiti parkatu bear deusazu, arren, adiskidetu, baketu bear zara agaz. Onela dirautsu zeure adiskide ori zeure satisfaziñokoa dalako, ukatuten lotsa etzarealako, zeure bardiñ dalako.

Lagun adiskide bitarteko orren ondoan, ak ezer atera ez dabenean, jatortzu andiago bat, begirune, errespeto ta lotsa geiago deusazun andiki bat. Eta ez ain erraz zein lenagokoan, baña kolera ta aserrean suturik zagozalako, oni bere dirautsazu eztaizula orren ganean berba egin, ez erregutu, bada, sobra errea, sumindua ta giarran ukutua zagozala aren kontra. Azkenean jatortzu Errege bera; ta onek bere alan bigundu ta beraatuten zaitu parkatzera arerioari ta zuk eztozu arpegirik ukatuteko, lotsa zara ezetz esatera ta zatoz bere esanera.

Bada orain, lureko zati baten Errege bati, gaur bada, biar izango eztanari azartuten ezpazara ezetz esatera, mundu ta zeru guztiko Erregeari, Jangoiko berari, ze arpegiaz eranzungo deusazu ezetz aginduten deusunean maitetuteko zeure arerioa, ezteusazula parkatu gura, eztozula bere agindua kunplitu nai?

2 §.

Esango dozu esan daroena arerioturik dagozanak edertuteko ta estalduteko euren areriotasuna: Nik parketan deusatz, ezteusatz gatzik gura, ez ordea biurtu nai. Nik neuretzat gura dodan ona gura deusatz Jangoikoak emon daiola. Baña ezteusatz barbarik egingo; eztot gura berak bere egin daidan; eztot beragaz traturik ez laguntzarik euki gura. Onela esaten dozu, baña eztakit ondo diñozunez. Bada, dirudi onela alkarregaz berba egiten eztabenak eztagozala borondate gaisto baga. Ezagunak dira

euren berbetan, solasetan eztabela alkarren amudiorik, satisfaziñorik, ez bear dan maitetasunik.

Bada eurak dazaue, eurak dira testigu ta dakie ondo, zer igaroten dan euren gogoan, borondatean, biotzean ta alkarren alderako daukeen otstasuna. Eta, baldin ondo begiratuten badabe, ikusiko dabe baukeela an euren barruan ezetasunen bat, gerra, gorroto, erretasunen bat ta ez dabela euren gogoa ta biotza garbi ta amorezko berotasunaz. Olan ta errementariko sutegian auspoak axe emotetik geldituten direanean, dirudi eztagoala surik. Bada bertati, ikatzak ilunduten dira, geldoz estalduten dira. Baña erabilli egizuz puska baten puska auspoak ta ikusiko dozu zelan bereala barriz sua agertzen dan. Alan agertzen da, bada, alkarregaz berba egiten eztabenen arteko borondate gaistoaren sua bere, dan okasiñoaren txikienean idoroten direanean.

Baña orain jakin gurako dozu ea pekatu dan borondate gaistorik ezthanean ez berba-egitea, ez konbersaziñorik eukitea, ez agurrik egitea arerioa izan dozunaz. Baldin komunki ta oidan legez kristiñauak kristiñauakaz, aideak aideakaz, errikoak errikoakaz legez bidean topetan dozunean zerbait itanduten deusunean edo onelako okasiñoetan eranzuten badeusazu, berba egiten badeusazu ta ezpazagoz borondate gaistotan ta ganerakoan labur ta ez beste adiskide maite bategaz legez berba egiteaz edo berba urri eskas gitxi esateaz edo adiskide entero maite bategaz legez ez ibilliaz, dirudi eztabala orduan pekatuturik. Batez bere uste badozu sarri berba egiñaz ta alkarregaz jarraituaz etorri ditekezela kalteak ta okerrak, etorri oi direan legez. Bada, asko dira ain okasiñotsuak, sentikorrak, bideriozkoak, jenio gaistokoak ta aldi txarrekoak ze obe da alakoetarik aldegitte, ez batutea, iges egitea, alkar idorotea baño.

Baña, zelan aldeginik ibilteak, alkar ganik iges egiteak eta azalezko atxakia ta irudipenaz baño ez berba egiteak adierazotera emoten daben zerbait dala bitartean, areriotasun edo borondate deungeren bat dala bien artean: zer esana emoten dalako, aserre-fama agertuten dalako eta eskandalo ta gatz bidea besteai emoten dalako, baldin zer esan ori, aserre fama ta eskandalo ori kentzen ezpadozu, borondate txarrak ez izana gaiti, etzagoz libre konzienzian, bada, guztiok gagoz bearturik ta premiñaturik, kristiñautzat preziatzen bagara barruan, agirian bere kristiñauak gareala erakustera ta adietan emotera.

Eztagoz bearturik adiskideakaz legez arerioaz geure sekretoak, bideak ta egitekoak agertutera, ez euretara adiskidetera legez askotan joateta. Asko izango da bere denporan agur ta berba egitea, munduak areriotzat euki ez gaizan legez bizitea, tratatzea, eskandalo ta zer esanik ez



emotea. Ganerakoak norberak bere egitekoak egin daizala, bear dana bear dabenez solastu dedilla.

Baña egia da santu izateko, kristiñau komunari aurea eroateko ezta-
la asko agur otz epel bat egitea, borondate txarrik ez eukitea, eskandalo-
rik deungerik ez emotea, ezpada guztiakaz izan bear da bardiña, moduz-
koa, tratu gozokoa, txera argikoa, alegrea, maitetsua. Eta, are geiago, ezta
asko deungero egiten deuskunari gatzik ez egitea, bada, ondo egin bear
deutsagu. Bada, au da santutasuna, prestutasuna, deboziñoan kunplitua
izatea ta Jangoikoak aginduten deuskun karidade, maitetasuna betetzea.

3 §.

Esan dogu parkatu bear deutsalaga geure arerioari ta amorea euki
alan Jangoikoak aginduten dabelako. Baña, nos agiriko ete eban?
Eguenguren santuko arratsean, il bear eban egun aurrean bere azkeneko
denporan, kandela eskuan arturik legez ilteko egon zanean. Emazte batek
gogoan daukaz bere senarrak eriotzako orduan esan eutsazan azkeneko
berbak; eta seme batek bere, orduko bere aitaren adibideak.

Bada, Jesu Kristo gure Aita maiteak bere azkeneko gauban, mundu
onetarik batera igaro bear zanean esan eutseen bere ikasle Apostolu mai-
teai ta eurekaz batean guri: Ene dizipulu ta seme maiteak, bakusue zelan
nagoan, zelan eriotzea sortu jatan; laster il bear dodala ta neure testa-
mentua ta azkeneko ordenamentuan egin bear dodan. Bada, nire azkene-
ko mandamentua, ordenua, agindua ta borondatea da alkar amatu zaite-
zeela; arerioai parkatu deiezuela. Onetan erakusiko dozue zareala nire
semeak, adiskideak, ikasleak ta nire eskolan ta laguntzan aziak ta ikasiak
zareala.

Adibide santu au ikasi eban Jose Egitokoak Jesu Kristo munduan
agertu baño len. Jose Patriarka Aita-aurren andi oni egin eutseezan bere
anajeak injuria, bidebage ta ofensa andiak; gorroto eben, saldu eben
Egitoar bati. Gero, denpora asko igarorik, gitxi usterik, euren anajearen
berrera ta agindu azpira etorri zirian anajeok; estura andian ikusi zirian
ta ain andian ze gero, euren Aita Jakob il zanean, bildurrean sartu zirian
ta alkarri zirautseen: Zer izango da orain gugaz? Il da gure Aita prestua,
ona ta santua; guk saldu genduan anaje au Errege Ordekotzat eskubide ta
agintaritza osoan dago. Aita bizi zala ondo gengozan, seguru giñean;
bada, aren amorez ta begiramentuz geure anaje onek parkatu euskun.

Baña orain, nor baliatuko jaku? Nogaz baliatuko gara? Nor izango
da gure bitarteko? Bildur ta ikara andian ikusten zirian denpora onetan
esan eben alkarren artean: Len geure Aitaren amorea gaiti parkatu euskun
anajeak orain bere a bera gaiti parkatuko deusku. Onetarako goazan
Aitaren partez berari berba egitera ta umiltasun andiaz esan daiogun
onela: Jauna, bakizu zure aita ta gurea il dala; ta ondo ta santuro bizi zan
legez, eriotza on santu bat euki dabela. Iltean zure gomute egin eban; ta
zizpuru ta arnasa andi bat eginik esan eban: Non da Jose, nire Seme maite
biotzekoa? Esaiozue bera ikusteko min andi bategaz ilten nasala ta nire
bendiziñoa emoten deusadala nagoan lekutik.

Bai ta esaiozue oraindiño seme ona legez beti nire borondatea egin
dabela ta orain bere egin daijala. Eta nire borondatea ta nire azkeneko
adio, agur ta borondatea dala gomutau eztidilla zuek egin zeutseen bide-
bageaz ta traiziñoaz; parkatu deizuela ta alakorik igaro ezpaliz legez ana-
jetasun on batean euki ta maitetu zaiezala. Au dala nire azkeneko eskaria,
gomendaziñoa ta ez besterik; au dala nire azkeneko agurra, enkargua ta ak
nire amorea gaiti egin bear dabena.

Onela, bere aitaren partez Joseri bere anajeak berba egin eutseenean,
errukitu zan Jose; busti jakozan bere begiak; negarra zerion ta ez bakarrik
bengatu etzan, bai ta asi zan besarka laztanka bere amaka anajeaz, esten
eutseela: Aitak aginduten deust parkatu daizuedala; bada, alango aitaren
agindua, esana, eskaria ta alango denporan ta eriotzako orduan emona,
nok ezta kunplituko? Kunplitu eban: guztiai parkatu eutseen.

Alan, bada, gure Aita maite Jesu Kristok bere azkeneko denporan
eriotzea eldu jakonean esan euskun: Neure seme maiteak, bakusue nago-
ala neure azkeneko despedidan ta eriotza aurrean; iltera noiala; bada, bal-
din maite banozue, mesederen bat niganik artu badozue, atsegin emon
gura badeustazue, gauza bat egin bear dozue ni gaiti ta orregaz kitu gel-
dituko gara. Ai, Jauna, esazu zer, bada biotz gogor arrikoa eukiko dau zu
legeko aita onaren agindua ta ordu estu orretan emona egiten eztabenak.
Zer da, bada, Jauna, aginduten deuskuzuna? Alkar amatu zaitezeela, are-
rioai nire emorea gaiti parkatu deiezuela. Au da nire azkeneko boronda-
tea, agindua ta guztien ganera gomendatuten deusuedana.

Beraz, ezta ezetz esaterik: parkatu bear deutsalaga gure arerioari, on
egin bear deutsalaga, maite izan bear dogu. Bada, alan aginduten deusku
gure Jangoiko maiteak, ez non nai, ezpada bere biziaren azkenean, edo-
zeini bere barbarik ta agindurik txikiena bere bere biotzean sartu bear
lekikion denporan. Emon daiogun, bada, Jesusi atsegin au: parkatu daiogun
bere amorea gaiti gure arerio persegilleari.



29. BURUA

*Bigarren errazgoia zegaiti arerioari
parkatu bear deusagun da Jangoikoak beretzat ta
bere kontura bengetea gordeten dabelako.*

Iñok injuriarik, irainik, bidebagerik, laburtasunik, billaukeriak, ofensarik egiten deusunean, eztau gura Jangoikoak zuk ordea biurtu daiozun; berak bere kontura artzen dau bengetea ta justizia egitea. Alan dirasku Deuteronomioko libruan ta San Pablok Erromatarrai eskribitu eutsenean. Arerioak gaistakeria bat egiten deusunean, zuri baño geiago egiten deuto Jangoikoari, orretan bere agindua austen dabelako. Baña eztau orregaiti Jangoikoak bertati kastigetari; itxaroten deuto ta itxarotea gaiti ez dau desonrarik. Bada, egiaz zuk bere ez dozu desonrarik izango beste munduraño itxadoteaz, ordugiño ez benganzeaz. Baldin orain pazienza badozu, Jangoikoaren eskuetan itxiten badozu, berak dagientzat largatzen badeutsazu: zagoz seguru berak berari ta zuri egin jatzun injuria, beingoan, kolpe baten, batera, eskas bage ta merezi daben legez kastigatuko dabela ta zor jakon kastigua zure arerioari emongo deusala. Larga, bada, berari.

Zeuk zeure eskuz kastigatu gura badozu, pensatu ta mindu bear zara ta askotan ezer egin ezin dozula geldituko zara. Bada, menturaz arerioa izango da zu baño indartsuago, al eta eskubide geiagokoa.

Eta Libiok diñolez: Indar bageko kolera, aserrea ta bengetako gogo ori egin ezin dabenean utsa da, alperra da, gitxi balio dau. Senekak bere diño: Dana dala, gorde bear da arerioari eranzun ta bengatzetik, nai dala zure bardiña arerioa, nai dala andiagoo, nai txikiagoo. Bada, bardinaz esetsi ta peleetea dudoso ta arriskukoa da; andiagoaz, zorakeria ta txikerragoaz billaukeria, zantarkeria, prestueztasuna.

Eta au onela dala ezaguturik, benganzan bazabiltz señaile da maite eztozula ta parkatu gura ezteusazula zeure arerioari. Ta onetan zeure burua galtzen dozu. Eta zeure buruari arerioari baño kalte geiago egiten deusazu. Alan adietan emoten dau Dabid Erregeak esaten dabenean: Inguratu nabe arerioak, erleak legez; erleak iñori usegiten badeutso, galduago ifinten dau bere burua. Bada, bere eztena, izpia ta bizitzea an itxiten dau. Alan zuri bere jazoko jatzu arerioari usegiten badeutsazu, parka-

tu gura ezpadeutsazu, injuriatzen badozu, bengetan bazara, bada, ari baño zeuk zeuri gatx geiago egiten deusazu.

Eta onen ganean esan gura deusut: eta da zuk zeure arerioari parkatu gura ezpadeutsazu ta bai berak zuri, orduan eztau Jangoikoak aren benganzarik artuko, baña bai zure kontra. Jangoikoak eztau itxiten, ez itxiko bere kastigatu bage faltarik txikerrena: ta zuk baño obeto kastigatuko dau zure arerioa. Eta aita batek bere semea jo daben zarta zigorra surtara botatzen daben legez; alan zu zeatu, ofenditu, penatu, persegitu zaituan arerioa kastigatu, erre ta infernura botako dau Jangoikoak, obetuten ezpada, fama kendua biurtzen ezpadau, bere areriotasunean ilten bada.

Eta alan, persona batek injuriatzen bazaitu esatez edo egitez, esaiozu Jangoikoari: Jauna, bakusu zer egin deustan urliak; zeure eskuetan itxiten dot guztia; ezta ondo egiña zu zagozan lekuan nik eskurik artutea. Nik parketan deusat biotz guztirik; eskatuten deusut kastigatu eztaizula, salbatu dedilla; zeuk nai dozuna egizu beragaz. Eta, onenbestez, zeuk egizu nai dozuna. Orainganik largatzen dot benganza artea; parketan deusat egin deustan injuria; neure buruari deseatuten deusadan ona ari deseatzen deusat. Au esanik gelditu zaitte pakean ta soseguan.



30. BURUA

*Irugarren ta azkeneko errazoia parkatuteko
arerioari da Jangoikoak guri bere parkatu degigun.*

1 §.

Parkatu bear deutsalgu gure arerioari, guri bere Jangoikoak parkatu daigun. Jangoiko berak diño San Materoren aotik guk parketan badeutsalgu geure arerioari, berak bere guri parkatuko deuskula, baña ez bestela. Eta ondo gagoz guk geure arerioari parkatuaz Jangoikoak guri parketan deuskunean: esan ala ezta zeinbat onetan irabazten dogun. Bada, gauza gitxi bat da guri egiten deuskuen bidebagea ta injuria ta neurri ta muga bagea da guk Jangoikoari egiten deutsalgu: gure parkaziñoa ezer ezta Jangoikoarenaren aldean.

Gauza batzuk dira eurak berez, euren egitez gatx nekezkoak direanak, baña beste bategaz lagundurik, baturik, alkar arturik, errazak direanak. Odola ateretea, purga loi atsitu bat artzea, edari samin bat edatea, gauza nekezkoak, penagarriak, latzak dira; baña osasunaz bildurik errazak dira. Alan, arerioari bere parkatutea egin deutsalgu iraina ta bidebagea, bera bakarrik, berez begiraturik gatx da; baña, begiraturik orregaiti Jangoikoak bere zuri parkatuko deutsalgu, erraza, gozoa, eroapena, sufrigarria da.

Jente galduak, zenzun bageak izango gara, geure ona gaiti ezpada-bere, parkatuten ezpadeutsalgu arerioari. Egizu kontu ea zeinbat pekatu ta gaistakeria egin dozun oraindiño eta ze asko ta andiak direan; bada, gura badozu Jangoikoak parkatu daizuzan, zeuk bere parkatu eiozuz arerioari zure kontra egiten dituanak. Presona batek iraindu ta bidebage edo laburtasun bat egiten deutsalgu esan daroazu parkatu gura ezteutsalgu, beintzat laster: bada, desonra dala bereala parkatutea. Ori da Jangoikoaren kontrako birao ta berba txar bat. Bada, onrabagetzat, gauza ezaintzat artzen dozu Jangoikoaren agindua betetzea, ofensak parkatzea.

Parkatu bear deutsalgu, bada, arerioari; eta parkatu bere ez nola nai, ez edozein moldez, ez berbaz bakarrik, irudipenaz, kanpotik, azaletik, edergarriz; ezpada egiaz, benetan, gogoz, asmoz, biotzez, borondate osoaz. Bada, bestela ezteutsu Jangoikoak parkatuko; konfesa zaiteke, komulga zaiteke, oraziño luzean egon, dozun guztia eskekoai emon ta

egin penitenziarik gogor, arrigarri, latzenak; baña oneek guztiok ezteutsue ezer balioko, baldin zeure biotzean badozu gorrotorik, ikusiezinik, ondaturik, borondate gaistorik zeure arerioaren kontra.

Llaga zauria ezta osatuko aranza, elorria edo brinza bat barruan sarturik dagoan bitartean; ezta pekatura bere parkatuko borondate gaistoak dirauen artean. Barberu osagilleak buruko llagetan lenetik alderatuten dau aragia; ta agertu azurra, bitartean odol ustelik geratu eztidin. Bada, baldin geldituko balitz, ak medizina osagarriari indarra ta birtutea argaldu ta gitxitu leuskio. Alan, arimako zaurietan bere lenengo kendu ta garbitu bear da odol ustela ta atera areriotasun ta gorroto atsitu edendu kaltetsua. Bestela ezta osatuko; eztabe onik egingo artuten direan sendagaiak, erre-medioak ta egiten direan limosnak, barauak, errezuak ta beste egitekorik miragarrianeak.

2 §.

Bere arerioari, bere gaiskillari, bere persekillari parkatu gura ezteutsanak ezta idoroko bere orduan bitartekorik, eskalerik, bera gaitik erre-gutuko dabenik. Bada, Espiritu Santuak diño: Nok erregutu ta eskatu dau bere lagun urkoaz, bere bardin antzeko bategaz miserikordiarik, errukirik eztabena gaiti? Ez iñok: ez Santuak, ez Angeruak, ez miserikordiaren Amak bere. Bada, Santiago Apostoluak diñoan legez: Erruki bageko justizia egingo da besteagaz errukirik eztaben gogorragaz. Ez jako parkatuko parkatu gura eztabenari. Eta alangoak berak bere gura ezta parkatu daioen. Bada, *Aita gureko* oraziñoa diñoan baxotxean eskatuten deusto Jangoikoari: Jauna, parkatu eiguzuz geure zorrak, guk gure zordunai parketan deutsalgu legez.

Esan gura dau: Jauna, parkatu eiguzuz zure kontra egin doguzan pekatuak, okerrak, utsegiteak, gaistakeriak guk gure arerioari parkatuten deutsalgu legez gure kontra esan ta egin dituezan injuriak, irainak, billaukeriak ta okertasunak. Bada, zuk parkatu gura ezpadeutseezu zeure arerioari egin deutsalgu bidebagea, aditzera emoten dozu gura eztozula zuri bere Jangoikoak parkatu daizun bere kontra egin dozuna. Bada, dirautsazu Jangoikoari zuk zeure arerioari egiten deutsalgu beste orrenbeste ta ori berori zugaz bere egin daiala.

Dongetasun bat iñok egiten dozuenean, esan daroazu biotz guztiaz: Zer, nik ari parkatu? Lenago bizitzea galduko neuke. Eta gogoratuten eztera zuk Jangoikoari uts egite astunagoak, sentigarriagoak egin arren



gura dozula, orrez guztiaz, bere Ontasunaz zuri guztia parkatu daizun. Gogoratu egizu zuk zeure arerioari parkatu nai ezteutsazun orrek Jesu Kristo zure Jaunak parkatu eutseela bere arerioai krutzean egoala; ta, are geiago, eskatu eutsala biotzetik bere Aitari eurak gaiti; eta zuri zeure arerioak ezteutsuela egin berari ainbeste min ta gogortade.

Bai ta gogoratu zaitte Espiritu Santuak dirautsula: Gomute zaitte zeure azkeneko ordu estuaz, ilteko egongo zarean denpora larriaz, orduan emon bear ko dozun kontu ziur artez zuzenaz ta largako dozu areriotasuna ta gorroto ori. Gomute zaitte zelan gurako dozun azkeneko ordu bildurgarri atan Jangoikoak parkatu daizun; egizu bada zuk ori berori orain zeure arerioaz. Bada, au da Jangoikoaren agindua, au da berak gura dabena, au da beti baña guztiz bere azkeneko egunean Jesus maiteak gomen datu euskuna.

Bijoa, bada, aparta bedi gure ganik geroko luzetu baga bengetako deseoa gaistoa. Onetan izango gara ezagunak ta adietan emongo dogu Jesu Krtistoren eskolako ikasleak gareala. Eta biziko gara biotzeko erretasun, gorroto bage; bizi dan legez bakean, bengetako gogo baga ta guztiakaz adiskidetasun onean dagoan bat.

ADIBIDEA

Urrengo Buruetan Axularrek ifini zituan gauza batzuk laburtuko dira ta larga beste batzuk, euren irakurtzatik askok on baño kalte geiago aterako leukeelako; ta lenago bere onen ganean esa mesak izan direlako.

31. BURUA

Aragizko pekatuak dakartzan kalteak ta itsutasuna.

1 §.

Beste bizioetan ainbeste kalte egiten badau luzementuetan ibilteak, geroko penitenzia ta erremedioak largeteak, zer egingo dau desoneskeriako pekatuak? Bizio onetan gelditu zan gure naturaleza argalago, gaixoago, gatxera jausiago ta makurtuago beste bizioetan baño pekatu jatorrizkoen ondoan. Ta, baldin sustraiak ta erroak ezarten baditu biotzean, gatx izango da atera ta kanporatutea.

Esakizun asko dago bizio onen ganean: lenengo esango dira egiten dirian kalte negargarriak, emoten dituan zereginak ta lanak ta dakartzan burukomin, atsekabe ta negarrak. Eta gero gatx andi au osatuteko sendagarriak, purgak, erremedioak, bide ta bitartekoak.

Ezta eztakianik gure arimako arerioak direala iru: Mundua, deabrua, aragia. Iru oetarik gaistoena, azartuena, arriskatuena, lotsabagena da aragia. Au da etxeko lapurra, barruko arerioa, beti gugaz gau ta egun geugan dagoana, beti gu tentatzen, beinbere geu ganik bota ezin dogula. Errazago da pekatu onen ganean berba egitea ta gorde bear gareala esatea gordetea baño, diño Baleriok.

Aragia argala da ta sendoa. Argala defendietako; sendoa tentatzeko ta palagetako. Abe ta eutsigarri asko, grazia ta zeruko laguntza ta eskua bear da ez jausteko ez laprast egiteko bizio madarikatu gogaikarri zitel tentagille onetan. Edozein gauza ta okasiñorik txikiena da asko jausi eragiteko. Agaiti ziñoan San Agustinek kristiñauaren gerrarik andiena ta gogorrena kastidadearen gerrea zala. Bada, onetan beti dirau, eguneangoa da, baña bitoria ta benzimentua gitxitan, banaketan, urri, meatz. San



Agustin berak diño: Deabruak sare asko baditu bere arimak kogietako; baña, orrez guztiaz, eztau ainbeste arima galduten zelan bizio onegaz: emen ifinten ditu bere sareak, amuak, lakioak, asmu ta asmorik andienak. Beste bizioetan banakak artzen ditu; baña emen piloka, andizka, eunka.

2 §.

Andiak dira aragiak ta aragiaren naigura oker erabageak egiten dituan kalteak. Eta kalte prinzipalenetarik bat, lenengoa ezpada bere, da adimentua ilundu ta itsututea. Amoreturik dagoan batek eztakus, eztaki zer darabillan; bere gogo guztia aragian dauka; jatean, edatean, oean datzanean, atan dago pensetan: eztauko bestetan gogorik; bere solasak, bere amesak bere an ditu; eztau gura beste batek beste gauzarik esan dagion; itsuturik dago, ero zoraturik, zenzun bage, errazoitik aterarik. Agaiti lenagoko Poetak pintetan eben Cupido, amorentasuneko Jainko guzurrezkoa, ume txiki ta itsuturik. Itsu ez ekusalako. Seiña, adimenturik ez eukalako. Eta Plutarkok diño gatx dala amoretea izatea ta zenzunean egotea.

Alangoa ez desonreak, ez jenteen esateak, ez ondasunak ondatuteak, ez fama txarrean geldituteak, ez loa galtzeak, ez ezerk bere eztabe atzeratuten pekatuturik. Basa-asto amurutsua legez, begiak itsuturik, eiztarien artetik igaroten da; edozein arriskueta sartzten da. Bere amudio errazoi bageaz bai, bere amorentasunaz bai, baña ganekoaz ez dau konturik.

Usoa legez da alakoa. Usoak eztau beste egaztiak legez edatean burua gora jasoten. Edango dabena, abereak legez arnasarik artu bage, burua goratu bage, beingoan edaten dau. Beste egaztiak edaten daben guztian burua gora jasoten dabe. Eta esan lei naturaleza berak alan erakusten deutsela. Bada, orduan dauke pelligrurik andiena, orduan dagoalako geldirik urera begira; bai ta orduan dagoz eiztariak zelatan, begira, ezkutaturik, zain ta abereak bere dagoz irazarririk, zur ta kontuan; ta edaten daben ur txorta bakotxean ingurura, batera ta bestera begiratuten dabe ta burua goratuten dabe guardia egiteko balegoz legez ta begira ea iñor agiri dan.

Baña usoak eztau alakorik egiten, auspaz dago ase artean; eztau bitartean bururik jasoten, ez alboetara begiratuten. Eta onetan da agiri usoaren inozentia ta sinpletasuna; bada, arriskurik geienean dago ardura bageturik, zabaturik. Au berau jazoten da desonestu bategaz. Arerioa zelataka dagoanean, tentagille asmutsua zainago dagoanean, orduan dago

ardura, kontu ta bildur gitxiagoaz: bere atsegiñaz baño beste gauzaren konturik eztaukalako.

Ziro Enperadore Agintaria ain itsuturik ifini eban Apana emakume desonestuak, ze egiten eban beragaz gura eban guztia. Belarrondokoak alde bietan emoten eutsazan; batean bizarretik, bestean belarririt tiratuten eutsan; ume txiki bat legez zerabillan solaska. Eta Enperadore andi au guztira etorren ero bat eginik; agiñak irriturik ta barreka egokan begira; espillura legez egoan ari begira; a poztuten zanean, bera bere poztuten zan; ta triste ikusirik, tristetu. Eta emakume gaistoak bere burua batzuetan berariaz aserraturik legez ifinten eban; ta orduan Enperadore zoroak egiten zituan asmu ta palagu guztiak berari kontentu emoteko. Amorioa zan nagusia; no zan to; emakumea gizon; olloa ollar. Emen da agiri ze itsu, sor, gortua ta itsutua ifinten daben persona bat desoneskeriako pekatuak, alango Enperadorea orrenbestera eldu bazan. Zalengo Greziako parte batzuetako Errege batek ikusirik desoneskeriako pekatuak egiten zituan kalte andiak ta batez bere ilundu, erotu, itsututen ebalu gizonaren zenzuna, errazoia, adimentua ta argia, guztiak au ezagutu egientzat ifini eban lege estu bat; baldin iñor jausten bazan pekatu onetan, begiak atera egioezala: barruan pekatuaren bildur bage itsutu zireanak kanpotik bere peneagaz itsuak gelditu zitezen guztien aurrean. Ain estua zan lege au ze ez eben balio libretako ez enpeñurik andienak, ez bitartekoak, ez aide ta adiskiden errekuak, ez urreak, ez ondasunak, ez munduan zan gauzarik. Uts egiten ebanak iges egin eukean, albaeban, baña bein eskuratu ezkeru, ez egoan parkaziñorik: begiak galdu bear zituan.

Errege onek lege au orren irme gorde eragiten eban denporan jazo zan Errege onen semea jaustea pekatu onetan. Erregeak bere semearen uts egite au jakin ebanean, Jangoikoak daki ze damu andia artu eban. Alde baterik bere aietasunak, semeari eutsan maitetasunak atzeratzen eban, eskuak estuten eutsazan ta esaten eutsan eztala ondo ikusia aita batek bere semeari begiak ateretea. Besteti, barriz, justiziak erakusten eutsan legea gorde bear zala ta bati parkatuaz beste batek azartasuna artuko ebalu. Eta eretxirik indartsuago zala justiziaren errazoi au semea galduko baeban bere, erabagi ta agindu eban justizia egin zedilla ta bere semeari begiak atera egioezala.

Erreinuak jakin ebanean bere Erregearen agindu au, guztiak bat ta batera joan zirian erregututera Erregeari, arren, parkatu egiola bere semeari. Bada a legea komuna gaiti egiola zala; ta komunak ain Errege justu onaren amoreta gaiti aldi atan bere zuzena kendu ta kitutu gura ebalu. Komunaren errekuak ta semea ganako asko-naiak estura andian ifini



eben; baña geiago legea austeak. Uste eban ta iruditen jakon ez ebalá bere koroia seguru izango, baldin txikientzat legez andientzat bere justizia egiten ezpaeban. Eta, alan, gira, bira, itzul, pensamentu ta gogoeta bere artean eginik, azkenean idoro eban bide bat bere kaltekoa, baña semearen kastigua arinduteko ona. *Oker obe, itsu baña.*

Agindu eban barrero alango pekatuan inor aurrerantzean jausten bazan, atera egioela aitari bere begietarik bata ta semari beste bat. Eta alan, bien artean kaltea jasorik, legea kunpli zedilla. Zelan agindu alan kunplitu zan. Aitak eta semeak euren begietarik bana galdu ebeen. Eta gero andik ara geratu zan legea baiezturik, semea kastigaturik, erreinu guztia arriturik; ta alango utsegiteetara jausten zana parkaziñoa erdetsiteko esperanzaren ate guztiak itxirik.

Alabagarria zan Errege au ta bai ifini eban legea bere: zerren gaixotasunari egokiona zan. Denpora gaisto onetan bere oñean ta indarrean balego lege au edo beronen antzeko bat, ezlitekez ikusiko etxeetan ta errietan ainbeste kalte negargarri. Itsutasunaz itsutasuna oratuko liteke; gorputzezkoaz arimakoa sendatuko liteke; ta bakotxak gordeko leuka bere burua alakorik ez egiteko. Bada, desoneskeriak egiten daberen lenengo kaltea ta kolpea da adimentua itsutu, ilundu, nastu ta zoraturik ifintea.

32.BURUA

Aragizko pekatuak dakartzan beste kalte batzuk.

1 §.

Desoneskeria, lujuriazko edo aragizko pekatua ain da gauza itsua ta itsugarria ze ezteutso begirunik ez errespetorik aidetasunari, urkotasunari, ikusi zan legez Amnon ta Absalon Dabiden semeakaz, Neron Enperadore ta beste Agintari askogaz. Ezta ernegurik, juramenturik, biraorik, guzurrik, falsiarik desonestu batek egingo eztabenik. Bein bizio onetan itsutu ezkeren lenago egitiak, finak, berba onekoak, moduzkoak, lotsatiak zirianak, gero egiten dira guzurtiak, azartuak, lotsabageak, ernegatuak, zitelak, biraotiak, juramentugillak.

Bada, euren guraria ta desoea kunplitzea gaiti eskeñiten dabe asko, baña kunplitu gitxi: egiten dabe milla juramentu, promes ta eskentza; emon eun berba; baña euren egin ezkeren, eztabe ezkeren konturik; eztabe barbarik, esanik, juramenturik betetan; guztia austen dabe; eztazaue adiskiderik; eztauke lotsarik; txantxetako gauzatzen artzen ditue juramentu beneragarrienak. Alakoz eze, etorri zan Platon esatera euren jainko utsak bere disimulatzen zituela amurutsu amorenteen juramentuak eta promesak. Eta gaurko egunean ezta zer fiatu alakoen juramentuetan. Bada, amanzebatuak euren atseginen billa dabiltz ta ez euren juramentu ta promesen kunplitzeaz.

2 §.

Desoneskeriako bizioaz itsutu ezkeren, len pazienziadunak, maite-tsuak, bakezaleak zireanak bere, gero euren eginetea gaiti datoz izatera traidoreak, biotz gogorrekoak, krubelak, gogorrak, iltzalleak ta zitelak. Dabid Erregea zan len ain santua, ona, biguna, biotz-beraa ta errukiorra eta bere areriorik andienai beti on egiten ta parkatuten ekiana; jausi ezkeren desoneskeriako pekatuan beste bat zirudian; ta etorri zan il eragitera Urias bere adiskide maitea ta Kapitai leiala, bere emazteaz ezkontzea gaiti.



Jakobo ermutar penitente santua, urte askotako penitentzia latz-arri-garriak egin ezkerro, deabru ta aragiaren tentamentuak benzutu ezkerro denpora luzeetan, milagro miragarriak egin ezkerro, azkenean jausi zan pekatuan berak osatu eban emakume bategaz; ta bere pekatu lotsagarria estaltzea gaiti il eban andrakume au; baña gelditu zan ain damuturik pekatu egiñaz ze, sarturik sepultura baten igaro zituan zazpi urte zulo batik jateko puska bat emoten eutseela nosik bein.

Emen esan giñei Jesu Kristo gure Salbagille maiteak Kalbarioko bidean Jerusalemgo alabai esan eutseena: Au jazoten bada egur ezeaz, arbola frutudunaz, zer gertako da egur igarraz? Baldin Dabid Erregea ta beste Santu asko, ainbeste denporan egon izan zirianak benzuten euren griña txarrak, goiartuten aragiaren tentamentuak, eziten euren gurari gas-toak, egiten penitentzia nekezkoak, gau ta egun oraziñoan, oneek guztiok aragiak itsuturik ta zoraturik jausi bazirian pekatuan, zer jazoko da Jangoikoaz, munduaz, konzienziaz konturik euki baga, deboziño apur baga ta nai daben erara bizi direanakaz? Eta zer, bekatu egiteko okasiño-aren billa edo bertan sarturik dagozanakaz?

Ezin geiagoan andia da aita batek bere Semeari deusian amorio naturala; eta, orrez guztiaz, etorri dira guraso asko euren semeak iltera edo beste bategaz ezkontzea gaiti edo besteaz pekatu onetan jaustea gaiti. Katilina Erromako gizon gaisto batek ez eukan seme bakar bat baño; ta ori bere ya adinara eldua, obedillea, bere agindukoa, ona, prestua ta ondo azia. Orrez guztiaz, betetzea gaiti bere gustu txarra Aurelia eritxon andra loi bategaz, il eragin eban bere seme au. Zerren au bizi zan artean etzan beragaz batu gura Aurelia. Beste onenbeste diño Elianok jazo zala Lenilla eritxan andra andikiatz. Emakume gaisto onek pekatu egitea gaiti bere otsein serbitzari bategaz, salatu zituan bere seme propioak Erregearen aurrera, esanik bere traidoreak ziriala; ta andik egiaz edo guzurrez probanzak eginik, il zituezan; ta gero iñoren bildur baga gelditurik, amore itsuaz itsuturik bizi zan amorentasunean bere otsein mutilaz.

Onegaiti diño Aristotelesek ondo egin ebeela lengo Poetak, Marte ta Benus alkarregaz ezkondurik, bada, Marte zan gizon gerraria ta Benus emakumea, amorentasunaren Erregiña. Gerra ta amoreaz egin zituezan senar emazteak. Bada, amorentasunetik beti edo geienetan erne, sortu ta jaioten dira gerrak, erriertak, ikusi ezinak, auziak, testigantza guzurrezkoak, gorrotoak ta enredoak. Amoreaz asten da ta gorrotoaz azkendu: adiskidetasunatik areriotasuna jaioten da; amoreaganik, amore bagetasuna. Emen da agiri ze andia dan deabru gaistoaren asmua; bada, izanik ain

kontrakorrak amoreta ta gorrotoa, adiskidetasuna ta areriotasuna, alkarregaz batu, bildu ta ezkonduen ditu; bata bestea ganik ateretan dau.

Aragizko atsegin ta amorentasunean ezta ikusten ezpada danza, barrea, jan edatea, solasa; ta, orrez guztiaz, deabru asmutsuak gauza guztiok moldean legez aldatuten ditu bere aldera: amoreta gorrotora, bakea gerrara, barrea negarrera, dantzea erriertara ta jolasa ta dantzetik, Herodesegaz egin eban legez, ateretan dau eriotzea. Onegaiti ziñoan Salomonek atsegiñaren ondo ta azkena zala atsekabea, naibagea ta negarra. Amore mundutarrak berea egiten dabenean desegiten da, gorrotoan biurtzen da. Au da azi onetarik sortuten dan garau ta frutua; bada, pekatu onek egiten ditu aserrekorrak, gogorrak, gerrariak len mansoak, umillak, bigunak, baketiak zirianak.

Esakizun ezta desoneskeriako pekatuari darraiozan kalteak. Euretari bat ondo negargarria ta mina da: kendutea sosegua ta barruko bakea. Nok esan lei zeinbat naibage, atsekabe ta zeinbat gau ta egun txar igaroten dituan desonestu batek? Beti dabil tristerik, gogaiturik, igeska bere lagun prestuetarik; azturik bere egin bearrak, loa galdurik, bere artean errerik, aserraturik, beste guztirako gogo bage. Beti darabil gogoa ea zer diñoen besteak bera gaiti, ikusi ete daben arako galaiaren etxean sartuten edo arako pekatuak daukan lagunaz berba egiten. Eta zerbait bere kontra esan dabela enzuten badau, kiskaldu ta erreten da bere artean, gorrotoan sartuten da bategaz ta besteaz. Bada, gura leuke besteak bere itsuak bere legez izango balira; eta iñok ez ezagutu ta ez esan ez oartu ez ikuste bere gauzarik.

Guztiak darabilde aotan, guztiai deritxe deungaro aren bizimodu eskandalosoa; batak alde batik, besteak bestetik salsa nastuak, esamesak darbildez aren kontra. Bere amoranteak bere ekarten deusaz barri txarrak: nok zer esan daben; zelan ta zer diñoen; errian dabillan otsa ta zer esana; eta onela, direanak ta ezitirianak dirautsaz bere lagunak; bada, onelakoak atarako dira obeak ta ez bestetako. Ze bizitza gaisto gogaituago au baño? Atsegin labur arin bati zeinbat negar ta naibagek darraioen! Emen infernua ta gero beste munduan infernua. Larga, bada, pekataria, bizitza gaisto orri, larga lagun txar ori, biurtu zaite bein edo bein Jangoiko maitea gana, egizu lengo gaistakerien penitentzia, ixildu egizuz zeure konzienzia orren deadarrak, deiak, kisketadak konfesiño jeneral guztiroko baten bitartez ta artu egizu gogoan orain urrengo Buruetan emotera noatzuzan erremedioak urteiteko bizio ezain lotsagarriko orretarik.



33. BURUA

*Lenengo erremedioa, bidea ta bitartekoa
aragizko pekatuaren kontra da Oraziñoa.*

1 §.

Desoneskeriako pekatuaren kontrako erremedio ta osagarriak emotera asi baño len, esan gura dot gauza bat ta ifini ta para egiazko zimendu sendo bat. Eta da: lujuriazko pekatu desonestuan ez jausteko, bizio onetarik iges egiteko, aragizko pekatuak aldegitako, gorputz ta arimeko kastidade edo garbitasuna gordeteko ta garbi irauteko Jangoikoaren bearra dogula ta bere doia, emoitza, grazia ta mesedea dala. Eta grazia ta laguntasun au bage, alperrak ta utsak direala gure alegin ta indar guztiak.

San Ambrosiok diño: Ezta ez Donzellatasuna Birgindadea diruaren pisuz ta balioz erosten dan doea, ez eta gure indarrez, al ta birtutez irabazten dan gauza; bada, aragiaz aragia benzututea, naturalezak naturaltasuna azpiratu ta goiartutea gatz da, lan andi nekezkoa da. Onetarako bes-teren laguntza, naturalezaren ganean eskua, eskubidea, agintaritza daberen bearra dogu. Eta alan, jakinik bego edozein, ezabela aragiaren kontra bitoria osorik irabaziko berak beragan bere indarretan fiatuten dabena. Ezagutu bear dau bera baño bere arerio au indartsuago dala; ta Jangoikoari eskatuten ezpadeutso bere laguntasuna, faborea, grazia, kalteturik geratuko dala, goiarturik benzututurik geldituko dala.

Au da egia garbia; ta egi au ezaguturik esan eban Salomonek: Jakin, oartu ta ezagutu nebanean ezin egon nintekeala jausi baga, Jangoikoak eutsi ta gordeten ezpaninduan; ta au jakitea Jangoikoaren mesede ta doia zala; joan nintzan bertati berari erregutu ta eskatutzera esaten neutsala bere eskurik euki nengiala, jaustetik gorde nengiala ta bitoriaz gelditzeko emon egidala indarra ta grazia. Onela, egiaren barria ekian legez, San Agustinek Jangoikoari egin eutsan oraziño, esaten eutsala: Jauna, zuk diñozu gorde daigula kastidadea, garbitasuna; indazu, bada, aginduten dozuna ta gero agindu eidazu gura dozuna; agindua legez emoizu egindua kunpli, betetzeko ta gordeteko indarra; bada, alan bai, baña bestela ezin kunplitu, ezin gorde nei.

Bada, aragizko pekatuan bein edo bein, aldez edo moldez, egitez, ikustez, esatez, gogoz, eskuz edo bestela jausi ta loitu bage egotea Jangoikoaren doia, emoitza, mesede ta grazia bakarra da; geuk geure indarrez ezin alkanzau giñei ta beragaiti kontuan, irazarririk, zur, zolirik egon bear gara; ta ez jausteko alegin guztiak egin bear doguz; abe, zimentu, sotsengu ta erremedio bitartekoak artu bear doguz.

Eta lenengoa izan bedi oraziñoa. Geugan danez indarririk ez dogula ezaguturik, Jangoiko maiteari eskatu bear deusagu lagundu daigula ta esana emon, jausi ez gaitez. Onetarako baliatu bear gara Ama Birjiña kastidade ta garbitasunaren Erregiñaren bitartetasunaz. Bada, Dotore Santu batzu diñoen legez, Birjiña Ama Mariak, munduan bizi zanean bere, beragaz baliatzen zirianai, kendurik euren pensamentu ta gogoeta txarrak, aren lekuan emoten eutseezan gogoraziño ta pensamentu garbiak; ta garbi biziteko gurari ta naikunde andi batzu. Munduan bizi zala au egiten baeban Ama Birjiñak, zer egingo eztau orain Zeruan dagoala gloria ta eskubide andiaz bere debotoakaz, berari eskatu ta erregututen deuseen debotoakaz? O zu, munduko itxaso bildurgarri onetan bizi zareana, diño San Bernardok, zeure tentamentu deungeetan deitu Maria Santisimari; aragiaz tentetan zaituenean, gorputzeko griña gaistoaz esetsiten deusunean, deabruak galdu gura zaituenean, begira Maria Santisimari, deitu egiozu biotz biotzet, bai ta bere Esposo San Jose maiteari; ta ondo enzuna izango zara: enzungo deusue, lagunduko deusue, eskua luzetuko deusue. Eskaria berau egiezu zeure Angeru Zainari, San Migel ta Angeru ta Zeruko Santuai ta aterako zaitue loitu, ezaindu, jausi bage desoneskeriako pekatuan.

Baña ezta asko oraziño egitea Jangoikoari ta Santuai; oraziñoari lagundu bear deutso bizitza on garbi batek: aldegin bear dira bekatuzko okasiñoak, lagunak, bideak, arriskuak; ez joan len jausi zanean etxe zorigaistokora; ez batu len pekaturako euki dozun adiskide gaisto tentagilleaz. Orduan Jangoikoak enzungo ditu zure oraziñoak; orduan libratu ta aterako zaitu galbidetik; orduan gordeko dozu garbitasuna ta kastidade lora eder preziatua.



34.BURUA

*Bigarren erremedio ez jausteko aragizko pekatuan
da pensamentu ta gogoraziño gaistoai lekuri ez emotea.*

1 §.

Bigarren erremedioa ta erremedio ona, autua ta segurua jausi gura eztabentzat lujuriazko pekatu desonestuan da artarako pensamentuak, gogoraziñoak, gurariak ta tentaziñoak datozanean atea itxitea, pensamentuari lekuri ez ostaturik ez emotea. Sua biztu barria edo txikia danean erraz da amatau ta atsemotea; eta bai landara bat bere txikerra danean birlandatu, aldatu edo ateratea. Pensamentu, gogoeta deunge edo tentamentu gaisto bat lenengoan erraz laster kendu lei; baña indarra arturik, belu, berandu edo nekez.

Gogoraziñoetarik, pensetan egoterik etorri dira pekatu guztiak ta geltiz bere aragiarenak. Andik asi, sortu, erne, jaioten dira; arek dira sustriak, erroak, mentuak, landarak, esate egite guztien ugazamak. Beragaitik euren asieran, jaiotzean, biztuten direanean ebagi bear dira anditu, azi ta geitu baño len. Soldaduak erri edo etxe baten bein sartu ezkeru, gura dabena egiten dabe; au berau jazoten da pensamentu, deseco edo gogoeta desonestu batek gogoan ostatu artu ezkeru, an bein sartu ta gelditu ezkeru, lekua segurutu ezkeru.

Su txatar txingar bat lenengo laster amatetan da ta batzuetan bera berez; baña bein indarra artu ezkeru su ta garrak, ez zu ez erri guztia ezta asko amatetako. Alan, zuri bere jatortzunean aragizko tentamentu, griña, gogoraziño bat, bereala bota, urrindu, aldegin ta zeu ganik egotzi bear dozu; bada, bestela lana izango dozu kentzeko.

Egun baten itandu eutseen Frai Gil Aita San Franziskoren lagun Santu batí, ea zelan kenduten zituan aragizko tentaziñoak, desecoak ta pensamentuak. Eta eranzun eban: Nire borondatearen atek joten ditueanean pensamentu gaistoak, dirautseet: Ea tentaziñoak ta tentagilleak, zoaze aurrera; eztago emen zuentzat ostaturik, ez geldilekurik; gura eztot zuek zitelok nire etxe barruan sartutea; zoaze kanpora ordu gatxean; ikusi, ez begiratu, ez zuekaz egon gura eztot. Onela iges erazoten deu-

tseet: ez nabe ni goitu ta benzututen, baña bai nik eurak Jangoikoaren laguntzaz.

Datortzunean pensamentu gaisto bat badazauzu pensamentu txar orretan zagozala ta egin бага aletin guztia kentzeko geldituten bazara borondatez ta jakinaren ganean pensamentu desonestu orretan, artan atsegiña artu edo gogoa darabiltzula, gai onetan pekatu mortala egiten dozu, pekatu egitezgora igaroteko gogorik edo deseorik ez euki arren. Bada, pensamentua bera bakarrik da asko pekatu egiteko, geiagora elduteko gogo ta borondaterik ez euki arren, Teologuak irakasten daben legez.

Orregaiti diño San Geronimok galtzen dala gogoz bere Donzellatasun edo Birjindadea, gorputzekoa ezpada bere, baña bai arimakoa. Eta Kasianok ziñoan: Eztatik emakumeren barririk, baña alanbere eznao Donzella. Bada, Jesu Kristok San Materoren aotik diñoalez: Andrakumeari deseco txarraz begiratuten deusanak, beragaz pekatu egiteko, ya pekatu egin dau bere gogoan, bere biotzean. Au alan konsideraturik ta oni erremedioa emon gura izanik, diño San Gregoriok: Gogoraziño loi gaistoak aldegitoko ta areeen bitoria irabazteko biderik onena, lasterrena da ez eurai lekuri emotea lenengotik; eta gogoa beste gauza batera zabaldu ta eroatea.

Gure gogoa ezin egon diteke zertan edo artan pensatu бага. Kontuan, bada, egon bear gara ikusteko, oartu ta begiratuteko ea zetan dan gure gogoa; eta, baldin badago bururatu ta gogoratuten gauza deungak, itxi ta larga orreek eta artu beste gauza on batzuk. Gorde egizu, bada, zeure gogoa aragizko pekatuak pensatuterik; bada, bestela atarik etorriko jatzu atsegin artzea; atsegin artzetik deseco; ta deseotik esate-egite gaistoetara igarotea. Kalte guztiok dauke asierea lenengoan pensamentuari lekua emoterik; emendik pekatuari ostatu emotea ta pekatuak sustriak bota ta andiago egitea.

Artu egizu, bada, bigarren erremediotzat pensamentu deungai ez lekuri emotea; asmetan dozuzanean zeuganik bertati ezartea; ez bizilekurik zeure biotzean emotea; begirune txarraz begiratueta; arpegi onik ez begirarterik ez erakustea; ordu gatxean botatzea, atea betiko itxitea.



35. BURUA

*Irugarren erremedioa aragi-zko pekatuaren kontra
da borondate oso bat enkitea ez alakorik egiteko.*

1 §.

Ez jausteko desoneskeriako pekatu loian ta jausi ezker bere jagiteko bide ta bitarteko ona ta ezin geiagoan ohea da artutea gogo, asmo, borondate ta propositu irme sendo egiazko bat ez alakorik egiteko beinbere. Erremedio ta osagarri au da ain andia ta ain bearra, ze berau bage alperrak, utsak, balio bageak dira beste guztiak. Jangoikoaren aldetik bear da bere grazia ta laguntasuna; ta guretik gure gogoa ta borondate ez pekatu egiteko.

Bekatu onetan sarturik zagozanean arrisku andia dozu kondenetako ta eztago beste biderik seguruan ifinteko zeure salbaziñoa, ezpada artzea borondate egiazko bat aldegitoko pekatu dozun lagun gaisto orreganik. Datorrenean Jubileo bat edo jai andi bat edo garizumea, ikusirik galdua zareala orrela bizirik, egiten dozu konfesiño jeneral bat uts egite gutiena, propositu sendo bategaz lengo pekatu ta laguna gana ez biurtzeko. Eta andik alan kunprietan dozu; etzara geiago biurtzen. Au ondo dago.

Baña, itxite au, amorentea ganik aldegitte au, zelan edo ze modutan egingo dozu? Onez onera areriotu bage ala aserraturik areriotarrik? Baldin areriotuten bazara, aror non dozuzan bertati amorantearen aldetik milla birao, madarikaziño, esa mesa, burla, desonra ta zer esan andiak; zorroz-tuko dau zure kontra bere miña, dedar ta negar egingo dau, eztau iñok ixilduko. Eta, baldin areriotu bage ta gorroto ta aserrea etorri bage, onez onera largatzen badozu lanak, gatxa, pelligruak, aldatsak datoz. Bada, gatx da lenago adiskide gaistoaz ibilli ezker amorentasunean, irautea lengo pekatu biurtu bage. Ezta ori ain erraz nola zuk uste dozun.

Onen ganean, gauza bi esan gura ditut. Lenengoa: baldin aserratu bage, areriotu bage ezin apartau bazara zeure lagun desonestu orretarrik, gai onetan ausi egizu bere adiskidetasuna, ebagi egizu bere tratua, areriotu zaite ordu onean. Eta orduan, ikusi arren emakume edo gizakume ori gorrotoan sartzen dala zure kontra edo gaixotuten dala, ez egizu jaramon,

ez dozu zer ikusirik zeure konzienzian. Bada, aren gorrotoa, ikusiezina ta gatxa bere ganean izango da, ez zurean. Zugaiti deungero badiño, irunsi ta sufritu egizu, zerren alan merezi dozun. Alako ezteguetan alako zopea; alango egiteak alango ondakinak; atsegin igaroak, naibageak dakardez.

Bigarren esan gura neukeana da: baldin zeure lagun gaisto orreganik, zeure galai edo amorante orreganik adiskidetasun onean, areriotu bage, gorrotorik artu bage, bakea ausi bage ta bekatuari bide guztiak itxirik aparta bazaite, alan egin daizula. Baña eranzungo deustazu: Zelan aldegingo nas areriotu bage? Ezta gatx, ezta ezin daiteken lana, baldin biok, gaistakeriarako lagundu ta alkatu zarean legez, gogoz artzen badozue ontasunean bere laguntzen; ezin bestez baño bata besteaz ez ikusirik ta aldan guztian alkarreganik alde eginik.

Zeure gogo ta biotzean erabagi dozunean deboziñora, birtutera, Jangoikoaren gauza onetara emotea, pekatu guztietarrik ta batezberre desoneskeriakorik iges egitea, esaiozu zure lagun orri: Akabatu dira gure ibillera gaisto guztiak; erabagi dot neure Jangoiko maitea serbietea. Berandu bada bere, ezagutu dot zu ta ni galduak goazala lengo pekatuari jarraiturik; eriotza txar bat egiteko bidean gabilz. Eta alan, geure arteko ezagutza ta tratua alde egin bear dogu; apartau bear gara ta emendik aurrera, ganerakoan adiskide geldituten gareala, alako traturik bage garbi ta ondo bizi bear gara.

Nik alan gura neuke; alan erabagi dot; gogo artu dot; zuk bere artuizu. Eta jakin egizu ez dozula emendik aurrera zer geiago berba egin alako egitekoz nigaz: bada, nik orainganik betiko adio ta despedidako agurra egiten deutseet lengo gauza txarrai ta bai zuri bere. Au guk egiten bado-gu, beste askori bere ejenplu ona ta bidea emongo deutseegu guk legez largatzeko adiskidetasun desonestua. Aramen non dozun erremedio on bat alan arimazko, zelan gorputzerako ta mundurako; alkarregaz gomutaurik ta berba eginik ta aserratu bage alkarreganik apartetako, ta ez bekatu-rako lagunduteko. Batezberre iñok ezpadaki zuen lenago tratua gaisto.

Baña, len munduak dakiela pekatuan direanak eta, ikusirik orain larga dabela pekatua, eztabe andik aurrera len legez alkarregaz ibilli, jan, edan, solastu ta lagundu bear, ezpada premiñak bearturik. Batetik, okasiñoak okasiño barria biztu eztaian; ta, bestetik, eskandalorik emon eztidin ta munduari adietan emoteko ez dala aen artean lengo konturik ez pekatu-rrik. Bada, bearturik gagoz ejenplu ona emotera guztiai; ta erakusterera munduari kristiñau fededunak gareala; ta ori ez zure santutasuna agertu dedin, ezpada, zure bizitza garbia ikusirik, besteak Jangoikoa alabatu daientzat. Baita, bada iñor zu legez dongero bizi izan danik, arturik



zure ejenplu ona, itxi ta larga daizan bere tratu txarrak, adiskidetasunak ta lagun gaistoak; ta animatu dedin bera bere zuk artu dozun gogo ta borondate ona artutera; ta zuk legez largatzera pekatuzko okasiñoak, arriskuak, bideak ta gaistakeriak.

2 §.

Desoneskeriako pekatu loi lotsagarria ganik aldegitoko gogo ta borondatea ain bearra da zartasunean, zein gaztetasunean. Bada, gogoaren aldetik ain urrean, ain arrisku ta peligru andian dago zarra, zein gaztea. Persona bat danean ordia, prestuegia, gastatzallea, jan edanera ta desoneskeriara emona, esan oi da alangoa gaiti itxiko dituela denporaz aragizko gaistakeriak, baña ez ardaoren afiziñoa ta bizioa. Bada, urteakaz oztuten da odola, argaldu gorputza, baña ez onela edatea. Baña, jakin egizu, gaztetan desoneskeriari emona zana, bizio onetan zartu ta oitu dana zartzaroan bere geinetan orretara emoten dala; ez obraz, baña bai gogoz. Gogo ezta aguratuten, atsotuten, beti da gaztea; ta gazte denporako ekanduak zartasunean bere biztuten dabe, zaletuten dabe gogoa.

Zarrak pekatu gitxiago egiten badau bere obraz; baña gitxiago ori egiteko gogo beragaz dau. Eta au da, San Gregoriok diñoan legez, debruaren asmua: obraz ezin eragin dabenari, gogoz baño ezpada bere pekatu eragin ta ekarte. Zarra izana gaiti, baldin bere biotzean ezetasunik, afiziñorik badauka desoneskeriarako, laster egertuko da bere berbeetan, bere esate ta egiteetan. Pekatu onetan ez jausteko ezta asko adimentu ona ta bidarrak eukitea; ezpada gogo ta borondate sendo bat ifintea, Jangoikoaren graziaz batera, ez alako pekatu egiteko. Zorioneakoa izango da bizio onetarako indarra joaten jakona; atarako gogo bere joaten bajako, otzta ta kenduten bajako.

Egia da zaartu ezkerro, edade jausira eldu ezkerro odola aztu ta gorputza argalduten dala; baña ori bera gaiti da ezainago ta gaistoago zartasuneko amorentasuna: dalako gogoarena, naturaleza nai bagetuarena, forzatu, okasiño bagekoa; kondenetako señaile adigarria ta Espiritu Santuaren kontrako pekatuetarik bat. Alakoari esan leikio Udo eritxan bati esan jakona: Asko jokatu dozu, desoneskeria asko egin dozu, larga, bada, joko gaisto ori, zartu zara, ez geiago biurtu. Akaba jokoa, zeu akabatu ta kondenatu baño len; larga zuk a, ak zu itxi baño len. Baña Udok ez eban larga gura: eriotza txar bateaz akabatu eban ta zuri bere au beraru jazoko jatzu, zartasunean edolabere bizio onetarik alderatuten ezpazara.

Gogo artze au izan bear da sendoa, eragingillea; zerren, bestela ezteutsue ezer balioko ez limosnak, ez barauak, ez egite onak, ez urtez astundurik, zarturik, indar bageturik egoteak. Gogo santu au ain bearra da ez jausteko pekatu onetan, ze bestela utsak izango dira alegin guztiak, ardura guztiak: ta au da irugarren erremedioa.



36. BURUA

*Aragiaren pekatu-rik gordeteko
laugarren erremedioa da ez alperrik egotea.*

1 §.

Bear egizu, lanen bati zakioz, zerbait egiten ibilli zaite, egitekoren batera emon zaite, etzaite alperrik egon ta onela gordeko zara desoneskeriako pekatuan jausi baga. Alperkeriatik eldu dira amorentasuna, pensamentu, gogo ta egite txar guztiak. Orregaiti, diño Aristotelese, nekazari, langille, beargillak baño eztagozan erria dala erririk onena. Nekatzalleak euren nekez, lanaz, zeregiñaz dauke kontu ta ez amorentasunaz ta desoneskerian ibilteaz. Bear egiten dabenak, bearraz eta lanaz neketuten danak eztau orrenbeste aragizko tentaziño. Nekepean beti ibilteak emoten deute zeregin asko.

Au alan dala erakusteko ta adierazoteko dakar San Geronimok gertaldi au. Egitekoko Konbentu baten zan fraide gazte bat, aragiak biziro tentatzen ebana; ta ain lazki, ze ezin kendu zituan bere gogotik pensamentu loiak, egin arren barauak, latztasunak, nekegarriak, azoteak ta gogortadeak. Komentu atako Buru Nagusi Agintariak, onen barria eukirik ta ikusirik a fraidea galduteko arriskuan egoala, asi zan asmatu ta gogoratuten ea ze bidez ta bitarteaz aterako eban pelligru onetarik.

Ezagaturik aren tentaziñoak etozala alperkeriatik, egiteko bagez, bere atsegiñ ta gustura, neke bagetasun, olgura ta naibage bage egotetik, jaso eutsan berariaz testimonio falso gaisto andi bat. Onetarako alkar aditurik fraide bik saldu eben Nagusiaren aurrean, alan zala. Salatuak ziñoan guztia zala guzurrta, enbusteria, etzala alakorik, asmu utsa zala, ez eukala errurik, Salatzalleak baietz, alan zala. Onela zebiltzan, batek baietz, bestea ezetz; ta Nagusia bere sententzia emoterik atzeratuen zan berariaz.

Onetan igaro zan urte bete. Urtearen buruan itandu eutsan Nagusiak fraide ari, ea zelan joakon bere aragizko tentaziñoakaz. Eta eranzun eutsan: Ze tentaziño? Eztakus, bada, zelan nabillan ta zelan narabillen testimonio guzurrezko onegaz? Eztakus ze nekez, ze estu bizi nasan? Lorik bere ezin egin dodala? Ai, Aita, joan zirian nire tentaziñoak ta lengo gogoraziñoak. Orain beste gauzak daroat gogoa. Eztakit zelan

bizirik bere nagoan. Orra emen ze bide ona asmau eban Nagusiak, bere fraidearen burutik kentzeko tentamentu zitelak: Alperkeria kenduaz, neke emonaz kendu eutsazan aragiaren tentaziñoak.

San Juan Krisostomok diño: amore desonestua presona alperrean idoroten dala; an dauko bere ostatua, bere bizilekua, bere janaria ta atsegiña. Onegaiti pintetan eban Benus desonestea jarriarik. Ba, aragizko amorea ta amorentasuna alperkeriaz ta geldi egoteaz azi ta mantenduten da. Eta diño Obidiok: Kendu egizu alperkeria ta kenduko dozu Kupidoren indarra, galduko da desoneskeria.

2 §.

Komunki alperrak jan edanean, solasetan dauko gogoa. Alan diño Kasianok: Alperraren gogoa ta solasak dira jan edanaz eta sabelaz; eztau beste pensamenturik. Onegaiti dirautso San Geronimok Rustikori: Amatu egizu estudioa ta eztozu aragiaren pekatuan atseginik artuko ta ez orretan gogorik eukiko. Artzen badozu gogoz estudioa, aztuko dozu amore desonestua; Jangoikoak Ezekiel Profetaren aotik zirautsan Jerusalengo erriari: Jerusalem, Sodoma zure aiztearen pekatua ta galdugarria izan zan suberbia, asea ta alperkeria. Alperkeriaren bidez egin zituan Sodomako erriak ain utsegite andiak ta ain pekatu ezain atsituok ze igon eben Jangoikoaren aurrera ta euki ezpaleu legez lurrik estaltzeko eta ez urik itotzeko a erri pekataria, zerutik biraldu eban su ta garra guztia erre ta kastigetako.

Dabid Erregeak lan bearrean ebillanean, gerrara joaten zanean kontu gitxi eukan emakumeakaz. Baña, gelditu zanean zeregin bage, alperrik ta sosegaturik bere Jauregian, orduan jausi zan pekatuan. Salomon bere Jerusalengo Tenplu andi zabal miragarria egiten okupaturik ebillanean, eztozu irakurten andrakumeak engañatu ebenik; baña, Tenplua azkendurik, alperkeriara emon zanean laster jausi zan pekatuan. Sanson indartsua gerran ebillanean Filistioen kontra peleetan, ezin eguño goiartu eben bere arerioak; baña lanak ta gerrak akabaturik itxi zituanean, bere emaztearen altzoan bere gustura etzan zanean, emazte berak salatu, engañatu, saldu ta entregatu eban arerioai ta gero oneek egin eben beragaz gura eban guztia.

Zagoze zur zoli irazarriak, ene anaje maiteak, diño San Agustinek, bada eztakust zareala Dabid baño santuagoak, Salomon baño jakintsuagoak, Sanson baño indartsuagoak. Gizon andiok jausi bazirian, nor bildur



izango ezta? Nor biziko da ardura baga? Nok aldegingo eztituz desoneskeriara daroazen bideak, okasiñoak, lagunak ta arriskuak? Eta, zer izango da onei lagundurik alperkeriak? Itanduten da ea zegaiti jausi zan Egisto aragizko pekatuan. Prest eta begietara dator errazoia: Bada, alperra zan. Bada, onela esan liteke Dabid, Salomon, Sanson gaiti: jausi ziriala beste asko legez alperkeria gaiti; onek galdu edo galduteko arriskuan ifini zituan. Eta oneek legez zu bere galdu ta jausiko zara, alperrik bazagoz; lan bearren bati ezpazakioz, beti ezpazagoz zer edo zer egiten edo oraziñoan.

37. BURUA

*Aragizko pekatuak gordeteko boskarren erremedioa
da bost zenzunakaz, batez bere begiakaz, kontu eukitea.*

1 §.

Bere buruaz kontu ona emon ta bere konzienzia garbi euki gura dabena gorde, zaindu, jagon bear ditu ardura andiaz bere gorputzeko bost zenzun edo sentiduak: begiak, belarriak, esku-ukutzeak, aoa ta surusain gaistoak. Onek dira leioak, bentanak, atek, zeinetarik sartuten diran biotzera era guztiko gaistakeriak, batez bere aragiarenak. Ateok bear doguz itxi, zarratu; ta eurokaz kontu euki, geure arimeko arerioa sartu eztidin gure arimako gatzeluan ta jabetu eztidin guztiaz.

Lenengo atea ta atarte prinzipalena dira begiak. Onek beste zenzun guztiai daroioe aurrea. Onek denpora gitxian egiten dituz kalte asko. Urrinetik dakus ta dakusana, gogo barruan sartzen dau ta gogoak gogoz artzen dau. Baldin begiari eragozten ezpajako ikustea, kalte andiak jazoko dira. Ebak ikusi eban sagarra ta andik etorri zan beretzat ta guretzat kalte andi negargarria. Dabid Erregeari, ze kalteak etorri ezjakozan andra bati begiratzetik?

Komunki edo geinetan amoreta begietarik sartuten da, andik asi ta biztuten da. Eiztari andiak dira begiak ta gogoko eizarik agertu ta eregiten dabenean, ez tira kogitu artean geldituten. Begietako ikuste bat, beingo bateko begirada bat ta askotan iragote uste bageko arin batek ostuten dau biotza. Zer egingo dau, bada, barrero luzaro ta askotan begiratueteak? Bigarren begiratueteak, barrero biurtzeak, gogo osoaz ta zer egiten dabena dakiala begiak ifini ta jositeak, emakumeai, edertasunari, besteen gorputzari edo bere gauza indezenteai begira egoteak sua biztuten dau ta azkenean erretan dau.

Orregaiti diño Espiritu Santuak eztajozula begiratu emakume buru arin, arrotu, apainduari; bein ikusi ezkeru ustekabez, ez begiratu barrerik bigarrenez. Bada, biurtuten bazara begiratuten, aren sareetan jausteko peligran ifinten zara. Lotsa baga bateri ta besteari begira, leioan edo bentanan burua erakusten, kalerik kale dabilen andrea arriskuan dabil jausteko edo laster jausiko da.



Ez egizue esan, diño San Agustinek, biotz garbiak ta onestuak dozuezala, baldin begi desonestuak ta lotsabageak badozuez. Bada, begi desonestua, lotsabagea, or emen begira dabillana, edozeini ta edozein lekura begira dabilanak adirazoten dau desoneskeriaren mandataria ta señailela dala. Emakumeetarik gorde gura dabenak gorde bear dituz begiak aci begiratu eztaioen; beintzat bai badazau andik kalteren bat, tentaziño txarren bat gogoratuko jakola.

Gauza ederra da ta arimarako entero ona, onestasanaz batera begiak bera begira egotea. Gido Kartusianok diño Hugo Obispo santuak eukala ain kontu andia bere begien eginbideaz, ze andra bategaz berba egiten ebanean lotsaturik legez biurtzen ebalá beste aldera burua. Eta ziñoan ondo zala alan egitea; bada, bestela, gatx zala arpegia ikusi ezkeru ez deseo txarririk gogoratutea edo emakume atan pensatu bage egotea.

Zioren Soldaduak artu zituenean Asirioen jenteak eta ondasunak, idoro ebeen beste presoan artean Pantea ederra, Erregearen emaztea. Bertati emon eutseen adietan Ziro Erregeari andrearen edertasuna. Baña Erregeak ez eutsen jaramoten, enzungor legez egiten eban. Arraspas eritxon bere adiskide andi batek esan eutsan: Errege Jauna, eguño lurraren ganean ikusi ezta a baño andra ederragorik; merezi dau ainbeste onra emon daiozun, merezi dau zuk bein bere ikustea; baldin bein ikusten badozu, eztozu bigarren mandataririk bearko.

Orduan Erregeak eranzun eutsan alan zirautsonari: Bada, ori berori gaiti eztot ikusi gura; zerren bein ikusten badot libertadeaz, bildur naiz bigarrenerako katigatu nadin ta neure griña txarrak bear eztana egitera beartu ez nagian. Eranzute galantau emon eban Errege jentil onek; ondo ekialako zeinbat kalte etozan gauza eragotzia ikusterik. Alan irakurten dogu Alexandro andiak bere arako bitoria famatua Errege Darioren ganean izan ebanean; ta onen alaba ederrak beste presoan artean artu zituanean, ez eban nai atarik ekarte bere aurrera, bildurrez ikusi ezkeru bear eztana eragingo eutseela.

Onetariko ejenplu asko irakurten da libruetan; ta onetarik atera bear dogu, baldin gura ezpadogu bear eztan amoreá sartu dedin gure gogo ta biotzean, kontu andi bat euki daigula ez luzetuteko begiak bear ezterean persona ta gauzeetara; ondo zarraturik euki daigula begietako ate au; bestela galduek gara; jausiko gara; segurutasunik izango eztozu, garbitasunik gordeko eztozu; ta, leioak idigirik dagoan sala bat edo estalgi бага dagoan lapiko bat legez, sastamar loiz beteko da gure biotza.

38. BURUA

*Desoneskeriako pekatuak gordeteko seigarren erremedioa
da miñaga kontu eukitea.*

1 §.

Baldin begietako ateaz kontu andia euki bear bada, segurubere ezta gitxiago bear aoaz, miñaz, berba egiteaz. Lenengo gorde bear gara berba eze, loi, zikin, desonestu, zantarrak esatetik. San Pablo Apostoluak diño solasa loiak, berba, kanta, soñu, ipuin zikiñak galdu ta ezainduten dituezala egite onak. Bada, Filosofoak irakasten dabe miñak erakusten dabela zer daukan batek bere barruan, bere biotzean, bere gogoan. Nor nor dan bakotxa erakusten dau bere miñak. Norberak gogoan daukana, ori aitatu gura dau besteean artean; miña da biotzaren mandataria; miñean ta berba egikunean agertuten da nor dan bakotxa, baita nongoa dan; San Pedro ezagutu eben legez.

Eztira esan bear berba alperrak, arinak, zenzun bageak, jokolariak, solasekoak, txantxetakoak ta guztiz bere desonestuak, loiak ta zantarrak. Bada, onek irazarten dabe lo dagoana, eregiten dabe eiza ta dakarde bear eztana egitera. Onek dira suaren biztugarriak; ta alkarregaz lotuteko bideak ta sareak. Onelako berba ta esate loi gaistoetarik gorde bear zara, gorde gura badozu zeure burua aragizko pekatuak.

Bai ta gorde bear zara emakumeakaz berba geiegi egiterik, konbersaziño luzeak, barrikeriak, solasak, txantxa burlak ta erakeriak esaterik. Bada bestela, laster eransiko da adiskidetasun amorezkoa, alkarren afekto eragotzia ta gogoraziño pekatuzkoak. Emakumeakaz dabillan gizonak edo gizon artean dabillan andreak, dibersiño, solasa, llaneza geiegietan; ta, orrez guztiaz, asmetan ezpaditu tentamentu desonestuak ta uste badau eztala jausiko pekatuan, sinistu eragin gura dau eztala aragiz egina; eztala gizona; eztabela griña txarririk edo sua kolkoan sarturik darabillala soñekoa erre бага; edo ikatz gorien ganean dabillala ortosik, oñutsean, oñazpia erre бага.

Baña Espiritu Santuak bestela esaten dau: Ezin dateken gauza dala, diño, emakumeen artean ibilli ta ez kalterik artutea; suan erre bage egotea legez dala ori. Nor nai dan, dana dala, zareana zareala; nai andia zareala,



nai txikia; nai debotoa ta intenziño onez betea; ta, bazara bere zeure ustez arria baño gogorragea, urrea baño finagea, baldin andrakumeakaz batu, bildu, lagunduten bazara, eztozu onean asko iraungo; itsutu, amoretu, zoratu ta jausiko zara pekatoren baten. Erretan sarri dabillanari uruna eransiko jako; olan dabillanari, autsa: onela neskamutilen artean dabillanari, zerbait eransiko jako.

Onegaiti diño San Pablo Apostoluak: *Iges egizu aragizko pekatuak*; iges egizu emakumeatarik; ifini egizu zure ta okasiñoaren artean muralla andi bat; ez alkargana eldu premiña bage, eta ori santu debotoak badira bere; zerren esan oi da: santu santaren artean arrizko orma bat bitartean. Eztiño San Pablok, beste pekatuetan legez defenditu gaitezala desoneskeriako pekatuan; eztiño esetu ta erasoteko eskuz esku armakaz; baña diño: *iges daigula*, ez aurrez aur ifinteko, alde egiteko.

Esango baleu legez, beste pekatuak esetsiko badeutsegu bere kontraturik, eurt atzera eginik; baña desoneskeriako ari *iges eginik*. Alan goiartu benzutuko dogu; bestela ez. Bada, urreraturik, alkaturik, solaska jostatzen ibillirik, alkarregana eldurik gatx da jausi bage geratutea, sarean sartu baga egotea. Ezta zurtasuna peste izurri gaixotasuna dagoan lekura erremedioetan fiaturik joatea. Etzaite eldu; aldegin zaite: au da erremediorik onena ta seguruena. Desoneskeriako pekatua gorputz-gaixotasunaren antzekoa da: asko da eransiteko gatx au edozein ukutze, beragandute bat, berba, arnasa, eskuka bat. Artu daigun, bada, San Pablaren adibidea *iges egitea* okasiño deungetarik, pekatuzko laguntasun ta bideatarik.

Elexa Ama Santaren persekuziñoetan iges egiten ebanak Enperadore ta Errege tirano gogorretarik, galduten eban martirioko palma, koroia ta saria. Koroia au irabaziko ebanak, zorion au eukiko ebanak ez eban iges-egin bear. Baña kontrara da kastidada ez galdutea gaiti iges egitea: iges egite au, okasiñotik alde egite ta zeure burua gordete au da martirioa ta martir izatea. Onegaiti diño San Agustinek eztagiala inok esan gure denpora onetan ezala martir santurik: badira orain bere martirak; bada, aragiaren griña ta gurari gaistoak benzutu ta azpitu ta goiartutea; ta pekatu onetarik iges egitea balentia andia da ta martir izatea.

2 §.

Baña, zegaiti esaten da beste pekatuak defendituaz, kontra egiñaz benzutu bear direala eta aragiarena iges eginik? Errazoi asko gaiti. Lenengoa da: Gizona ta andrea sua ta amukoa legez direalako; alkarren

ondoan ifinirik eztago segurantzarik: aldeginik egotea obe. Bigarren errazoi da: Eztalako on urreratuaz indar artzen daben arerioetara eldutea. Gure aragia len geldi ta bakean egoana ta sosegu onean, beste aragia edo persona gana urreraturik biztuten da, errebelatzen da, indarrean sartzen da, arerio biurtzen da.

Errege bat atzeratu ta bildurtuko liteke bere arerioen kontra gerra ta konbatea emoten, baleki bere soldadu propioak, bere traidore dituela, bere kontra jagiko direala. Onela, gu bere bildur izan bear gara aragiaz disputan ta pelean sartzeko: gure aragi au traidore bat legez gure kontra jagiko dalako.

Errazoi au adietan emoten dau Santo Tomasek, diñoanean: Pekaturik beti iges egin bear da; baña pekatu baten tentaziñoa ta esetsitasuna batzuetan benzutu bear da iges egiñaz, aldegiñaz, apartatuaz; ta beste batzuetan defendituaz, kontra egiñaz, burruka egiñaz. Baldin defenditzeaz, esetsi, eraso ta kontra egiñaz gitxituten bada tentamentua, jazoten dan legez aragizko bekatua ez beste guztiakaz: orduan obe da defenditea ta pekatuaren kontra esetsitea. Baña defenditu eta peleatuzaz geiago biztu, azi ta geiatuten bada tentaziñoa, aragizko pekatuan jazoten dan legez, orduan bear da iges egin ta ez ifini gogoratuten ea zelan defenditu edo eskudatuko da; bada, gogoeta ori berori da sua biztutea edo su-biztugarria.

Iges egitea gaiti pekatuak adierazoten da aldegieta pekatuzko okasiñoetarik, lagun gaistoetarik, idorote deungetarik, solasa, dibersiño, barriketa amorezkoetarik ta bide txar guztietarik. Bada, dirua eztago seguru lapurrak direan lekuan; ez ardia otso artean; ez amuko amilua liñoa ta polborea suaren alboan. Gauza peligruzkoa ta arriskatua da gizon ta emakumeak batera, alkarren artean ta sarri batu, bildu, lagundutea.

3 §.

Baña oraindiño alkar egoteaz alako peligrurik ezpaliz bere, bago beste errazoi bat gizakume ta emakumeak alkarregaz ez ibilteko, ez askotan ta sarri batuteko, ez solasa ta konbersaziño geiegian ta luzean egoteko; eta da inori zer esanik ta gatx-biderik edo eskandalorik ez emotea; bada, geienetan emon daroe gazteak badira; lenago fama txarrekoak badira; bide bakarretan, leku ezkutuetan, gaubez edo bear eztirian etxeetara batuten direanean.



Ezta zeure konzienian, zeure barruan garbia, kastua, onestua izatea; kanpotik bere, munduaren begietan alan bear dozu izan, agertu, erakusi; San Pablok diñoan legez. Emen dator ondo Espiritu Santuak emazte prestua gaiti diñoana: Billatu zituan, diño, lana ta liñoa; ta biak bere eskuz landu ta irun zituan: lana ullea kanpoko ta liñoa barruko. Lege zarreko Utxa famatu a urre finez kanpotik ta barrutik urrezturik egoan. Zeruko esposoak bietan deituten dau ederra bere esposea. Adietan emoteko kristiñau ona izango danak kanpotik ta barrutik izan bear dabela ona: bieta-ra euki bear dabela kontu ta ardura.

Guzion bat askotan bakarrik, bakarrean ta premiña bage andra bategaz egoteak emoten dau bidea besteak uste izateko ta sospetxa egiteko euren artean bear eztan gauza txarren bat, maitetasun gaistoren bat edo zerbait dala. Gura eztabenak esakizunik, ezpegi emon okasiñorik. Gura eztabenak kerik jagi dedin, ezpegi surik.

Lege zuzenean agindurik dago probantzarik asko dala andra bat gaiztoztat eukiteko gizonaz bakarrik bear eztan orduan edo lekuan ikustea. Bada, siñu, kiñu, esate, ibilte, egote aek dira asko bidea besteai emoteko an euren artean zerbait igaroten dala. Beragaiti, ezta asko zuk orretan intenziño ez tratu txarrik ez eukitea; bada, kendu bear dozuz besteen zer esanak, sospetxak, juizioak ta eskandalo emotek.

Naturelezaren aldetik danaz bere, eztagoz iños seguru gizona ta emakuema alkarregaz. Asko da gizon ta andrea izatea peligran ifinteko; deabru tentatzallea bere ezta beinbere lo; onek eregiten dau erbia; biztuten dau sua; gogoratuten dau pekatua; irazartzen dau aragia. Eta bein irazarri ezkerro, gatx da loak artzen; gogoa aidean jaso ezkerro, ezta erraz sosegatzen ta bere lekura biurtzen.

Zurtasun andia da emakumeaz ez adiskidetasunik, kariñurik, maitetasunik artzea; aek tarik iges egitea; aekaz ez lagundutea. Bada, bein alkar gana abiatu ezkerro, gatx nekezkoa da andik biztuten dan sua atsemon, amatetea; ta jenteari zer esanik ez emotea. Lenengoan erraz da andreagaz adiskidetasunik, llanezarik, tratuturik ez artzea; alkarregaz ez bildutea; maitetasun geiegirik ez eukitea. Baña, bein adiskidetu ezkerro, lagundu ezkerro, berbaketan alkarregaz solasean, presenteak ta bisitak egiten asi ezkerro, peligran andian ifinten dira euren arimea galduteko ta jenteari ejemplo txarra emoteko.

Onegaiti, bada, desoneskeriako pekatuturik gorde gura dabenak ez bakarrik euki bear dau kontu andia begiakaz, bai ta miñagaz bere; eta bai konbersaziño luze zoragarrietarik iges egiteko.

39. BURUA

Aragizko pekatuturik gordeteko zazpigarren erremedioa da sabelari geiegi ez emotea: jan edanean begiratua izatea.

1 §.

Bere buruaz kontu ona emon gura dabenak aragizko bizioan, gorde bear da sabel darraiotasunatik, jateko ta edateko naikunde geiegitik. Gorde bear dau neurria jatean, edatean, jan-edan zalegarri gustosoetan; kontuz gorderik aoko atea. Terenziok diño: Ogirik ta ardaorik eztan lekuan otz da Benus; ezta an amorentasunik ta aragizko atsegintasunik. Jakiña da aragizko amore desordenatua sua legez dala; ta su ta gar onen egurrak ilintiak jan edanak direala. Kendu eiozu egurra, jan egizu gitxi ta edan gitxiago; eta orduan ezta sua biztuko ta, biztuten bada, laster amatauko da.

Ordenatu eban Solonek: Baldin erriko kargudun bati gertatzen bajaran lar edatea ta andik miña moteldu edo zankoak okertutea, kendu egioela berpetati bere kargua, ofizio ta agintaritze. Eta errazoiak alan agindu eban. Bada, bere burua ezin gobernatu ebanak, zelan besterenak? Beretzat ona ezta, diño Espiritu Santuak, norentzako izango da ona?

Korintioarrak euren Erregea izentatuten ebenean ta koroitu egiten eben zeremonietarik bat zan ekartea bere aurrera basu bat ur; adietan emoteko ez ebala andik aurrera ardaorik edan bear; edo edango ebana ondo urturik edan bearko ebala. Lenagoko denporetan Erromako emakumeak ez eben bapere ardaorik edaten.

Federiko izen onetako irugarren Enperadoreak ez eban bere denporan ardaorik edan, asko bazan bere au Aleman batentzat. Eta, zelan berak ez eban edaten, begi txarraz begiratuten eutseen ardaora emonak zirian gizon edaleai. Enperadore onek, ezkondua bazan bere, ez eukan umerik. Medikiak alkar baturik ta konseju arturik, esan eutseen Enperadorearen emazteari edan egiala ardao piska bat ta alan eukiko zituala semeak. Enperadoreak jakin ebanean Medikuen konseju au, deseo andia baeukan bere semeak eukiteko, orrez guztiaz, esan eutsan bere emazteari artu ez egiala alako erremediorik, ez egiala ardaorik edan umeak izatea gaiti. Gurago ebala ikusi bere emazte seme bage, seingea, antzia ta basoan alza



frutu bagea legez, eze ez ordia, ardao-edalea, ardaoari emona ta zaletua. Kontuzko berbak dira oneek; ondo esanak segurubere; andiak dirialako ardaoak egiten dituan kalteak, batez bere emakumeetan: bada, eztago zer giatu andra edaleetan, ez gizon ordietan.

Lapur bat, jokolari bat, ernegari bat, biraoti bat, desonestu bat gauza txarra da; baña gizona da: bere adimentu ta zenzunean dago; zerbaiteko gai kapaza da. Baña ordia, moskortua, ardaoan jausia abere bat da: ezta gizona. Bada, gizon izatea da adimentuan egotea, errazoian egotea. Orrela, ordia orditurik dagoan denporan ezta gizona: eztauko juiziorik, eztauko abere batek baño geiago adimentuaren usurik, baliatzerik. Beragaiti gizonak bere gizontasunean ezin euki lei fata andiagorik, ez desonra ezainagorik (munduak alan uste ezpadau bere) orditutea, adimentua ilundutea, fama atan jartea baño.

Noe Patriarka santua orditu zan beinbaten; eta arena ezta mirarituteko, lenengo edanaldia zalako; ta orduan ez zekialako ze indar eukan ardaoak; bada, jakin ezkerok, gorde zan edaterik. Baña mirestekok da zuk oraín jakinik ta esperienzia eukirik neurri batera eldu ezkerok ardaoak igaroten zaituala, moskoturik, ordirik ifinten zaituala, ez largatzea edate geiegi ori ta barriro orditutea.

Likurgo Traziako Erregeak uste eban ta irudituten jakon etzalako asko ardaoak egiten zituan kalteak erremediatzeko legez ta ordenanzaz ardao eragozte; zerren ori zala erroak largarik, adarraí oratutea; eta, alan, agindu eban mastiak ondolik atera ta zatitu bear ziriala. Bere erreinuko guztiak atera eragin zituan, arean ere itxi baga; eta agindu eban bizitzaren azpian, andik atxina iñor azartu etzidilla matstuirik ifinten. Bide onegaz Errege onek moldatu zituan ardaoak bere erreinuan egiten zituan kalte guztiak.

Sabel betea, janariz ta edariz ganez egitea ezertako bere ezta on, jokatzeko, berba lar egiteko, zorakeriak esan ta egiteko baño. Etzaitze orditu, diño San Pablok, etzaitze edanean igaro, zerren ardao dan lekuan ezta uts egingo desoneskeria. Orregaiti diño San Geronimok: Aragia jatea, ardao edatea, sabela lar betetea kutiziaren azi-lekua, mintegia dala. Mintegian sortu, erne, jaioten direan legez landara aldagarriak, alan jan edanean bere azi, biztu ta egiten dira atsegiñak artzeko naikundeak, gurariak, pensamentuak ta gogoraziño gaistoak. Gatx da ase bete, olgura, solasa, alperkeria ta atsegiñak eukitea eta aragizko pekaturik iges egitea.

Geienetan jente aberatsak, andikiak, jan edanetan dabilteenak pobre beartsu goseak ilak baño emonagoak dira lujuriara, desoneskeriara.

Aberastasunetik, jan edanetik, gullariatik, sabeldarraiotasunetik sortuten dira aragiaren atsegintasunak, nai-gura loiak ta pekatuak. Eta gitxi jatetik, barautik, jan edanean begiratua izatetik ta bere neurri ona gordetetik datoz pensamentu garbiak, deboziñoa, kastidatea, santutasuna. San Juan Klimakok diño: Gura izatea izan kasto garbi onestua ardaoturik, ase bete eginik, ori da orioaz sua amatatu ta txakur bati beraganik aldegitoko ogi zati bat botatea legez. Bada, sua orioaz geiago biztuten da; txakurra ogiaz geiago geuganaturen da; alan, aragizko gurari gaistoa bere asko jan edana biztuago, aziago, andiago egiten da.

Beragaiti, gorde gura dana desoneskeriako pekaturik, gorde bear da geiegi jan ta edaterik, sabelari nai daben guztia emoterik ta batezbere ardaoan ez neurri igaroterik. Kontu andia euki bear da gordeteaz aoa, gustua, miña, zeinetarik ernetan diran desoneskeriako pekatu loi, zikin, asitu, kirastu, ezain, lotsagarri, kaltegarriak.



40. BURUA

*Aragizko pekatuak iges egiteko lengoan generako erremedioak:
enzutea, usain egitea, ukututea.*

1 §.

Desonetskeriako pekatuan jausi gura eztabenak, ez bakarrik euki bear dau kontu ardurazkoa ikusteaz ta gustuaz, begiaz ta aoaz; bai ta ganerako zenzun guztiakaz bere. Euki bear dau kontu andia enzuteaz belarriakaz: bada, enzun bear eztirian gauza asko enzuten dira. Inork diñozanean berba loi zantarrak, ez ernaturik egon, ez gogoz enzun, itxi belarriak, itzuli burua, ez aetan atseginik artu. Bada, San Isidorok diñoan legez: Erraz egiten da gogoz enzuten dana.

Kastidatea, garbitasuna gorde gura dabenak iges egin bear dau dantzetarik, soñuak direan lekuetarik. Lengo jentilen artean desonratzat eukeen dantzan egitea; etzan jente onradurik kontuzkorik dantzetan ikusten. Zizeronen esana da: Gitxik dantzetan dabe edanik eztagozanean, adimentuan dagozanean. Oñak arin darabiltzanak burua bere arina euki daroe. Jente gazte zoro arinen zenzunez baño zankoz sendoago direanen lana da dantzea. An lotsea galduten da; an bear eztan ezagera ta adiskidetasuna artzen da; an solasak, eskukak, alkar joteak, zirriak, albokadak ikusten dira; an ixil mandatuak egiten dira; an amorentasunerako bidea asten da; an bear eztirian gaistakeriak jazoten dira.

Inolako bere gauza txarra gaistoa, okasiñotsua, arriskatua da dantzea; bada, diño San Agustinek: Obe da, pekatu txikiagoa da domeka ta jai osoetan atxurraz lur lanak ta bear egitea, dantzan ibiltea baño. Eta au diño onela, ez dantzea bera ain gauza gaistoa dalako, ezipada dantzatik dotozan okasiño ta gaistakeriak gaiti.

2 §.

Bada, gorde bear da usaiñaren ateaz bere; kontu euki bear da surraz bere. Andik bere sartu liteke lapurra, lujuria, desoneskeria. Ezta ibilli bear balsamuz ta gauza usaingarritz usaindurik. Alan ibilteak ez dau usain onik.

Orregaiti agindu eban Solonek ibilli etzidilla inor gauza usaingarriak saldu erosten. Zenon filosofoak ezin ikusi eban alango usainik erabilenik. Alango usain eransia darabillanak fama txarra emoten deutso bere buruari; bada, adierazoten dau berak berez usain gaistoa daukalako darabiltzala beste usaikizunak.

Gauza batzuk dira ikusi bage surraz beragaz usain egiteaz ezagututen direanak non dagozan ta zer direan. Alan, usain oneaz beterik dabiltenak usainduten dira ta ikusi bage ikusten dira zelakoak, ze ekandueta-koak, ze zenzunekoak direan. Onegaiti Marzial Poetak esan eutsan bein Postumo bere adiskideari: Gogo txarra emoten deust, Postumo, zure beti usain onez beterik ibilteak. Bada, eztauko usain onik beragan, usain eransi kanpokoaren bearra daukanak. Usainik onena da usainik bapere ez emotea. Andrea gaiti ziñoan Zizeronek, usainik ez dabenean daukala usain ona: Usainik eztaukalako dauko usain ona. Balsamuak ta onelako usain onak jentea engañatzeko, beraganduteko, bere zale egiteko, amoriora ekarteko; bera alabatu daien, aragizko pekatu eragiteko ta gauza dongerako bideak ta señaile adigarriak dira. Eta ez gitxitan erabilten dira onetarik usaiñak estalduteko euren gorputzeko gaixotasun kiratz, atsitu, lotsagarriakoren bat, ezeztuteko ta uste eragiteko besteari, alako gatxik ez daukeela. Erre kiratsa, usain txar bat edo gaixotasuna atsituak dagozan etxe baten erre oi da gauza usaintsu bat, usain gozoaz kenduteko usain txarra. Au berau egin daroe usainez beterik, untaturik, loraturik, apaindurik dabilzenak.

3 §.

Ezta ezer balio usain onez beterik ez ibilteak, baldin kontu andi bat ifinten ezipada berari dagokana baño soñeko ederragoaz ez erabilteko. Au guzti au da arrotasuna, baneria, desoneskeriaren señaile. Jakintsuak diño: Gorputzeko apaindureak, aginetako barreak ta ibillereak erakusten dabela nor nor dan. Non kea dan, sua da an: alan sosegurik bage aoa zabalik barreak irrika egotean, apaindura arroakaz janzirik ibiltean da agiri ta ezagututen da ero zoro adimentu gitxikoa, buru arina dala bat.

Eukirik zer jan, zer janzi, zegaz gosea il ta zegaz gorputza estaldu, kontentu gagoz onenbestez, ziñoan San Pablo Apostolua. Eztozu gura jan edan ta soñeko geiegirik; bear bearraz gagoz kontentu, igarogari bat dogu asko. Zenzun gitxiaren señaile da berari dagokion janziara baño ederragoa, kostotsuagoa, aragoa erabiltea; ta soñeko apaindura ederra-



kaz janzirik dabillanean bere buruari gogo onaz begiratutea. Onelako bati ixilik belarrira esaten eutsan egun baten Demonakte zeritxan filosofo batek: Ola, ola adiskidea, orain zure soñean daukazu janzi ori zuk baño len erabili zituan bere bizkarrean ardiak, bada, aren ulleaz eginak dira; ez dozu zer orregaz arrotu bear. Eta bestela bere, soñeko erropak pekatua- ren estalgarriak legez ta pekatu egin dogunaren señalearak dira.

Ederto berba egiten dau onen ganean Santo Tomasek: Gura dozu jakin, diño, zer dan bere soñeko apainduraz andiustetan dana? Bada, da azotatu ezkerro justiziak sorbaldan burdiña goriaz emoten deutsan marka ta silluaz preziatuten dan lapurra legez: Marka a bere gaistakeriak gaiti egiten deutse lapurrari; eta bai guri bere soñeko janzia Adan gure aita lenengoaren pekatua gaiti. Pekaturik izan ezpalitz, soñeko bearririk ezgenduan eukiko; eztoqu, bada, euki bear baneria preziatu arroturik beragaiti.

Bakotxa janzi bear da dagokion erara ta ez geiago. Geiagoaz onratu baño, desonra geiago dakarko bere buruari. Errege janzi bedi soñeko obearenaz; zaldun bat erdikoaz; nekatzaria beragokoaz. Ganerako guztiak dira superbia, arrotasuna, baneria, pekatu egiteko ta eragiteko bideak, galdugarriak, gorphutz eta arimeari kalte asko dakarkiozanak.

4 §.

Baña beste zenzunai baño kontu geiago eskuz ukututeaz, eskukak, eskutasun loiak eukiteaz. Au da desonetskeriako pekatua- ren lapurren Kapitaiia, burua, agintati nagusia; bestek lapurkerietan bere parte daukana. Ikusteaz, berba egiteaz, enzunaz, usain egiteaz egiten da pekatu, baño ez ukutuaz legez. Beste zenzunak urrinetik, baño ukututeak urretik esetu, erasoten dau. Begiak, minak eragiten dabe erbia, baño ukututeak kogidu, atzemon. Gaistoenekeo puntuan, desoneski berba egin ta begiratzea gaiti, aurrerago igaroten ezpada, ez da obrazko pekatu- rik; baño ukutu ezkerro, eldu da azkeneko pekatu- ra. Gauza desonestu bati begiratutea erituteko señaleara da, baño ukututea, iltekoa. Pensamentu edo begirateak orrenbeste kalte egiten badau, zer izango da eskuka, laztanka, besarka ibiltea? Urrinetik sua berotuten badau, zer urreratuten danean? Eztago ondo amukoak, suak ukututen deutsanean. Gatza, uragaz egina izanik, ez dau ura baño arerio andiagorik. Aragiak bere eztauka aragia baño kontrario andiagorik. Alkar ukututea da asko galduteko. Beragaiti, apartatu, aldegin bear dira, batezberere gazteak alkarreganik.

Azkenez, erremedio guztien ganekoa desoneskeriako pekatu- rik gorphutzeko da gogoratua Jangoikoak ikusten gaituala, guri begira dagoala leku guztietan. Eta, baldin lotsa bagara, errazoia izango da atzeratutea pekatu egiterik; Jangoikoak gakusalako, gure gogo ta egite guztiak begira dagoalako; berak egiñak garealako bere aotik beti betiko sententzia enzun bearko dogulako, desoneskeriari gorroto andia deutsalako, pekatu onegaiti kastingu andiak egiten ditualako, orain pekatua egiten dituanak infernuko su ta garraz erretzen, berotzen, kiskaltzen sekula betiko eukiko dituala.

Oneek dira (ta Jangoikoak indarra emon daiola) erremedio, bitartekoak gorphutzeko bat desonetskeriako pekatu- rik. Eta, baldin kontuz ta gogoz artzen badozuz, ekarriko deutsue atsegin andia arimarako ta gorphutzarako; ta benzutu, goiartu, azpituko dozu munduan dozun areriorik andiena: zeure aragia, zeinek ainbeste arima eroan dituan infernura; ta erbestetu ditu Zeruko gloriatik.



41. BURUA

Gerotik gerora dabiltzanak salatuten ditu euren konzienzia gaistoak.

1 §.

Santo Tomasek diño ta geuk dakusku ta dazaugu, Jangoikoak gure barruan ereinik ta landaturik daukala jakin bear doguna jakiteko ta egin bear doguna egiteko bear dogun argia ta azia. Norberak bere barruan ta beragan dauko Jangoikoak emoniko zuzengille, gidari ta argigille bat. Onek darakusku zer dagokun ondo eta zer dongero, nos goazan oker ta nos zuzen. Bai ta al guztiak aurreratuten gaitu ta mugitu on egitera ta atzeratu pekatuak.

Dotoreak *Sinderesis* deituten daben argi natural ta argigille au da gure *konzienzia* edo errazoi geurezko naturala. Ez da munduan berau baño gidari, erakusle, argi-egille oberik. Naturalezaren erara legez ta etorkizunez jatorku konzienzia au bakotxak geugan dogu; ta guztiok mugitu, abiatu, konsejatu, zuzendu ta argituten gaituz ezagututeko zer egin bear dogun, zer larga bear dogun. San Juan Krisostomok diño Jangoikoak gizona sortu, egin eban ordutik emon eutsala lege naturala. Eta, zer da lege naturala? Da bakotxaren konzienzia, norberak bere barruan daukan ezagera ta argi bat jakiteko zer dan zuzena ta zer okerra, zer ona, zer deungea; alakoze eze, konzienzia onegaz argiro ezagututen da gauza gaisto dala pekatua ta gauza ona birtutea; au alan dakigu dala irakasirik geure buruak, geure adimentuak, leke naturalak ta konzienziak.

2 §.

Onetan da agiri maite gaituala geure Jangoikoak. Bada, geugan, geure etxe barruan, besteetara itandu, konzejatzera joateko premiña bage emoten deusku konsejaria, maixua, erakuslea, gidaria, zein dan konzienzia. Eta, onegaiti, kondenetan dira lege natural onen erara bizi eztirian jentil fede bageak. Merkatariak, tratudunak egiten ditue saldu-erosi nastuak, tratu gaisto bidebageak, lukreriak, engañoak pisuan, neurrian, prezioan. Gero doaz Konfesore edo besteetara itandutera ea tratu aek jusu-

tuak direanez, egin albalitekez. Eta doaz motibu ta premia gitxiaz. Bada, ain argiro ezagutzen da tratu txar eragotziak direala, ze besteren billa ibilli bage itanduko baleuskioe euren konzienziari, onek erakusiko leuskioe egia. Ta andik kondenatuko leuke euren burua; bada, euren konzienzian idoroko leukee, eskribiturik balego legez, itanduten daben guztiaren eran-zuera.

Adituten badeutsagu konzienziari, bera da asko ez uts egiteko, artez ta zuzen ibilteko; dakialako bear dana ta bere egitez guztia onera emona. Eta Santo Tomasek diñon legez, onari egiten deutso arpegi ona, begitar-te gozoa; baño gaisotasunari arpegi iluna ta aserratua. Onegaiti, konzienziari jarraiturik onen buruz ta adibidez gobernatu ta gidatuten dana ondo doa, zuzen dabil, eztau utsegingo. Baña bestela, bere konzienziaren kontra dabilana oker dabil, triste, ilun ta barruko bake bage.

Ta errazoiak da alan. Bada, zelan zankoa, besoa edo gorputzeko parte bat bere lekutik ta iunturatik lokaturik, aterarik, aldaturik, makurturik dagoanean eztauko batek sosegurik ere tokira biurtu arteraño; alan bere, konzienziari atzea emonik, ez jaramonik, ez jarraiturik pekatuan dagoanean bere, orduan dago bat bere lekutik kanporaturik, aterarik bere konzienziak erakusten deusan bidetik; eta ezin sosegatu da alan dagoan bitartean. Bere bide ta tokian dagoanean, zelan dagoan pekatuak ez dabe-nean, orduan dago bat pozik, kontentu, bakean, bere gustura.

3 §.

Ez da konzienzia dongea baño gauza gaistoagorik, ez erregerriagorik; bera da azote, zigor ta borrarurik gogorrena. Alan diño San Agustinek, Jangoikoaz berba egiten dabela: Agindu zenduan, Jauna, ta alan da: konzienzia txarra bera da buruarentzat pena ta kastigurik andiena. Eztago ibairik ta ez urjolarik lurra alan daroanik; ez da zedenik zula alan desegiten dabenik; ez da arrik urdaia ta aragia alan jaten dabenik; ez sistsik oiala alan zatitzen dabenik, zelan konzienzia gaistoak noberaren burua.

Arra da konzienzia barruan dagoan pekatua; ta arrak legez gau eta egun dago ausika, dedarka ta jaten geure barrua. Eta, ain gose da, ze ezta beinbere ase betetzen, ez aspertuten, ez bere faltak gogora ekartzetik geldituten. Dabid Erregeak besteren emazteaz uts egin ebanean, alegin guztiak, itzul-ingurak, igesbideak egiten zituan uts egite a estalduteko. Eta ez



ori iñoren bildurrik zeukalako, bada Errege zan; ezpada bere konzienziak salatuten ebalako, bere barruan zikadak, dedarrak emoten eutsazalako.

Konzienziak ezteutso parkatuten ez Aita Santuari, ez Enperadoreari, ez Erregeari, ez beste munduan dani. Eta guzti au egiten dau gure onerako, gu pekatuak atzeratuteko. Geure gurasoak baño maiteago gaitu geure konzienziak. Aita batek bere semea bein, bitan, irutan, amar bider zemaitsu dabenean, badakus ezabela fruturik ateretan, eztala onduten, eztala zenzunduten, largetan dau, ezteutso jaramoten. Baña ez konzienziak, eztau beinbere largatzen, itxiten, etsiten.

Gerra andia egiten deusku geure konzienziak ta esetsi, erasoten deusku ta onela puska bat atzeratuten gaitu pekatuak; bestela galduak giñean, egingo eban gureak. Orregaiti dino San Krisostomok: konzienziaren zemaia, menazua, deadarra, deia, eranzuera da ankla-angura bat, ta aingura santua ta ona, pekatuen ondaretik ta an itozetik gordeten gaituena; ta itxasoan anklak ontzia legez gaukazana.

4 §.

Baña diferentzia andia dago konzienzien artean; asko doa baterik bestera. Konzienzia batzuk dira irazarriak, sentikorrak, minberaak, estuak, kontuzkoak; ta beste batzuk lotiak, illak, nasai zabalak, ardura bageak. Zapata bat dozunean neurri justu doi estuan, ezin sufrutuko dozu barruan arearik txikiena; baña, baldin oñetakoa badago zabal, leku frankua dauko oña mindu bage ez bakarrik area, bai arritxoak, oialak bere eukiteko.

Diferentzia berau dago konzienzia onaren ta gaistoaren artean bere. Konzienzia onak, justuak ezin sufrutu dau pekatu benial bat bere; baña gaistoak, zabalak, nasaiak eztauko mortalakaz bere konturik. Askok, diño San Anbrosiok, ainbeste pekatu egiteaz, pekatuan beti egoteaz, atara ekanduteaz, oituaz ta atan gogortuaz, lo-zorroak arturik egonaz ezituezen euren konzienziako pekatuak sentitzen. Espiritu Santuak diño: Gaistoak, pekatuen oxin ondarrean sartu ezkerero, galduten dau sentimentua, eztauko antsiarik, ardurarik, bildurrik.

Señale ona da pekatuaren zauria-llagea sentitzea; ta señale txarra ez sentietea, diño San Anbrosiok berak. Bada, sentimentua galdu ezkerero, diño Santuak berak, dolorea ill ezkerero, aragia atara egin ezkerero ta usteldu ezkerero, ez da erremediorik, eztago osagarriarik, utsak ta alperrak dira medizina sendagai guztiak. Au berau da mundu onetan pekatariak euki

leian zorigatxik andiena, kastigurik gogorrena, estaturik peligrukoena, egoterik gaistoena: pekatuan egonik ez sentitzea. Jangoikoaren arerio izanik, ez bildurrik eukitea. Alakoak konzienziaren ausika gitxi enzuten dau, lo gitxi orregaiti galduten dau. Baña eztago ez onelakoa alde guztiz kezka bage: danik gaistoanari bere, nosik bein baño ezpada bere, salatuten dau bere konzienzia gaistoak. Eta San Juan Krisostomok diñoan legez: Gura baleu bere kozienziak ezin parkatu lei; bere dedarrak ta saladurak erakusten ditu. Bada, San Anbrosioren esatez: Konzienzia eztagoanean oituri berba egiten, eztaki alanbere ixilik egoten, beti daragoio, beti da iñardun; eta kanpoan ta agirian berba egiten ezpadau bere, baña bai an bere barruan.

Konzienzia da beinbere loak artuten eztaben serbitzari bat, katarrotu ta motelduten eztan predikari bat; ta beti onera garoazan gidari zuzengilla bat. Konzienziak ezteusku iges egiten: beti darraigu, gerizeak gorpuzari legez. Eztago iños alperrik; erreprentsiñoak emoten deuskuz; agiraka jagoku, ausika ta eranzuten dagoku. Batezbere pekatu egin ezkerero, orduan jagiten da, orduan atzamarka egiten dau, orduan dira txilioak, deadarrak, kejak eta minak, orduan emoten ditu otsak, olesak, kolperik andienak.

Bada, San Krisostomok diñoanez: Zelan ordiak ardaoa irusiten dabenean eztau sentitzen andik eldu jakan kaltea; orduko gozotasunak edatean, artuten dabenean atsegiñak itsututen deusalako adimentua; baña gero, moskorra joan jakonean dazau bere utsegiña, falta ta desonrea. Alan, pekatariak pekatu egiten dabenean eztaikus, eztauzau andik eldu jakon kalte ikaragarria, pekatuaren atsegiñak ilundu dabelako, itsutu, konortebagetu dabelako ta ainbeste, ze ezta orduan gatxez gomutetan. Baña gero, igaro danean pekatua, jagiten da konzienzia ta ain biziro ta latzki salatu ta aserraturik jako, ze atsegin guztia azturik, ifinten dau pekataria damuz ta naibagez beterik.

5 §.

San Agustinek diño iru gauzak ateraten dabela gizona bere etxerik; eta dira emazte gaisto oñolaria, itoxura ta kea; eta onela, konzienzia gaistoak bere ateretan dabela pekataria bere sosegutik. Andra gaisto ernegaria, itoxura edo itogiña ta kea dan lekuan eztago gusturik, ez atseginik, ez bakerik; ez eta konzienzia txarra daukanen biotzean onik: Pekataria sartuten bada bere barruan, bere konsideraziñoan, bertati ango keak aterako dau kanpora, azpituko dau tristurak.



Kanpoan arerioak, pelligruak, arriskuak, persekuziñoak dituana laster doa etxera, segurura, bere burua gordetera. Baña etxean dituanak arerioak, naibageak, kontrakarrak, persegillak, itoxura, kea, andra gogaikarria, zer egingo dau? Nora joango da? Non izango dau konsuelurik? Kanpoan arerioak, etxean gerrea daukanak, non idoroko dau bakea? Non? Bere barruko kamaran, bere konzienzian, an bear dau gelditu, gorde, konsolatu, arindu, gozotu, poztu. Baña, baldin bere barruko kamaran, etxeko barruenean, bere konzienzian bere idoroten badau arerioa, itoxura, kea ta saladurea, zer egingo dau orduan? Norako da? Sartu arren bere konzienziako barruan bere, eztau aurkitu bakerik, sosegurik. An bertan batuten jako bere arerioa; ta areriorik andiena, etxetarra dana. Arerioaren iges dabilela, topatzen dau bere arerioa, diño San Agustinek. An alde guztietarik esetsi, lotu ta katibututen dau. Bere burua bere arerio dau; berak ganik ezin iges egin dau. Ondo diño, bada, San Agustín berak; eztagoala konzienzia gaistoa baño gauza penagarriagorik, arerio gogorragorik. Bada, an ez egonik Jangoikorik, ezin egon liteke zorionik, bakerik, gozotasunik, konsolamenturik, pozik.

Gaixorik, mindurik, barrua gaixoturik daukan persona bat poztu liteke denpora labur batean kanpoko jenteen artean; baña gitxi alan irauingo dau; bereala barruko gatxak esetsiten deutso, triste ta jausia ifinten dau. Alan tristetuten dau pekatuan dagoana bere konzienziak, barruko arrak, gaixotasunak. Dakusunean pekatari bat, diño San Anbrosiok, dagoanean pekatu egiten, jan edanetan, solasan, gorputzari nai dituan atseginak, olgurak, pozkariak, gozotasunak emoten, usteko dozu an dagoala gloria, paradisua, ase betea ta eztagoala zer geiago deseatu. Baña, baldin itanduten badeutsazu ea zelán joakon bere barruan, bere konzienzian, esango deutsu deungero dagoala, eztagoala kontentu, ezteutsala bakerik emoten bere konzienziak, sepultu atsitu bat baño kirastuago daukala bere barrua. Bada, Isaias Profeta Santuak diñoan legez: Gaistoak itxaso amurratu irakin bat dirudie; eztabe bakerik, ez sosegurik; ainbeste ola, baga, ekatx ta ur korrontak emoten deutse, ze ganez egiten dau, estu, larri, ikara dabil bere artean.

Salomonek diño gaistoaren konzienzia ta barru aldea burdiaren txirritola legez dala. Burdi kargatua beti doa txirrinka, bere karga andia ezin jasorik legez kexaka; alan, pekataria bere kejatzen da bere konzienzian, bere pekatuen karga pisu astuna ezin jasorik legez; onek neketu, azpitu, zapalduten dau; onek bere soñuaz, otsabarraz, errepreñsiñoaz tristetu, mindu, lotsatu, penatuten dau.

Beinbaten Filosofo batek, diño Senekak, erosi zituan zapata batzuk prestaturik ta denpora gitxi barru zapatariari pagetako. Eta abiatu zan bere berbea kunpletara epea eldu zanean. Baña aror non, bidean enzunik il zala diruak bear zituan zapatagillea, biurtu zan pozik bere diruaz etxera, uste izanik orrenbestez kitutu zituala; ta euki zituan diruak beragan denpora baten. Baña bitarte orretan ainbeste erre, jan, estutu ta salatuten eban bere konzienziak ze, ezin sufriturik, joan zan bere diruak arturik zapatari difuntuaren etxera ta an egotzi zituan zapata diruak, ziñoala zapatari beragaz berba egiten baleban legez: Beste guztientzat il bazara bere, oraindiño bizi zara niretzat; artu egizuz, bada, zeure zapateen diruak ta itxi egidazu bakean. Pagu kitua egin artean ez eban bakean itxi bere konzienziak: gerra egin eutsan. Oraingo jentea ezta orren sentikorra, ez orren konzienziaduna, ez orren begiratua ta ardurazkoa bakotxari berea biurtzeko. Urteak doaz, konfesiñoak doaz aurrera, konzienziaren zikadañ jaramoten ez jako, dedar egiten da Pulpituan ta Konfesonarioan *errestituziñoa edo kondenaziñoa; ezta parkatuten pekatua, ezpada biurtzen gauza ostua*, baña gitxik egin daroe ta asko kondenetan dira onegaiti.

6 §.

Gaistoa, beste areriorik bage, bere konzienziak berak salatuten dau, penatu, estutu ta kastigetatu dau. Igaro danean atsegiña, gustua, kontentua, an da bereala konzienziaren naibagea, nekea, atsegin bagetasuna. Bekatua, llaga edo sarna atz-egillea legez: atz egitean atsegin artuten da ta gero min. Alan gelditzen da, bada, pekatuaren atsegiña igaro danean bere, konzienziaren mina ta naibagea. Kalentura sukar andiaz zagozanean atsegin artzen dozu ur otza edateaz, baña gero, edan ondoan gatxa geiturik, izaten dozu atsegiñaren atsekabea. Au da fruta ondo eldu bagearen jateak aginetan itxiten daben garratz min samina.

Presondegian dagoanari emoizu gura daben guztia jaten ta edaten; egiozu aldan guztia bera poztuteko, baña ezta beinbere a gaiti osoro poztuten; ezta kialako zeren begira dagoan. Bada, San Juan Krisostomok diñoan legez: Karzelan dagoana eztau itxiten geroko kastiaguaren bildurak atsegin artuten, ez aurrean dituen gauza gozoetan gusturik artzen.

Urkamendira kondenaturik dagoana askozaz lenagotik penatzen da; urkamendiaz gogoratuten dan guztian ikaratuten legez da. Au berau jazoten jako pekatuzko konzienzia gaistoa daukan bati. Nos eta asten dan bere gogoa poztuten lagunakaz solaska, ordu berean gomutetan da bere



pekatuaz; orduan salatuten dau bere konzienziak; alakoze eze, ezin dateke atsegin osorik, konsuelu beterik eukitea pekatari batek bere pekatuan dirauan artean.

Onelakoak peligrurik eztagoanean bere uste dau dagoala. Ikusiko dozu askotan lapur edo gizon-iltzalle batek, asmetan dabenean justizia, bereala bere buruz iñor bere atzean ez bere billa ez ibilli arren, bere konzienziak salaturik, iges egiten dau, ezkututzen da, bildurtzen da, uste dau bere billa dabilzela.

Gaistoak uste dau, bere akordurik eztagoanean bere, bera gaiti berba egiten dabela, bere gaistakeriak esaten dagozala. Gaistoa beti dago sospetxan, beti da bildur, beti dago lotsaturik. Gau illunean bakarrik dabillana, peligrurik ez izan arren, latz, bildur, izu, ikara da. Alan da gaistoa bere, ezere peligrurik ez izana gaiti, bere konzienziak, bere barruak salaturik dago ikaturik, bildurturik, izuturik.

Lauoñeko edo txarria, beste abereak egiten eztabena, oraindiño minik artu baga ukuteaz bereaz asten da irinzika kejatzen. Eta au da bera urdai gizona baño beste gauzarik, ez ullerik, ez lumarik, ez narrurik, ez beste defensarik eztaukalako; bere izatez ta naturalez da bildur ta oratuten deutesanean uste dau ilteko artuten dabela. Onela bada, konzienzia txarra daukanak bere, sentitzen dabenean gatx gitxi bat, buruko min bat, bildur da il eztidin, bizitzea kendu eztaion Jangoikoak. Bada, eztaikus beragan ezer balio daben defensarik, ezpada bere bizitza argal ilkorra ta au galdu ezker betiko galdua ta kondenatua da.

7 §.

Job Santu andiak diño: Gaistoak beti dauka bere belarrietan bilduraren soñua, konzienziaren latzetasuna, ta saladura; bakean danean bere, uste dau gerra dagoala, arerioak dabilzala zelatan bere billa, bera preso artzeko. Au da pundu onetan bere; beste mundukoaz ganera, pekatariaren kastigua, bildurtasuna, segurutasun bage beti ibiltea. Kastigu onegaz zemaitu ta menazatu zituan Jangoikoak bere mandamentuen ausitzallleak, zirautsela: Baldin enzuten ezpanozue, nire esanak bete, nire aginduak kontuz gordeten ezpadozue, jakingo dozue beste iñok zuek persegitu bage, jarraitu bage, peligrurik ta areriorik euki bage iges egingo dozuela, bildurrez beteko zareala, bakerik zeuroen barruan beinbere izango eztozuela.

Alan egin jakon ikara andi bat Kain gaistoari, Abel anaje ona il ebanean. Abiatu ta asi zan Kain iges egiten mundua ganik esaten ebala: Egin da enea, galdua nas, ez dot igesik, topetan nabenguztiak ilgo nabe. Zer diñozu, Kain? Noren bildurra dozu? Nok ilgo zaitu? Ez Adanek, ez Ebak, bada, orreek zeure aita ta ama dira; ta beste iñor bere eztago oraindiño munduan. Noren bildur zara, bada? Ez besteren, ezpada zeure buruaren, zeure konzienziaren baño. Konzienzia bera beste areriorik bage da asko bildur ikara andiaz ibilteko.

Adanek, pekatu egin ebanean ta asmau ebanean Jangoikoak deitu gura eutsala, iges egin eban, gorde ta ezkutatu zan. Eta, zegaiti ori? Ete ekian zer gura eutsan Jangoikoak? Bekian, diño San Agustinek. Eta noindik ekian? Bere konzienziak adirazorik. Ez eukan beste testigurik, ez beste salatzaillerik bere konzienzia baxen; baño ori eban asko. Eta alan, berak bere buruz ta berez bere utsegiña ezagaturik ta errudun zala jakinik, igesbidea billatu eban.

Agaiti diño San Isidoro Obispo ta Dotore andiak: Persoma erruduna, faltsatsua eztago beinbere seguru; bada, bere konzienziaren zikadak, akulluak beti darabil kolpeka. Onen ganean diño San Anbrosiok: Eztot idoroten iñok kondenatu ebala Judas Jesu Kristoren Saltzalle traidore gaistoa; ez Pilatosek, ez erriak, ez bestek; baño gaistoagotzat idoroten dot, berak bere burua kondenatu ebala. Bada, sentenzia guztien ganeko sentenzia, beste guztiak igaro ta aztuten dituana da norberak bere buruari emoten deutesana, bere konzienziak benzuturik ta kondenaturik.

Eta emen da agiri eztaala antsi, eztaala inporta beste iñok ez jakitea zure utsegite ta pekatua; baldin zeuk badakizu, konzienzia bera da testigurik asko. Ezta arentzat leku ixilik, ezkuturik, estaldurik. Bada, Senekak diñozez: Ze probetxu da gordetea, ezkutatzea, jenteen begietarik iges egitea? Konzienzia onak agirian ta guztien aurrean ta begietan ibilli gura dau; seguru ta fidaturik dago an bere. Baña konzienzia gaistoak eztau iñon bere segurantzarik idoroten, ez etxean, ez kanpoan, ez bakarrik dagoanean, ez besteen laguntzan dagoanean. Zure obrak, egitekoak onak badira, zuzenak eta prestuak, jakin begiez guztiak; baño gaisto okerrak badira, desonrakoak ta desonragarriak badira, zer doa bestek ez jakitean, baldin zeuk badakizuz? Zeure burua, zeure konzienzia da testigurik seguruena, artezena, egiazkoena. Beste guztia uts egin gaiti, ak ezin uts egin lei, ezin engaña diteke, zuzen esango dau dakiana, artez eta legez salatuko dau.

Onegaitik, diño Seneka berak zeure buruaren bildur geiago izango dozula, beste zure pekatuak dakizarena baño. Besteetarik iges egin ziñeike, baño ez zeuk ganik. Zerren pekatua bera da bere buruarentzat pena ta



kastigu. Job santuari jazo jakazan kalte, galdute, zorigatx guztietan bat edo batek iges egiten eban abisetako ta barriren baten kontua berari emotera. Alan iges egiten dau, bada, pekatariagan bere konzienziak ta konzienziaren mandatariak barriak ekartera, abietako ta esateko zeinbat kalte etorri jakazan ta zeinbat on galdu daben pekatu egiteaz.

8 §.

Konzienziak ofizio asko ditu: bera da alkate, bera da testigu, bera da salatzalle, bera da defensaria. Eta, ain da fina ta egiatia, ze berak milla testigutzat balio dau. Ain da arteza, ziurra, justua, leiala, ze ezin mundu guztiak irabazi, nastu, guzurru, engañatu ta ez beste aldera itzuli lei. Eztago dirurik, ez faborerik, ez enpeñurik, ez interesik, ez bitartekorik, ez adiskiderik konzienzia bere egiatik makurtu, okertuko dabenik.

Onen ganean, beti legez, ederto berba egiten dau San Juan Krisostomoren urrezko miñak, diñoala: Munduko tribunalak, justiziak nastuten dira; testiguak ukatuten dabe, eskribauak irabazten dabe, alkatea diruz itsututen da, justiziakoak, letradunak gobernetan dira mesedeakaz, interesaz, eskupekoaz; eta, uste dozunean eurakaz ondo zagozala, orduan zagoz euretarik kanporaturik; uste dozunean irabaziko dozula, galduten dozu. Baña konzienziaren tribunalean, audienzian, adizainean ezta alango bidebagerik egiten; zuzen dabil guztia, eztago okerrik, uts egiterik, errakuntzarik, engañurik. Bada, beste guztiak uts egin arren, bere fabore ta aldera emon arren, konzienziak berak autortuten dau erruduna kulpante dala; konzienziak berak bere burua salatuten dau ta bai bere kontra sententzia emon bere.

Kanpoan egin leiz milla tranpa ta engaño ta probantza egiaren kontrakoak: errudunak esan lei errurik eztaukala, ukatu lei egia ta esan alako gauza gaistorik egin eztabela; guztia dala guzurra, falta, enbustea; baña an bere barruan, bere konzienzia beti egian egongo da. Testiguak uts egin lei ta guzurra esan, baña ez konzienziak. Oni itandu ciozu, onegaz berba egizu, beragaz itandu zaite ta beronek esango deutsu nor zorean; emen espillu baten legez zeure burua ikusiko dozu; etzaitu engañatu ta ez bera bere.

Gatxen bat artzen zaituanean, an da bereala zure konzienzia; eta bizi guztian egin dozuzan pekatu guztiak dakartzuz gogora; guztiak ditu presente aurrean. Baita esango deutsu zeinbat kalte etorri jatzuzan eurak egi-tea gaiti. Onela, Joseren anajeak Egitora joan zirianean ta ango estura

andian ikusi zirianean, bertati gomutatu zirian ogei urte lenago egin eben pekatuaz; ta alkarri ziraautsen: Ondo mereziturik doguz gatz guztiok, justu da, errazoa da geiago bere sufrietea, egin genduan pekatu eskergea gaiti geure anajea saldurik.

Gogortade andia, billaukeria, dollor prestueza, traiziño ezaina egin genduan geure anajeaz; berein erregu egin euskun; berein negar egin zituan; eurok zirian asko biotzik gogorrena ausi ta bigunduteko; baña gureak etzirian bigundu, etzirian errukitu, ezkenduan enzun; saldu genduan gure anaje maitea. Agaiti gabiltz, bada, gu bere emen Egiton estururik, salaturik, naibageturik ta arrisku andian. Onelan zirautsen alkar bata besteari; onela salatuten zituan euren konzienziak.

Eta guztiz bere, Ruben anaje nagusiak egin eutseen besteai kargu andia, esaten eutseela: Ezneutsuen nik orduan esaten etzengiela orrelako gogortaderik, orrelako pekatuak, ez traiziñorik anaje gaztearen kontra? Etzengiela saldu? Etzenduen enzun gura; orra bada non dozuen orain zuek bere zeuroen merezidua, zeuroen orde, kastigua ta pagua. A pekatu a gaiti etorri gara onetara; a eldu ta etorri jaku geure ganera. Okasiñoa eldu zan ordu berean jagi zan anaje onen konzienzia, an agertu zan, ez eban faltatu, salatu zituen, arpegien emon eutseen euren gaistakieraz. Eta ori, San Juan Krisostomok diñoiez, iñok orretara beartu baga; konzienzia berak bere borondatez agertu, atera, kanporatu ta autortu eban ainbeste urtean estaldurik, ezkutaturik, ixilik euki eben pekatua.

Au da konzienziaren ofizioa: aztua gomuterazoten dau; denpora luzea igaro arren kastigetatu dau, min ta naibagea emoten dau; eta eragoten dau len baño geiago, geroko luzementuetan ibilli baga, bide on baten jarri gaiteala. Baita dirausku au egin arteraño ezteuskula bakean itxiko ta ezgaitu itxiten bere.

Aror bada non konzienzia berak egiten deuskun gerrea gaiti ta etxe barruan dagoan kerik, itoxurarik ta pelea gaitik, bereala gaur ganik bear dogun, gerora begira egon bage, abiatu kentzera geure konzienziatik pekatu, erru ta utsegite guztiak; ta onela gelditu bakean, soseguan, segurutasunean.



42. BURUA

*Gerotik gerora ibilteak galduten dau
konzienzia onaren bakea ta sosegua.*

1 §.

Gauza jakiña, segurua, argia ta geure begiz dakusguna da konzienzia gaistoaren zikadak, akulluak, deadarrak, kisketadak, aserre, gerra, otsak eta kolpeak kolpe gogorrek direala; ta alako konzienzia txarra daukanak gusturik, atseginik, bakerik, poz gozo oso beterik ezin euki leiala alan dirauan bitartean. Baña bai ta gauza jakiña, argia ta dakuskuna da konzienzia onaren bakea ta sosegua gauza gozo konsolagarri atsegiñezkoa dala. Eta, zelan mundu onetako infernua konzienzia gaistoa dan, alan mundu onetako gloria konzienzia ona da.

Gozotasun espiritualera, arimako pozara konbidatu gura zaituet gaurko egunean, neure anaje maiteak, diño San Agustínek. Eta pozkaria, gozotasun, olgura, atsegintasun au eztakarde, eztabe emoten ez munduko onrak, ez aberastasunak, ez seme alabadun izateak, ez gorputzeko osasunak bere. Zek emoten dau, bada? Konzienziaren garbitasunak, pekatu bage ta Jangoikoaren grazian egoteak. Onak dakar egiazko poza, onek min guztietarik osatuten dau arimea; onek atera, kanporatu, erbestetu ta kenduten dau konzienzian dagoan arra, tristurea ta aranza.

San Ambrosiok diño: Obra egite gaistoan idoroten dan legez tristura, naibagea, alan egite onean ta ondutean arkituten da poza, konsuelua, atsegiña. Gura dozu, dino, ez beinbere egon triste? Ondu egizu zeure bizitza gaistoa, gorde egizu konzienzia garbi; arima garbia beti dago pozik, eztau sentitzen kanpotik jatorkon tristura ta penea. Bizitza onak beragaz dau beti olgura, poza, alegranzia, gozotasuna. Agaiti ziñoan San Pablo Apostolua ez ebillala iñosbere triste; triste legez bai, baña beti pozik. Apostolu miragarri au beti ebillan nekez inguraturik, persegiturik, arerioak begitan arturik, okasiño ta biderik asko emoten eutsen triste egoteko; baña onek guztiok konzienzia onaren pozak arindu, gozatu, desegiten zituan, eguzkiak lañoa legez.

2 §.

Gaistoak guzurrez ta azalez dira alegreak; eta egiaz triste; onak barriz kontrara: egiaz dira alegreak, pozak ta guzurrez tristeak. Benetan ta egiaz esateko, oneek dauke alegrantiaren izena ta izana; eta gaistoak izena bai, baña ez izatea. Gure poz ta atsegin guztiak minduteko ta gozoa garraztuteko asko da konzienzia gaistoa; ta bai gure neke pena naibage ta garratzatasun guztiak gozotuteko konzienzia ona.

San Agustínek diño: Dagoanean gizon bat tristurak, atsekabez, minez beterik, baldin bere barruan ezpadauka llagarik, aranzarik, bere konzienzia garbi ta sendo badauka, ara laster joaten da, an Jangoikoa topetan dau ta, onegaz batera, idoroten ditu on guztiak, konsuelua, ta bakea. Arotz zulgiñak zula edo ol bat landuten dabenean aurkitu arren gane aldean azalean zerbait galdurik, usteldurik, brintzaturik, eztau orregaiti ardurarik baldin biotza, barru aldea sendoa, osoa, ona, fina badago. Gizonaren azala, gane aldea gorputza da; barrua, mamiña, biotza konzienzia da; au ondo badago, ez da ganekoaz kanpokoaz ardurarik, antsiarik, konturik, barruko konzienzia bearrena dalako.

Onegaiti diño San Ambrosiok: Ezta uste izan bear bat dagoala poz ta kontentuz beterik kanpotik dirudiana gaiti, ez bere ondasun, aberastasun, jan edan andiak gaiti; baña orduan esan lei bere gogora dagoala pozik ta gozaldi oso betean, baldin bere konzienzia badago garbi, ondo, sendo, pekatu bage. Espiritu santuak diño Proberbioetan, danik gauza txarrenak, munduko goraberak ta jazoerak ezabela justua tristetuko; baña gaistoak beteko dirala zorigatzez, gaistakeriz ta naibagez.

Elexa Ama Santeak diño atsekabeak, persekuziñoak kalterik egingo ezteutsala pekatuak papere eztaukanari. Zeure pekatuak eta gaistakeriak egiten deusue gerra ta kalte; onek tristetuten zaitue. Kendu egizuz onek ta egongo zara pozik; larga eizuz onek ta biziko zara bakean, pozik ta zeure gogora. Alan diño Dabid Errege Santuak: Bake andia dau konzienzia onak, Jangoikoaren agindu santuak gordeten dituanak. San Ambrosiok diño: zer da ondo ta justoro bizitea, ezpada bakean ta soseguan bizitea? Esan gura dau konzienzia ona eukitea ta bakean bizitea, guztia dala bat.

Justuak, kanpotik gerra ta naibagea euki arren, barruan beti dau bakea, beragaz dau onelangoak munduan euki al leian gloria ta atsegiña. Alakoak ez dau ardurarik munduko esa mesak gaiti. Testimonio guzurrezko bat, gauza txar bat eregiten deusenean, batak eta besteak aotan artuten dabenean, tratu gaistoa emoten deusenean, laster doa bere konzienziara eta, ikusirik ez dabela an alako jaso deusent faltarik, poztuten da,



konsoletan da, sendotu ta berotuten da. Errazoiak diño San Anbrosiok: Utsegiterik, okerrrik, faltarik eztaukala dakien personeak eztabela jaramonten besteen deungero esateari; ta ez pensatu bere besteen guzurrak beraren egiak baño indar gieago daukala.

Esan ta egiten doguzan gauza guztietan, diño Sn. Gregoriok, begiratu bear deusagu gure konzienziari ta onek erakutsi, adirazo, agertu ta esaten deuskunaz kontu euki, ta ez jentearen esa mesakaz, ondo edo dongero, zuzen edo oker diñoanaz. Bada, San Agustinek diñoan legez, konzienzia gaistoa, okerra, gaixotua eztau osatuten besteren alabanzak; eta konzienzia ona, sendoa, garbia eztau gaixotuko, loituko, ezainduko bestearen deungero esateak: beti izando da dana.

3 §.

Batek edo batek esango dau: ori alan da, egia da; baño damu artuten dot besteak esateaz nigan eztagoan errurik, pekatuak, okerrrik; eta bai batzuetan daukadana bere agertuaz, zabalduaz, aotan artzeak. Sinisten dot damu artuten dozula; baño pazienza bear dozu. Bada, besteren miñak ta esanak ezin lotu ziñeiz, eztagoz zure eskuan. Larga egizuz onek gaistoak badira; ta on prestuen esanaz ta zeure konzienziak kontu euki egizu. Bada, San Bernardok diñolez, jakitea zuk jente gaistoen aotan zabiltzala da asko jente onen alderako fama onean egotea, konzienzia onaren testigantzaz.

Ezereberik eztau alan arinduten, sendatuten, gozotuten jente gaistok gu gaiti deungero esanik emoten deuskuen pena, damua, mina ta nabagea, zelan ikusteak ta jakiteak ez dogula errurik; eta jente prestu onraduak bere eztabela uste ez sinisten gu gaiti alako gaistakeriarik, orbanik, faltarik, uts egiterik, errurik. Mundu guztiak zu gaiti deungero badiño bere, baldin jente prestuak ondo badiño zu gaiti ta konzienziak salatuten ezpazaitu, egizu lo ardura baga, etzaita antsiatu, estutu gaistoen zer esana gaiti. Poztu zaita bai, atsegin artu egizu, konsola zaita, bada, orretan da agiri etzareala aek legez.

Egi au ezagutu eban ondo Antitenes Filosofoak. Onek, enzun ebanean persona gaisto batzuk alabatu ta andizkatuten ebeela, esan eban tristura andiaz: A ene jainkoak, zer egin ete dot nik? Zetan uts egin ete dot? Bildur nas zerbaiten uts egin ete dodan, len danik gaistotu ete nasan. Bada, jente gaisto batzuk, len ni gaiti gaisto dongero berba egiten eban batzuk, orain ondo diño nigaiti. Señale txarra da au. Bada, alakoak ezta-

be ondo berba egiten, ezpada gaistoak gaiti, gaistakeriak gaiti, eurak legez direanak gaiti.

Onela ziñoan Filosofo onek, gaistoen kondiziñoa ezaguturik. Geldi bitez, bada, ta begoz orrelakoak orrela; ez egiezu jaramon, ez aetara bururik biurtu, ez aei begiratu, ez aekaz konturik ez ardurarik euki. Konsola zaita, poztu zaita zeure konzienzia garbiaz. Alan egiten eban San Pablo Apostoluak, ziñoanean: Au da mundu onetan gure gloria ta atsegiña: konzienzia garbi eukitea, barru onetan errurik, saladurerik ez idorotea.

Esan baleu legez: Batzuen kontentua ta gloria dago aberatsak, ondasundunak izatean; errenta andiak, etxe ederrak, diru asko eukitean; andikiakaz lagundutean; jan edanean; desoneskeria ta lurreko atsegiñetan denporea igarotetan; baño ez gurea, diño San Pablok. Guk eztoгу orreekaz konturik, ezpada konzienziak ta barruaz kontentetan gara.

Konzienzia ona, diño San Anbrosiok, bere ondo egiñaz, berak bere barruan ta bere artean idoroten daben sariak ta kontentu; onek deritxo asko; eztabil besteren billa; eztau besterik gura. Bada, San Ambrosio berak diñoan legez: Ze frutu dago konzienzia onaren garbitasuna baño gozogarrik? Ze jateko dago gustoso zalegarriagarrik, nola jakitea Jangoikoaren begietan ondo dagoala; errurik eztaukala bere ustez? Eztago konzienzia on, garbi, inozente bat baño gauza gozo, doatsu, zorionekoagarrik, dino San Gregoriok; ez dau ezeren bildurrik. Irudituten jako alakoari bere konzienzia ona dala gaztelu ta torre seguru bat eta berak besterik egiten ezteutsana berari bere bestek egingo ezteutsala.

Baña konzienzia gaisto, maliziaduna, zitel, fede gaistoakaz dabillana beti dago nekez beterik, beti gogo txarraz, irudikor, atzera, bildurri, sosegu baga; bada, zelan daukan bere biotza edendurik, gaisto ta oker, uste dau besteak bere alan direala. Eta berak deungero egin ta deungero juzgatzen dituan legez besteak, alan uste dau ta bildur da, beste orrenbeste berari egin eztaioen; moneda berean pagatu eztaioen, berak besteak neurrituten dituan neurriaz bera neurtu eztaioen.

4 §.

Bias Filosofoari itandu eutseen egun baten ea ete zegoan munduan ezeren bildurrik ez eukanik. Eta eranzun eban baietz; ta ori zala konzienzia ona. Konzienzia onak ez dau ezeren ez iñoren bildurrik; ta ez beragan ikararik, kezkarik. Onegaiti Jesus gure Salbagille maiteak itandu eutseen Fariseo ta Eskriba bere arerioai bildur bage ta azartasun libreaz:



Nok zuetarik egin leit niri kargu pekatoren bategaz? Nok salatu, topatu, idoroko dau nigan faltarik? Nok esan lei pekatuan nagoala? Badakizue, esan eidazue.

Zer diñozu, Jangoikoaren semea? Zelan ori itanduten deutsezu zeure areriorik andienai? Zure kontra berba egiteko okasino ta bide billa dabilzenai? Zelan bildur etzara zure arerio malsin gaistoak zure kontra emongo dabela, ta egin ez ta egin ezin zenduanaz arpegian lotsa bage emon eztaizuen? Ez dot bildurrik, diño Jesusek. Eztot ezertan uts egin; eztaukat ezertan faltarik; konzienzia garbi ta ona daukat. Onek sendotu, animatu, segurututen nau; bildur bage ifinten nau. Gura bozu egon bildur bage, egon zaite konzienzia garbiaz; ta munduan danik etzaitu bildurtuko; eztozu arerioen ardurarik eukiko.

Baña kontrara konzienzia gaistoak: bada, peligrurik, arriskurik, laprastgarririk, jausteko okasiñorik eztagoanean bere uste dau peligrua dagoala; onak, barriz, peligrurik dagoanean bere, bere burua segurutzat dauko, animetan da orduan bere; beste guztiak desesperatu arren, berak ez. Susana lege zarreko andra prestua, garbia, onesta, bere senarra ez zan beste bategaz pekatu egin ebalta faltsiaz salatutrik ta arrika iltera eroianean, galdutzat eukan mundu guztiak. Baña berak esperanza andia eukan Jangoikoagan. Bada, ez eukan errurik ta bere errubagetasunak, bere konzienzia onak emoten utsan segurutasuna. Eta alan, milagroez agerturik eregi eutsen guzurrezko testimonioa libratu zan.

San Juan Ebanjelisteak diño: Baldin gure konzienziak salatuten ezpagaitu, esperanza dogu, fidanzia, itxaromena geure Jangoikoagan. Eta andik Sn. Pablok bere Timoteo bere ikasleari eskribidu eutsan kartan ifini eban esperanzaren lekuan konzienzia ona. Adirazotea gaiti konzienzia onaren izatea ta esperanzarena, guztia dala bat. Bada, San Agustinek diño: Konzienzia ona daukanak esperanza bere eukiko dau. Eta zer, konzienzia gaisto txarra daukanak ez ete dau esperanzarik? Bai, bauko esperanza, baña ez esperanza egiazkoa, bizia, fina, ezpada esperanza utsa, alperra, illa.

Bada, dirian legez bi fede modu, bata bizia, bestea illa, alan dira esperanza bi; pekatuan dagoanaren esperanza da esperanza utsa, illa, on gitxi-koa. Konzienzia gaistoak oztu, moteldu, epeldu, ilten dau gogoa; baña konzienzia onak poztu, bizkortu, aizartu, sendotu ta esperantza emoten dau. Gizon bati zeure bizitza guztiak gorrotoa erakusi badeutsazu ta beti bere kontra ta berari gatx egiten ibili bazara, ze esperanza euki ziñei berak serbituko zaituala aren bearra dozunean? Egiaz, ez asko. Eta iñok esan arren eztala orretako gizona, prestua dala, ona dala, serbituko zaituala,

beragaz balia zaiteala eta zuk ari deungero egin arren, ak orri begiratu bage ondo eranzun ta egingo deutsula zuri; eztozu sinisten: zerren zure konzienziak atzeratuten zaitu; onek gogoa oztu, ilten deutsu; esperanza galdu eragiten deutsu.

Baña beste gizon bat beti maite izan badozu, beti serbitu badozu, beti bere fabore ta aldera erakusi bazara, orduan itxaroten dozu berak bere zu serbitu, lagunduko zaituala bere bearra dozunean. Eta iñok esan agaiti ezetz, ezteutsula lagunduko, eztozu sinisten. Bada a gan dozun konfianza, amorio, adiskidetasunak ta zuk berari egin deutsazuzan mesedeak animetan zaitue beragaz baliatutera.

Auxe berau jazoten jako konzienziari Jangoikoaz. Konzienzia onak esperanza andia dau beragan; baña gaistoak gitxi edo baperez. Eta ezta miraritzeko ez eukitea bere; beintzat esperanza fina, leiala, zerbait balio dabena. Berak bere lenago Jangoikoari jaramon ezteutsela, azturik euki dabelako, amore gitxi erakusi deutsalako bildur da enzungo ezteutsala.

5 §.

Kristiñau egiazkoa danak, batean ezpada bestean, nosik bein baño ezpada bere begiratu ta bisitetan dau bere konzienzia. Eta pekatuan dagoanean irudituten jako dagoala ilunpean ta an barruan daukala oropilla, matasa nastu, karga edo zama astun bat. Baña pekatu bage dagoanean idoroten dau bere burua garbi, argi, pozik, libre, atsegindurik.

Ondo konfesaturik etxera biurtzen danean irudituten jako karga sorta andi bat bera ganik bota dabela; poz arren poz konsolaturik, arindurik, gozoturik geldituten da. Eta errazoiar alan uste dau. Bada, zer da munduan gauza konsolagarriagorik ikustea baño bere arimea garbiturik, Jangoikoaz adiskideturik ta ondo konfesaturik? Graziatzko estaduan dagoanak bildur gitxi dauko eriotzeaz.

Konzienzia ona, esperanza andiz betea, bildurtasun bagea, egiazko pozaren jabea baño, ze gauza oberik euki lei batek munduan? Itsutasun andia da zeruko gloriar kontu gitxi eukitea. Baña ezta gitxiago ain kontu gitxi eukitea konzienzia onaz, izanik au mundu onetako gloria, poza ta atsegiña. Beste munduko glorian iminten dogu, baña oraingiño ikusi ezto- gu; baña mundu onetakoa, konzienzia onaren bakea, konsuelua, nosik bein, pekatu bage gagozanean ikusi ta probatzen dogu. Ta, orrez guztiaz, zorian au, beste asko legez, galdutera largatzen dogu.



Konzienzia onaren bakea baño beste sari pagurik ezpaleuka bere birtuteak, bizitza onak, ori berori gaiti bear genduke len bait len, gerora itxaron baga, gerotik gerora ibilli baga, orainganik asi bizitza santu garbi bat egiten. Orduan gutarik bakotxori esan leigue Salomonek diñoana: Lo bazagoz bere, etzara bildur izango, seguru egongo zara, lo gozoa egingo dozu.

43. BURUA

*Geroko larga baga, orainganik egin bear gara
ontasunean irautera, pekatuta ez biurtzera.*

1 §.

Beinbere okertu, makurtu, atzeratu, alderatu bage bide artez, zuzen onari jarraituteari ta ontasunean, birtutean, egite santuetan irauteari azkeneko orduraño deritxo irauntza, iraunpena edo perseberanzia. Gerorengo ta azkeneko orduraño grazian iraute au da Jangoikoaren doia, emaitza, mesedea; Jangoiko bera ganik baño, bestetarik ezin irabazi geinkeana, diño Trentoko Batzar Santuak.

Onen errazoia emoten dau Santo Tomas jakitunak: Gizonaren borondatea librea dalako; batera ta bestera biurtuteko, nai dabena egiteko bere eskuan daukalako; beragaiti, borondate libre au kontrako aldera itzuli eztidin, pekatuta okertu eztidin bear dau Jangoikoaren laguntza, eskua, grazia, doia, iraun daian onean. Osoro ta duda bage sinistu bear dogu, dino San Agustinek, ezin batek berez goiartu ta benzutu leizala deabru ta aragiaren tentamenduak, Jangoiko berak egunero lagundu bage.

Arerioak, mundua, deabrua, aragia indartsuak dira, naturaleza argala da, erbala, jausikorra, borondatea onera ta gaxera libre ta gaxera makurtuagoa, gaixoagoa, etxunagoa, emonagoa. Ezin, bada, iraun giñei jausi bage Jangoikoak lagundu, sostendu, indartu bage bere eskuaz, bere graziaz, bere bitartetasunaz.

2 §.

Iraute era bikoak idoroten dira gure artean. Bata da, denpora luzean iraun ezkeron onean ta pekatu egin bage, gero azkenean uts egiten dabena. Au da arriaren ganean ereinten dan azia legez: ernetan da ondo baña, eztableko sustrairik ezarten, laster igartuten da. Alan, asko ondo asten dira, baña eztera aurreratuten ontasunean; dan okasiño ta tentaziñorik txikienak kañabera mea legez makurtuten ditu: ta, azkenean, nos



eta sendoago egon bear leukeanean, orduan jausten dira, ausiten dira, galduten dira.

Bibora deritxon suge modu bat oi da, diño Pliniok, negu otzean bere eden guztia lurrera egotzen daben bat; baña gero udan meneno barriaz ta len baño gaistoagoaz agertzen dana. Au berau jazoten da pekatari askogaz: onduten dira puska bat, largaten dituez pekatuzko okasiñoak ta lagunak gaixotuten direanean, garizuma denporan, gatx edo kalte andiren baten ikusten direanean. Osatu arteraño, garizuma, pazkoa edo estura igaro artean largetan dabe edena, pekatua, bizitza gaistoa. Baña gero barrio biurtzen dira lengo gaistakerietara, lengo pozoi edena edatera. Au biurrera txarra da, iraute laburra da, balio gitxikoa da.

Bigarren irautza da onean irautea il arteraño; ta len bizitza gaistoa egin badau bere, azkenean ondo akabatzea. San Agustinek eztau konturik egiten lenago irauteaz, baldin azkenean ondo azkenduten ezpada. Atzerengo urtean, eriotza aurreko denpora puska batean ondo bizi danak ta gero onean ta grazian ilten danak segurutzen dau zerua; baña ez, len urte askoan ondo bizi izan arren, gero ilteko denporan irauten ezpadau grazian. Eriotza giño ondo irauten dabena bakarrik salbatuko da, diño Jesu Kristok Ebanjelio Santuan.

Aaron Sazerdote andiaren soñekoak beko egal ertza azkenean zituan granada pintatuak. Granada edo mingranak beste frutuak ez daben koroï bat dauko. Koroï au gura eban Jangoïkoak emon zekion ta ifini Sazerdotearen jaztekoari, ez asieran, ez goian, ez erdian, ezpa bazterrean, oñetan, beko egalean, azkenko ertzan. Bada, azkeneko ondo ilteari jatorko koroïa, ez asiteari.

Itandu eutsen bein Diojenes Filosofo andiari ea zegaiti ainbeste urtez zartu eta aguretu ezkeru ez eban deskansu atsegirik artuten, zegaiti orrenbeste irakurri, ikasi ta burua berotu ta neketuten eban. Eta eranzun eban: Daragoionak ardurazko lan bati, eztau larga bear akaberan dagoanean; orduan obeto ta biziroago ekin bear deutso; orduan obeto peleatu bear dau ta esetsi, bestek bitoria irabazi eztaion; ta lengo eginak galdu eztaizan. Onegaiti, bada, nik bere, ziñoan Diojenesek, orain zartu nasanean, azkenera eldu nasanean gogo guziagoaz jarraitu bear deusatu lanari; eztot gelditu gura; len baño beartuago nago denpora labur au ondo emotera. Zerren bestela, benturaz lengo irabazi ta aurreratu guztia galdu nei. San Pablo Apostoluak diño: arin egizu kojitu ez zaiezan.

Baña, esan dan legez, iraute au azkeneko istanterañ Jangoïkoaren grazia ta mesedea da: berak bakarrik daki, diño San Agustinek, nori egin ta nori emongo ez jakan grazia au. Eta beragaiti bildur andiaz bizi bear

gara, kontuz ta ardura andiaz ibilli; umiltasun andiaz eskatu Jaunari ez gairala itxi bere eskutik, gorde gaizala pekatuan jaustetik ta, bere grazia ta adiskidetasunean gagozanean, beragana garoazala. Zergaiti ze, azken-giñoako iraute au Jangoïkoaren doea bada bere, iñok berez irabazi ezin leikean grazia bada bere, orrez guztiaz, bakotxak egin bear dau bere aldetik dagoana ta dagokana, merezi al balei legez, beragan balego legez.

Bada, gure eskaera, erregu ta oraziñoak enzutera ta kunplietara bear-turik ezpadao bere Jangoïkoa, baña ganerakoan prestik dago alan egiten dabenari elduteko, jabetuteko, eskua emoteko. Dabid Santuak diño: Ur dago Jangoïkoa egiaz ta denporaz deituten deusnetarik. Eta gura dau eskatu daiogun; ta puska baten ukatuten badeusku eskatua, eztozu deseperanzatu bear; ezpada beste bein ta geiagotan eskatu bear deusagu, ateko eskalea legez, erdetsi artean. Eta ori edozein ordu ta denporetan; zerren Jangoïkoagan ez da ordu txarrik, ez da berandurik, ez aldi gaistorik munduko jenteen artean legez. Agan ordu ta denpora guztiak dira bardinak; beti da bat ondo etorria, ondo artua, ondo enzuna baldin denporaz, adiontzaz badator pekataria.

Beragaiti, bada, beti ta benetan, biotz guztiaz ta sarri eskatu bear deusagu Jangoïko maiteari grazia, azken-iraupena au emon daiguntzat. Bada, onetan dago gure zoriona, ditxa, suertea, gora bera guztia; onetan dago benzuera ta bitoria guztia. Berau bage lenagoko egite on guztiak dira utsak, alperrak, balio bageak. Jangoïkoak eztau begiratuten len zer izan garean, ezpada zer garean eriotzako orduan; eta orduan garean erara emoten dau sententzia betiraun guztirako.

Ontasunean iraute au orainganik artu, autu ta euki bear dogu ta ez geroko esperanzan itxi, largatu, benturatu. Bada, azkenengo denporea baño lenago ondo bizi dana, ondo irauten dau azkenean bere komuniki edo geienetan; kontu ta joko seguruena da ondo bizi, ondo ilteko; bada, nolako bizitza, alako eriotza.

3 §.

Edozein neke eroan bear dogu gogo onaz; azken-iraute au ta zeruko gloria irabazteagaiti ez gaitu ezerk bildurtu ta atzeratu bear. San Pablok diño emengo neke pena bizi, latz, gogorrenak geiago balira bere, eztireala diña zeruko gloria irabazteko; ezтира asko, eztireala ezer agaz bardindurik. Beragaiti ezgara aspertu ta gogaitu bear, eztoгуz lartzat, geiegitzat



euki bear onenbeste gloria dakarkuzan nekeak ta penitenziak. Lenago bai, deseatu bear genduke andiagoak ta luzeagoak izatea.

Alan eskatu ta deseatuten eben lenagoko Santuak; ta orregaiti Jangoikoak emon eutseen ain gloria andia. Onetariko batez berba egiten dabela, diño Espiritu Santuak: Denpora labur gitxian bizi izan bazan bere, gitxi atan egin ta merezidu eban asko. Zerren beragan izan balitz, geiago ta luzerago bizi izan balitz, aurrerantzean bere zuzen ta ondo biziteko borondatea eukan ta borondate eta gogo on onegaz il zan. Berberau esan lei gaistoak gaiti bere, denpora gitxian asko egin ebela; ta denpora gitxi laburrean egin zituen pekatuak gaiti emon jakela kastigu luze sekulakoa; zerren denpora laburrean egon bazirian bere pekatuan, luzea zan pekatu egiteko euki eben borondatea; ta jarraituko eutsen pekatuari denporeak irau baleu geiago; eriotzeak laburtu ezpaleutse bizia.

Gaistoak dauken legez gogo, asmoa, borondatea aurrerantzean bere gaistakerian egoteko ta biziteko, alan onak bere dauke borondatea ontasunean aurrera igaroteko; ta artan azkeneko arnasa emon artean irauteko. Iraute santu au eztozu larga bear gure kontra ifini arren mundua, deabrua ta aragi gaistoak; orduan bear dogu kontu geiago euki. Itxasoan dabiltzenak ekatx andiak artu arren, axeak jo arren, ura amurratu arren ezñra bereala desesperatuten, biotz-jausten; portu edo kaian sartu artean jarraituten dabe, alegin guztia egiten dabe.

Alan, guk bere egin bear dogu zeruko bidean gabiltzan artean gure kontra jagiten direan neketan, tentamentuetan, gaixotasunean, persekuziñoetan; ez mirutu, ez bildurtu, ez itxi bide onari. Eztozu egin bear tximinoak legez: intxaurra jan gura izanik, itxiten dau jan bage kanpoko azala austeko nekea gaiti ta galduten dau barruko mamiña. Kristiñau ona ezta lenengo okasiñoan ta tentaziñoan jausten, izutu ta itsututen; orduan obeto defenditu, biztu, sendotuten da.

Su txikia, kandela argia axe gitxi batek amatetan dau; baña sutegi andia, ikaztogia axe andiaz andiagotu, biztu ta geiagotuten da. Alan, deboziño txikia, epela, gogo ta birtute argala amatetan da edozein tentaziño, okasiño, axe ta gauzaren gitxianaz. Baña deboziño ta birtute andia, fina, sendoa, sustrai indartsuak bota dituana, azi a geituten da tentaziñorik andienetan, persekuziñorik latzenetan.

Esatea kristiñau egiazkoak ta onak ezteriala geldituten, zabartuten, aspertuten, nagituten azkeneko orduraño ezta aditzen pekatuarean bere egin bage egoten direala asieratik azken giño, txikitarik zartasuneraño. Bada, Salomonek diño zazpi bider egunean jausten dala danik justuena pekatu txiker arinetan. Esan gura dau, bada, pekatu baten jausten danean

atarik bereala, artan gelditu bage jagiten dala; ta gero ardurazo kontua ifintin dabela ez barrero jausteko; ta azkeneraño ondo irauteko.

Batzuk artuten dabe gogo denpora baten ez pekatuarek egiteko; danik gaistoak bere nosik bein artzen ditu ondu ta obetuteko asmoak; bizitza barri bat egiteko deseoa. Baña pekatuarek bapere ez egiteko gogo, onean irauteko borondatea geroko itxiten dabe. Bauka gure onek bere emen bere bizilekua, etxea ta ostatua. Bada, geroko irautasuna sendoa izango bada, orainganik abiatu bear gara orretara, geroko arriskatu bage. Jagi ta jausi dabillanaren bizitzea peligrutsua da; batez bere jagirik baño, denpora geiago badabil jausirik pekatuan, geienetan ta geienakaz dakuskun legez. Asko dagoz aste baten edo bitan pekatuan jausi bage; baña gero emoten dabe urte bat edo amar pekatuan sarturik. San Agustinek diño pekatu egite berak baño geiago aserraturten dabela Jangoikoa pekatuan luzero irauteak; damutu, konfesatu, penitentzia egin bage denpora luzean egoteak.

4 §.

Ebagi ezkerero aretx bat, atarik barrero sartuten badira erroak, umeak, txirpia, sustraiak, adarrak, señaile da, agiri da etzenduala atera osoro ta ondotik, gelditu zala sustrairen bat. Zauri lлага bat bein osatutzat larga ezkerero bereala gaistotuten bada, adigarri da etzala ondo osatu, zerbait sendatu bage gelditu zala.

Alan bada, bein pekatuarek osatu ezkerero bertati bertara biurtzen bada, esan lei etzala ondo osatu; etzala ondo konfesatu; etzala egiazkoa bere penitentzia; pekatuaren sustrairen bat biotzean gelditu zala; ezta artu gogo sendoa pekatuarek ez biurtzeko, pekatuaren okasiñoak, bideak, lagunak, etxeak, arrisku ta peligrak aldegitoko. Egia da ondo konfesatu ta garbitu ezkerero bere jazo litekela barrero jaustea ta pekatu egitea; bada, pekatuaren sustrai ta zimendua izanik libertadea, onek barrero artu ta maitetu lei len itxi ebana, len gorroto ebana.

Baña, orrez guztiaz, bein jausi bein jagi ibiltea señaile txarra da ta gure galdugarria. Zer balio dau orain etxe bat egitea, gero desegin ta banatuten bada? Zer balio dau orain pekatuarek jagitea, andik laster barrero jausten bada ta jausi ezkerero bertan gelditu ta lozorroak artuten badau? Zer balio dau erri baterako bide luzea ibiltea, gogo daben lekura elduten ezipada; bide erdian geratuten bada edo atzera biurtzen bada? Zer balio dau ontzi ondasun batek igaro izanaz itxaso luzea, ekatx ta arrisku bil-



durgarriak, baldin portuaren aurrean edo portuan bertan ito ta ondatuten bada? Zer dogu etxea asteaz, azkenduten ezpada?

Ezta asko ondo astea: akabatu bear da, jarraitu bear jako lanari, ezta larga bear zeruko bidea. Judas Apostolua ondo asi zan ta dongero akabatu eban. Loten emaztea bere ondo asi zan Angeruaren agindua kunplitzen, esan eutsezanean Sodomako erri gaistotik urteiteko; baña guztia galdu eban atzera begiraturik ta onegaiti gatz biurtu zan. Eta gatz biurtze onen ganean diño Glosak: Gatzak dauka indarra ta birtutea aragiari irau eragiteko ta janariari gustua emoteko. Ta orregaiti atzera begiratuaz gatz biurtu zan. Andra gatz biurtu onek ta oni emon jakon kastigu andiak darakusku eztogula lengo bizitza gaistora biurtu bear, ez len euki doguzan lagun gaistoetara ta pekatuetara gogoa itzuli bear. Jesusek San Lukasen aotik dirausku gomute gaitezala Loten emazteaz, ikasi daigula aren buruan ta agan, ari jazo jakona gertatu ez dagigun; ta aren gatzaz gatziturik legez, pekatuan ustelduteaz gorde gaitezana.

5 §.

Ezta atzera begiratu bear, bada, alan begiratuaz izan da okerra etorrea. Ejenplu edo kontu bat dago alkar il gura eben artean jazoa. Gizon aserratu bi asi zirian ezpataka; eta batak maliziaz esan eutsan besteari: Ola, ola, bioa ortik zure atzean dagoan gizon ori; ez nas ni bien kontra ifini. Orduan, ustez egia ziñoala, begiratu eban etzara; ta bitarte atan jo ta sartu eutsan ezpatea. Alan egin daroioe deabru asmutsuak atzera ta lengo bizitza gaistora begiratu ta biurtuten direanai.

Ezta zerurarako gai, diño Jesu Kristok, lurra goldeaz landuten ibillirik atzera begiraturen dabena. Goldeaz, bostortzaz, atxurraz lurra landuten dabillanak atzera begiraturen badau, oker egingo dau; ezta izango gol-delari, langille, atxurlari ona. Lan bear batzuk bagoz atzera, albora, nora nai begiratu arren egin litekezanak, zelan direan jatea, edatea, berba egitea. Baña badira beste batzuk, zelan direan eskribitzea, pintatzea, jostea, ondo ta artez egiten eztirianak albora edo atzera begira. Alan da, bada, zeruko bidea bere: baldin kontuz ezpagabilz, aurrera begiraturen ezpadogu, lengo bide oker pekatuzkoa itxiten ezpadogu, lengo okasiño ta arriskueterik iges egiten ezpadogu, ezkara beinbere zerura elduko; lan egin guztia lenago galduko dogu. Zerren zeruko bidean aurrera eztoana atzera dabil, eztau balio geldi egoteak.

Ero zoro buru bagea da bein presondegitik iges egin ezkerero ara biurtzen dana. Eta bai bide baten lapurrak ostu ezkerero, euretara biurtuten dana. Alangoak animalia abere adimenturik eztabenak baño adimentu ta zenzun gitxiago dauke. Bada, abereak bere adimentu bageaz biurtzen ezтира len deungero erabili dituezan lekura: ardi bat, zaldi bat eztoa len otsoak gatz egin deutesen lekura.

Onen ganean diño San Pedro Apostoluak: Obe leukean egiazko bidea ez jakitea, jakin ezkerero atzera biurtu baño. Alan aditzera emoten dau San Lukasek bere, diñoanean: Bein bota ezkerero arimatik edo gorpuztetik deabrua, bere erruz barrero sartzen itxiten deutesanean deungago dago orduan bigarren atan, lenengoan baño; peligruzkoago da bigarren sarrera lenengo baño; azkenekoak lengoa aztuten dau. Onegaitik Jesu Kristok esan eutsan osatu eban perlesiadunari: Bakusu osatu zareala; begira, bada, biurtu etzaitzean gatzera, len baño txarrago ifini etzaitzean. Dongea da gaixotasuna, baña gaistoago barrero gaixotasunera biurtutea. Txarra da lllaga zauria; baña txarrago barriztautea. Deungero da konfesatu bage egotea; baña alde gaiztoago konfesatu dan pekatua ostera ta ostera bere biurtutea. Bigarren biurrera ta jauste au injuria ezainago da Jangoikoaren kontra.

Ezagera bagetasun ta esker bagetasun andiago da konfesatu pekatua, Jangoikoak parkatu, egin promesa ta eskentza andiak, emon berbea ez pekatu geiago egiteko ta gero ausi promesak, aztu propositu onak ta biurtu lengo gaistakerietara ta barrero Jangoikoa ofendietara.

6 §.

Ain da andia, ezaina, itsusia ta gorrotogarria bigarren pekatua, bein parkatu dana barrero egitea, ze onek beronek len parkatu zirianak bere biurtu legez egiten ditu. Eta ezta mirari. Bada, bigarren biurtze ak lengo pekatu parkatuak bere barrerotuten legez ditu, gogora ekarri ta biztuten ditu moduren baten. Eta alan Justiziak bere bein azotatua ta markatua artuten badau, gogorrigo kastigetatu dau.

Bein itxi eban pekatua barrero biurtzen dana bardinduten dau Espiritu Santuak, bere gomitu errebesua jatera biurtzen dan txakurrak. Eta San Pedrok bardinduten dau bere loi zikin atsitura biurtzen dan txarri belarluze lauoñeko urdeari. Ain gauza loi, zikin, kirats, atsitu, nazkagarria da txakur batek bere aotik bota daben errebesu barrero jan ta irunsiten ikustea, ze Espiritu Santuak berak usatu eta ifini ezipaleu irudintza au,



ez nintzan ni aurreratuko aitetu ta izentatutera. Eta, bada au gomutetan dau Espiritu Santuak, guk bere esan daigun beste orrenbeste dala pekatu konfesatua aotik aterea ta errebesatua barrero irunsitea, ostera bere a jate-ra biurtzea. Bada, txakurraren errebesu gomitua baño loi zikiñago da pekatua.

Nor, bada, biurtuko da, lengo pekatuaren eden nazkagarria larga ezkeru, beste bain edatera? Esan daigun Kantikoetan esposea gaz: Oñak garbitu dodaz, zelan barrero loituko dodaz? Alkondara loa eranzi ta kendu dot; zelan, bada, janziko dot? Ondo konfesatu ezkeru, pekatua ta pekatuko okasiñoak, bideak, lagun gaistoak kendu ezkeru baldin munduak, deabruak, aragiak tentetan bazaituze barrero pekatu egitera, lengo pekatua biurtutera, eranzun egiezue: Zelan nik ori egin nei? Garbitu dodaz oñak, apaindu dot neure arimea: zelan, bada, loituko dodaz? Eranzi dot alkondara zikiña, bota dot niganik pekatua: zelan barrero janziko dot? Billostu nas oitura, ekandu, bizio gaistoetarik: zelan, bada, neugana biurtuko dodaz? Larga ta itxi nituan betiko: zelan beste bein artuko ditut? Barrero maitetuteko, zetako itxi nituan? San Agustínek diño: Baldin damuturik, garbaiturik bazagoz lengo egiñaz, eztozu geiago egin bear; ta egiten badozu agiri da eztozula lengo deungero egiñaren damurik.

Diferenzia andia dago salbetan dirianen ta salbatzen ez tireanen artean; eta diferenzia au eztago guztia pekatu egitean edo ez egitean. Bada, salbatu direanetarik batzuk jausi zirian pekatuan, dakuskun legez San Pedrogan, San Maria Madalena ta beste askotan. Baña diferenzia dago, Santuak nos bait pekatuan jausi baziran, laster larga eben, egiaz damutu zirian, benetan ondo ta obetu zirian ta bein pekatua itxirik etzorian atara biurtzen.

Au da, bada, guk bere egin bear doguna. Oraindiño jarraitu badeutsegu Santuak pekatu egitean, jarraitu daigun penitentzian, pekatua ez biurtutean. Azkeneraño ta azkenean ondo irauten dabenak irabaziko dau zerua ta izango da koroitua, saritua, doatsutua. Eztago konturik len egiñaz baldin atzerengo orduan galtzen badau len irabazia.

Beragaiti, geure kontu ta ardura guztia ifini bear dogu ondo irautean eriotzaraño; onetarako gaur asi bear gara gerora begira egon baga; gero-ko benturan arriskatu baga; largarik bein betiko pekatua ta bizitza txar gaistoa. Orretarako, artu daigun orainganik damu andi bizi bat lengo pekatu egiñaz; gogo ta propositu sendo egiazko bat ez pekatua sekula biurtzeko; agertu lotsa bage Konfesiñoan geure pekatuak; jarraitu biziera santu bati; eskatu onetarako Jangoikoari bere eskua, laguntasuna, grazia ta irautasuna bere adiskidetasunean ta gero bere zeruko gloria.

44. BURUA

*Ikusirik infernuko bidea dala gatxago Zeruko baño,
bear dogu larga gerotik gerora ibiltea.*

1 §.

Askotan egon nas neure buruaz gogoetan ta deritxat gogoraziño ardurazkoa dala ea zein dan gatxago, nekezkeago: ala Jangoikoa serbietea, ala deabrua; zerura joatea ala infernura. Era bitako presonak dagoz beste munduan: batzuk zeruan ta beste batzuk infernuan. Bi aetarik, zeinek igaro ete eban munduan neke eta pena geiago? Au jakin gura neuke, au itandu, au da nire gogoeta.

Ustez esan lei ta dirudi neke, latztasun, aldats geiago igaro bear dabela zerura doianak zeruratuteko, infernura doianak infernuratuteko baño; bada, zeruko bideak gatxago dirudi infernukoak baño; begiraturik Jesu Kristok diñoala Ebanjelioan: Zerura doian bidea estua, bedarra dala ta gitxi direala bide au topauten dabenak. Onegaz adirazoten dau gatx dala zeruko glorian sartzea, asko kosta bear jakula an sartutea, irabaztea, Jangoikoaren mandamentuak gordetea. Bada, eztago bide bat baño ta ori nekezkoa, aldats gora, buruz gora, aragiaren ta gogoaren kontrakoa, aranzaz eloriz ereina, indar ta alegin andiak egin bear dira zeruan sartzeko. Eta, orrez geiago, ezta bide artan zearretara ibilli bear, ez atzera ta alborra begiratu bear: mandamentuak gorde bear dira.

Baña infernura joateko eztago ausi bearrik mandamentu guztiak; asko da batean gauza andian uts egitea. Santiago Apostoluak diño Jangoikoaren lege santuko agindu guztiak kunplitu arren, batean uts egiten bada, guztietan errudun egiten dala. Eta au adietan da Glosak diñoan legez: Guztietan egiten dala pekatuduna, ez pekatu askori legez, pekatu bakar bati dagokiolako pena ta kastigu bardiña, ezpada pekatu bakar bat, ain ziur zein amar pekatuak daroelako infernura; egia da amar edo eun pekatu egin dituanak eukiko dituala infernuan pena andiangoak, bat bakarra egin ebanak baño; baña batak eta besteak sartzen dabe infernuan: mortal bat da asko ara joateko.

Beraz, gatxago dirudi zeruan sartzeak, onetarako mandamentu guztiak gorde bear badira, bide bat baño ezpadago ta ori estua, latza, gogo-



rra ta nekezkoa. Eta, alan, San Pablo Apostoluak bere santutasun guztiaz bere, au gogoraturik esan eban: Ai, ene ditxa bagea, ene zorigaistokoa ta errukigarria; nok librauko nau gorputz ilkor ustel onetarik? Bada, ni nas aragizkoa ta legea espirituala. Zer ikuskizun dau, bada, espirituak arimeak gorputzaz? Zelan konpondu, alkartu ta ondo artuko dabe bata bestea?

Nekezko lana da au ta ain andia, ze ondo esan eban Salomonek: Buzterri astuna ta karga andia darabilde Adanen semeak jaiotzen direan egunetik eriotza giño; euren amaren sabeletik urtetzen dabenetik, sepulturarako lur guztien ama gana biurtu arteraño. Onegaiti diño Jesu Kristok San Mateoren aotik zeruko erreinuan sartzeko indar ta alegin andiak egin bear direala; an sartuko danak egiaz, benetan gogo ta asmo guztiaz arduratu bear dala.

Job Santuak bere diño zerua irabaziko dabenak gerran dabiltzan soldaduak beste neke igaro bear dituala. Bada, izanik gure bizitzea gerra bizi jarraitu bat, gu ta soldadu gerrariak bat gara. San Juanen esana da ikusi zituala justuen eskuetan palmak; palma adarrak, erramu, ereñotza erabilli oi da bitoriaren seña adigarritzat. Bitoriarik eztago lenago gerra izan ezpada ta gerreak berez ta beragaz dakarz neke ta penak. San Pablok diño ez tala koroitua izango, ez bitoriadun geldituko biziro peleatzen eztabena.

Zeinbat eta bat dan kristiñau ohea, Jangoikoa serbitu ta deabruaren kontra egiten dabena, ainbat geiāgo ta gogorrago esetuko deutse bere arerioak. Alan adietara emoten dau Espiritu Santuak, diñoanean: Ene semea, asten zareanean Jangoikoa serbieten zagoz kontuan ta presta zaite tentamentuen kontra emoteko. Bada, orduan iños baño tentatuago, persegiuago izango zara. San Pablok diño: Jesu Kristogan bizi gura dabena, bere agindu santuak gorde ta bizitza santu garbi on bat egin gura dabenak persekuziñoak, naibageak ta neke andiak igaro bearko dituala. Oni jasoko deutsez testimonio guzurrezkoak; oni barre ta burla; oni munduak kontra egin ta gogor artuko dau.

Eta jazo baledi bere izatea munduan persona batzuk ain santuak, justuak, onak, artezak eta zorioneko dontsutuak, zeinek gaiti iñok deungero esaten, ez euren onra ta faman ukututen; orrez guztiaz, egin izango da San Pablok diñoana: tentatuak, persegiuak izango direala onak. Zerren, kanpotik gerrarik ez euki arren, eukiko dabe euren barruan dala griña gaistoa, dala aragiaren tentaziñoa, dala naigura zitela edo beste bizioeren gerrea.

Gerra, kontratasuna, ikusi ezina dauke alkarren artean birtuteak ta bizioak. Suberbia, andiuste, arrotasunak gerra egiten deutso umiltasunari; abarizia edo zekentasunak, prestutasunari; lujuria edo loikeriak, kastidade

edo garbitasunari; aserrakuntzeak, pazienziari; guleriak edo sabeldarroiak, jan edanean begiratuaz izateari; enbidia edo ikusi-ezinak, karidade edo maitetasunari; nagitasunak, prestutasunari. Bizio oneetarik bategaz edo besteaz dira persegiuak, tentatuak justuak, onak, santuak euren barruan. Ta beti izango da egia pena, neke, krutze, aldats gora bera latsak igaro bear direala zeruko glorian sartuteko; ta krutze bage iñor eztagoala.

2 §.

Besteti, barriz, dirudi infernuko biderei darraionak eztaukela igaro bearrik orrenbeste neke, persekuziño, krutze ta gerra; bere gogora dabilalako, buruak emoten deutsan guztia egiten dabelako, aragiak dirautsan erara bizi dalako, bide zabal atsegiñezkoan dabilrelako. San Mateok diño andia, zabala dala infernurako bidea ta atea; asko igaroten direala bera ganik. Oñatza ta laguntza asko topetan da bide gaisto onetan.

Gaistoak darraioen infernuko bidea deituten da zabala ta andia, an dabilzenak dabilzelako zuzenbide bage, ordea bage, nola nai. Ez dabe euren borondatea baño beste zuzenbiderik; eztabe legepean egon gura; legea dauke euren azpian. Bide uts eginak dabilz, bide onetik kanpora, nondik nai, guztia da eurentzat bidea ta bide zabala. Eta, zelan zabal dabilzan, lagun askoren artean, euren gustura dabilz.

Atsegin da, juramentuak, biraoak, erneguak ta aora datorren guztia esanik, gura daben guztia egitea; nai dabena lotsatu ta iraindutea. Atsegin da domeka ta jaiak emotea solasean, jan edanean, joko luzean, dancan, konturik euki bage mezaz, bezperakaz, errosario santuaz, Jangoikoaren gauzaz. Atsegin da aragiaren griña txarrai jarraitutea, naikunde guraria gaistoak kunplietea. Atsegin da injuria, bidebage, laburtasun edo zantarkeria bat egiten deusunean bengatutea; ordeaz ordetutea, moneda berean pagetea.

Atsegin da bidebagezko saldu erosietan lapurkeria, tranpa ta engañuak eginik ta aberasturik besteen lepora bizitza gozo bat igarotea. Atsegin da oe onean ta bigunean etzatea, gorputzari gozotasuna ta olgura emotea. Atsegin da ez baraurik egitea, ez nekerik ta latztasunik igarotea; ondo jan, obeto edan; bazkari ona gaiti afaria ez galdutea. Azkenez, atsegin da bere gogoak, bere buruak, bere griñak dirautsen erara bide zabalean ibiltea.

Baña ezta atsegin, ezpada gatxa ta nekezkoa zeruko bide estu bedarrari jarraitutea; mandamentuak ausi bage beti zuzen ibiltea ta bizitea.



Gatx da miña artez goberneta, jausi baga ibiltea, zeure burua legez besteak maite izatea, besteak zu gaiti deungero berba eztagian, gura dozun legez, zuk bere aek gaiti ondo esatea. Gatx da injuria, bidebage bat egiten deuntsunari parkatutea; dongero berba egiten deuntsunari ez eranzutea; zeure eskuan eukirik, ez bengatutea. Gatx da, aragiak tentatzen zaitue-nean ta era izanik, ez pekatuan jaustea.

Gatx da tratuetan, saldu erosietan beti egiaz ta zuzen ibiltea; besteren ondasuna zeure eskuan zeure kontura erabillirik, ez okerrik egitea; errotan urunik, olan autsik ez eransitea. Gatx da ol edo lur gogorraren ganean, zeure oe biguna largarik, lo egitea; zilizio edo ulle latzezko nekegarri zerdazko bat aragiaren ondoan erabiltea, odolezko azoteak eroatea. Gatx da barau egitea, jateko ta edate ona dozunean Jangoikoa gaiti itxitea; gauza zalegarri gozoak largatzea. Eta, azkenez, gatx da ta nekezkoa, munduan egonik munduan ezpagengoz legez bizitea, lurrezko ondasun ta gozotasunetan biotza josirik ez eukitea; gizonen esa mesai ez jaramotea; arerioai parkatutea, persegillak gaiti oraziño egitea; geure burua ukatu; griña gaistoak ezi; guztian ta beti Jangoikoaren borondate santua egitea, bere agindu santuak gordetea; aragizkoak ezpagaña legez Angeruen antzera bizitea.

Bide onek gatxago badirudi bere, eztago besterik zerura daroanik: au da zeruko bidea, au da an sartuteko atea. Erakusirik, bada, bide biok, erraz da oraín eranzutea lenengoan egin dogun itaunari: ea zein dan gatxago, zerura joatea ala infernura; zeruko bidea alan infernukoa. Bada, esan dogunetik ateretan da argiro errazago dala, leunago, gustosoago zeruko bidea, infernukoa baño. Eta infernura doianak pena, neke, krutze andiagoak, latzagoak, gogorrigoak igaro bear dituala emen munduan bere infernura joateko, onak, justuak, santuak, Jangoikotiak zerura joateko baño.

Urrengo Buruetan erakusiko da argiroago, zeago errazago dala zeruko bidea infernukoa baño; gitxiago kostetan dala salbetea, kondenetea baño; gozago, arinago, eroankizunago dala Jesu Kristoren buztarria, deabruarena baño.

45. BURUA

Zeruko bidea ze erraza dan.

1 §.

Egi au, zeruko bidea erraza dala, era askotara ta errazoi askogaz baieztu lei. Lenengoa da San Juan Ebanjelisteak diñoana: Jangoikoaren aginduak eta lege santua ezala astuna, ezala gatxa, ezala nekezkoa. Espiritu Santu berak diño: Mandamentu santuak gordeten dituanak eztau gatxik ikusiko; alangoa pozik, atsegiñez beterik biziko da. Jesu Kristo egiak berak diño: Erdue nigana neketurik, arikaturik, astundurik zagozan guztiok ta nik arindu, gozotu, neke bagetuko zaituedaz. Artu egizue nire buztarria zuen ganean ta ikasi eizue niganik ta ni nasan legez umillak izaten ta idoroko dozue zuen arimentzat bakea, sosegua, konsuelua ta atsegiña.

Ikasbide onek, diño San Otilariok, berba egiten dau batezbere legezarreko zirimoniaz kargaturik ta pekatuaren pisuaz astundurik bizi zirian mundutarrakaz. Onei dirautse Jesu Kristok legez aldaturik, lengo lege zarra largarik ta pekatuen karga astuna itxirik, artu daiela beste karga modu bat, buztarri leun arinago bat, bizitza molde errazago bat, lege gozagoa ta agindu barri batzuk lengoak baño obeagoak, zelan dan Ebanjelio santua ta, onen moldera bizirik ikusiko dabela ze gozo, ze arin, ze pozik aurkituko direan; ta gogo onaz ze erraz, ze neke gitxiz serbituko daben Jangoiko maitea; ta ze leuna ta arina egingo jaken bere lege ta buztarri santua jasotea, zeruko bidean ibiltea, pekatuak iges egitea, zerua irabaztea.

Jesu Kristok esan ezkerro arina, gozoa ta jasokizuna dala bere buztarria, bere legea, alakotzat euki bear dogu, zerren Jangoikoak ezin esan lei guzurrik. Baña au berau diñoanak berak dirausku zeruko bidea estua ta bedarra dala, gatxa ta nekezkoa dala; ta gitxi dabiltzela bide onetan. Eta, barriz, infernurako bidea andi zabal gustoso dala ta askok igaroten dabela. Batean adirazoten dau erraza ta zabala dala zeruko bidea ta bestean gatxa ta gogorara dala. Batek esan gurako dau zelan liteke au? Zelan erraza ta gatxa, estua ta zabala? Orra emen non erakusiko deutsudan.



2 §.

Gai oni eranzuteko jakin bear da ze, baldin alde batetik Jangoikoaren lege santuari berari begiratuten badeutsagu ta ze zuzen ta osoro gorde bear dogun; ta bestetik geure aragi argal erbal jausikorrari, irudiko jaku gatx ta latz dala Jangoikoa serbiete ta onen lege ta agindu santuak gorde-tea. Baña gogoratuten badogu Jangoikoaren laguntza, etorkizuneko itxaromena, sariaren segurantzta, gogo on ta borondate amorezko baten indarra; ta, guztien ganetik, ontasunean dabillanari Espiritu Santuak emoten deusn indarra, berotasuna, biotz ta gogoa, espiritu ta laguntasunari begiratuten badeutsagu idoroko dogu eztala gatx, ezpada erraz; ez estua, ezpada zabala; ez astuna, ezpada arina ta gozoa dala Jangoikoa serbiete ta are lege santua gorde kunplitu ta betetea.

Gatxa dirudi Jangoikoa ganako bidea ta bere agindu santuak gorde-tea. Baña, norentzat dira gatx? Barrientzat, oitu bagentzat, nagientzat, nasaientzat, epelentzat, gogoz ta borondatez abiatuten eztirianentzat, aurrera ta gerokora begiratu bage, etorkizunaz konturik euki bage, aragiak eskatu ta buruak emoten deusena egiten dabententzat, Jangoikoaren amorerik eztabenentzat. Baña ezta gatxa, ezta latza, ezta gogorra, ezta nekezkoa aragiari jaramon bage errazoiak baliatu ta gobernetan direanentzat, etorkizunari begiratuten deusnentzat, gogoz, amorez ta egiaz abiatuten dirianentzat.

Baldin Jesu Kristoren Ebanjelioa, legea, buztarria karga dala enzuteaz larritu, bildurtu, atzeratuten bazara, diño San Juan Krisostomok, zeure otztasunari, nagitasunari, zeure buruari errua bota egiozu ta ez bes-teri. Bada, gogoz ta borondate on batez prestaturik abiatuko bazintez, ez litxakezu irudiko gatx nekezkoa, ezpada gozoa, arina, erraza. Bada, San Krisostomo berak diñon legez, berez gatxa, astuna, nekegarria dan gauza bat erraz arina, gozoa egiten da gogoz ta pozik artuten danean. Mandamentu guztiak dira errazak amorea dabententzat, diño San Agustinek. Dan gauzarik errazena egin bedi gogo gaistoz: ta gatxa izango da; danik gatxena egin bedi gogo onaz: ta erraza izango da.

Onegaiti San Juan Ebanjelisteak, amorea dabenez ta eztabenaz berba egiten dabela, diño: Amorea dabentari mandamentu guztiak irudituten jakaz bat. Baña amudiorik ez dabentari mandamentu bat bakarra iruditzen jako asko mandamentu. San Agustinek diño amoreak daroala bakotxa gura dabent lekura, pisuak balanza daroian legez. Guztia dago goan, guztia dago borondatean ta amorioan.

Mandamentu guztiak amoriotik ta maitetasunetik asten dira, kunplitzen dira, gordetan dira ta maitetasunera, euren tokira, lekura, azkenera, etxera legez bildu, batu ta biurtzen dira. Bada, au alan izanik, maitetasuna, karidadea daukanentzat erraz izango da mandamentu guztiak gorde-tea. Amoreak mandamentuari euren garratztasuna gozotuten deutse; mintasuna eztitu ta gozorotu; gatxatasuna erraztu, astuntasuna arindu.

Dabid Erregea egoan amorez suturik ta, Jangoikoaren mandamentuak errazak iruditurik, esan eban: O, Jauna, zure aginduen bidea ain da bide gozo atsegiñez eztitua, ze onetan ibilteaz atsegin geiago artzen dot munduko aberatstasun, ondasun ta olgura guztietan baño. Ezin esan nei ze gozotasuna emoten deusten nire aoan ta saman zure mandamentu santuak: eztia baño gozoago egiten jataz. Amoreak beroturik ta sendoturik egiten zituezan lenago Santuak Jangoikoaren serbizioan ainbeste balentia; igaroten zituezan neke ta penarik gogorrenak, eriotza ta martirio latz arrigarriak.

Zelan ta zegaiti Jakob Aitaurren santuari iruditu jakazan laburrak ta denpora gitxikoak Rakel ederraz ezkontzea gaiti igaro zituan zazpi urteko neke ta serbizioak? Maite ebalako, asko gura eutsalako. Amorioz beterik biotza eukalako. Amudioak aldats guztiak goiartu, benzututen ditu. Agaiti Santuai eritxen entero gitxi Jangoikoa gaiti egiten eben guztia, maite ebe-lako. Apostolu Santuak nos eta persekuziño, desonra, kartzela, neke gei-ago eukeen, orduan egoten zirian pozago, kontentuago; gozotasunez betetzen zirian zekusenean euren buruak persegiturik, azotaturik; Jangoikoaren amorez beterik egozalako; Jaunak berak indartu, sendotuten zituan gogortadeak, nekerik andienak igaroteko.

Orregaiti diño San Agustinek: Amorioz ta gogoz dabiltzanen nekeak eztira nekezkoak: aotan atsegin artzen da. Eiztariak, arraintzalleak, pelotariak, danzariak nekatzen dira; baña, orrez guztiaz, neke guzti a solasa, olgura, dibersiño, fiestatzat artuten dabe. Maite dan gauzan edo ezta nekerik, edo maite da nekea; edo ezta lan latzik edo, baldin bada bere, atan olgura artuten da.

Ikusiko dozu zeinbat neke igaroten dituan ama batek bere ume txikiaz; ta alanbere, umetxoa gaixorik, mindurik, errerik, negarrez ernegaturik, gogaiturik, zikindurik dagoanean ta bere loa, sosegua, jana, eragozten deusanean bere, ari daragoio, zaindu ta kontuz darabil gau ta egun. Bai ta onetan atsegin artzen dau; ta seintxoaz milla erokeria esaten dituala jostatu, jolastu, poztuten da. Eta au guztiau maite dabelako, bere biotzeko kutuntzat daukalako. Maitetasun, asko-gura onek aztu-eragiten



deutsaz neke guztiak: poztu, gozotu ta ezerzat emon gauzari gogor, gogaikarrienak.

Onela, bada, kristiñau fededun bati bere arindu, erraztu, gozotuten deutsaz neke pena guztiak, aztu erazoten deutsaz Jangoikoaren lege santua gordeteko igaro bearko dituan nekeak, berari deutsan maitetasuna gaiti. San Agustinek diño amorioak leundu, eztitu, arinduten dituala gauzarik latzenak, gogorrenak, nekegarrienak. Ezta gauzarik amorearen indarrak bigundu, ezi, beraatu, goiartuko eztabenik. Amorante batek, amorez beterik ta itsuturik dagoan batek nekerik andienak daroaz gogo onez; gau ta egun txar asko igaroten ditu bere adiskide maitea gaiti. Guztia egiten jako utsa ta eroankizuna, amoreak itsuturik daukalako.

Munduko amudio aragizkoak au egiten badau, zer egingo dau Espiritu Santuaren suaz, amoreaz, graziaz ukuturik, beroturik, garturik dagoan arima batek? Zeinbat gitxiago sentituko eztitu munduko nekeak; eta zeinbat errazago erango eztitu Jangoiko maitearen serbizioan idoroten dituan aldats gorak, krutzeak, naibageak ta nekeak? Bada, amudio garbiak, zeruzkoak, Jangoikoa ganik datorrenak indar geiago dauka ta euki bear dau, deabrua ganik datorren amore nazkagarri, loi, zikin, kirats atsi-tuak baño. Eta onegaiti, errazoiak diño gure Jesus maiteak bere Ebanjelioko buztarria leun erraza dala ta bere karga edo zamaia arina dala.

3 §.

Gogoazko gauza gozo, arin, erraz, maitegarria da Jangoikoa serbiete ta bere agindu santuak gordetea, ez asieran, ez lenengoan, zerren aragi gaistoak, griña txarrak, usadio, ekandu ta oitura deungeak kontra andia egiten dabelako. Baña, atara egin ezker, probatu ezker ta espiritua aragiari jaundu ezker, ez da munduan Jangoikoa serbitzea baño gauza gozo zalegarriagorik. Zapatak oñetakoak janzi barrian estutu ta min egiten dabe; baño, egun batzuetan erabilli ezker, moldatu, bigundu, oñaren neurriera datoz. Oña sorturik, loak arturik dagoanean ta gorputza gogor, nagi dagoz ibilteko ta jagiteko; baño bein jagi ezker, piska bat mugitu ezker, bertati sendotu, indartu, irazarri ta bizkortuten dira; presona jatun batek, matralla andituz aginetako minaz dagoanean, eztau gusturik artzen jaten asten danean, lenengo kopauan; baño bein asi ezker, andik ara jaten dabena ona ta gozoa idoroten dau.

Berberau jazoten da Jangoikoaren serbizio santuan ibilli gura dabena: lenengoan ikusten da nagi epel, gogor, agor, leor, atzeraturik; baño, artara egin ezker, abiatu, zaletu ta oitu ezker, berotuten da; gogor darraio Jangoikoari, ezta aspertuten, ezta ase betetzen. Beste janariak ilten dabe gosea, diño San Gregoriok, baño Jangoikoaren serbizioko jateko on onek geitu ta biztuten dau. Zerren barrurago obeago ta gozoago idoroten dan.

Munduko atsegiñak, diran andienak bere, denporeaz aspertuten dabe; baño Jangoikoaren geroago ta geiago biztu ta geituten dabe gustua. Eta andik ara ekandutu ezker, atsegin andia da Jangoikoaren bidean ta serbizioan ibiltea, bere agindu santuak gordetea, bizitza on bat egitea.

4 §.

Baita atsegin andia da Jangoikoa serbitzea emendik datorren probetxu, sari, irabazte ta ona gaiti, baldin ifinten baditu gogoa ta begiak zeruan emongo deuten sari ugari gozo betean. San Juan Krisostomok diño gauzarik gatx nekezkoenak egiten direala erraz, gozo, arinak etorkizunezko bizitzaren itxaromenaz. San Agustinek diño dan lanik andiena txikituten dala, kargarik astunena arindu andik etorriko dan irabaziari begiraturik. Lan bearraren konsolagarria dala sariaren esperanza. Gura badozu, diño Santuak berak, iraun lanean, gogoratu egizu oni darraion sari ta irabazteari.

Jatekoaren gisua, diño San Ambrosioak, dala baraua ta gosea. Zeinbat gose gosetiago, ainbat janaria gozoago, zalcago. Zelan gosea dan janari guztien salsea, janbidea, gisua: neke guztien konsolagarria, zalegarria, atsegin emollea ta arintzalllea da nekeari datorkan saria ta paga. Onegaitik, ziñoan Dabid Errege santuak: Erabagi neban, Jauna, zure mandamentuak kontuz gordetea, emetik elduko jatan sari, on, probetxua gaiti. IÑok ezer itxaroten eztaben lekuan, nagi dago; oiña astun dauko, gogoa illik, baño irabaztearen itxaromena dabena, oñak arin ta bizkor ditu.

Nekazariak frutuen esperanza gogo onez igaroten ditu lur lanetako nekeak, gose egarriak, otz beroak, eguraldi txarrak. Merkatari batek ondasunak irabazteko deseoz itxasoz ta leorrez, gau ta egun iños asper-tu baga egiten ditu joan etorriak, or emen ibilteak, bide-inguruak. Irabaztearen esperanza onek biztu, abiatu, irazartzen dau mundu guztia. Ta ori, alakoze esperanza onegaz egiten jakez udak negu, gaubak



egun, euria aterri, minak gozo, nekea atsegin, naibagea poza, pozkaria gozotasuna.

Bada, baldin mundu onetako irabazi labor uts baten esperanzeak ta askotan engañaturik itxiten gaituenak ain gogoz, ain arindurik, ain gozoro bearra eragiten badeusku, zer egin bear eztozu zeruko esperanza, uste, sari ta etorkizuna gaiti? Irabazte guztien ganeko irabazia gaiti? Au gogoratuten dabenari irudituten jako erraza ta gozo oraziñoan egotea; areriori parkatutea, aragiaren nai-gura gaistoak itxitea; barau egitea; sarri konfesetea; zeruko gauzetara emotea. Zerren daukan esperanza, oraingo neke laburrak gaiti emongo deusela zeruko gloria, betiko saria.

Agaiti diño San Agustinek: Gogoratuten badozu ze sari andia, ze zorioneko ondasunak emongo deusuezan oraingo neke gitxiak gaiti, esango dozu ez dozula orrenbeste merezi ain gitxi gaiti.

5 §.

Bai ta idoroko dogu erraz ta arin Jangoikoaren lege santua, gogoratuten badogu legeko buztarri au bien artean jasoten dogula: Jangoikoaren laguntzaz geuk. Onegaiti zirautsen Jesu Kristok bere ikasleai Jesemaniko Ortuan: Sufritu egizue orain emen puska bat, itxozue apur bat, zagoze piska baten irazarririk oraziñoan nigaz batera, nire laguntzan. San Pablo Apostoluak ziñoan: Nik besteak baño bear geiago egin dot, baño ez neuk bakarrik, ezpada Jangoikoaren graziak lagundurik; ez da gauzarik nire lagun on onegaz egin ez neikenik.

Konsuelu andia da geure lan, bear, estura, premiñetan lagun on bat eukitea. Konsolatu ta poztu gaitez, bada, ikusirik guztian lagunduten deuskula Jesu Kristo geure laguntzalle maiteak. Egiteko on baten zabil-tzanean, etzagoz inosbere bakarrik; zugaz dago Jangoikoa; lagundu, zuzendu, gidatuten zaitu. Ta onegaiti da erraza ta arina Jangoikoaren lege santua; berak parterik geiena, astunena jaso ta daroalako.

Jangoikoaren mandamentuak dira idien adarrak legez; barkuaren erremu edo arraunak legez; ontziaren bela; ta egaztien egoak legez. Adarrak karga dira; baño idiak karga onegaz karga geiago daroe. Dirudi kargeak karga eroaten laguntzen deutseela. Erremuak ta belak karga dira; baño eurakaz batera arinago ta lasterrago doa ontzia. Egaztien egoak bere badabe pisuren bat; baño pisu onek eztau astunduten kargea, ezpada arindu ta goratu. Bada, San Agustinek diñoalez, egaztiak darabilz lurtean bere egoak ta eurok jasoten dabe aidean egaztia bera: daroaz egoak ta

egoak daroe gora. Esan lei on baño kalte geiago egingo geuskiola egazti bati, errukiturik bere ganean daroian egoa kargeaz, kenduko bageunskioz egoak. Zerren aidean egaz pozik ebillana, lurrean bakarrik ibilli bearko leuke.

Beraz, karga badira bere, on dira adarrak, belak, erremeuak, egoak ta bai Jangoikoaren lege santuaren buztarria bere. Bada, buztarri au karga izan arren, onegaz batera obeto, errazago, arinago igaroten dira munduko nekeak, atsekaba ta naibageak. Jangoiko lege emolleak lagunduten deusku legea gordeten ta onetarako buztartu legez egiten da gugaz batera.

Au ezagaturik zirautsan San Agustinek Jangoikoari berba labor baño ederrakaz: *Jauna, emoiñu aginduten dozuna ta gero agindu egizue gura dozuna*. Ezta antsi karga izatea, indar andia ta lagun ona danean. Jangoikoa berak lagunduten badeustu jasoten, esan ziñei erraza, leuna dala bere buztarria ta arina bere karga edo zamaia.

6 §.

Gure lege santu ta aginduaren kargea ez bakarrik da arina, baita aringarria. Alde baterik kargatzen, astunduten bagaitu, bestetik arindu ta ateratzen gaitu beste karga, premiña, pisu askoren azpitik. Teologuak itanduten dabe ea guk geure pekatuak gaiti Jangoikoari satisfaziñorik, kitugarririk, ordearik emon giñeikion. Dirudi ezetz. Bada, Santo Tomasek diño satisfaziñoa, lema, ordetasuna edo kitu-saria dala; bestela zor eztoguzan obrakaz, geure esku ta naian doguzanakaz, gura badoguz baño egitera bearturik ezpagagozan akaz, zor doguna pagatu, kitutu, ordetutea. Bada, orrela dirudi ezin giñeikiola Jangoikoari kitutasunik, pagurik. Zerren dan Jangoikoa guztien ganeko ongillea, emollea, egillea, jabea; ta dogun guztia bere ontasun prestuari zor deusogun; aganik dogu guztia, berak emona da. Ta, au alan izanik, esan lei ez jakula ezer geure eskuan gelditzen, eztogula egite libererik berak agindurik eztanik; zeini teologuak deituten deutse obra gurez ganekoak, borondatezkoak, gura badoguz baño egitera premiñaturik ez gagozanak. Nola bait dirudi ez dala onelako obrarik; eta baldin ez pada, seguru da ezin kitutu giñeikiola Jangoikoari zor deutseguna.

Baña, orrez guztiaz, eranzun ta erakusten dabe Teologuak, alde guztietara zordunak bagara bere Jangoikoari, orrez guztiaz, obra asko direala geure nai gura libre borondatezkoan dagozanak, gura bagodu baño egite-



ra bearturik ez gagozanak, zelan direan bariku guztietan barau egitea, astegunetan meza enzutea, gauberdiraño oraziñoan egotea, lur edo ol baten ganean lo egitea, gorputzean zilizio, latztasun edo nekegarri bat erabiltea. Gauzok egitera ezkagoz premiñaturik, borondatezkoak dira geure aukeran ta eskuan dagoz. Bada, Jangoikoari zordun bagara bere ta geure alegin, indar ta gogo guztiaz serbidu bear badogu bere; baña Jangoikoaren ontasuna ta prestutasuna da ain andia, ze kontentu dago guk bere mandamentu santu guztiak gordeteaz; guk pekatuak ez egiteaz ta ganeko egiteak geure esku ta borondatean largetan ditu. Eta alan mandamentuen neurria ifinteaz ta señalatzeaz gitxitu ta laburtu euskuzan mandamentuak ta kargea arindu euskun. Zegatiti ze, mandamentu señalatuak ta neurtuak ifini ezpaleuskuz, gauza guztiak izango zirian mandamentu.

Onetan, bada, da agiri errazoi az esan ebalá Jesu Kristok: Ene buzarría leuna ta erraza da ta nire kargea arina, eroankizuna ta jasogarria. Alan da egiaz ta, karga izanik, da beste karga astunen aringarria, gitxigarria. Emeti atera lei zeruko bidea zuzen arteza dabillarentzat dala leuna, gozoa, erraza, neke gitxikoa, atseginez beta.

46. BURUA

Zeruko bidea errazago da infernukoa baño.

1 §.

Onen aurreko Buruan esan danaz agiri da Jangoikoaren lege santuaren kargea arina dala ta jasoteko erraza. Baña kargea da ta karga izanik segurubere nekeren batzuk eukiko ditu: eta, barriz, infernuko bidean dabiltzenak idoroko ditue atsegiñak, gozorotasunak. Orain, bada, dakusgun ea zeinek daben gozo, poz, atsegin eta neke pena, naibage geiago; zeruko bidean dabillanak ala infernukoan. Baña, duda bago, infernuko bideari darraionak neke geiago, karga astunago darabil. Eta orrenbeste ze, karga astun au ezin jasorik, ziñoan Dabid Profeta santuak: ene pekatuak igaro, erdibitu ta mindu dabe nire burua ta karga astun batek lege z zapaldu, beeratu, azpitu nabe guztiau.

Onegaiti dirautse Jangoikoak karga onegaz astundurik, arikaturik, gogaiturik dabiltzeanai: Erdue nigana nekepeturik, astundurik zagozan guztiok ta nik arinduko zaituedaz, nik, karga astun ori kendurik, beste arinago bat emongo deusuet. Onetan esan gura dau, San Agustinen ustez: Kenduko deusuet kargea; baña etzaituet karga bago itxiko. Kenduko deusuet karga gaistoa ta emon ona; kenduko deusuet mundukoa ta emon zerukoa.

Birtuteak, Jangoikoa serbieteak baukaz bere neke ta aldats gorak; ta bai pekatuak bere bere atsegiñak, gustuak, kontentuak. Baña, alanbere, birtutearen neke penak gozoagoak dira pekatuaren atsegiñak baño. Alan diño San Agustin berak: Gozoago eztitsuago dira, diño, oraziñoan izan oi direan negarrak, komedian, dantzetan, solasetan, munduko olgura atseginetakoetan dabiltzanen barreak baño. Ikusiko dozu persona deboto bat okelu ezkutu batean negarrez ta zizpuruka oraziñoan dagoala. Bai ta ikusiko dozu oraziñorik, deboziñorik, gauza onetarako gogo apur bat ezataukan bat, beti jente artean, barriketean, jokoan, dantzan, olguretan dabillan bat. Bada, orain zuri eretxiko jatzu ezetz; baña bere ixilian ta ezkutan oraziñoan dagoana beroago, pozago, kontentuago dago bere barruan, munduko atsegiñetan dabillana baño. Jangoikoak bere graziaz ta mesedez gozotu, eztituten ditu deboziñoan dagoanaren negarrak ta per-



sona berak bere asmetan ditu gozotasun zeruzkoak negarren ondoan. Dolorez dago ta doloreak emoten deutso atsegiña, diño San Agustinek.

Dakusunean arima bat negarrez urtuten bere pekatuen damu egiazkoak, usteko dozu triste jausia dagoala; baña ezta alan; bada, pozik dago, poz arren poz negar egiten dau. Eztira ez negar guztiak doloretik datozenak; badira gozotasunetik jaioten direnak bere, diño San Anbrosiok. Arima debotoen zizpuruak oraziñoan ta penitenziatzko nekeetako negarrak pozetik, atseginetik etorri dira. Onetariko negarrak dira larrosa lorak aranza artean. Egur ezake egiten dau negar ta egiten dau garra; ura datxaka ta ura dario. Onela, presona on garbi deboto Jangoikoti batek nasturik ta batera eukiten ditu negarra ta barrea; nekea ta atsegiña; tristura ta poza; kanpoan triste, barruan poz; eta barruko pozak goituten dau kanpoko tristetasuna. Zerren tristura a bere niaz ta borondatez, bere onerako artuten dau; ta aren ondoren itxaroten dau pozkaria.

Alakoa gaiti diño Elexa santeak: Nekean deskansuan, beroan freskura; negarrean, atsegiña emoten dabela Espiritu Santuak. Alangoa gaitik diño Dabid santuak bere eskuetako nekeak jango dituala. Lan bear bat egin dabenak andik jatorkan irabazia jaten dau ta ez lana bera. Ta onegaiti diño Dabidek arima justuak bere eskuetako nekea, bearra ta lana jaten dabela. Errazoiatz diño ori, bada, justu men batek neke atan, janari gozo bat jatean legez, artzen dau atsegiña ta gustua.

Kristiñau on batek jaten ditu mundu onetan bere nekeak, bearrak; ta beste munduan oneek dakarren irabazia, saria, frutua. Zegaiti ze, neke aetan, barau egitean, oraziñoan egotean, negar egitean eperra jatean baño gozotasun andiagoa artzen dau. Dabidek ziñoan: Nire gaubeko ta egunezko ogia, negarrak izan dira. Ogiz ase betetzean baño atsegin geiago artuten neban negar egitean.

San Agustinek diño: Pekatari gaistoak munduko andikerietan, artasunean, apaindura banerizkoetan, ondasunetan artzen dabe atsegiña; baña Jangoikoaren serbitzari onak karzeletan, presondegietan, nekeetan, gatxeetan. Ta santuak gozotasun ta poz geiago ta beteago artzen dabe Jangoikoa gaiti igaroten dituezan neke, krutze, minetan gaistoak lureko gozorotasunetan baño. Bada, San Agustinek esatez, andiagoa da arimaren konsolamentua gorputzarena baño; barrukoa, kanpokoa baño; adimentu ta gogoarena, sabelarena baño.

2 §.

Zelan gaistoak, munduko atseginetasunetan, danzetan, amorentasunean, jan edanean ta beste pozkarietan dabiltzenak eztaben ikusten barauaren, oraziñoaren, birtutearen barruko mamaña, kanpoko azala baño, eztabe probatuten penitenziatzko gauzeetan estaldurik, barruturik, gorderik, ezkutaturik dagoan atsegiña, ona ta gozarotasuna.

Desoneskerian itsuturik dabillanak eztau uste bizio onetara emon baga bizi al leitekela. Eta badirautsazu asko direala pekatu oni eztarraioenak, eztau sinistu gura. Jokolari batek, biraogille, auzilari, edale, dantzalari ta beste onetarikoak uste dabe aetan dala atsegin guztia. Eta birtuteak, santutasunak, Jangoikoa serbitzeak, mandamentuak gordeteak ez dabela bapere gusturik, ezpada naibagea, tristura, atsekabea. Baña engañetan dira: eztakie zer diñoen. Eztabe eguño probatu. Eztabe iños Jangoikoa serbitu ta onegaiti diñoen gatx dala ori egitea, bizitza garbi on bati jarraitutea. Probatu eztaben janaria gorrotuten dabe; ezdazauen gauza desprezietan dabe. Gatx da itu batek kolorearen barria eukitea; gorria bada, zuria, baltza, nabarra bada erabagitea.

Santu guztiak esan, erakusi ta eskribitu dabe Jangoikoaren buztarri santua arina dala, aren legea erraza dala. Beraz, onei probatu ebanai legez sinistu bear deusteegu ta ez onen barririk, probarik euki bage deungero berba egiten dabenai. Jangoikoaren lege santua kontuz gorde daben guztiak diñoen milla alabanza legearen fabore.

Deabruak emoten deutseez bere serbitzari gaistoai atsegin ta kontenturen batzuk. Zer, bada, Jangoziaok izango da ain gogorra, eskasa, laburra, prestueza bere serbitzari maitei gozotasun, atsegintasun, olgurazko pozkariren bat ukatuko deutseena? Deabru madarikatuak bere adiskide zorigaistokoai baño, atsegin andiagok, beteagoak emongo ez al deutzaz Jangoikoa bere adiskide fiel maiteari?

Eta eztot orain berba egiten beste mundukoaz: angoaz ez da dudarik. Bada, an gaistoak izango dira sekulako penatuak, kastigatuak, minduak; onak, barriz, betiko zoriondunak, sarituak, gloriatuak. Bakarrik diñot orain mundu onetakoaz; eta diñot mundu onetan bere onak atsegin gozoagoak, ugariagoak dituela gaistoak baño, deabrua ta pekatua serbietan dabenak baño.

Egiau emon eutseen adirazotera Jangoikoa Malakias Profetaren aotik jente batzuei, zirautseela: Biurtu zaiteze nigana, bide onean ifini zaiteze ta ikusiko dozue ze diferentzia andia dagoan onaren ta gaistoaren



artean; Jangoikoa serbitzen dabenaren ta deabrua serbietan dabenaren artean. Esan baleu legez: Beste mundura igaro baño len, ango sari ona artu baño len, orain emen mundu onetan onduten zarean ordu berean ezagutuko dozue onaren ta gaistoaren diferenzia; bataren poza ta bestarean tristura; bataren bakea ta bestaren gerrea; bataren atsegiña, konsue-lua, kontentua ta gozotasuna; ta bestearen naibagea, atsekabea, biotz-jau-sia, gogaitasuna; bataren amorea, gustua, biotz zabala ta bestearen atzera-pena, ernegua ta bake bagetasuna. Bai ta ezagutuko dozue gaistoak baño zorion, poz ta atsegintasun geiago dabela onak munduan bertan.

Egun baten itandu eutsen Apostoluak Jesu Kristori: Jauna, guk itxi ta larga ditugu gauza guztiak zure amorea gaiti ta jarraitu deutsugu; zer emongo deuskuzu, ze sari izango da gurea, onenbeste gaiti? Eranzun eutsan Jesus maiteak: egiaz dirautsuet, segurutzen zaituet ni gaiti itxiten dituanak bere etxea, bere anajea, arrebea, aita ta ama, artuko dituala emen munduan larga dituen gauzak gaiti eun bider geiago; ta gero beste munduan betiko bizitzea ta gloria. Aramen zelan aitetuten daben mundu onetako saria ta etorkizunekoa; eta zelan, bataz ta besteaz diferenzia eginik, esaten daben Jangoikoak bere amore, bere Ebanjelioa gaiti zerbait itxiten dabenari emongo deutsal mundu onetan bertan bere eun bider geiago ta gero zeuran sekulako gloria. Emen da agiri mundu onetan bere Jangoikoaren serbitzariak daukala saria, alogera, pagua, atsegiña ta zoriona.

3 §.

Batek jakin gurako dau ea au zelan jazo litekean. Bada, ezta kusku Jangoikoak emen mundu onetan onai, justuai, santuai orrelako gauza andirik emoten deutseela; ez eta kargurik, onrarik, andikeriarik, aberastanik ta ondasun ugariarik. Eta askotan kontrara dakusguz onak gaistoak baño pobreago, beartsuago, premiñaz, minez, gaixotasunez beterik. Zelan, bada, adituko da emongo jakeela mundu onetan bere larga dabena baño eun bider geiago? Ezta gatx eranzutea. Adietan da Jangoikoak onai emoten deutseezala alako doeak, graziak, mesedeak, ondasunak ta aberastasun espiritual arimazkoak eze, eurok dira munduko atsegin gorputzezko guztiak alkar batera baturik baño andiagoak, egiazkoagoak, balio geiagokoak.

Jangoikoaren esker, mesede, atsegin ta gozotasunak arima barrukoak dira. Eta barruko atsegiñak preziatuagoak, estimagarriagoak, beteago-

ak dira kanpotik gorputzak dituenak baño. Santu guztiak zoriondu, doatsutu, lagundu, mesedetuten ditu Jangoikoak, diño San Agustinek. Baña non? Barruan, biotzean, ariman, iñok ezta kusan lekuan.

Baldin itxiten badozuz kanpoko atsegiñak, lurreko gauzak, gorputzeko olgurak, emongo jatzuzan arima barrukoak izango dira eun bider-turik geiagotuak, askotuak, andiagoak, gozagoak. Eta, baldin gorputza-renak largarik, probatuko bazenduz arimarenak, nazkagarriak irudingoa litxakezuz gorputzarenak. Andik ara, len on ta gozo egiten jatzun atsegiña ta gustua etzenduke izango ez ikusi, ez aitetu bere: gorroto artuko zeunskio. Bada, orduan alangoz argituko leuke zure adimentua ta aldatu zure lengo gogoa ze irudituko litxakezu, usteko zenduke lenik zireanetik beste kolore bat artu dabela gauza guztiak.

Jangoikaren serbitzariak dirudie kanpotik pobre, despreziagarriak, ezepak; atsekabetuak, erdi illak. Baña, San Pablok diñoan legez, barruan darabilde gorderik bizitzea, zein dan Jesu Kristo; illik legez dagoz, baña biziro bizi dira Jesu Kristogan. Eta Jesu Kristok eukan legez bere Jangoikotasuna barruan estaldurik ta kanpotik zirudian pobre beartu txiki bat, alan aren serbitzariak ta adiskideak bere euren Jaunari darraioela, dirudie kanpotik gauza gitxi ta ilun tristeak, baña euren barruan pozik ta gozotasunez beterik dagoz.

O ze andia dan, ziñoan Dabidek, Jangoikoak kristiñau fiel ta berari bildur deutesentzat gorderik, ezkutaturik, estaldurik daukazan gozorotasunak, maitetasun ta zorionak. Ain andiak ze, probatu dabenak baño ezin ezagutu ta jakin lei zelakoak direan. Ikusi egizue, diño Dabid berak, ze gozoa, ze maitagarria dan Jangoikoa: bada, ezta askori dirudien beste latz eta gatx. Oraindiño emon zarean legez deabrua serbitzean, emon zaite emendik aurrera Jangoikoa serbietara ta orduan ikusiko dozu ze gozoa, ze zalegarria, ze ezta kusua, ze atseginez betea dan gure Jangoiko maitea.

Birtuteak, prestutasunak, ondo biziteak dakarren legez poza, kontentua, gozotasuna, bakea: alan pekatuak, bizioak, gaistakeriak dakardez eurakaz naibagea, tristura, disgustu, atsekabe andiak, gogaikarriak, min-duak eta, ain andiak eta latzak eze, baldin infernurik ezpalego bere, pekatua bera berez da ain ezaina, itsusia, bere buruarentzat ain penagarria ta kastigua; ta onegaiti gorde bear gindekez pekatu egiterik.

Jokolari batek interes baga, txantxetan, irabazteaz probetxurik eztabenean bere, ez kalterik, orrez guztiaz atsegin artzen dau irabazteaz ta naibagea galduteaz. Zerren irabazteak berez dakarren atsegiña ta galtzeak damua. Onela bizitza ona egiteak, zerurik ezpaliz bere, berez dakar kon-



tentua ta atsegiña; ta gaistoa izateak, infernuriak ezpalego bere, berez dakar nekea, naibagea, bildurra.

4 §.

Batzuk uste dabe pekatua gozoa dala, gustu onez beterik dagoala; baña ezta alan. Bada, batetik, aren atsegintasuna ezta egiazkoa; ezpada uts ustekoa, engañozkoa; ta au bere ezta ez pekatuarena, ez pekatutik jaioten dana; ezpada pekatariarena, pekatari beraganik ta pekatuaren eragingille deabrua ganik datorrena. Txakurrak bidean idoroten daben azur gogor leorra gozoro darabil aoan, ez azurrak beragaz dabela maminik edo koi-perik, ezpada erabilli utsez, txakur berari aotik odola erionik, gero odolagaz batean azur siku a on gozo iruditen jakolako. Alan bada, pekatariari bere iruditen jako bere pekatu leorra on, gozo ta eze, ez zerren pekatuak berak beragan ontasunik, gozotasunik daukan, ezpadada pekatariak daukalako bere gogoa ta biotza pekatu atan ifinia; eta deseo ak emoten deuto gogo ta gustua pekatari ari.

Beinbaten israeltarrak egon zirian ain egarriak illik ta igarorik ze Jangoikoak, aen premiña ikusirik, emon eutsen arri atx baterik aterarik iturri-ur fresko bat. Eta gero, atarik edan ebenean esan eben a ura etzala ez ura, ezpada ura baño obea ta munduko ardao guztiak baño gozoagoa ta eztiaren parekoa. Eta, zek eman eutsan ur ari gozotasun, eztiatasun zalegarri a? Euren deseoak ta egarriak, egartsurik egoteak; zerren, bestela, beste urak legez zan a ura. Onela bada, emoten deuto pekatuari bere gozotasuna gure gogoak, naiak, deseoak, egarriak ta deabruak. Ez dau pekatuak beragan ezpada ustezko, irudipenazko, engañozko gozotasunik.

Eta deabruak pekatuari emoten deutsan gozorotasun azalezkoa bere nai ta nai ez emoten deuto, ez borondatez. Baldin bestela eragin al balei pekatu, ez leuskio emongo munduan dan atsegini txiki, izpi, apurrena. Arraintzalleak egozten dau amua uretara edo kañaberaz edo butroietan jateko batzukaz; baña ez ori arraiñaren errukiz, ez ari jaten emotea gaiti, ezpada ezin bestela engañatu, atzitu, eskuratu ta beragandu leizalako. Alantxe deabru asmutsu gaistoak bere emoten deutsaz pekatariari atsegin ta gozaldi batzuk, ez emon naiz, ez gogo onez, ezpada ezin bestez, ezin bestela atzemon, atxitu, segurutu dituelako pekatariak.

Eta deabruak emon daroan engañoamentuzko gozotasun ak bere, danik andienak bere, gitxi irauten dau, baña asko ondoko pena ta atseka-beak. Pekatuaren atsegiñaz berba egiten ebal, Sofar Job santuaren adis-

kideak ziñoan: Mundua danetik ona, gizonak gizon direanetik oraindiño dakust ta dakit gauza bat, eta da: gaistoen alabanzea laburra dala ta oraindiño laburrago ta izpi txiki bat legez, ipokrita falsoen poza ta atsegiña. Ipokritaren santutasuna legez da pekatariaren atsegiña ta poza. Ipokritak kanpotik dirudian legez santua, debotoa, baña barrutik da gaistoa, arrotua, maliziatia; alan bekatariak bere kanpotik, azaletik dirudi dagoala pozik, kontentu, atseginez betea, baña barruan triste dago, ilun ta jausia.

5 §.

Gaistakerian dabillanak mundu onetan bere atsegin baño naibage ta neke geiago igaro ta irunsi bear dau. Lapur batek zeinbat neke, bildur ta ikara igaro bear eztitu bere lapurkeria egiteko? Aserroturik dagoan batek zeinbat naibage, zeinbat gogo triste igaro bear eztitu bere arerioz bengetako? Engañoatzalle falso batek zeinbat gogoraziño, asmu, itzul-inguru egin bear eztitu bere falsiaz baliatzeko? Desonestu batek zeinbat egun triste, gau txar, zeinbat lotsaria irunsi bear eztitu amorentasunean dabillan bitartean? Guzurtiak zeinbat guzur, zeinbat labankeria, zeinbat berba eder saldu bear eztitu bere guzurra estalduteko, edertuteko, egiazat emoteko?

Beti legez, emen bere ederto berba egiten dau San Juan Krisostomok: Persona ederrak ta etxura onekoak oi dau kanpoko edergarri ta apainduraren bearrik ondo eretxiteko; bada, bera beragan da ederrrik asko ondo irudituteko. Baña etxura txarrekoak, ezainak, itsusiak bear ditu estalgarri asko, bernizadura, soñeko eder galantak; ta onek guztio-kaz bere, obeto egingo leuka etxean egotea; an legoke edertoenik. Ala jazoten da birtuteaz ta bizioaz; santutasunaz ta dongetasunaz, egiaz ta guzurraz.

Egiak, birtuteak ez dau apaingarriren bearrik: bera da ederrrik asko. Guzurak bai: onek edergarri ta estalgarri asko bear dituz ta, orrez guztiaz, ezta beinbere ondo edertuten, estalduten. Baldin guzurtiak bere guzurra egiazat igaroko badau, asko neketu bear da: bateri ta besteari zer eranzungo daben asmatu bear dau lenagotik; gogo, akordu, gomute onean egon bear da. Zerren esan oi dan: Errena baño guzurtia lenago kojietan da; guzurak oñak eta zanak labur ditu.

Zer esango dogu, bada, desoneskeriako bekatuan sarturik dabillanaz? Bekatu loi zikin lotsagarritzko onetan artzen dan atsegiña, egia esateko, ezta atsegiña, ezpada naibagea, atsekabe ta penea. Ikusiko dozu gizon gazte bat ta batzuetan, gaistoago dana, zar bat bere bai gaubak galdurik,



ondasunak urturik, gorputza argaldurik, biotza jausirik, bere onra ta kreditua gitxiturik emakume galdu bati darraiola. Bai ta ikusiko dozu beste persona on garbi onestu bat, onelako pekatu ezainetarik igeska dabillan bat. Orain, bada, bi oetarik zein ete ditu gaubak ta egunak geldiago, tris-tura gitxiagoaz? Eztago ori itandu bearrik. Zeuk autortuko dozu mundu onetan euki dozuzan gatx edo moldez etorri jatzuzala desoneskeriako pekatu-rik. Eta, baldin egia esan gura badozu, pekatu aetan atsegin baño naibage ta disgustu geiago euki zenduan. Eta au berau jazoten da beste era guztiko pekatuetan.

Ez da gaistakeria baño gauza nekezkoagorik; eta ez artan artuten dan nekea baño gauza galduagorik. Bada, ezta neke atan fruturik bilduten, ezpada kaltea, desonrea, atsekabea. Orregaiti San Pablok itanduten eutsean bizio onetan ibilli zirian batzuei: Ze frutu, ze irabazi euki zenduen orduan, orain aitetutera bere lotsa zarean pekatu loi atan?

Bekatuaren kastigu andienetarik bat da lotsea. Artuten dozu deabru gaistoa nagusitzat, ugazabatzat ta lotsa zara esaten aren agindupekoa zareala. Gaistoa zara, baño gura eztozu gaistotzat euki zaiezan. Zeuk egin dozun pekatua eztozu aitatu gura; desonratzen dozu a izentatzea. Errukigarriak ta on bearrak dira gaisto okerrak. Bada, euren adiskideak bere, agirian ezpada bere, bere kontra berba egiten dabe ixilka, kapapetik, ezkutuan. Baña gizon prestu, on, garbi, zuzen bate gaiti guztiak, bere are-rio giñokoak bere, euren biotzetan bada bere, ondo berba egiten dabe.

Baña, orrez guztiaz alan bada bere, gura dabe gaistoak euren lotsa, desonra eta neke guztiaz kontrako bidean ibilli, bide onean artez ta zuzenean neke bage baño. Gauza asko egin leiz Jangoikoaren serbizioan neke labur arin gitxi-az. Ze neke dago egiaz berba egitean? Testimonio falsorik, guzurrezkorik ez eregitean? Kristiñau lagunari parkatutean? Juramentu, birao, ernegurik ez egitean? Kontra bai bestela egitean neke andia dago. Bada, guzurak, testimonio falsoak, biraoak ta arerioaz benganza artuteak makinabat buruko min, okasiño ta errierta biztu, erne, sortuten ditu. Eta alanbere gurago dogu infernutik infernura joan, zerutik zerura baño. Mandamentu santuak kunpli, bete ta gordeteko eztozu neketu bearrik, ez beintzat austeko lainbeste; ta, orrez guztiaz, neke, latztasun, gatx guztia-kaz bere, naiago dogu infernura joan, neke bage zerura baño.

Ez eban bere Santu batek deungero esan, askotan infernura joateko artzen dogun neke erdiaz irabazi giñeikela zeruko gloria. Santu beronek ikusirik neskata bat bere bekokia zabaldu, argitu ta edertuteko ulleak goi-tik tiraturik ta aterarik min asko artuten ebala; eta bere garria bedartute-ko estu estuan erabillala, esan eban: Bidebage ta injuria egingo leuskio

Jangoikoak neskato oni, baldin erakeria onetan artuten daben neke ta mina gaiti emoten ezpadeutso infernua. Bada, persona batzuk neketu ta penatuten direan legez zerura joateko, alan beste batzuk arikatu, neketua-goten diran infernua irabazteko.

Eta pekatuaren ta infernuko pena ta neke gogor ori ezjake pena iru-diten; baño bai zeruko bidekoa; ori asko sentitzen dabe; au gatx, nekez-koa ta entero latza egiten jake. Amorentian, adiskidetasun txarrean, lapur-kerian, jokoan gau ta eguna arin-erraz gitxi sentitu bage igaroten dozuz; denporarik luzeena labur egiten jatzu; gozoro, pozik, gogo onaz daroazu; onetarako etzagoz gaixorik; atarako badozu osasuna, indarra, gogo-za. Baña barau egiteko, oraziñoan edo Elexan egoteko, gaixoak ikustera joa-teko, sermoi bat enzuteko, libru deboto bat irakurteko, latztasun txiki bat gorputzean erabilteko argala zara, gaixorik zagoz, buruan min dozu, eztozu astirik. Jangoikoa gaiti danik nekerik arin txikerrena igaroteko, ber-tati gogaituten zara, aserratzen zara; baño deabrua gaiti errazak, gozoak, sufrigarriak egiten jatzuz gaubak galdutea, otz beroak, gose egarria, neke pena guztiak.

Ikusiko dozu andre gaisto bat asten dala agiraka, txilioka, dedarrez, negarrez, biraoka, erneguka, atzamarka bere senarrak geiegi ganez eginik ta aserraturik belarrondoko bat emon deusalako. Baña au berau edo burua austen badeutso bere galai amorante desonestu maite dabenak, ixi-lik igaroten dau; jausirik edo bestela a mina artu dabela edertu ta estaldu-ten dau. Senarraren kolpe txiki-az agiraka asten da ta ez amorantearen andiaz, kontrara dabillala. Alan gu bere gabilz kontrara ta irainduten gara Jangoikoaren serbizio santuan igaroten dogun neke apurraz, barau batez, injuria batez ta ez deabruaren serbizioan igaro, irunsi ta artuten dogun neke gogor, astun, gogaikarriaz: au ezer ezta; onek ezer ez tirudi; arina ta gozo egiten jaku.

Au alan ustegu, diño San Juan Krisostomok, deabruak kargea jaso-ten lagunduten deuskulako. Baña etorriko da denpora, zeinetan deabruak laguntzarik egingo ezteuskun ta zeinetan ezagutuko dogun ta bai probatu bere ze astun ta andia dan infernuko bidean igaroten dan kargea. Zul bat andi, astun, pisuduna bada bere, oxin edo ibai bateko uretan erraz mugitu, meneatzen da, arin ta eskuz alde batera ta bestera iruli, itzuli ta erabil-tzen da. Baña uretik kanpora, leorrean ezin ori egin ziñei; emen da agiri, emen probatu ta ezagutzen da zein andia, astuna, pisutsua dan. Au berau jazoko da bizitzaren bazterrean, leorrean, azkenean, orduan ikusi ta jakin-go da zelakoa dan pekatuaren karga ta astuntasuna, ze andia dan dea-bruaren serbitzuan ta infernuko bidean igaroten dan nekea ta latztasuna.



6 §.

Jangoikoaren serbitzuko bidea, gogo onez dagoanarentzat izanik leuna, gozoa, erraza, zabala, deabru gaisto asmutsuak gura eztau zabal-tasun on oni begiraturik daiogun; bakarrik nai dau begiratu daiogun an dagozan neke, aldagora, gatxtasun gitxiai. Eta, barriz beste aldera, zelan deabrua serbitzeak dituan neke asko, eztau gura deabruak aei begiratu daiogun; eta bai atan dagozan atseginai. Onela judeguak Egitoko katibutasunetik urten ebenean, libre pozik atsegindurik, zeruko janari gozoa gozoturik ase beterik ebiltzenean, zerren etorri jaken aragia jateko nai gura zalegari bat, asi zirean esaten biurtu gura ebela Egitora, bere lena-goko katigutasunera, an aragiz, porruz, kipullaz, berakatzez ase betetzeko.

Ez eben gogoratuten katibutasun atan igaro zituezan gogortadeak, menpetasuna, neke andiak, ezpada bai esku artean eukeen eskastasun urri apurra edo deseo erabagekoa. Bada, au da deabruaren malizia ta asmua: ifinten deusku begien aurrean pekatuaren gozotasuna, baña ez emendik datorren naibagea. Pintatzen deusku birtutearen nekea, baña ez irabazia ta sari ona, ez bere edertasun polita.

Baldin birtutea ta bizioa, birtutearen ta bizioaren joan etorriak, gora berak, onak eta gatxak ifiniko bagendukez balanza bitan ta gogoratu bear dan legez, eztoz uste idoroko litekeanik munduan, pekatu egin leikenik.

Esango dozu badituela birtuteak ta Jangoikoa serbitzeak bere pena ta nekeak, ta bai pekatuak ta pekatuan ibilteak bere gustu, olgura ta atsegiñak; ta orrela obe dala pekatuaren atsegiña, birtutearen atsegin bagetasuna baño. Ez orrelakorik. Bada, San Agustinek diñoanez: Birtutearen neke penak laburrak dira; eta bai pekatuaren atsegiñak bere. Baña birtutearen neke laburrak ondoan dau gloria luzea ta sekulakoa; eta bai pekatuaren gustu laburrak bere kastigu andia, luzea, sekulakoa. Beraz, obe da birtutearen atsegin bagetasuna, pekatuaren atsegiña baño.

Neke penaz arikaturik, inguraturik, beterik dagoan batek, baldin gero ondoan, ostean itxaroten badau irabazi andi bat, kargu, onra, ondasun andi bat, ezerbere sentitzen eztituan legez neke guztiok: alan atseginetan dabillanak bere, baldin oneen azkenean ta ondoan itxaroten badau kastigu andiren bat dagoala beretzat gorderik, ezin dateke atsegin aetan atsegin oso, bete, egiazkorik eukitea. Lenagotik bai orduan atsegiña, atsekabe biurtzen da.

Urkamendira daroen gizon bat, janaria onak, edari obeak eukia gaiti ta urkamendirako bidea leuna, ederra, erraza, zabala, ederturik, apaindurik, bitxiturik ikusia gaiti, ze atsegin artu lei aetan guztietan? Alakoari esan leio San Agustinegaz: O gizon gixagaixoa, ez egizu begiratu nondik igaro bear dozun, ezpada nora zoazan. Ez eiozu begiratu urkamendiko bide ederrari; baña begiratu egiozu urkamendi berari, gelditu ta il bear dozun lekuari.

Alan bada, zuk bere pekatu bat egitera zoazanean ez eiozu begiratu pekatu egitean artzen dozun atsegiñari, ezpada pekatuari darraion kastigu ta infernuaru; atsegin onek zaroazan lekuari; ta emongo deusun naibageari. Bekatu egitera doian batek gogoratuko baleu ze neke, pena ta kastigua igaro bearko daben aren ondoan, ostean ta jarraian, ze gozotasun, ze gustu, ze atsegin artu leio pekatuari?

Birtuteak, santutasunak, Jangoikoa serbieteak, bizitza on bat egiteak ondoren ona dau; ta neke gitxi bat badau bere, laburra ta arina da; ta labur au bere arindu, gitxitu, gozotu, erraztuten dau geroko sari onak, irabazteak, ondasun ugariak, segurutasunak, gloria betikoak; pozik, gogoz, maitetasunak ta borondate onaz egoteak; ta batez bere Jangoikoa serbitzetik datozen mesedeak, laguntza ta poztasunak. Baña pekatuetan ta pekatuen olgura ta atsegiñetan ibillirik, onek guztiok datoz kontrara: Euroetan atsegin txiki ta laburra; ta gero naibage ta neke andi, latz, garratz, luze ta sekulakoak.

Eta alan, errazoi guztiok ondo begiraturik, pensaturik, gogoraturik, bakotxa bere balanza ta neurrian ifinirik, argiro erakusten da errazago dala zeruko bidea, infernukoa baño; ta infernurako danak neke pena geiago igaro bear dituala, zeruratuko danak baño. Au alan izanik, zerutik zerura bizitza on batik beste obeagora joatea gaiti bere, bear genduke gaur ganik asi bizitza on garbi santu bat egitera ta Jangoikoaren lege santuko buztarri ta karga arin leun erraza geure gogo ta biotz guztiaz artu, autu, besartu, laztandu, maitetu, jarraitu ta jaio ta gero damutu ta garbaituko ez jakun legez bizitza on barri zeruzko bat egitera abitatu, prestatu, ekin, eragon aspertu baga, nagitu, otztu, epeldu, atzeratu baga.



47. BURUA

Konfesiñoa gerotik gerora luzetu bear ezta.

1 §.

Baldin Eskritura Santea ondo irakurten badozu ta kontuz gogoratu-ten badozu, ikusiko dozu ezta eguño pekatu mortala egin dabenetarik salbatu ez salbatuko bere, aldez edo moldez, nolabait konfesatu bage. Mundua danik ona, lege ta denpora guztietan usatu da ta usatuten da konfesetea. Lege naturaleko konfesetea zan oraingoaren geriza, antz irudindadigarri bat. Lege naturalean asko zan biotz-damuaz batera ta gogoa urturi ez beste bein pekatura borondatez biurtuteko, au erakustea kanpoko señaletan bategaz, zelan zan begiak jasotea, belauniko ifintea, kolpeak bularrean emonik, Jangoiko berari konfesetea ta parkaziñoa umiltasunaz eskatutea.

Jangoikoak deitu eutsan Adani, pekatu egin ebanean; ta itandu eutsan ea non zegoan. Itandute au ez eban egin Jangoikoak jakinezaz, ezpada, Adanek bere pekatua ezaguturik, konfesatu edo autortu egientzat. Eta ez ebalako argiro ta artez autortu; atxakiz ta itzulbidez bere pekatua edertu ebalako, bere emazteari errua egotzirik ta onek deabruari; osoro ta argiro agertu ta autortu ez ebalako, kastigatu eban Jangoikoak gatxez, kalte bera ta bere ondorengoak beteten zituela; baña nola bait inguruka bazan bere konfesatu ebalako bere uts egitea, parkatu eutsan; eta argiroago autortu baleu, bear bada kastigu gitxiago emongo eutsan.

Molde ta era onetara irakurten da itandu eutsala Jangoikoak Kain gaistoari, Abel bere anaje ona il ebanean, zirautsala: Kain, non da Abel zure anajea? Eta zergaiti itandu eutsan onela? Bere pekatua gogoratu egientzat ta, gogoraturik, konfesatu egientzat. Baña konfesatu ez ebalako, ukatu ebalako gelditu zan zorigatxez beterik, errukigarria ta on-bear egirik, mundutik erbesteturik ta jenteen arterik igeska ibillirik ta, azkenean, kondenaturik. Bada, Adan ta Kain bere seme au lege naturaleko denporakoak zirian; lege eskribiturik ez irakaslerik ez oi zan denporan bizi zirian.

Baña naturaleza beraren argiak erakusten dabelako errazoia darakuskun erara bizi bear gareala; dongero egitea largarik, Jangoikoa ta lagun

urkoa maite izan bear dogula ta Jangoikoari geure utsegiteak, okertasun, gaistakeriak autortu bear deusaguzala; onegaiti etzan lege natural, berezko, errazoizkoan bere inor salbetan, nolabait edo eraren batez, kanpoko señaletan ta barruko damuaz pekatuak konfesatu autortu bage. Egia da ez egoala orduan oraindiano konfesatzeko zirimonia señaleturik, Santo Tomasek erakusten daben legez. Bada, asko zan biotzeko damu egiazkoaz ta damu ta garbai onen señaletan adigarriren bat kanpotik erakustea ta adierazotea. Etzan orduan oraindiokarren beste konfesiño molderik, ez erremedio eskribituz ifinirik.

Baña gero, mundua puska bat geitu ta askotu zanean, lege naturalek lege eskribitura Moisesen denporan eldu zanean, asi zan beste konfesiño era bat. Etzan orduan asko bakotxak bere barruan eukan damua gura eban señaletan kanporatu, erakusi ta agertutea. Erakusi ta adietan emon bear zan barruko damua ofrenda, eskeintza ta sakrifizioak; ta ez nola nai ta bakotxak gura zituanakaz, ezpada orretarako lege eskribituak izentatu ta señaletan zituanakaz. Baziran lege zar eskribitu onetan Sazerdoteak ta Elexako kargudunak. Eta pekatuan jausten zan bear eban pekatu a gaiti, damutu ta geiago ez egiteko borondatez Sazerdoteen aurrean eskeñi ofrenda ta sakrifizio, ta onegaz adirazo pekataria zala. Alan aginduten zan Lebitiko kapitulu batzuetan; bai ta euroetan izentatzen zirian pekatuari egokien pena, ofrenda ta sakrifizioa.

Etzan orduan orain legez pekatuak konfesatuteko agindurik, ez zelan autortu bear zirian, ez nos, ez zeinbat pekatu egin eben esateko premiariarik. Asko zan orduan damu egiazko bategaz legeak aginduten eban legez ofrenda ta sakrifizioa egitea; au zan orduko konfesiñoa. Dabid Erregeak egin zituan desoneskeriako pekatua ta gizon on bat iltea, lotsaz ta bere burua ez agertzea gaiti, Glosak diñoan legez, etzitan egin legeak aginduten zituan sakrifizioak eta penitentiak, arik eta Natan Profeta santuak zemaitu ta arpegian bere bekatuaz emon arteraño. Baña beragan biurtu, damutu ta lotsea kendu ebanean, egin eban legeak agindurik eukana umiltasun andiaz; ta onenbestez irabazi eban parkaziñoa.

2 §.

Orain lege barrian, Ebanjelioa ta kristiñau fedea zabaldu danean, gagoz bearturik, premiaturik konfesetara geure pekatu mortal guztiak euren neurri ta zirkunstantzia guztiak Sazerdote Konfesore bati. Konfesiño au lege zarrekoa baño santuagoa, obea, seguruago, indartsua-



goa, balio geiagokoa da. Bada, oraingo konfesiñoko absoltziñoko berba gitxi batzuei emoten deutse indarra ta grazia Jesu Kristoren merezimentu, pasiño ta eriotza santuak. Damu egiazkoaz, propositu sendoaz ta argi-rotasunaz konfesatu ta Sazerdoteak absoltziñoa emoten dabenean, au da bereala Jesu Kristoren bizitza ta eriotzako merezimentu guztia, balioa, grazia, mesedea ta pekatu guztien parkaziño osoa.

Gauza bi gaitik batezbera esan lei oraingo konfesiñoak birtute, grazia, indar ta baliotasun geiago daukala lege zarrekoak baño. Lenengo, oraingo konfesiñoa izanik Sakramentu egiazkoa, berak berez beragan dauka indarra grazia emoteko. Ez alan lege zarrekoak: bada, onek emoten eben grazia zan, zelan zeukan prestaerea, deboziñoa, disposiziñoa batek. Baña oraingo konfesiñoak eta sakramentuak emoten deutse gure prestamentuari dagokan grazia, eurak euretan dauken grazia gaiti Jesu Kristoren merezimentuetarik datorkioena; baldin gu ondo portatzen bagara.

Bigarren errazoa da, zerren orduko konfesiñoak baldin emongo baeban grazia, euki bear eban batek *kontriziño* fiña, egiazkoa; zelan dan artuten dan damua pekatu egiñaz ta ofendituaz Jangoikoa bere ontasun maitegarria gaiti. Baña oraingo Konfesiñoako Sakramentuan, ohea bada bere kontriziño au, asko da *atrisziñoa* edo bildur damua, zelan dan damua artzea pekatu egiñaz, beragaz zerua galdu ta infernua irabazi dabelako, infernuko penak gaiti, pekatuaren ezaintasun ta kalteak gaiti; emendik asten dala pekataria Jangoikoa amaten, pekatua gorrotuten ta beste bein pekatara ez biurtzeko gogoa ta borondatea artuten.

Ez dau zer ikusi lengo konfesinoak oraingoaz. Eta asko osatu ta garbituten ezpadira euren arimako pekatu, gatx ta gaixotasunetarik da, ondo prestatzen eztiREALAKO Sakramentu onetarako; ta ez beronek birtutea, grazia ta indarra eztaUKALAKO edozein pekatu parkatuteko, edozein pekatari santututeko. Onegaiti itandu lei Jeremias Profeteak bere denporan legez: Zer da au? Ez ete da erretxinarik, triarkarik, osagarririk Galadko errian edo medikurik an bertan? Zelan, bada, ene erriko alabaren llaga zauria osatuten ezta? Esan gura dau: Kristiñau errian arimeko gaixotasuna osatu ta sendatuteko ain erremedio andia, osagarri ain egiazkoa eta mediku osagille au ta konfesiño ta konfessore dan errian, zelan orrez guztiaz idoroten dira ainbeste llaga, zauri, gaixotasun? Ainbeste pekatu ta gaistakeria? Eta, zelan eztiRA lenago sendatu ta osatuten? Zelan urterik geienean edo osoan ta bearbada geiagotan pekatuen gaixotasunean usteldurik, atsiturik, kirats-turik irauten dabe? Glosak eranzuten dau: EztiRA osatuten abiatuten ezti-rialako, orretarako gogorik artuten eztaBELAKO; konfesiñorik igeska dabil-

tzelako, konfessore medikuaren osagarriak, adibide santuak artutera joaten eztiREALAKO; bear dan prestaeraz konfesetan eztiREALAKO.

Arimako gatxerik osatuteko erremedio sendagaia da Konfesiñoa. Ontzia galdu ezkerro itxasoan ze bide, bitarte, erremedio izan lei marinal batek? Ol edo zul zati bati oratutea ta agaz baliaturik ta lagundurik igeri leorrera eldutea. Ontzia galdu ezkerro oratuten dan ol aren erakoa da konfesetea pekatuan ito aginean dabillan pekatariarentzat. San Lukasen aotik diño Jesusek: Baldin penitencia egiten ezpadozue, guztiok galdu ta ondaturko zaree. Bada, penitentiaren parteetarik lenena ta bearrena da Konfesiño santua: bera gaiti, galdu ta kondenatu etzaitez bearturik zagoz ondo konfesetera.

Bekatua da arimaren zauria, llaga, anditua. Anditua, zaldarra, sustarra irazten danean, kanpora istanda egiten danean, esperanza da osatuko dala. Baña barruan geratuten danean materia edo zorna gogorturik, peligruzkoa da. Alan izango da, bada, peligrutsua lotsaz ta borondatez konfesatu bage barruan geratu ta gogortuten dan pekatua bere. Onegaiti itandu ta eranzuten dau San Gregorio andiak: Zer da pekatuak konfesatu ta autortutea, zauria ta zaldarra istandatu ta irazitea baxen? Eta, zer egiten dogu pekatua konfeseteaz, ezpada barruan egoan gatxa ta gaixotasuna agertutea?

Pekatuan jausi ezkerro, lenengo erremedioa konfesetea da. Zerren, ezin dateke kontriziñorik, damurik, garbairik konfesatu bage; edo ezin konfesaturik, konfesetako borondate ta gogoa bage. San Agustinek diño: Obra onaren asierea obra gaistoa konfesetea da.

3 §.

Obra onaren asiera baldin bada obra gaistoak konfesetea; konfesiño au zelan, ze erara egin bear ete da? Itandu egiozu Jeremias Profeta santuari; bada, onek Jerusalengo erriaren ganean egin zituan negar, zispuruen bigarren Kapituluaren darakus esaten dabela: Ixuri, zabaldu ta egotzi egizu zeure biotza ura legez Jangoikoaren aurrean.

Adirazoten dau: Lenagoko pekatuen damuaz ta geiago ez egiteko borondateaz Jangoikoak bere lekuan ifinirik daukan Konfessorearen aurrean konfesa zaite, egotzi, bota, ixuri egizuz an esan, egin ta pensatu dozuzan pekatu guztiak. Eztiño egotzi daizuzala zeure pekatuak orioa legez, koipea legez, ezti legez edo ardaoa legez. Zelan, bada? Ura legez. Bada, eztago jatekorik, edatekorik ura baño garbiago ta osoago irazi, ustu



ta egozten danik. Ezitia ustu edo iraziten dozunean, alik ondoen egin arren, zer edo zer geldituten da, usaiña ta kolorea baño ezpada bere. Baña uretik ezta geratuten ez usaiñik, ez kolorerik, ez loirik: dan guztia ustu, garbitu ta ateretan da. Alan bada, guk bere pekatuak konfesetan doguzanean bear dogu geure gogoa, borondatea ta biotza gaistakeria guztietarik ustu, utsitu, irazi, garbitu, ura egon dan ontzia legez, ondakinik, arearik, ondarririk, pekatuen usaiñik, ez atsik bapere bage gelditu.

Bai baña, konfesiño au zeinbaterik zeinbatera egin bear ete da? Asko ete da geroko luzaturik, urtean bein konfesetea? Dudarik, bada ezpadarik eztago bearturik, premiñaturik gagozala konfesetara; Jesu Kristoren agintea da; bada, itxirik bere Elexa santan Sakramentu Konfesinoko au; ta emon ezkeru pekatuak parkatuteko eskubidea Sazerdote Konfesariai, esanik dago onei autortu, agertu, konfesatu bear badeutseguzala pekatuak. Konfesatu bear gara bada edonosbere. Jakina da, konfesatu bear gareala eriotza orduan; eriotzako peligruan ikusten gareanean; dakigunean ezin konfesatu izango gareala denpora luzean edo sekula. Bai ta dirudi, bein Jesu Kristok ifini ezkeru Konfesiñoko agindua, euki ebalá intenziñoa ta borondatea konfesa gindezela batzuetan, eriotzako peligruan ez gengozeanean bere, konfesiñoti etozen on ta ondasunak gaiti. Onegaiti Elexa Ama Santeak euki dau onetan beti kontu andia; eta artu ditu bere neurriak, bai ta agindu bere konfesa gaitezala, eriotzako peligruan ez egon arren; zelan denporak, alan emon ditu ordenamentu diferentek.

Lenago Apostoluen denporan ta oneek il ezkeru lenengo fededunen denporetan ain deboziño andia, sutua, beroa zan, ze egunero komulgetan zirian; ta orretarako pekatuak eukeenak egunoro konfesetan zirian. Baña gero, deboziñoa oztuten asi zanean, agindu eban San Fabian Aita Santuak, sarriago ta geiagotan izango ezpazan bere, urtean iru bider iru Pazkoetan konfesaturik komuniño santua artu gengiala. Gerorengo denporetan orrenbeste otzitu, epeldu, gitxitu, amatau zan deboziñoa, non Inozenzio irugarrenak agindu bear izan eban urtean bein edolabere edo gitxienez konfesatu gindezela ta artu Komuniño santua Garizumako Pazkoa loratuan. Eta beragaiti orain, eriotzako arriskuan ezpagagoz bere, bearturik gagoz urtean bein edolabere konfesetara. Eta urteango Konfesiño au egin oi da komunki Garizuma ondoko Pazkoan edo lenagoko egunetan, zelan dan usanza. Zerren orduan artu bear dogu Komuniño Santua ta Jesu Kristoren Gorputz beneragarria artuko dabena, baldin badago pekatuan, lenik konfesatu bear da.

Baña nor izango da kristiñau artean urtean bein bakarrik baño konfesatuko eztanik? Urte osoan egongo danik bisitatu bage bere konziencia;

ikusi bage zelan dagoan bere arimea, artu bage Sakramentu santu onek emoten dituan graziak, osasuna, indarra ta arimazko ondasun ugari zeruzkoak? Edo zara kristiñau ona edo gaistoa: ona bazara, zelan iraungo dozu onean konfesatu bage? Gaistoa bazara, zelan ondu ta pekatuak urtengo dozu konfesatu bage? Esango dozu: Elexa santeak ezteust aginduten ezpada urtean bein baño konfesetea; bada, orrela ondo nabil, ez geiagotan edo sarriago konfesatua gaiti. Egia da Elexa Ama Santeak agindu, premiati, beartuten etzaituela geiagotan; baña ezteustu eragozten. Lenago bai gura leuka geiagotan konfesatuko baziña. Eta onegaitik diño urtean bein gitxienez; gitxienez, edolabere diño adietan emoteko gura leukeala geiagotan, sarriago bere egingo bazendu. Bada, andiak dira Konfesiño ondo egiñetik datozan onak, probetxuak, irabazteak; bai ta bere meatz, belu, berandu, gitxitan konfesetea ganik sortuten direan kalteak, atzerapenak ta zorigatxak, urtengo Buruan erakusiko direan legez.



48. BURUA

Sarri konfesatzeak dakartzan onak.

1 §.

Ikusirik persona asko direala nagiak, atzeratuak, lotuak, gogo gitxi-koak sarri konfesetako, berba egingo dot Buru onetan ta erakusi, zeinbat on ta ondasun dakartzan askotan ta sarri konfeseteak; eta zeinbat kalte gitxitan, meatz egiteak; au ondo gogoraturik, abiatu, aurreratu, prestatu ta oitu dedin bakotxa sarri ta ondo konfesetara.

1. *Lenengo errazoi*a sarri konfesetako da konfesinoak pekatuan dagoanari bere pekatu guztiak parkatuten deutsezalako; grazian eztagoanari grazia ta grazian dagoanari ta santua dagoanari geituten deutsalako grazia, birtutea ta santutasuna. Onetara eranzungo dau batek: Zelan ori alan izan diteke? Zelan konfeseteak azi, askotu, andiagotu lei grazia ta santutasuna lenagokoaren ganean? Bada, konfesiñora elduten dana pekatuan dago, pekaturen bat dau; eta ezpaleu sekula egin ez leuka konfesatu bearrrik. Baña, orrez guztiaz, esan lei azi ta geituten dabela grazia, len eukanaren ganera. Bada, presona asko datoz konfesetara pekatu mortalik baga, pekatu benial edo txikerrakaz; bai ta asko datoz lenagoko konfesiñorik oraingora pekatu borondatezkorik arean bage egin eztabenak. Batzuei ta besteai geituten jake grazia; eta pekatu mortalean dagoanari emoten badeutso grazia, edertasuna, parkaziñoa, zer egingo eztau graziazko estadian dagoan bati? Ze grazia ta ondasunak emongo ezteutsaz arima bati Jesu Kristoren odol, merezimentuakaz nasturik dagoan Sakramentu santu onek? Emen emoten dan graziarik txikienak munduko ondasun guztiak baño geiago balio dau; ta beste munduan bere, emendik grazia geiagoaz doianari gloria geiago emoten deutse.

2. *Bigarren errazoi*a sarri konfesetara abiatuteko da askotan konfeseteak arindu, gitxitu, laburtuten dabelako Purgatorioko pena ta pena aetan egon bear dan denporea. Ondo konfesetan danari parkatuten jako ta gitxitu zor daben penarik zati bat. Eta ainbeste bider konfesa liteke bat ta ain ondo, non eldu liteke santua izatera ta zor guztia kitutu ta ordetutera.

Purgatorioko neke-pena, laztasun ta suan ondo pensetan dabena zaltetuko da sarri konfesetara; zeruzko garbitegi onetan bere faltarik txi-

kienak ikuztera, lenbait len konfesetera. Bada, mundu onetako penarik ikaragarrienak eztabe zer ikusi Purgatorioan igaroten dan penarik txikienaz. Orregati bada, oitu ta ekandutu bear gara sarri ta kontuz konfesetara.

3. *Irugarren errazoi*a da sarri ta ondo konfeseteak aserrerezotzen deutsalako deabruari, kendu bere indarrak, ebagi bere sareak, amuak, lakioak; iges eragiten deutso deabruari; ifinten dau zorabiatuak, zer egin eztaquila. Bekatuan egonik denpora luzean konfesatu bage dagoan ariman esku andia dau deabruak: an bizi da; aren jabe, nagusi, agintari ta gobernari da. Baña bekatu egin ta bertati konfesetan danari bildur andia deutso; aldegiten da beraaganik; ezta agaz fiatzen.

Zeuk bere ezteutsazu zeure sekreto bat fiatzen persona barritxu, min luze, ao zabal, erakusle, berba asko diñozan bati. Bada, Espiritu Santuak diñolez: Adiskidearen sekreto a zabaldu, kanporatu, agertu, saldu ta erakusten dabenak galduten dau iñok agan daben sinistea, eztau merezi iñok gauza ezkutaturik fiatu dagion. Alan bada, deabruak bere dakusanean zuk zeure biotzeko pekatu ezkutatua agertuten deusazula Konfessoreari, ezta zugaz fiatzen, galtzen dau zukan daukan fidantzea ta sinistea. Ikusirik zeure burua salatu ta agertuten dozula Konfesiñoan, largatzen zaitu; etzaitu andik atxina len beste bider tentatzen pekatuak; dakusalako eztabela probetxurik aterako; ta ak egiten deusun guztia Konfessoreari agertuten deusazula.

Gitxitan konfesetan direanak dira deabruaren egokiak, adiskideak ta serbitzari fielak, leialak; onek dira bere sekretario sekretoak, ixilak ta denpora luzean euren biotzean pekatua ezkutaturik ta gorderik euki daroenak. Beragaiti bada, bear zenduke zeinbait lasterren konfesatu, alango ugazaba gaistoaren sekretario sekreto-gordegilla ta serbitzaria ez izatea gaiti, ari damua ta naibagea emotea gaiti; ari ernegarazi ta gogaierazotea gaiti.

4. *Langarren errazoi*a zegaiti sarri konfesatu bear dan da askotan konfesetan danaren biotzean eztrialako pekatuak gogortuten, sustraituten, barruregi errotu ta sartuten. Esango dozu: Asko dakusguz sarri konfesetan, bai ta lenagoko gaistakeriara biurtzen; jausi ta jagi dabilz; garbitu ta andik laster loituten dira. Zetarako da, bada, sarri konfesetea, garbitu ta ezainduten ibiltea? Ze probetxu dan diñozu? Bada, dirautsut andia dala. Bada, sarri jausten badira, laster jagiten dira; askotan gaixotuten badira pekatuaz, askotan osatuten dira. Eta osaturik, sendaturik, indarturik dagozan bitartean; jagiak, garbituak dagozanean, dei-egin leie Jangoikoak; il leitekez orduan; eta bai salbatu. Eta alan, batean jausi bestean jagi dabilanak arriskua badauka bere galduteko; baña ez beti jausirik dagoanak lainbeste.



Egia da konfesetan zareanean euki bear dozula ez barrero pekatua biurtzeko gogo ta borondate sendo egiazkoa. Baña alan konfesatu ta bere, zeure argaltasuna, griña gaistoz biurtuten bazara pekatua, eztozu orregaiti atzeratu bear konfesiñorik. Bada, onela etzara gogortuko, ustelduko, arrituko pekatuan. Sarri garbitu ta erabilten dan ezpatea prest dago arin garbituteko. Baña gitxitan dabillana, lurean edo ezkotasunean datzana ugertuten da, magiñan josirik ta oraturik legez dago; alangoz eze, nos gero bear dozunean, ezin aterarik zabiltz; arerioak zugaz gura dabena egin lei. Au berau jazoten jako denpora luzean konfesatu baga dagoanari, pekatuan ugertua, artua, oratua, josia, gogortua, eransia dagoanari. Gaixotasuna jatorkunean, eriotzea aurrez aur ifinten jakonean, arerioaz batuten danean eztago oiturik, eztago prestatu; ta prestatu ta abiatuten dan bitartean, egiten dau arerioak berea, ta gura dabena.

Dabid Profeta santuak diño: Gaubaz egin ta ateretan nituan nire pekatuen kontuak ta gogoetak; ta gero inarreaz izuzkiaz igaroten neban neure konzienzia. Bada inarreaz sarri igaroten dan etxea erraz garbituten dan legez; eta urtean bein baño garbitzen eztana nekez ta gatx garbituten dan legez dituan sastamarra, auts, amaraun ta loikeriak gaiti: alan, sarri konfesetan dana laster, arin, erraz garbituten da; baña nekez gitxitan egiten dana; zerren oni luzekor ta berandukor, nagí, nasai, epelai pekatu ta loikeria asko eransi, oratuten jakazan. Beraz, sarri askotan garbitu eta konfesatu bear da.

5. *Boskarren errañoia* sarri konfesetako da konfesiñoaren bitartez biztu ta kobretako graziatzko egoeran zengozanean egin zenduzan gauza onak; zeintzuek zirian ordu atan obra biziak meritugarriak; eta gero pekatu egiñaz il ta amatau zirean. Au ondo adituteko, jakin bear dozu lau erako, moldeko edo suerteko obra idoroten direala, orain gure konturako ondo datozenak.

Lenengoak dira *obra* edo egite *biziak*; eta dira graziatzko egotaldian edo pekatu mortal bage zengozanean egin zenduzan obra onak. Bigarrenak dira obra iltzalleak, eriotzea-emolleak, arimea ilten dabenak, eta dira pekatu mortalak. Irugarrenak dira *obra illerazoak*, ilduak, ilduratuak, loak artuak, sortuak; eta dira arako graziatzko estadian egin zirean obra on guztiak, pekatu mortalean gero jausi ezkerko, geldituten direanak illik legez, bizitzarik ezpaeukan legez ta zeruko gloriara eroien bidetik kanporaturik, alderaturik geldituten direanak; esturik, loturik legez. Bada, obra illeratu, lotu, loak artu oneek biztu, bizkortu, barrerotuten dira ondo konfeseteaz. Konfesiño santuak kendu ta ebagiten deutsee pekatuak ifini eutsezan lokarriak, kateak, eragozgarriak.

Laugarren obrak dira *egite illak*: eta dira pekatu mortal eriotzuan zagozala egiten dozuzanak. Pekatue mortalean zagozanean egin daroazuz gauza on asko: barauak, oraziñoak, limosnak ta beste obra miserikordiazkoak. Onek guztiok berez, bere egitez ta izatez dira obra onak. Baña presona il batek ezin leikean legez obra bizirik, ta zu orduan illik zagozalako graziaren bizitzea baga, gai onetan zure egite on guztiok dira illak, balio gitxikoak ta zeruan sarituko eztereanak. Eta alan, errukigarria da pekataria bere alper-egitea gaiti bere: bada, pekatu mortalean dagoanean bizitzarik eztabe bere lan egite onenak. Beste kalterik ezpalego bere, onegaiti bear zenduke zeinbat lasterren konfesatu.

Onetara esango dau batek: Ori orrela bada, pekatuan nagoan bitartean ez dot atera bearrik baraurik ta utsak izango dira nire oraziñoak, deboziñoak, errosarioak, mezenzutea ta beste egite onak. Ez, ez tira orduan bere larga bear; orduan dira bearragoak, Jangoikoak lagundu dainzun pekatu urtetan; orduan bere zerbait balio dabe, zerurako ta zeruan sarituteko ezpadira bere, baña bai lagunduteko biotza bigunduten; munduko ondasunak erdetsiteko; graziako bidera ekarteko; pekatu gitxiago egiteko; pekatuan ez gogortu ta ez ustelduteko; ekandu onetara egiteko; ta beste makinabat gauzarako. Alan erakusten dau Santo Tomas Dotoreak. Jangoikoak bere ontasuna gaiti aetarik artuten dau bidea obra onak egiten dituanari, pekataria ta pekatuan datzana bada bere, on egiteko, eskua emoteko, argiak biraltzeko, bide onera ekarteko, falta jakana betetzeko. Eta bitartetasun ta laguntza onegaz abiatu, asi ta prestatzen da pekataria grazia irabazteko.

Orregaiti bada, dana dala ta pekatuan bazagoz bere, egizu on, ez larga oraziñoak ta deboziñoak; bada, alde edo moldez zerbait balioko deutsue; baña ez konfesatu baziña legez. Eta alan, obe da denpora alik gitxienean bere pekatuan ez egotea ta sarri konfesetea.

6. *Seigarren errañoia* zegaiti sarri konfesatu bear dogun da zerren urtean bein baño konfesetan eztanak dirudi nai ta nai ez, bearturik, premiñaturik, borondatearen kontra konfesetan dala; ta adietara emoten dau bearturik ezpalego ez litekela orduan bere konfesatuko; eta onelako konfesiñoak entero gitxi balio dau. Komunki pekataria pekatu egin barrian bildurrago, estuago, larriago, antsiatago dago, andik urte bete baño. Bekatu baten jausten zareanean al bait lenen ta ordu berean konfesatu bear zintezke. Bada, luzetuten badozu, aztuteko peligran ifinten zara; eta ez bakarrik ori, baña bai ta pekatu geiagotan jausteko arriskuan, diño Sn. Gregorio Dotoreak.



Itanduko bazeunskio luzaro gaixorik dagoan bati ea zelan eztan osatuten. Eta eranzungo baleuskizu alan dagoala osagarri bat ez artutea gaiti, osagille bati ez deitutea gaiti, mirarituko zintekoz ta errazoiak esango zeunskio ero zoro buru bage bat dala. Alan da, bada, zenzun bagea konfesoarea gana, arimeko medikua gana ez joatea gaiti urte guztian, ain denpora luzean, garizuma edo aste santugiño arimako gaixotasunean dagoana bere. Buruko min batek, kalentura sukar andi batek edo beste gaixotasun bizi kontrako batek artzen zaituanean bertati, bereala, lenbait len zoaz erremedioaren billa, osagillerik onenari deituten deutzazu. Zegaiti, bada, gorpuzteko gaixotasunean egiten dozuna eztozu arimea gaiti egingo? Orren gitxi balio dau ta orren gitxitan dozu zeure arimea?

Zorrak dituanak, baldin prestua kontuzkoa bada, poztuten da aek kitutzeaz, zeinbat lasterren pagatzeaz. Pekatuak zorrak dira ta onegaiti egunero dirautsagu Jangoikoari: *Parkatu eiguñuz gure zorrak*. Eta, zelan maiordomo edo otsein batek, baldin kontu onak, zuzenak, garbiak emon gura badeutsaz bere ugazabari, eztan egoten urtearen buru ta azkeneraño kontuak ikusi bage ta bere nagusiaz berba egin bage: alan guk bere, baldin gure arimeko kontuak emon gura badoguz kontuz, ziur, artez, ondo ta zorrotz atera ta kitutu, eztozu urtearen kabu giño, garizuma giño larga, itxi ta luzetu bear. Konfesiñoa da Jangoikoaz berbatu, kontuak emon ta pagatzea.

Eta zuk esan ta uste izana gaiti garizuman edo Pazkoan konfesatuko zareala; orduan kontuak atera ta emongo dozuzala, orduan zorrak kitutuko dozula, engaña zindekez, uts egin ziñei uste uts orretan. Zer dakizu iraungo dozunez bizirik garizuma giño? Orain zuk gura eztozu; eta gero Jangoikoak gurako zaituanez? Jangoikoak eskeñi ta promestuten deutsu zeure pekatuen parkaziñoa, baldin ondo konfesetan bazara nos nai, edozein denporan, garizuma ondoan bada bere; baña ezteutsu promestuten, ez segurantzarik ta baiezkorik emoten itxarongo deutsula garizuma giño.

Gauza arrigarria ta zorakeria guztien erokeria da pekatu mortalean egonik gau bat igarotera benturatutea, arriskatutea. Bada, asko doaz arraztean sendorik oera ta ez tira bizirik goxean jagiten. Peligruan ibilli gura dabena peligran galduko da, diño Espiritu Santuak. Bada orrela, seguruan jokotuteko ezta urte osoan pekatuan egon bear, ezpada lenbait len, laster ta sarri konfesatu.

7. *Zazpigarren errazoi*a sarri konfesatuteko da alan konfeseteak biotzari emoten deutsan atsegin, konsolamentu, poz ta zabaltasuna gaiti. Meatz, gitxitan, berandu konfesetan danari gatz nekezkoa egiten jako

konfesetea; lotsa da, bildur da, estura larrituan ikusten da. Alangoak egunetik egunera, garizumaren asieratik azkenera luzetuten dabe konfesetea; eta batzuetan denpora ori bere largatzen dabe. Eta au berau egin daroe gaixotuten direanean bere: egun baterik bestera luzatuten dabe; beti gero-ko uste falso engañarriaz: gero Jangoikoak gogoa ta astia emongo deuteela; gero burua obeto eukiko dabela; egun batzuetan larga legiela; epe ta denpora obe bat etorriko dala. Eta onelako luzementuetan dabilteela, zeinbat eta zeinbat konfesiño bage ilten ez tira?

Gitxitan orraztuten danak lenengo orraztutean, lenengo aldian orrazia nekez igaroten dau, min egiten deutso; ulleak nasturik, izurturik, alkar oraturik daukazalako. Baña sarri orraztuten danak eztau gatzik idoroten, eztau minik artuten, erraz orraztuten da. Onela bada, erraz orraztuten da bere ariman urtearen buruan sarri ta denporaz konfesetan dana: pekatuak ditu gogoan; guztiaz gomutetan da; laster konzienziako billakuntza egiten dau; guztiak agertuten ditu konfesiñoan; guztiez salatuten da; eztau minik artzen; dendatuten da pozik konfesetara.

Enzutea, jakitea ta ikustea bera sarri konfesetan dala bat, asko da besteak a eukiteko ontzat, prestutzat; eta bai uste izateko gitxitan konfesetan dana ez tala kristiñau debotoa, kontuzkoa, begiratu. Bada, bere buruaz ta bere arimaz kontu ona emon gura dabena; ondu ta obetu bere bizia; jadetsi bere pekatuen parkaziñoa; seguratu bere salbaziñoa, geitu grazia, iges egin Purgatoriotik; goiartu deabrua; benzutu tentaziñoak; ez gogortu pekatuan; ez galdu bere egite onen saria; ta irabazi bakea, pozkaria ta zerua; konfesatu bedi sarri ta ondo prestaturik; larga bage konfesiñoa gerotik gerora; luzetu bage garizuma osteria; ta batezbere konfesetan dala iru Pazkoetan, Ama Birjiña Abustukoan ta Domnus Santuetan. Au, nagien nagienak; baña persona kontuzkoak, illero; birtuosoak, amabostean bein; espiritualak, astero; edo Konfesariak dirautsen denporan.



49. BURUA

*Gerotik gerora luzamentuetan dabillanak egiten deutso
bidebagea Jangoikoari.*

1 §.

Santo Tomasek diño: Gizonak pekatuak egin ezpaleu, etzala Jangoikoaren Semea gizon egingo; ta agiri da ezetz: bada, gizondu ezkeru beti ebillan pekatariakaz; euroen laguntzan ebillan; euroen etxeetara, bilkun ta maira joaten zan; eurokaz jan, edan, solastu ta berba egiten eban, guztiak beraganduteko. Orrenbestez, eze Eskriba ta Fariseo maliziotuak aotan erabillen, deungero esaten eban, ziñoela: Zer da au? Zelan da au? Eztirudi ondo onelako presona errespetagarria lagundutea pekatariakaz, gizon gaisto galdu konzienzia bagekoakaz; beti dabil euroen artean; eztau beste inogaz trataturik; galdua izatea da asko bere adiskide izateko.

Eta orrenbestera eldu zan Fariseoen murmuriau, ze Jesu Kristok esan bear eutsen ta adirazo irudintza batzuk erakusteko ze gaiti ebillan pekatariakaz, berba egiten eutseela onela: Zuek diñozue pekatariakaz nabillala, eurakaz jan, edan ta berba egiten dodala. Eta ondo diñozue; alan da, egia da. Baña etzaitze miraritu. Eun ardi dituan arzain batek, eunetarik bat galduten jakonean, larogeta emeretzia larka ta doa galdu bakar aren billa; ta idoroten dabenean atsegin ta poztasun andiago emoten deutso ardi galdu topatu onek, beste guztiak ikustea baño. Jakin egizue, bada, pozkari andiagoa artuten dala zeruan bere penitenzia egiten daben pekatari batez, larogeta emeretzia justu penitenziaren premiarik ez dabenez baño.

Bai ta amar diru dituan andra batek, euroetarik bat galduten dabenean, argia erexegiten dau, etxe guztia arakatuten dau; gero barriz topetan dabenean poztuten da; asten da bere auzoai barri on au emoten ta onek dirautsee atsegin dabela, izan dedilla ordu onean: beragaz batera poztuten dira. Jakin eizue, bada, Zeruko Angerua bere poztuten direala asko pekatari baten biurrereaz, penitenzia egiteaz, diru galdu au idoroteaz.

Antz, irudintza, bardintza onekaz erakusi ta adierazoten dau Jesus maiteak andia dala gure Jangoikoak daukan deseo gu salbetako; ta onetan artuten dabela atsegiña ta poza. Au darakus diñoanean kontentu geia-

go dabela pekatari baten penitenziaz, larogeta emeretzia justuen justutasunaz baño.

2 §.

Egia da bentaja ta aurre andia daroiola justuak pekatariari; onak, gaistoari; garbiak, ezain loi zikiñari; eta obe dala soñeko barri osoa, zar zatartu zatitu adobatu gela baño. Zegaiti, bada, esaten da, orrez guztiaz, atseginago dabela Jangoikoak pekatariaren penitenziaz, justuaren justutasunaz baño? Onetara onela erantzuten dau Santo Tomasek: Ainbatik ainbatean ta nola bait ta berez, obe da inozentzia edo errubagetasuna ta beinbere ezaindu ta loitu bage egotea, loitu ezkeroko garbitasuna baño. Baña, orrez guztiaz bere, diño Jangoikoak atsegiñago dabela pekatari beragana biurtuaz, penitenziaz garbituaz, jausi ezkeru jagiaz, beste beinbere jausi eztanaz baño. Bada, onelakoa komunki geiago ta zindoago abiatuten da onera, beti justua, mena ta ona izan dana baño. Bekaturik egin eztabenak ez dau ezerean bildurrik; baña bere pekatuen penitenzia egiten ta erremediatzen dabillana beti da bildur, estututen da, arduratuten da, gogoz ta beroz premiñatzen da, kontuz dabil; ta alan dabillala igaroten da askotan beti justua izan dana baño aurrerago. Au ikusi zan Dabid santuaz, San Pedro ta Sn. Paulogaz, Santa Maria Madalenaz ta beste askogaz; ta egin zirean beste beti justuak izan zireanak baño santuagoak; ta etorri pekatuan jausi baño len izan zireanak baño obeak izatera.

Ainbatik ainbatean, obea da soñeko osoa, zatitu zartua baño. Baña alango zatia, apaindura, atala ta zabalera emon leikio, ze gero zabalera geiera ta zati ak, soñeko barriak baño balio geiago euki leikian. Onegaiti diño San Gregoriok: Kapitai batek geiago estimatu ta preziatuten dau, gerrarik iges egin ezkeru barriro biurturik, balentia andiak egiten dituan soldadu bat; beinbere iges egin eztabena ta balentiarik inos egin eztabena baño. Onela, nekazari batek bere gurago dau, maiteago dau bedar txar asko euki zituan lurra ta gero garbitu ezkeru frutu asko dakarrena, inos bedar gaistorik euki eztabena ta fruturik bere eztaartzana baño.

Era onetara, bada, gure Jangoiko maiteak bere maiteago dau pekatu egin ezkeru gogo osoaz ta borondate sutuaz egite on santuetara emoten dana; pekatu egin eztabena ta obra onak bere otz, epel, nasai egiten dituna baño. Eta diño maiteago dabela alako pekatari egiaz, finki ta gogoz penitenzia egiten dabena, beste penitenzia bearrik ez daben larogeta emeretzia baño. Ta ori da len pekatari galdu gaistoa izan zana egiten dalako



gero penitenziaz bitartez justuago, sutuago, santuago, maitetsuago, beti onak izan direanak baño.

3 §.

Bai ta bere maiteago, estimatuago dau Jangoikoak penitentzia egiten daben pekataria, penitenziaren premiñarik eztabena baño, zerren peligruan, arriskuan, galdu ta ausi aginian ibilli direan gauzak idoroteaz, atsegin, kontentu ta poz geiago artzen dan, beti seguruan seguraturik, gorde-rik peligru bage egon direan gauzak ikusteaz baño.

Gerraren ostein estimetan da bakea; akatxa igaro danean preziatuten da eguraldi ederra; gaixotasuna joan danean maitatzen da osasuna; otzaren ondoan, beroa. Eta, zeinbat eta geiago, andiago, nekezkoago izan dan gerrea, ekatxa, gaixotasuna ta nekea, ainbat eta gozoago, preziatuago, estimagarriago gero ondoko atsegiña, poza, gozotasuna. Zer gura dozu geiago? Sn. Agustinek dino. Baldin atsegiña atsegin izango bada; gozotasuna, gozo: lenagotik bear da apur bat neketu, arikatu, mindu. Gatzaren barririk ez dabenak eztaki osasuna preziazten. Lo-gura eztanari ez jako loa gozo egiten; ez eta jana edana bere, ase bete aspertua dagoanari. Ta onegaiti edale on batzuk billatuten dituez jate gatzituak egarria biztuteko; ta bizturik, galantoago gustosoago edateko. Orregaiti ordenatu zan etzegiola esposo barriai bereala ta egun batzuetan bere esposa emon; nekez izana obeto estimatu egiantzat edo laster emona gorrotau ez egian.

Arzain bat geiago poztuten da ardi galdua idoroteaz, talde osoan seguruan onean alan dagoala jakiteaz ta ikusteaz baño. Aita batek pozkari andiago artuten dau denpora luzean mututurik egon dan seme baten aotik berba bat enzuteaz, bere seme guztiak ederto berba egiten enzuteaz baño. Onegaiti Ebanjelioko bere ondasun, diru ta senipartea jan edanetan, desoneskeria ta gaistakerian urturik ta ondaturik galdua, ezindua, desegiña biurtu zan seme gaisto gastalari ondatzalleari egin eutsan bere aitak fiesta andiago beti bere etxean, bere laguntzan, bere agindura egon zan beste semeari baño. Etxekoa beti seguruan ekusalako, baña bestea galdutzat ikusirik, kobratu ebalako. Auxe berau egiten dau gure Jangoiko maiteak artuten dabela konsuelu ta atsegin andia damuturik, ondurik beragana biurtzen dan pekatariaz; galdu ezkeren idoroten dabelako, peligruan, ondakizunean, arrisku ta bide okerrean ebillana seguratzan dabelako.

4 §.

Pekatiaren penitenziaz atsegin andia artzen dau gure Jangoikoak; ta ori dator pekataria ganako daukan amoreta gaiti. Eta Terenziok diñoak-lez: Maite maite direan personen arteko aserreak, erremuskadak, erriertak izan oi dira askotan lengo maitetasun ta adiskidetasunean sendoago, barrurago, irrimago geldituteko. Alkarregaz berbatu bage, ikusi bage egon direan denpora atan bere, alkartuteko deseo azi ta geiagotuten jake. Alan bada, nola bait guk aditzeko moduan, Jangoikoari bere aziten jako bekataria beragandu ta beretuteko deseo ta borondatea, pekataria bera ganik aldeginik ta igeska dagoan bitartean. Eta dirudi ta esan lei eztagoala kontentu, ez dabela onik berea egin artean. Bada, bitarte atan atetara etorrikerik legez beti diez oleska jagoko; ta ori luzero ta beinbere esperanza galdu bage, Isaias Profeta Santuak diñoan legez. Urte batean, bitan ta amarrean ate ondoan itxaroten dago.

Ta alanbere bere burua sor ta gor egiten dau; geroko bere egin-bidea luzatuten dau. Gauza ezaina, itsusia, sentigarria da adiskideari diez dago-tzunean ez eranzutea, ez jaramotea, atetan itxaroten gogaiturik eukitea; eta bereala emon zeunkioan eranzueta ta egin ziñaikion mesedea geroko luzetutea.

Bada orrela, gauza ezaina ta dongero egin izango da ain maite zaituan Jangoikoari ta adiskideari zure penitentzia egiteaz, zu bera gana biur-tzeaz ta etorriaz ainbeste atsegin artuten dabenari; beti zure billa ta diez dabillala dakizunari ez jaramotea, ez eranzutea, itxedoten eukitea, enzun-gor egitea, geroko luzetuaz ta ez bertati eranzuteaz. Dirudi, baldin Jangoikoak ezigaz euki ta artu albalei sentimentua, onegaz artuko leukala.

Au alan izanik, esan bear da andia dala luzamentuetan dabilan peka-tariak alan ibilte atan ta bitartean Jangoiko maiteari egiten deutsan bide-bagea, iraina, eskerbagetasuna ta billaukeria. Eta alako bidebagerik ez egi-tea gaiti bere eleuke bekatariak ibilli bear luzementuetan, gerotik gerora largarik Jauna gana biurteza.



50. BURUA

*Geroko luzamentuetan dabillan pekatariak
egiten deutsee bidebagea Angeru Santuak.*

1 §.

Espiritu Santuaren esana da luzatuten dan esperantzeak nekatzen dabela gogoa ta larritu arimea. Bada orrela, andia da egiaz Angeruak luze-mentuetan ibillirik egiten deutseegun bidebagea. Zerren deseo ta egarri andiaz dagoz begira ta zain ea nos penitenziaren bidez gatozan Jangoikoagana eta, barriz, damu artzen dabe luzatu, belutu, beranduteaz. Alan erakusten dau San Agustinek, esanik: Ondo egiten dogun guztian poztuten direala Angeruak; ta gogaitu, aserratu, damutu deabruak. Esaten danean Angeruak poztu ta deabruak naibagetuten direala, adietan da geure aldetik dagoanez poztu edo tristetuten direala; eta guk egiten dogunaz onetarako bidea emoten deutseegula. Bada, ganerokoan zeruan gloriaturik dagozan Angeruak ezin tristetu litekez; eta ez poztu bere infernuan betiko neke gogorretan dagozan deabru madarikatu zorigatzez minduak.

Jangoikoak emonik dauko gizon bakotxari bere Angeru gordegilla, zaina, begiragillea. Angeru onek besteen ganetik dauko bere kontura dagoanaren begiramentu, ardurea ta kontua; ta beti dauko aren salbamentuaren nai gura andia. Jangoikoak ontasunean egiten daben legez gizonaren fabore; alan deabruak bere gaistotasunean gura leuke egin bere mendean daukan pekatariak, diño Santo Tomasek. Luzifer deabruen agintari, buru ta kapitaiak izentatzen ditu deabru gaito batzuk kontu euki daien gizonaz, tentatu, beragandu ta bekatu egitera ekarri daizentzat. Eta onegaiti esan giñei, Angeru on bat dogun legez gu zaindu ta gordeteko, alan dogula deabru gaisto bat bere gu tentatu, galdu ta ondatuteko. Angeru ona, Jangoikoa emonik; ta gaistoa, deabruak biraldurik.

Esakizun ezta Angeru biok euren artean daukeen gerra ta errierta andia gure arimaren ganean. Biak abiatzen dira; biak ekin ta daragoioe lan ardurazko ta kontuzko oni; ta baztezbere eriotzako orduan; bada, orduan da pelearik indartsuena; orduan arimearen gora bera guztia; ta neurria alde batera edo bestera jausteko puntua. Orduan alkar aditurik ta arturik batu ta lagunduten dira deabruak, esaten dabela: Larga ta itxi dau au

Jangoikoak; artu daigun bada guk, daroagun, zerren gurea dan eta bakotxari berea ezin iñok kendu leio. Inguratuten dabe, esetsiten deutse, tentatu ta desesperaziñoko puntura dakarde; ta asko orduan galduten dira.

Azkeneko ordu onetan jatorkoz arima tristeari gogora bizitza guztian egin dituan gaistakeria guztiak; ta, ikusirik andiak ta asko direala, biotza estutu, jausi ta ilten jako; gogoeta txar tristeak jatorkaz burura; ta diño bere artean: Zer izango da orain nigaz? Ze sententzia emongo deuste? Salbatuko ete nas? Puntu latza, pausu gatxa, lan ardurazkoa, estura bildurgarria, arrisku izugarria! Zer egingo dau orduan arima gixagaixoak? Nori deituko deutso bere fabore? Nok eskua emongo deutso? Nogaz baliatuko da? Nor etorriko jako laguntzera? Nor? Bere Angeru gordegille maitea. Au orduan adiskide ona legez elduten jako; onek lagundu ta eskua emoten deutso; onek an inguruan batera ta bestera dagozan deabruak aldegin, uxatu ta urrinduten ditu. Eta gero dirautso arimeari: Ea arima bildurtua, animu, biotz artu egizu; ez bildurrik euki, ez galdu esperanza. Bada, zure pekatuak asko ta andiak badira bere, andiako da Jangoikoaren ontasuna ta miserkordia; zure salbaziñoa gura dau, ez zure kondenaziñoa; oraindiño salbaziño bidean zagoz; damutu zaite pekatu egiñaz.

Orduan Elexa Ama Santeak bere eskatu ta erregututen dau, diñoala: Ea zeruko Angeruak, Jangoikoaren aurrean zagozanak, orain da ordua, orain bear zaitue arima triste onek; estura andian dago, lagundu eiozue, eskua emon egiozue, eldu zaitez. Orduan arima ak bere barruan seguru-tasunen bat artzen dau; egin dituan gauza onak animatezen dabe; ta bere aide ta adiskideak bera ganik aldegiten direanean bere, antxe bere alboan berari lagun egiten, bera gaiti erregututen dago bere Angeru Gordekoa, eztau bein bere largatzen arimea gorputzean dagoan artean.

2 §.

Baldin arima au ontasunean, fedean, esperanza firme badago ta bere uts egiteak penitenziaz kituturik, urteten badau mundu onetarik Jangoikoaren grazia ta adiskideatasunean, nok esan lei ze andia dan orduan Angeru Guardakoak artzen daben atsegiña ta poza? Ze burla ta barreak egingo ezteutsaz arima aren ondoan ta billa ebiltzeen deabru gaisto asmutsu zitelai? Onetan artuten dau Angeru Santuak arima zorioneko au bere besartean; daroa Jangoikoaren aurrera, dirautsala: Jauna, aramen non dakardan nire kontura ta ardurara itxi zenduan arimea; agindu zeustan gorde, eskudatu, zaindu, jagon, gidatu negiala; gorde dot: zure agin-



dua bete dot; sendorik ta ondo biurtuten deusut. Artu egizu, bada; emioizu oni zeure gloria; ta niri neure nekearen saria, pagamentua.

Baña, baldin arima ak jagi ta urteiten badau gorputzetik bekatu mortalean dagoala; baldin kondenetan bada; orduan deslai largatzen dau bere Angeru jagoleak; aldegiten dau bera ganik, dirautsala: A gaisto desleial esker-gaistokoa ta nire nekegarria ta gogaikarria! Ze deungero eranzun dozun ta ze deungero emon zugaz egin dodazan alegiñak! Amaren sabeletik urten zenduanetik orain giño beti zure darraian ta alboan bein bere uts egin baga ibilli nas. Alegin asko ta luzeak egin dodaz zu arerio orretarik gordeteko ta orain zaroazen bide gaisto orretarik aldegitoko. Baña guztia alperrik.

Bada, beti egin dozu zeure borondatea, ez nire esana; ondo azturik euki nozu; eztozu nigaz konturik euki; etzara nire adibidez gobernatu. Galdu dot nire neke ta lan guztia; baña bai zuk bere sekulako zeure burua. Baldin Angeru a tristetu ta lotsatu albaledi, uste dot ze alan egingo litekeala arima aren galtzeaz ta arerio gaistoak daroela ikusteaz. Eta dirudi lotsaturik legez dirautseela bere lagun Angeruui, Jeremias Profeta Santuak Babiloniako erriari zirautsana: Nik egin dot alegiña ta nire aldetik dagoana osatuteko Babilonia; biurtzeko Jangoikoa gana. Galdu da erriau, galdu da arima au; ta ez dau bestek nik baño damu andiagorik. Baña berak dauka errua: bera galdu da. Niri sinistu, obeditu, jarraitu baleust, ezkinian onetara etorriko; ez neban nik onenbeste damu ta naibage orain eukiko; ez eta berak bere orrenbeste kalte, zori-gatx ta pena orain eukiko.

Baña, zelan da au? Zelan galdu da arima au? Ez eban Jangozioaren Semeak onen salbaziñoa gaiti emon bere odola ta artu bere eriotza? Etzituan gaixotuten zaneko ordenatu osagarriak, erremedioak, Sakramentu Santuak? Ez eutsan Angeru Santu bat bere erakusle, gidari, gordetzalletzat emon? Zelan, bada, galdu da? Zelan kondenatu da? Baña Angeru Santuak eranzuten dau: Egiak dira oneek guztiak: nire kontura egoan, bitarteko andiak zituan; baña etzan baperez baliatu. Batetik, gaxotasun ta gatx andia eukan ta deseo gitxia osatuteko; ta, bestetik, bere buruz baliatu da, bere gogo uts ta borondate okerraz gobernatu ta gidatu da ta ez nire konsejuz, adibidez ta esanaz.

Egiaz damu ta naibage andia emoten jako Angeru Guardakoari bere kargura dagoan arima bat pekaturik urteiteko luzamentuetan dabillanean; ta oraindiño andiangoa, kondenetan jakola dakusanean. Bai ta beste Angeru guztiai bere naibage andia emoten jakee. Bada, guztiak gure salbamentua ta zeinbat lasterren pekaturik urtenik ikustea deseatuten dabe; ta urtetan dogunean poz ta atsegin andia artzen dabe.

Beragaiti bada, Angeruui bai atsegiña ta naibagerik ez emotea gaiti bear genduke egun beretik, gaur ganik, geroko luzatu bage, eragozgarri guztiak kendurik salbaziño bidea artu, penitentzia egin, Jangoikoa gana biurtu, pekatuzko bide ta lagun guztiak ebagi, bizitza on garbi deboto bat asi, gelditzen jakun denpora labur arriskatu au ondo emon.



51. BURUA

*Gerotik gerora luzamentuetan dabillanak egiten deuto
bidebagea bere buruari, lagunari ta munduko gauza guztiari.*

1 §.

Baldin luzaro pekatuan egoteaz, irauteaz ta gerotik gerora ibilteaz egiten badeutsegu bidebagea ta injuria Jangoikoari ta Angeru Santuari; jakina da, alan egiten deutsegula gerue buruari bere bidebagea ta kaltea. Bada, orduan pekatu mortalean gagozanean, baldin ilgo bagintekoz, sekula betiko galduak ta kondenatuak izango gintekoz.

Guk dogun areriorik andiena geure burua da. Ezteusku geure buruak baño beste inok kalte ta bidebage andiagorik egiten. Geuk geure buruak galduten doguz, infernura botetan doguz. Ez dogu inogaz aserratuteko errazoi andiagorik, zelan geure buruaz; ez dogu besteri zer errurik ezarri; geurea da errua; geu galtzen gara.

Eztakit non dogun geure adimentua ta zenzuna; eta zetan pensetan dogun; bada, doguzan beste gauza guztiak gura dogu onak izan ditezen; eta bakarrik geure biotzea, konzienzia ta arimea gura dogu gaisto ta txarra. Esaidazu, diño San Agustinek: Zer da gaistoa, txarra ta dongea gura zendukeana? Ez egiaz ezer. Nai etzenduke euki emazte gaistoa, seme alaba gaistoa, otsein serbitzari gaistoa, ez alkandora txarra, ez soñekoa, ez oñekoa. Zelan, bada, gura dozu bizitza ta konzienzia gaistoa? Edolabere oñetako kaltzerdi edo zapa baten baño kontu ta ardura geiago euki egizu zeure arimeaz. Zelan, bada, dozu ain gitxitua, ain azturik zeure arimea? Zelan, gura izanik gauza guztiak onak, dozu bizitza gaistoa, konzienzia gaistoa, arima pekatuan illa?

Baldin zure etxean dagozan gauza guztiak berba egin al balegie, zure kontra deadar ta txilioa egingo leukee, diño San Agustin berak. Zure soñekoak, zure zapatak, zure gauza guztiak esango leuskizue: Zeure arimea baño maiteago gozuz; zuk gura dozu gu onak izatea; alan guk bere nai dogu zu ona izatea. Zuk gura dozu zeure etxeko guztiak, zeure serbitzariak onak izan ditezen; guk bere gura dogu zu ona izan zaitez; nagusi, ugazaba ta ugazabandre onak eukitea. Baldin zeuk dozuzan gauza guztiak itanduten badeutsazue zer dan zuk dozun gauzarik preziatuena, balio-

duna, maiteena, eranzungo deusue zeure bizitza ta arimea dala; bada, bizia gaiti munduan dan guztiak largako zenduke. Zelan, bada, gura izanik beste gauza guztiak onak, nai dozu dozun gauzarik maite preziatuena gaistoa izatea? Ezin emon ziñei beste errazoi, atxakia ta igesbiderik, ezpada deabruak itsutu, ilundu, engañatu, zorabiatu zaituala; eta zu zareala zeine gaitik Sofonius Profeta Santuak esan eban: Itsuturik ibilli zirian, pekatuan jausi ziriala Jangoikoa aztu ebeelako.

Guzti onegaiti, egunetik egunerako luzementuetan zabilzan bitartean pekatuak urteiteko, zeure buruaren arerio kubrela zara. Bada, ondo ta garbiri bizi zeintekozala, deungero bizi zara; ta ori zeure erruz, zeure nagitasunez; ta onetan bidebagea ta kaltea zeure buruari egiten deusazu; zeure burua galduten dozu; zeu zeuretzat egiten zara areriorik gogorrena, gaistuena, kaltetsuena, zitelena.

2 §.

Onela bada, gerotik gerora ibiltzeaz ta egoteaz pekatuan bidebagea egiten deusazu zeure lagun projimuari bere. Askok esan daroe, baldin gaistoa banas, neuretzat nas gaistoa; eztabe ene pekatuak inor infernuratuko: bakotxak bereak jasoko ditu. Egia da bakotxak bereak jasoko dituala. Baña eztiñozu ondo, etzareala zeuretzat baxen gaistoa; ez jatorkola ortik inori gatzik, ez kalterik. Bada, zelan ona askorentzat dan ona: alan gaistoa bere askoentzat da gaisto ta kaltegarri. Zeure bizitza gaistoaz, ejenplu ta adibide deungea emonaz besteri bere pekatuak zuzenbidea emoten deusazu. San Agustinek diño: Besteen aurrean, agirian ta jenteak dakusala ta dazauela deungaro bizi danak bere alderik, beragan danez, aurrean dagozan ikusle begiratzalle guztiak ilten ditu, pekatuak dakar. Beragaiti bada, zeure buruari ez eze, besteai bere zeure pekatuak ta bizitza txarraz kaltea ta bidebagea egiten deutseezu. Zeinbat bider zure pekatua gaiti etorri ez tira beste asko lapurkeriak, desoneskeriak, birauak ta gaistakeriak egitera? Zeinbat bider kastigatzen ez tizu Jangoikoak beste inozente justu errubageak ta erri guztia zure pekatuak gaiti, ez infernuko kastiguaz, ezpada mundukoaz?

Lagun urkoari ez eze, bai ta kalte egiten deutsezu munduko kriatura errazoirik eztaukenai bere, bidebagea ta injuria egiten deutseezu pekatuan dirazun bitartean. Etxeko Jaunari bidebagea egiteaz ta desonratzeaz etxetar guztiak sentitzen dabe, familia guztia desonretan da. Pekatuan egoteaz Jangoikoa mundu guztiko etxeko Jauna ofenditu, desobeditu,



lotsatu ta desonraturik desonretan dozuz bere etxe onetako kriatura guztiak, arri giñokoak: bada, guztiak dira Jaun andi onen etxetarrak, familia-koak eta zerbaiterako serbietan dabenak, gauzarik txiki pitinenak badira bere. Zure pekatuaz guztiak ukutu ta joten dira; guztiak injuriaturik geratuten dira.

Bada, Dabid Errege ta Profeteak diñoan legez: Zure serbizioarako ordenatuak, sortuak dira; ta zure agindura ta zure oñeen azpiko ifiniak. Pekatuan zagozan bitartean direaranak zure kontra ta euren egillearen fabore jagiko litekez, Jaunak lizenzia emongo baleutsee. Eguzkiak, illargiak ta izarrak ez leuskizue argirik emongo, ez itxasoak arraiñik, ez lurrrak fruturik; ez animaliak narru ezne ta ullerik zu janzi ta janarituteko; gizonak, abereak, kriatura guztiak zure kontra jagiko litekez. Zerren egoera gaisto orretan zagozan bitartean zara Jangoikoaren arerio, deabruaren serbitzaria, pekatuaren azpikoa, munduan dan kriaturarik billaena, txikerrena, ezerezena. Eta eztator ondo ezerbere eztanak zerbait dana serbiete; ta txiki pitin dollorrenak andiagoa bere azpian euki ta erabiltea.

Bai ta bere bidebagea egiten deutsegu munduko kriatura guztiak pekatuan egonaz; zerren guztiak gure pekatuak gaiti Jangoikoak kastigatu zituan ta kastigetatu ditu. Ainbeste kastigatzen ditu ze, diño Dotore batek, eguzkiak, illargiak ta munduko beste kriatura guztiak galdu eben gizonaren pekatua gaiti bere bertute, izate ta balioaren zazpigarren partea ta zatia. Eta alan, errazoiak aserratu liteke eguzkia pekatariaren kontra, dirautsala: Ni zu gaiti ilundu, itsaltu ninduan Egilleak. Bada, orain argi banago bere, len neukan argi argitsuago. Abereak ta animalia adimentu bageak esan leioe: Zu gaiti Noeren denporako urjola andian ondatu, gitxitu, ito ginduzan. Lurrrak esan leio: Len garbia nintzan, frutu ta fruta eder gozo ugariak emoten nituan ta zure pekatuak gaiti aranzaz, elorritz, sasiz, bedar txarrez bete nas, meatu, erbaldu, indarbagnetu nas. Eta Abakuk Profeta Santuak diñoiez: Orman josirik ta oraturik dagozan arriak prest dagoz pekatariaren kontra emon, esetsi, eraso, jaurt egin ta jagiteko. Espiritu Santuak Salomonen aotik erakusten dau egunen baten ta azkeneko denporan alan egingo dabela; lurrean direan guztiak pekatarien kontra jagiko direala. Orain bere egingo leuke, baleuke Jangoikoaren lizenzia, baimena ta eskubidea orretarako, zu astindututeko, goiberatu ta kastigetako.

Pekataria orain guztiak egiten deutesen legez gerra: alan orduan pekatariari direanak emongo deutse ordea ta saria bera; moneda berean biurtuko deutse pagamentu ta kitutasuna; ta galanto bengatuko dira ta kitutu orain egiten jaken injuriaz, bidebagetasunez.

Onegaiti bada, ta ainbeste bidebage ta ofensa egiten jakeelako Jangoikoari, noberak bere buruari, lagun projimuari, Angeruai, zerupe guztian dagozan kriatura guztiak, bear genduke urrindu pekatuak, ez jausi bertan, negartu len eginak, biurtu Jangoikoa gana, gorde bere lege Santua, kontuz bizi, artu bildur andi bat pekatuari, ez ibilli luzementuetan, ez larga gerotik gerora penitentzia, urten len bait len pekatuak, bide onean jarri ta erabagi biotz biotzetik ez beste bein pekatuak egitea.



52. BURUA

*Infernuko penak gogoratuteak laburtuten ditu
gerotik gerora ibilteko luzamentuak.*

1 §.

Gure Jangoikoak erakusi eban legez bere al, poderio, agintaritza ta eskubidea mundua sortu ta egitean; jakituria gobernatzean ta ontasuna erredimitu, erositean: alan erakusi dau, darakus ta erakusiko dau bere justizia kastigatzean. Errazoi eztan legez geldu dedin birtutea bere sari ta pagamentu baga, ezta on egiña igaro dedin pekatua bere kastigu baga. Ain ondo dagokio gaistoari infernua, zelan justuari zerua.

Asko ta andiak dira (len aditzera emon dan legez) gure gero onek, luzaeretan ibilteak egiten dituan kalteak, dakartzan damuak, emoten dituan naibageak, ernetan dituan zorigatxak. Baña zorigaistotasun ganeko zorigatxa, kalterik negargarriena, atsekaberik minena, galduera damugarriena ta beste guztiak aztuerazo, txikertu, igaroten dituana da bota, eza-ri, egozten dabelako azken bageko gerora, sekulako nekeetara, betiko naibageetara, ondarrik eztaben oxinera, kaburik ez daben lezera, amatauko eztan sutegira, iraute guztiko infernu ikaragarria.

O zu, sarturik zagozana pekatu mortalean, areriotasunean, desoneskeria, furia ta ondasun kendua ta ostua biurtu bage, pekatuak lotsaz konfesatu bage, kristiñau fededunaren señaile onik emon bage! Nos urtengo dozu egoera bildurgarri orretarik? Nos erabagiko dozu egiaz ta biotzez Jangoikoagana biurtzea? Bearbada beti zagoz gogo ta borondateaz onduteko. Baña, nos izango da ori? Ez orain, ez gaur: biar, gero. Eta beti gaurretik biarrera, egunetik egunera zabiltzala, gatzak artu, eriotzea etorri ta infernura bazoaz?

Uste falso uts au zu ganik nik aldegitiko ezin dot erremedio oberik, osagarri sendoagorik, medizina seguruagorik zure begien aurrean ifintea baño gero ero zoro onek egiten dituan kalteen konsideraziñoa. Txakurraren usegina txakur beraren ulleak osatu bear dau; infernuko sua infernuko suaz amatau bear da. Gero eriotza ondoan infernura joan gura eztabenak, jatsi bedi orain bizitzan gogoaz. Orain bear ditu ango penak

emen, ara baga, gogoratu, gogoan erabilli; ta onela andik iges egingo dau; ezta ara joango; ezta pekatuan jausiko.

Esan oi da ezpateak ezpatea sartu eragiten dabela bere magiñan, bere tokian. Amorez ta onez onera, gogoz ta borondatez on egin gura eztabenari; nai ta naiez; gura ta gurez, kastiguaren bildurrez eragiten deute. Lapurra zek atzeratuten dau largatzen dabenean ostuteak? Ez lotseak, ez besteen esamesak, ez iñorentzat daukan amoreak. Zek, bada? Bildurrak. Alan Jangoikoa ganako maitetasun ta begiramentuak pekatu egiterik atzeratuten eztabena bere, infernuko peneen bildurrak atzeratu bear dau.

Eta au da denpora guztietan gure Jangoiko maiteak pekatari biotz gogorrari bere gogortasuna ausi, beraatu, bigundu, samurtuteko idoroten daben bide andietarik bat; zemaitu, esan ta gogora ekartea begiratu, ikusi, gogoratu dagiala arentzat prestaturik ta gorderik daukan kastigu pare bage bat, pena latz andi bizi ikaragarri bat.

Onela San Juan Bautistak, zekiana legez, bere lenengo predikuan aitatu ta izentatu zituan infernuko su ta gar ta neke arrigarriak. Egizue penitentzia, ziñoan, ta egizue zeuroen pekatuak dagokiona: pekatu andiak gaiti, penitentzia andia; pekatu asko gaiti, luzea. Bada, jakin bear dozue, kontuan egon bear zaree aretx arbolaren ondoan azkorea prest ifinirik dagoala, keñu señaile eginik dagoala ebagiteko, surtara botateko, baldin frutu onik ezpadakar. Au da San Juan Bautistaren lenengo Sermoia. Au da etorri zanean emon eban lenengo barria, egin eban lenengo zemaia; oartu eban lenengo adibidea.

Eta barri ta zemai onegaz, onelako kastigua infernuko sua gaistoentzat egoala enzunik ain larri bildurturik gelditu zirian an egozan enzuleak, ze gaistoak bazirian bere, etorri zirian itandutera: Ori orrela bada, zer egingo dogu? Zer izango da gugaz? Zelan edo zer egiñaz iges egingo dogu, zuk diñozun pena latz andirik, infernuko sua ganik? Bautista predikari santu andiak bere enzule aditzalleai orduan zirautseena dirautsegu guk bere orain. Egia da, ez ak legezko santutasunaz, baña ak zirautsuen egia bera dirautsegu guk bere zuei.

Ak erakusten ta irakusten eban legea, fedea, egiak ta Jangoikoa berbera guk bere predikatu ta erakusten dogu; eztago onetan diferenziarik. Guk bere dirautsuegu ak legez begiratu daizuela azkorea arbolaren ondoan ifinirik dagoala; eriotzaren kodaiña, sega ta aiotza zorrotzurik, abiaturik, prestaturik dagoala bizitzea ebagiteko. Garau onak zeruko garautegira jasoko direala; ta, barriz, garau txarrak ta lastoa, au da pekatariak,



infernuko laba gorian erreak izango direala. Sekula betiko sutuak, gori-tuak, kiskalduak ta erreak izango direala.

Au da egia: Oneek dira Jangoikoak orainganik egiten deuskun zemaia, menazua; ta bere predikarien aotik emoten deuskuzan abisuak, eurokaz batean bildurtu gaitezana; ta ikaraturik, asi gaitezana orain berpe-tatik egiten gero egiteko ustea doguna; geroko luzamentuetan benturatu bage; bada, ezta kigu gero algo bagodu.

2 §.

Egia da zeruko gloriaren esperanzak, itxaromenak, gomuteak, ango atsegintasun, poz ta gozotasunak gogoan erabilteak poztuten dabela kris-tiñaua; ta bai ondo ta prestuki bizitzeko bere abiatu ta ifini. Baña komun-ki obeto ta biziroago eragiten deutso infernuko bildurtasunak, zeruko gloriaren esperanzeak baño. Ezgaitu pagamentuak, sariak ta sariaren esperanzeak alan aurreratu, animatu, indartu, bizkortuten ta poztuten, zelan tristetu, atzeratu kastiguak ta kastiguaren bildurtasunak. Orregaiti diño San Juan Krisostomok: Gomutatu bear gara zeruaz ta ango gloria andi bete miragarriaz, baña are geiago infernuaz ta emen igaroten direan pena ta neke garratz minaz.

Bada, osasunak baño gaixotasunak obeto eragiten gaituzan legez ta bai etorkizunean bere pensaerazo: alan infernuko gaixotasunak, ango dolozeko minak gogoratuteak obeto ukututen gaitu, begiratu eragin ta ezagerazo zeren begira gagozan, zeruko gloria ta gozorotasun zorioneko-ak baño.

Eta au ezta mirarituteko: bada, andiak, kubrelak, luzeak, izugarriak, latzak eta gogorak dira infernuko neke pena oneek. Eurok gaiti esan lei bere moduan, San Paulok zeruko gloria gaiti esan ebana. Au da, eztabela iñok iños ikusi, ez enzun, ez gogotik igaro zelangoak diran. Zelan onai emongo jakeen saria izango dan neurri bete osoan, guztien ganeko, muga bage ta ezin geiagoan miragarria: alan gaistoak eukiko daben kastigua ta penea izango da parebagea, bardinik ez dabena, alde guztiz andia; ain andia ze, izango ezta legez gustu, konsolamentu, atseginik salbatzen dan batek gozatuko eztabenik, alan ezta idoroko, ez asmatuko penarik, atse-kaberik, naibagerik, nekegarririk kondenatu batek sufritu bearko eztabe-nik. Onak, on guztia; gaistoak, gatx guztia. Onak beti ondo; deungeak, beti deungero.

Eta egiteko oni, lan oni bere zimendu ta sustrairik asiera emoteko, oratuteko, eskua ifinteko, bai ta bere jakiteko zelakoak diran infernuko penak; eta zegaiti esan oi dan oneek direala pena guztien ganeko penak, artu daigun gidari ta zuzen-bidetzat Santo Tomas Dotore andia; bada, onegaz batera izango gara ondo gidatuak, zuzenduak, argituak ta berba egingo dogu bear dan legez.

3 §.

Infernuko beste neke-pena askoen artean bi dira, diño Sto. Tomasek, andienak, ikaragarrienak. Bata da *kaltopena*, Jangoikoa sekula ez ikusteko penea; bestea da *gorputz-pena*, gorputzak eta arimeak bere zenzun ta almen guztietan igaro bear dituan neke minak ta arrigarriak. Pena biok dagokaz persona batek pekatu mortal baten jausten danean egiten dituan bi gau-zari. Lenengo itxi ta largatzen dau bere egillea, ongillea, aita ta jabea; ta bigarren artuten dan kriaturea; au arturik, beragan ifinten dau bere gogo-a, biotza, kariñua, maitetasuna. Atzea emoten deutso Jangoikoari; ta aurrea kriatura ezerez bati. Gauza biok eginik, era biko penak merezi ditu, kasti-gu bikotxa dagokio.

Lenengo merezi dau, berak larga daben legez Jangoiko maitea, onek bere bera largatzea; bere laguntzarik aldegitia; bere arpegiaren aurretik sekulako botatzea. Pena oni deituten deutso Santo Tomasek *kaltopena*, au da, Jangoikoa ez ikustea; aren laguntza ta gloriarik beti betiko erbestetu-rik, arerioturik, ikusi ezinik egotea. Eta au da, diño Santuak berak, infer-nutar batek infernuan igaroten daben penarik andiena, sentigarriena, tris-teena ta tristegarriena. Bada, zeruan dagoan bati Jangoikoa ikustetik ta bere aurrean ta bere laguntzan egoterik jatorkon legez on guztia, atsegin bete-a, gloria osoa: alan infernuan dagoanari bere Jangoikoa bage egoterik, bere edertasun, laguntza gozorik aldeginik egoterik jatorko bere naibage ta nekerik andiena.

Gauza bat galduten dozunean damu sentigarria artuten dozu. Eta zeinbat eta ohea, andiagoo, balio preziatuagokoo dan, ainbat eta geiago ta andiagoo da zure mina. Izanik, bada, Jangoikoa dan gauzarik prezia-tuena, maitegarriarena, gozoena, miragarria ta zuk bearren dozuna, andia ta bizia izango da bera galtzeaz artzen dan penea. Andia bada begiak, eskuak, oñak, osasuna ta ondasun guztia galdutea, zer izango da eurok eta beste dogun guztia emon euskuzan Jangoikoa galdutea? Andia ta andiena



izango da, bada, Jangoikoa bera galtzeaz artzen dan pena: ezin euki lei batek kalte andiagorik.

Erregearen seme len-jaioak, etorkiza zuzenez erregetasuna ta erreinuko jaun izatea dagokionak, damu sentigarria artuko leuke errege izentatu, erregetzat koroatu ta artu bear eben egunean despreziatu, ordu gais-toan bota ta erreinurik erbestetu, deserritu, kanporatu ta aterako balebe. Ze damaturik, bada, ze gogaiturik, ze ernegaturik, ze mindurik, ze desesperaturik egongo ezta kristiñau bat, zeruko erreinuko senipartea artuteko denpora eldu ezkeru, an sartu bear zan egunean ango atea itxi, sarrera eragotzi ta kanpora botaten dabela dakusanean? O, ze pena andia artuko daben! O, ze negarrak emongo dituan! O, ze gogaiturik, tristeturik, biotz-jausirik ta ausirik geratuko dan.

Adiskide bati zeure estura baten, premiña premiñazkoan bear bearra dozun gauza bat eskatuten deutzazunean, sentimentua artzen dozu, dabela dakizunean, utsik ezer emon bage despeditzen bazaitu; ezetz badirautsu. Bada, zeure biziaren azkenean, zeure eriotzako orduan, bear ordu guztien ganeko bear orduan ta premiñean, ze sentimentu, ze damu, ze tristura, ze biotz-mina artuko dozu; ze pena sentituko dozu Jangoikoak utsik, ezer bage, bear dozuna bage kanpora bota zaizanean? Zer, esaten deutzunean Ebanjelio Birjiña nagi alper eroai legez: Ezauzadaz; etzaituela ezagututen, berandu zatozala, eztaala ordua orduan etorteko, ez dozula erremediorik, eztagoala zuretzat zerurik? Eta onela esanik, atzea emon, atea itxi ta despedietan zaituala bere gloriarik? Au gogoratuteak berak laz-tuten ditu ulleak, ikara ifini belaunak, estu larritu biotza.

Errazoiiaz diño San Juan Krisostomok: Batzuk infernuaren bildurra daukee ta ez besteren: baña ni geiago bildurto, izutu ta ikaratuten nau zeruko gloria galduteak; a baño au gatx andiagoa, gogorragoa, minagoa da. Onek adietan emoten dau Dabid Profeta santuaren esate bat. Sua, azufrea, tormenta ekatx ta beste pena asko emongo deutseela Jangoikoak pekatariari; baña guztiok eztiriala izango ezpada bere justiziaren zati txiki bat. Bada, guztiok baño andiagoa izango da Jangoikoaren arpegi ta izate miragarritik, laguntza ta erreinurik aldeginik, kanporaturik sekulako irau-teetan egotea.

Onetara esango dau batek: Orrela nik uste neban penea baño andi-ago da Linboan bateatu bage il zirian seiñak an daukeen penean; bada, eztabe ikusi, ez ikusiko sekula Jangoikoaren arpegi ederra; beti dagoz ta egongo dira zeruko gloriarik erbesteturik. Eta, orrez guztiaz, Dotore jakitunak esan daroe eztabela aek ez penarik, ez gloriarik. Zelan bada diñogu Jangoikoa ez ikustea, aren laguntzarik aldeginik egotea dala penarik andie-

na? Ezta gatx eranzutea. Linboko seiñak eztagoz an euren erruz, euren pekatuak gaiti; ta onegaiti gura eztau Jangoikoak euki daien penarik, nekerik, tristuririk, minik. Baña infernuan dagozanak euren erruz, euren mali-ziaz ta gaistakeriak gaiti dagoz an, Jangoikoaren laguntzatik aterarik; ta onegaiti, Jangoikoak alan ordenaturik dabe tristura ta pena ezin geiagoan andia bera ez ikusteaz. Au da lenengo pena ta kastigua; urrengo Buruan erakusiko da bigarren penea: *gorputz-pena*, gorputz ta ariman igaroten direan nekeak.



53. BURUA

*Infernuan igaroten dan bigarren penea da gorputz-pena,
arimako almenetan ta gorputzeko zenzunetan enkiko dana.*

1 §.

Egia da ta alan da, andia dala Jangoikoaren gloriarik erbesteturik ta bere arpegi eder miragarria ikusi bage sekulako egoteak dakarrela penarik andiena. Baña dirudi alan egon arren euki leiola pekatari batek konsueluren bat; eta ez litekela orrenbeste estutu, damutu ta naibagetuko, baldin ezpaleu inon minik, dolorerik. Baña orretarako dago bigarren pena bat, beste kastigu bat pekatariak merezi dabena eta au da *gorputz-pena* deritxona, zenzunaren pena: ariman ta gorputz guztian igaro bearko dabena; betiko sua, garra, mina, atsekabea, ta nekea.

Bigarren pena latz, gogor au emoten jako pekatari gaistoari, diño Santo Tomasek, zerren Jangoikoa largarik, itxirik, despreziaturik, biurtu zan kriatureetara; eta Jangoikoaz ta onen lege santuaz baño, kontu geiago eukalako bere buruaz, munduaz, munduko atsegin uts labor billauakaz. Pena au aitetu eban Jesu Kristok, ziñoanean: Zoaze madarikatuak su ta gar betikora. Ta beste bein esan eban: Onak joango dira betiko gloriara; gaistoak, barriz, beti iraungo dabenek kastigu ta neketara. Bai ta esan eban beste sermoi baten fruturik eztakarren arbola surtara botako dala; adirazoten ebal penitentiakzko frutu santuak emoten etzituana ezarriko ebal infernuko sutegira. Ebanjelio Santuak beste leku askotan aitetu ta izentatuten dau infernuko su ikaragarri au.

Eta eztozu uste bear infernuko sua emengo sua legez dala. Ango sua Jangoikoak berak biztuten dau; berak asmatua da kastigetako bere arerioa deslealak; berak emoten deutso indarra ez bakarrik erreteko gorputzak, bai ta arima espirituak bere. Emengo sua emoten deusku gure erregalorako, gu berotuteko, gu baliatuteko jatekoa egosi edo erreteaz; baña infernukoa, gu kastigetako. Emeko sua a gaz bardindurik, su pintatua legez dirudi, diño San Agustin ta San Krisostomok. Emengo sutegi guztiak erabatera baño ango izpi txatar bakar batek lazkiroago erre, berotu, kizkaldu, gorituten dau. Emengo suetan bere diferentzia andia dakusku: egurrezko sua beroagoa, indartsuagoa, biziagoa da lastozkoa baño; berun

edo estañu irakinean erretea, su bigun baten baño. Alan da, bada, diferentea, bestelakoa infernuko sua ta garra bere emengoaren aurrean.

2 §.

Fedeak darakusku dagoala infernua. Ezta kristiñau fededuna egi au sinistuten eztabena. Infernua da lurraren barruan ta biotzean, gure azpian, lurra daukan leku ta tokirik barrurengoan dagoan lexe andi bat, luba gori bat, karobi erexegin bat, berotasun guztia beragan dabene bat, bein bere oztu, gitxitu, epeldu, amatetan ezta bat. Alde guztirik dago itxirik, zarraturik, esiturik; eztauka aterik ez leio bentanarik; kondenatu guztiak, deabru ta gizon guztiak artu ta kabitzeko asko dana.

Infernu onetera joaten dira pekatu mortalean ilten diren guztiak; an egongo dira sekula betiko erretan; alde guztietara, kanporik, barrutik suz inguratuak, sutuak, gartuak, erreak, gorituak, olan edo errementarian burdiña gorituten dan legez. Guztiak alkarregaz estuturik ta su baten dagoz. Leku ta su baten guztiak batera badagoz bere, eztera bardinak guztien penaak. Pekatu asko ta andiak egin dituenak pena ta bero geiago dauke gitxi egin zituenak baño. Kristiñau batek andiagoa jentil fede bage batek baño. Atsegin geiago munduan bere gorputzari emon eutsanak, an bere nekaldi geiago ta andiago. Alan darakusku Eskritura Santuak Deuteronomio ta Apokalisisko libruetan.

Sua bat bada bere, bata baño bestea geiago erretan dau, diño Santo Tomasek. Berez su bat danari, diño Santuak berak, emoten deutso Jangoikoak indarra berak gura dabena biziago erreteko. Su au Jangoikoaren justiziaren ministroa, mandataria, borreroa, alguazila, azoteta ta agindua da. Nagusiak aginduten deuskan erara, suak obedituden deutso. Onegaiti diño San Jeronimok infernuko su onek era guztiko tormentuak ta minak emoten dituala, bera bat izanik.

Egia da batera ta sutegi baten alkaturik ta surturik dagozala pekatu asko ta pekatu gitxi egin ebenak. Baña geiago egin zituana minberago, sentikorrago ta sua sufrietako gaixoago, argalago, meago, bigunago, erbalago dago. Persona bi dagozanean eguzkitan, beroa bientzat da bat; ta, orrez guztiaz, batari ezteutso senti eragiten, ezteutso gatxik egiten; baña besteari bereala buruko mina egiten deutso, igaroten dau, gaixotuten dau, izerditan ifinten dau ta ortik askori etorri jake eriotzea. Eta, zegaiti ori? Bata baño bestea argalago, samurrago, gaixotiago, sentikorrago dalako. Onela bada, infernuan bere pekatu geiago ta andiagoak dituan gitxi



dituana baño sentikorrigo, min-beraigo ta sua sufrietako argalago dago. Eta onegaiti, biak bardin su baten egon arren, eztira biak bardin erretzen, berotzen, penatzen: bakotxari dagokion erara suak erretan dau.

Beste gauza miragarri bat jazoten da su onegaz; eta da beroa ezeze, otza bere ta otz, edur, lei, ta izotz guztiak baño otzago emoten dabela. Dotore guztiak onetan batera ezpadabiltz bere, batzuk alan irakasten dabe. Onela uste izateko aurtuten dabe bidea Job Santuak diñozan berba oneetarik: Bero andira igaroko da pekataria, edur ur otzean sartuko dabe ta infernuraño elduko da aren pekatua. Infernuan dagozanak aldatuko dituez baterik bestera: bero anditik otz andira; otz anditik, bero andira. Baña aldantza onetan dabilzala, ez bakarrik ez jakez arinduko penak, ezpada geitu aldizka kontrakor onegaz. Su ta gar au ezta iños gitxituten, ez amatetan. Eztau egurrik bere bear, ez aurreratzaillerik. Su onek iraungo dau Jangoikoak dirauan artean, sekula betiko betiraute luze betikoan.

3 §.

Arimeak bere penak legez, arimaren almenak edo potenziak, gomutea, adimentua ta borondateak eukiko ditu bere pena bakotxak, bere bereak, apartekoak. Gomutea penatuko da gomutaturik bere erruz, bere naiaz an sartu ta ondatu dala; zerura joateko euki zituan okasiño ederrak, sakramentuak, Jangoikoaren deiak. Adimentua egosiko da, urtuko da, gogaituko da bere barruan gogoraturik ainbeste pena, ain andietan, ain latz gogorretan ta ain luzeetan egon bear ta bearko dabela; gogoa beste gauza batera aldatuteko astirik bage; beti egongo da neke oneetan pentsetan, penatuten, ernegatzen. Borondatea ibilliko da aserraturik, errerik, samindurik Jangoikoaren kontra, alan kastigatu, penatu, neketu, erretan dabelako; gorroto, amurru, ikusi ezin au zabalduko da bere buruaren kontra, bere lagunen kontra, batezbera an sartuteko bidea emon ta para eutse-
nen kontra.

Arimeak ta animaren almenak legez, izango dabe euren pena bakarra gorputzak ta gorputzaren zenzunak: ikusteak, enzuteak, usain egiteak, ukututeak. *Begiak* izango dira kastigatuak, penatuak ikusten eztabela leku ikaragarri atan, ezpada iluntasun itsal odoitua. Suan ta su bizian dago ta suak berez argitzea badau bere munduan; ez infernuan. Munduan bere azufrezko argiak eztau argi argitsurik emoten, ezpada ke ilun ta argirotasun itsal baltz triste bat. A da leku bat lur barruan sarturik dagoana, alde

guztirik itxia, leio ta ate bage axea ta arnasea artuteko ta argirik sartuteko biderik eztaukana.

Baña ezta orregaiti entero edo guztiz iluna. Bear dan argia bago, leze, lurruspe, kueba baten legez, ango lagunak, deabruak ta gauza ikaragarriak ikusteko. Alan emoten dau adietan San Gregoriok esanik: Infernuko suak argituten ezpadau bere konsolatzeko; baña bai penatuteko. Ikusiko ditu, bada, bere alboan bere lagunak, zeinekaz munduan batuten zan gaistakeriako, Jangoikoa ofendietako. Ikusiko ditu bertako espiritu madarikatuak ta mundutik ara etorri zirian gizon gaisto, gogor, dongeenak. Ikusiko dau infernuan dan guztia, sua, garra, kea, iluntasuna. Emen begiak artu eben atsegiña gaiti bear etzana ikusten, edertasunai begira; an artuko dabe ordea ta kastigua gauza ezain, itsusi, nazkagarriai begira.

Belarriak izango dira kastigatuak eztauzela ezpada berba astunak, esaka gogorrek, madarikaziñoak, biraoak, erneguak, txilioak, deadarrak, oioak, negarrak. Ango kantal, leloak, soñuak, musikak izango dira ai tris-teak, zizpuruak, txotenak, kejak, aserreak, burlak, zerutar guztien kontra madarikaziñoak.

Surra izango dira penatuak, minduak, kastigatuak usain gaisto txar kirats atsitu gogaigarriaz. Askoren ustez ta eretxian, juizioko egun azkenean jausiko dira infernura infernutarrakaz batera lurrean izan direan gauza atsitu guztiak. Zeruan dagozanak eukiko daben legez zeruzko usain gozo, on, ederra: alan infernukoak danik atsitu txarrena; eta usain gaisto onegaz beterik ta kirasturik egongo dira surrak sekula betiko.

Aoak eukiko dau pena andia munduan euki zituan gustu zalegarriak gaiti, esan zituan berba gaistoak gaiti, deungero artu zituan Komuniño santuak gaiti, birao, murmuraziño, berba loi zantarrak gaiti. Batetik gosea ta egarria; bestetik janari ustel, atsitu, birrindu, urdindu, gustu txarrekoak; edari garratz, gazi, minak, atsituak, edenduak, beztunaz ta berun urtuaz nastuak. Emen emengoak legez, an bere dira jateko, edateko nazkagarri atsituak. Ango mintasunak ta jan edan txarrak aztu eragiten dituez emen euki zirian gozo, gustokoak.

Ukututea. Eskuak ez eze, gorputz guztiak pagatu bear ditu galanto infernuan lurrean euki zirian gorputz-atsegiñak, gozotasunak, erregaloak, mizkeriak, eskuka loiak, oi bigunak, soñeko ederrak, apaindura bitxigarriak, arrotasunak, deskansu ta alperkeria. Zeinbat atsegin geiago artu eban gorputzak munduan, ainbat tormentu geiago infernuan. O, desonestuak! O edaleak, o jatunak, o eder apaindurik orain zabilzenak! Orain gorputz ustel lurrezko gaistoari emoten deutzazuen kontu ta atsegiña gaiti ikusiko dozue egunen baten sua dariola, suz inguraturik, suturik, errerik,



txiskorturik, goriturik, garturik; eztau ukutuko ezpada su ta garra. Bai nos bait pagatu bear zirian gorputzari emoniko kontentamentu pekatuzkoak; Jangoikoari egin jakozan ofensak, irainak, desobedenziak, eskerbagetasunak ta naibage lotsagarriak.

Orain emen munduan gorputz-zati guztiak artuten dituezan legez euren atsegintasunak, olgurak, gozotasunak, pozkariak; alan gero infernuan igaro bear dituez euren naibageak, atsekabeak, penak, nekeak, minak, laztasun gogor arrigarriak. Dolore ta min guztiak batera batu, bilduko jakeez. Buruko mina, begietakoa, belarrietan, aolan, aginetan, biotzean, bularrean, sabelean, eskuetan, oñetan; zati guztietan eukiko dabe gaixotasuna, gota, arri-mina, sukarra, kalentura, zorigatxa. Orrenbestez eze, dolorearen minak dolore utsean biurtuko ditu: doloretsuak ta erruki-garriak egingo ditu.

Munduko gaixotasunak, gatxak, minak komunki eztira beinbere gorputz baten guztiak batera ta osoro ikusten, ez idoroten; baña infernuan bai. Emen bein dozu begiko mina ta ez orduan belarrietan; beste bein eskuan, baña ez oñetan. Eta onela leku batean min dozunean eztozu bestean minik; ez dozu dolore osoa, betea, guztirokoa. Eta, orrez guztiaz, zati bateko min batek berak, agin bateko minak ain minberaturik ifinten zaitu, ze ezin azalak artu zaitu; ez dozu sosegurik; ezin jan dozu; ez dozu gogorik solastuteko; gau guztian lorik egin bage zaukaz. Bada, zer izango da infernuan gatx guztiakaz batera egotea?

Zer izango liteke, bada, gorputz guztian ta bere zati guztietan, aragietan, azurretan, junturetan, zanetan, leku guztietan bazendu min osoa, andia, latza, bardina? O, ze errukigarria izan zindekean egoera negargarri onetan ikusiko bazintekoz! Bada, askozaz errukigarriagoa da infernuan dagoana. Ango mina guztia batera, baten, betiko, guztietan ta oso batean idoroten da; sekula arindu bage; iños atara oitu bage ta ondo mereziturik; bada, munduan ibilli zan Jangoikoak eragotzi eutsazan gustuak, atsegintasunak gorputz guztiari emoten. Errazoi da, bada, gorputz guztiak pagatzea; leku guztietan dolorez betea egotea; sekula kontenturik ez eukitea; zati bakotxean bere min bakarra igarotea. O pekataria, ondo ta biziro au gogoratu egizu pekatu egitera abiatuten zareanean; penitentzia ta konfesiñoaren izen berak ikaratuten zaituanean; zeure gogoak edo gorputzak atsegin gozoren bat eskatuten deutsunean.

4 §.

Min minezko onek eztira bardinak guztientzat. Pekatari ta pekatu bakotxari dagokiona emoten jako. Suberbio, andi nai, arrotu, andiki gogorra izan zana lotsatuten dabe, goiberatu, desonratu, ostikopetu, oñazpitu, umildu. Abarientoa, zekena, eutsia, esan estukoa, diruz ta ondasunez beterik egonik limosnarik egiten ez ebana ikusten da infernuan guztiz premiñaturik, on bearturik, pobreza azkenenekoan, munduko beartuana baño beartuagoa. Sabeldarraioa, gulleria, jan edanera emona ibilliko da infernuan goseak illik, egarriak igarorik, ur tanta bat non artu, non emon eztaukala, argaldurik, jausirik, indarbageturik. Biraogillea, murmuratzallea, berba loi eze zikiñak esaten zituana bere miñ madarikatutik eskegirik dindilika ifinten dabe. Emakume gizakume zalea desoneskeria, lujuria, aragizko pekatu loian sarturik bizi izan zana egiten ditue deabruak gogortaderik andienak; gorputz guztian atseginu zan legez, gorputz guztia ebagi, zatitu, atzamartu ta erretan deutsee arrabio gogaituaz. Eta onetara beste bekatari guztiak.

Orrez ostean ta orretarako batera bildurik batzar batean dagoz pekatariak an; kutizitsuak, kutiziadun zekenakaz; lapurrak lapurrakaz; biraogilleak biraotiakaz; desonestuak desonestuakaz; ordiak ordiakaz; benganztalleak benganztalle gogorakaz; idekoak idekoakaz. Au alan emon eban adietan Jesu Kristok, ziñoala agindoko dala orduan batu ta bilduteko batera sorta, karga, zamai baten alkarregaz bedar txarrak. Sorta alkar lotuok, diño San Gregoriok, adietan dabela pekatariak alkar esturik, esturik, baturik, bildurik egongo direala infernuan, bedar edo gari sorta, meta, kargaz legez bakotxa bere ide ta lagunakaz. Pekatuan lagunak zirean legez, kastiguan bere izan ditezen bardinak.

Infernuan dagozanak gaiti diño Dabid Santuak, talde bateko ardiak legez bildurik egongo direala, eriotzeak janarituko dituala; eriotzea izango dala euren bazkaria; ta eurak bere eriotzareak. Kondenatuen penea bardinduten da ardiaren bedar jateaz, diño San Gregorio berak. Bada, zelan ardiak bein bere eztaben akabetan osoro bedarra ta ez atera sustrarik, ta bakarrik kanpoko orria jaten daben, beti an largarik sustraia, erroa, zana; barrero orria ernerik, jaiorik, urtenik, barriz zer jan eukiteko: ala eriotzeak, dolorea, mintasunak, suak eta garrak jaten dituez kondenatuak iños sustraia atera bage, bizia kendu bage. Orregaiti dagoz beti bizirik ta beti erretzen.



Enda esan lei euren bizizea eztala bizitzea, ez eriotzea. Ezta bizitza ez dabelako onik, ez osasunik, ez atsegintasunik; ezta eriotza ez dabelako azkenik, ilterik. Errazoiaz esan lei alakoak gaiti Jesu Kristok bere azkene-ko gauban Judas gaiti esan eban: *Obe eban jaiio ez paliz onelakoa*; obe zan sortu ta bereala il baliz, urtu, desegin, ondatu ta ezerezera biurtu baliz pekatari tristea kondenatu baño len. Bada, Santo Tomasek diñolez: Obe da ez izatea gaistoa izatea baño. Onegaiti diño San Juan Ebanjelistek Apolisisko libruan: Egun aetan gurako dabe pekatariak il, baño eriotzeak iges egingo dau euretarik; eriotzaren billa ibilliko dira, baño alperrik, bada, eztabe idoroko ez eriotzarik, ez eriotza-emolle iltzallerik. Orain guk gura eztozun eriotzea izango da gauzarik deseatuena infernuan.

5 §.

Andia, ikaragarria da non bait infernuko miseria, pena ta nekea; bada, guk emen gorrotoago dogun gauza, zein da eriotzea, da an geien billatu, maitetu, desetan dana. Eta ezgaitu onek miraritu bear. Bada, dagoz su bizian sarturik, gogaiturik, ernegaturik, esperanza bageturik, nekez arikaturik, erreak, egosiak, alde guztirik penak igarorik. Kanpoan suak erretzen ditu, barruan konzienziako arrak salatuten ditu. Ar onegaiti diño Isaias Profeteak kondenatuen arra eztala iños ilten. Ar au ezta emengo arra legez aragiz egiña, bizirik dabillana. Ar au da konzienzia gaistoaren saladura, ausikada, txaukada, zemaia, menazu, zikada, akullu, kisketada, aranza, elorria ta agirakada, eranzute lotsagarri bat. Ar au biztuten dau gomutatzeak euren eskuan eukela iges egitea edo ez sartutea infernuetan; bitartetasun, grazia, indar, eskubide ta libertadea euki ebal zerua irabazteko; euren erruz nai guraz ara etorri direala, galdu ta kondenatu direala; okasiño eder asko, Sakramentu ta bear zan guztia euki ebela salbetako; baño alper guztia galdu ebela.

Onela, gomute ta akordu onek minduten ditu, salatuten ditu, desegiten ditu; ta esan eragiten deutse negarrez ta erneguz: Ai, ene galdua, ene zorigaistokoa, zoro buru ta zenzun bagea! Zer egin dot? Zer jazo, gerta jat? Zelan galdu nas? Zeri begira nengoan munduan bizi nintzan demora zorionekoan? Zelan itsutu ninduan lurreko atsegiñak, olgurak, lagunak, ondasun uts laburrak? Bost bider esan eusten nire zionzienziak, Konfesoreak, Predikariak gauza ostua ta fama galdua bere jabeari biur- tzeke; arerioaz adiskidetu, baketu, berba egiteko; biraorik, berba loirik, juramentu guzurrezkorik ez egiteko; arako fiesta, erromeria, dantza nastu

gaistoetara ez elduteko; arako pekatuzko etxea, laguna ta bidea aztuteko; Jangoikoaren lege santua gordeteko; sarri konfesetako; kristiñau bizitza garbi on zeruzko bat egiteko; eta bestela kondenatuko nintzala. Baña ni zorigaistoko au guztira gortuten nintzan, enzungor egiten neban; ezne- ban jaramoten, barre ta burla egiten neban guztira; ez neban sinisten. Baña orain pagetan dot. Emen nago dolozeko lekuan; su ta garrez ingu- raturik, lagun gaistoz beterik; sua emon ta sua irunsiten dodala; egarriak illik; minak arturik ta igarorik; iñok nire errukirik eztaukala; burdiñazko oe gorietan etxunik; ta onela egon bearko dot betiko irauteetan.

Onexek dira infernuan ateraten direan kontuak; oneek ango kanta, soñu ta solasak. Gogaitu, ernegatu, mindu, damuten dira gogoraturik euren erruz dagozala an; ta gomute onek emoten deutse biotzeko erreta- suna, tristura, milinkolia, naibagea. Au da gau ta egun, inos ase ta aspertu bage euren biotza jango deutesen arra ta mina; baño min ta damu probe- txu bagea; negar utsa, alperra, balio bagea. Au da infernuan igaroten direan pena andietarik bat. Bada, ze neke penagarriagorik, sentimentuga- rriagorik, biotz erditzalleagorik, ikustea baño euren buruak sekulako gal- durik ta euren erruz ori? O, gomute ta akordu triste samiña! O, tristura penagarria! O, zorigaistokoa infernuan bein sartuten dana!



54. BURUA

Infernuan dagoanak eztauke esperanzarik andik urteiteko.

1 §.

Andiak, biziak, izugarriak dira infernuko penak. Baña, orrez guztiaz, dirudi ta esan lei piska bat arindu ta zerbait konsolamentu eukiko leukala infernutar batek; nos edo nos, inosko denporan akabatu, laburtu, arinduteko esperanza edo itxaromena baldin baleuka. Baña ainbeste pena, ain andiak, ain latzak sekula azkenik izango eztabela gogoratuteak, au da jasoten dabena bere pena azin geiagoko puntura. Zerren esperanza ez dabena, oraingo peneak legez, etorkizuneko bere penatzen dau; a bere orain legez bere aurrean, bere ganean, beretzat legez dakus, dauka. Baki beretzat dagoala, berak igaro bearko dabela.

Orain emen munduan dolorez, minez inguraturik zagozanean, idoroten dozu bideren bat konsolatzeko. Gaixorik zagozanean adiskideren bat jatortzu ikustera; zerbait arinduten zaitu; jatortzu Osagillea, onek bere indartuten zaitu; etxeakoak lagunduten deusue. Eta baterik eztozunean, beti edo geienetan zagoz esperanzaz gatxa arinduko dala, osatuko zarea-la ta esperanza onek poztuten zaitu; ta, guztiz bere, oraindiño bizirik zagoz. Baña infernuko gaixotasunean, ango neke ta gaxtetan alde guztiera dagoz itxirik esperanzako ateak, portuak ta bideak; ez dabe inondik bere pozik, konsuelurik, ez argirik ikusten. Zarraturik, itxirik dago aentzat miserkordiaren atea, errukiarena, merezimentu, grazia, parkaziñoarena, ontasun guztiena; ta inos idiki ta zabalduko ez jake.

Ebanjelioko aberats zeken kodizioso abariziosua infernutik, erretan egoan lekutik asi zan negarrez, deadarrez, deiez ta esaten Abran santuari: Aita Abran, badakusu zelan nagoan su onetan errea, kiskaldua, egartsua; euki egizu, arren, nire errkia; eta biraldu egidazu Lazaro, ak bere eskuko atz txikiuz urean bustirik aoko miñean ukutu deidan, piska bat busti, freskatu, ezkotu deidan; bada, emengo bero andiaz egarriak ito gura nau. Eskari au egiten deusut, au da nire erregua.

Ze eskari labur, eskas, txikerragorik edo errege txikiagorik egin eukean? Etzan azartu, ez aurreratu eskatutera biraldu eiola pitxar bat ur edo esku guztia urtean sartu egiala; ez eta atz txiki guztia urean sar-

tua. Bere eskaria ta deseo guztia zan atz puntea uretan sartu ta agaz miña busti eiola, mesede au egin egiola. Gauza apurra zan; deseo pitina zan; baña laburra bazan bere, ez eutsen emon, ukatu eutsen; sekula emongo ezteutse. Emen da agiri infernuan dagoanari mesede ta konsuelurik txikiena bere emongo ezteutsela: ateak alde guztitik itxirik dituala. O, kastigu arrigarria.

Itxaso zabalean jausten direanak dabilz zerbaiti lotu ta oratu naiz: eskuak luzetu, estutu, or-emen darabilz, baña alperrik; bada, eztau idoroten zeri oratu, ezpada ur engañagarria. Alan jazoten jake, bada, infernua zabal ondar bagean jausten direanai bere: Eztabe topetan non oña ifini, zeri lotu, zeri oratu; eztabe idoroten kirtanik, esku-tokirik, sostengurik ta ez poztuteko biderik, ez esperanzarik.

Konsuelu bageko, azken bageko, kaburik izateko esperanzarik bageko puntu onetan gau ta egun konsideratu bear genduke; emen ifini begiak, emen josi geure biotza ta gogoa. Onetarako ekartzu gogora gaixo batek gau luze batean igaro daraon nekea, batez bere gaixotasuna bizia, zorrotza danean; gau guztian dabil iraulka, itzulka; orduak zenbatetan ditu; orduak egunak egiten jakaz; gau luzea iruditzen jako; beti dago egun sentiaren begira. Bada, baldin gaixo bati emengo gauba, ain laster igaroten dana, orren luze egiten bajako, zer irudiko jako infernuan dagoanari ango gau luze sekulako irauteetan azkenik eukiko eztabena? O gau luzea, arrats ilun itsal ikaragarria, argi-sentiko izarrik, ez eguzkirik izango eztabena, sekula argitu, egundu ta akabatuko eztana.

Ze pena, ze neke izango da argituko eztan arrats atan; ez munduko gaixoak legez oe onean ta bigunean, ezpada laba gori beroan, sutegi gartuan, oe gogorrean, ilinti ta plantxa gorien ganean betiko etzatea ta ego-tea? Nok zuetarik, diño Isaias Profeta santuak, nok zuetarik eukiko dau biotza egoteko buruz sarturik ta ondaturik infernuko su ta bero betikotan? Alango lekuan, ain su beroan, betiko garrean nor egongo da? Nor biziko da? Nok iraungo dau? Nok eukiko dau sorbaldarik ta indarrik jasoteko, sufrietako, igaroteko? Emen munduan dan nekerik txikerrenak, su gar, txatar, txingar batek orrenbeste min emoten badeusku; Zer izango da suz ta garrez kanpoan ta barruan, ariman ta gorputzean artua, seguratua ta burriña goria legez goritua ta sutua egotea? Eta sekulako alan egon bearra? Non da gure zenzuna? Zelan galdu dogu adimentua? Ipuñiak, amesak edo guzurrak ete dira oneek? Gugaz edo besteakaz berba egiten ete dabe egia oneek? Fedeak irakasten deusku gugaz berba egiten dabela; guri dagokiguz; gureak ta guretzat dira. Eztira ez ipuñiak, amesa, guzurrak, ezpada egia; ta egiaz igaro bearko ditugunak, baldin pekaturik urteiten



ezpadogu; bizitza gaistoa obetuten ezpadogu; gu geu ikusiko gara infernu ikaragarri onetan, ilten bagara pekatu mortalean.

Infernuko penak, beste nekeen artean, eukiko dabe pena au bere geiago: egotea beti estadu batean, egoera batean, modu batean, beti berde, eze, zartu bageak. Eztira igartuten, ez gitxituten, ez aldatuten. Munduko gauzak eztagoz beti egotaldi batean: igoten ta jausten dira; egiten ta eginbagnetuten dira; gitxitu ta azi; mudatu, aldatu; baña infernuan ez. Itxasoak bere gora berak ditu, bere mareak, aldantzak. Gizonak, abereak, ondasunak, etxeak ta gaixotasuna eztagoz beti egontza batean. Eztago kalentura edo sukar ain bizi zorrotzik, goiengan dagoanean, arinduten eztanik. Mundu onetako neke guztiak denporeaz batean austen dira, amaretan dira, ezereztu ta azkenduten dira; baña ez infernuko sua ta nekea. Beti da bat, berbera, beti ezea ta barria, egoera baten dirauana iños aldatu baga.

Ango su ta garra, ango beroa ezta bein bere indarbagetuten, ezta beeratuten; beti dago goiengo mallan ta lenengo puntuan. Eta, ze neke andiagorik, nekegarriagorik, beti leku batean, era berean, sekula mugitu bage, aldatu bage, arritua legez pena baten geldu egotea baño? Munduko jatekorik gogozena, preziatuena, zalegarriena beti jaten danean, bestera aldatu bage, gorrotatzen da; ase bete aspertu nazkagarria egiten da. Ezin zatekean janaria gozo obeagorik Jangoikoak ermu bakarrean Israelgo semeai zerutik biraltzen eutseen mana zeru-janaria baño. Baña, zelan atarik beretik egunero, besterik probatu baga, beti jaten eben, ainbeste asper-tu ta nazkatu zituen, batzuk etorri zirian errebesatu ta ganez egitera ta Egitoko porru ta kinpullak jan naigo izatera.

Eta alan, oe bigun baten bein bere mugitu, aldatu, itzuli bage alde baterik bestera egotea ta etzatea bere neke nekezkoa egiten da. Zer izango da, bada, infernuan lenengo sarreran jausten dan lekuan, an bertan egotea ez gau batean, ez urte batean, ez milloi bat urtean, ezpada sekula betiko irautectan, kaburik izango eztaben denporetan? Emen munduan ordu luzeetan oe bigun eder baten, leku baten, fiesta, solasa, musika gozoen erdian gogaituten bazara, neketu, aspertuten bazara, zer egingo dozu dakusunean zeure burua infernuko neke ikaragarrietan, beti iraungo dabentan? Gogoratu dozu iños neke latz samian au? Atera dozu kontu au? O, irazarri zaite, zabaldu egizuz begi itsutu orreek, aldatu egizu onera bizitza gaisto ori, gura ezpadozu an egon betiko aldatu bage.

2 §.

Gure burua laburra da ulertuteko infernuan igaroten direan neke andi arrigarriak; an dagozanak bakarrik ta ez bestek ezagutu leiz, ulertu leiz. Agertuko balitz orain ementxe Judas ta itanduko bageuskio: Esan eiguzu, Judas zorigaistoa, Jesu Kristoren ikasle esker bagea, zeure maixu onaren saltzallea: zer egiten dozu infernuan, zer igaroten da an eta zeinbat denpora da an zagozala? Ai, ai, eranzungo leusku, denpora luzea ta urteak dira ni an nagoala su bizian sarturik. Milla ta zortzireun urte badira an nagoala. Eta orduan, an sartu zineanean, zeinbat pena zor jatzun? Beti betikoa, sekulakoa, iños azkenduko etzana. Eta emendik beste milla ta zortzireun urteren buruan, zeinbait zorko jatzu? Bardin orduan bere, asieran lainbeste; pena kabu, neurri, muga bagea. O, iraute luzea! Gogoratute berak bildurtuten dau: zer izango da, bada, infernuan bertan astiro ta luzero igarotea?

Infernuko kontuak beti dagoz neurri baten. Ango zorra ezta iños kitutzen, ango zensuaren jausia, interesa ta obligaziñoa ezta bein bere pagetan: beti dago zor prinzipala interesakaz. Eta badirudi bere ango penakaz zerbait kitutu edo gitxitu bear litekeala pekatuaren zorra; baña ezta alan: zorra beti dago osorik, bere oñean. Bada, dagozan legez borondate gaistoa, malizian gogortuak ta itsutuak ta igaroten dabenean bere ez borondatez, ez gogo onez, ezpada ezin bestez, gura ta gurez; eta pagatzeko ta merezimentua irabazteko denpora igaro zan legez: guzti onegaiti Jangoikoak ezerbere artuten ezteutse kontutan saritzat, ordetzat, pagutzat. Len ezer igaro ezpalebe legez asten jake penea. Eun milla milloi urteen buruan ta kabuan ain urrin egongo dira kitutasunetik, zein lenengo an sartu zirian egunean ta orduan.

Orain emen bizi garean bitartean erraz pagatu giñei pekatuen zorra neke puska bat kitusaritzat igarorik, pena apur bategaz, biotz-damu egiazko bategaz, konfesiño on benetako bategaz. Bada, orain Jangoikoaren ontasun ta miserikordiaren atea idigirik ta zabalik dagoz ordu guztietan ta pekatari guztientzat; orain gure borondate libre dogu, aldatu gindekez gaistotik onera. Baña infernuan sartu ezker, galdu dau libertadeak bere indarra; itsutu da adimentua; gogortu borondate; akabatu arimako feria; zarratu miserikordiaren atea ta errukia eukiteko denporak.

Angeru gaistoak pekatuan jausi ziriane geratu zirian legez gaistotasunean itsutuak, gogortuak, erremedio baga sekulako kondenatuak ta galduek: alan geldituten dira gizonak bere pekatu mortalean ilten direa-



nean betiko infernuan ondatuak. Aretx bat jausten dan lekuan, edo eskotara edo ezkerretara, an betiko geldituten dan legez: alan arima bat bere eriotzeak ebagiten dabenean jausten dan aldera, an datz, antxe egongo da sekulako, mugitu bage, jagi bage, aldatu bage ta jagite itxaromen bage.

Baldin Angeru batek esango baleuskie Jangoikoaren partez infernuan dagozanai: Ea jente penatuak, poztu zaiteze, barri on bat ta pozkari bat dakartzuet. A Jauna, esaizu zer, bada, orren bearra dogu gagozan leku triste onetan. Jakin bear dozue, bada, berandu elduko bada bere, agertuko jatzuela pena gogor latz min andiok akabatuko jatzuezan eguna. Zerupe ta munduaren artean dagoan utsune miragarri luze zabal onek kabitu ta artu aldaizan gari garau ainbeste urte igaro ezker, akabatu dira zuen penak, urtengo dozue infernu ikaragarri orretarik. Edo esango baleutsee au jazoko zala itxaso eta munduko ur guztiak edan daizanean iñurri batek, ez edanik ezpada urtean bein. O, ze atsegin andia artuko leukeen infernutar erriugarriak, onetariko promes bat egingo baleutsee Angeru santu batek Jangoikoaren partez.

Poztuko litekez barri on au enzunik; arinduko litxake ango nekeko zerbait; animatuko litekez; ez leuke andik atxina lengo nekearen erdia; nosbateko esperanzeak konsolatuko litukez. Bada, zerupe guztiak artu al daizan gari garauak millaka ta milloika geiturik, askoturik balira bere; eta iñurri, euli, eltxo pitin batek millatik milla urtera baño ez edanik munduko ur guztiak agortuteko bear zituan urte luzeak baño denpora luzeagotan egongo dira kondenatuak infernuko pen, su ta gar bizian sarturik, sekula arindu bage, konsolamenturik artu bage. Garia ta ura bein edo bein gitxituaz joango litekez; baño ez infernuko penak, irautez ta iraupez azken bageak direalako. O, gauza arrigarria! O, iraute luzea! Eztakit zelan pekatu egiten daben au sinisten daben kristiñauak.

3 §.

Gogoratutea bakarrik zer izango dan infernuan betiko egotea, sekulako penak igaro bearra ta iñosbere pena onek ez azkendutea, ez esperanzarik orretarako eukitea da asko laztu ta ikaratuteko pekatarririk andiena, galdu gaistoena. Jangoikoak eukiko eztaben legez finik, ez eta infernuko nekek bere: zerren iraungo daben Jangoikoak dirauan artean.

O, mundu zoroa, kristiñau itsu sor gortu adimentu bagea! O, zu beti pekatuan sarturik bizi zareana; gorputzari nai dituan atsegiñak emoten deutzazana; Jangoikorik, zerurik, infernurik ezpalego legez bizi zareana!

emengo pena labur bat, neke gitxi bat, ordu bateko mina ezin sufritu dozuna; gorputzeko gatx bat dozunean ainbeste kontu ta ardura artuten dozuna; kontu egizu, gogoratu egizu ea zer izango dan gorputz ori betiko suan erreten ikustea; gomuta zaite sekula bageko sekula agaz, esperanza bageko beti agaz; ta ondo onetan gogoratu ta konsederaturik onetan, larga egizuz geroko luzementu ero utsak; gerotik gerora ibilteak; geroko uste engaigarriak konfesetako, penitentzia egiteko, pekatu urteteko, bizitza santu bat egiteko, Jangoikoagana biurtuteko.

Infernutarrak infernuan egon ezker urte milla askotan; ta ikusirik euren pena luze igaroz ez dabela probetxurik, dirudi biotz triste, jausi, ilunaz esango deutseela Jangoikoari: Zer da au, Jangoiko andia? Non da zure miseriordia, biguntasuna, errukitasuna? Zelan dozu gugaz orren biotz gogor kalzaiduzkoa? Nos artean eukiko gozuz penazko leku onetan? Urteak eta urteak igaro dira emen gagozala ererrik, goriturik, arikaturik. Ezin sufridu dogu onenbeste. Nos, bada, akabatuko dira emengo penak, nos urtengo dogu emendik, nos aldatuko dozu gure kontra emonik dozun sententzia? Nos? A, galdu gaistoak, eranzungo jake, onik merezi eztozuenak, izango bere eztozuenak, erremedio bageturik zagozenak: Itanduten deustazue zer izango da zuekaz? Nos urtengo dozune ortik? Itxozue oraindiño puska bat; gox itoten zaree; denpora txarra da orain kontu ori aterateko, len munduan atera bear zeunduen. Jakinik zagoze zuen penak oraintxe barriro asten direala; ta emetik beste orrenbeste urteen buruan bardin orduan asiko direala. Itandu egizue, bada, beste bein ea nos akabatauko direan. Ortze sekula betiko egon bearko dozue: nire sententzia ezta iños aldatuko; bere indarrean sekulako gongo da.

Eranzuera otz, motz, gogor au enzuten dabenean zer pensatu, zer esan ta egingo dabe arima madarikatuak? Ze sentimentua erakusiko eztabe? Asiko dira negarrez, dedarrez, zizpuruka, biraoka, ernegaturik, errabiaturik, desesperaturik. Asiko dira euren miseria ta zorigatxa, euren buruak eta besteenak madarikatuten: aginka, atzamarka euren gorputzak zatitzen. Eta geratuko dira entero triste, biotz-jausiak, etsituak, penatuak, iñondik bere konsuelurik, erremediorik, bitartekorik, esperanzarik eztaukan bat geldituten dan legez.

Eta zegaiti au onela? Zegaiti onenbeste gatx, min ta neke? Eta zegaiti kabu akabantzarik izateko itxaromen bage? Zegaiti? Pekatu mortal bate gaiti. O, ze gatx ikaragarria dan pekatua! Ze gorroto andia deutsan Jangoikoak! Asko da ara joateko pekatu mortal bakar bat. Zelan, bada, egiten dira ainbeste, ain sarri, ain ardura bage; ta ori kristiñau fededunen artean? Emon lei itsutasun andiagorik? Ta zagoz sosegu ta epetasun orre-



gaz, konfesatu bage, pekatu mortalean? Badozu sinismenik, federik? Eta lo egiten dozu? Barre, solasa, jostatzen zabiltz? Gogoratu dozu zer dan infernuan egotea Jesusen laguntzarik ta zerutik erbesteturik, deabruz ta ta garrez inguraturik? Zuk orain usteko dozu bide bage andia egiten deutsala Jangoikoak kondenatu bati, istante baten egin eban pekatua gaiti sekulako kastigua emonaz. Baña urrengo Buruan erakusiko deutsut ezteutsala orretan pekatariari injuria ez bide bagerik egiten.

55. BURUA

*Zegaiti ain denpora laburrean egiten dan
pekatuari dagokion infernuan ain kastigu andi ta luzea?*

1 §.

Ustez dirudi ta esan lei bide bagea edo injuria egiten jakola pekatari bati denpora labur gitxi baten egin eban pekatua gaiti ainbat denporako kastigua emotez. Baña, baldin ondo gogoratuten badogu, ikusiko dogu ez jakala orretan bide bagerik egiten. Eta bai pekatu mortal danik txikiari bere justuro, zuzen ta ondo dagokala emoten jakon sekulako penea, kastigua ta infernua. Kastigu ta pena au ezta infinitoa, *neurri bagea*, berezko indartasun guztiaz; bada, alako pena ezin jaso lei kriatura batek. Baña da *neurri bagea*, irautez ta iraupez sekula akabatuko eztana.

Onetarako Santo Tomasek bere irugarren partean emoten dituan iru errazoetaraik lenengoa da: Denpora gitxi laburrean egiten dan pekatuari emoten jako betiraun guztiko kastigua, beragaz ofenditzen dalako Jangoiko bat ezin geiagoan andia, miragarria, amai azken bagea. Bada orrela, kastigua bere atzen bagea, akabatu, amaituko eztana izan bear da.

Baldin lurreko Errege bati belarrondoko bat emoten deutsanak merezi badau kastigu andiagoa beste edozeini emoten deutsana baño: alan kastigu andiagoa dagokio, mereziko dau Jangoiko berari, mundu ta zeru guztiko Errege, egille ta jabeari emoten deutsanak. Bada, pekatariak beragan danez au egiten dau pekatu mortalean jausten dan guztian. Emen munduan bere askotan denpora gitxi labur baten egiten dan gaistakeriari, lapurkeriari, eriotzeari emon daroioe kastigu andia ta luzea; destierrua, galerak, kartzela urte askotakoaz ta bai eriotzea bere.

Au alan dala ezagutuko da begiraturik gizonaren pekatua gaiti egin zan pagamentua, satisfaziñoa, kitutasuna. Bada, oneterako Jangoikoaren Semea gizon egin bear zan, emon ta ixuri bere odol balio andikoa ta kruzte baten il. Ze gatx ikaragarria ezta izango pekatua, onenbeste erremedio kitugarri eskatuten badau? Pagu neurri bagetik atera giñei pekatuaren neurri bageko zorra.

Bizi garean artean kitutu giñeiz geure pekatuak baliatuten bagara Jesu Kristoren merezimentu, pena ta eriotzeaz. Bada, pekatuari badago-



ko pena ta kastigu neurri bagea; onen kitusaritzat eskeñiten dogun pagamentua Jesu Kristoren merezimentuakaz bere neurribako baliokoa da. Baña bizi garen artean ezpadogu pagua ta kitutasun au egiten, errazoi az emongo deuskue infernuan muga ta neurri bageko kastigua, pena sekulakoa, akaberarik izango eztabena.

2 §.

Denpora gitxian egiten dan pekatuari emoten jako kastigu luzea ta sekulakoa, zerren orretarako eztan begiratuten bekatua egiten emoten dan denpora laburrari, ezpada pekatu egiteko euki zan gogoari, borondateari, maliziari ta Jangoiko berari egin jakon ofenseari. Bada, pekatu beragaz dagoala ta pekatu egiteko gogoaz dagoala ilten danak, geiago bizi izan baliz, pekatu geiago egingo eban. Gura eban geiago bizi pekatu geiago egiteko. Akabetan jako bizitzea, baña ez pekatuako gogoa, naia, borondatea.

Onelakoai jazoten jake gaubez kandela argitan jokoan dagozanai gertatzen jakeena. Largarzen dabe jokoak akabatzen jakeelako kandlea. Onek iraun baleu, jokoak bere iraungo eban. Alan dira, bada, pekatuan ilten direanak bere. Iraun erazo izan al baleutse bizitzeari, pekatu geiago egingo eban, San Gregorio andiak diñon legez. Gura eban beti bizi, beti pekatuari jarraituteko; ta onegaiti, beti betiko kastigua emoten jake. Bada, San Gregorio berak diñolez: Errazoi da, justiziari dagokiona da, ondo ta zuzen egiña da eztidilla bein bere kastigu bage egon, bein bere pekatu bage egon gura ez ebanak. Onegaiti bada, errazoi az emoten jako betiraun guztiko pena ta kastigua lasterka baten egin zan gaistakeriari: zerren pekatu egitean igaroten dan denporea laburra bada bere, ori egiteko borondatea luzea ta betikoa dan.

Eta batzuetan batzuk esaten badabe bere pekatu urten gura dabela, beste bein egiteko gogorik ez dabela: baña obraz ta egitez kontrara erakusten dabe. Bada, pekatuan bizitzea akabetan dabe; ta beragaiti akabatu ko eztan kastigua ondo dagokie.

3 §.

Santo Tomasek diño denpora gitxi labur piskan egin zan pekatuari dagokiola kastigu andi luze sekulakoa, pekatua ta pekatuaren errua, orba-

na, mantxa, erratua, ondakiña geratuten dalako sekulako garbitu ta kendu bage. Ezin parkatu liteke, ez garbitu pekatua Jangoikoaren grazia bage, penitentzia egin bage, ta il zaneke biok falta dira, ezin egin litekez, ezta denporarik. Bada orrela, pekatuaren pena ta kastiguak bere iraun bear dau betiko. Eztator ondo dagoan pekatua ta dagoan kastigu bage.

Merkataritza, tratua, saldu eroste bat laster egiten da. Baña bein egiñak betiko dirau: saldu saldurik, eresia erosi rik gelditzen da betiko. Buruan kolpe bat emoten deusueanean, kolpea laster dago eginik; baña osotutea, sendatutea nekez, luzaro edo inosbere ez. Osatu ezker bere geratuten da geienetan marka, señaleara. Onela, pekatuaren saldu-erosia ta kolpea arin egiten da. Baña geldituten dan mantxa, marka, señaleara, errua, zorra ta obligaziñoa sekulako gelditzen da. Zorra egiten da, pagua ez. Igaroten da kolpea eta geldituten da ondokoaren ondakiña, errastua, mina.

Aror, bada, erakusirik geratuten dan ondokoa gaiti arin laster ta denpora labur gitxian egin zan pekatuari emoten jakon sekula betiko iraungo daben pena ta kastigua. Emoten jakon legez sekulako gloria ta saria denpora gitxi laburrean egiten dan obra on bati.



56. BURUA

*Zegaiti Jangoiko miseriakordidunak ezteutsen
parkatuten sekula infernuan dagozanai.*

1 §.

Gogoak emoten deust benturaz batzuk esango dabela: Ez litzateke obe, Jangoikoa izan ezkerorren ona, errukioarra ta ontasun bera, eukitea errukia infernuan dagozan errukiarrakaz: beintzat denpora luzean an euki eta kastigatu ezkerorren euren uts egiteak ezagutu ezkerorren? Bat baño geiago izan dira au alan esan dabenak. Gaisto okerrak au alan izatea gura leuke. Baña ezta alan izango: eta ezta errazoi alan izan dedin. Zerren, batetik, baldin ezpaliz sekulako infernurik ta infernuaren bildurrik, gitxi izango litekez munduan onak, justuak, prestuak, kontuzkoak. Jakinik ta sinisturik infernu ikaragarri bat dagoala aoa zabalik gu irunsiteko, orrenbeste eskandalo, oker ta gaistakeria enzun ta ikusten badira; zer liteke, baldin bagenki alangorik eztagoala edo ango penak ez tireala betiko izango? Purgatorioko penak ez tirialako betiko irautekoak jakinik, ardura entero andirik artuten eztozun legez, infernukoa gaiti bere bildur ta atzerapen gitxi artuko geunduke; beintzat pekatu geiagotan jausiko giñatekez; bildur gitxiago Jangoikoari artuko geunskio; munduak Giniebra edo Babilonia gaisto bat irudingo leuke.

Eta barriz, bestetik, ezta ondo egiña, ezta errazoi, ezta konbeni Judas gaistoa egon dedin zeruan beste Apostolu santuen laguntzan. Eztirudi ondo Jangoikoaren kontra ibilli direanak ta aren serbitzari umil, obedille leal santuak beste munduan bardinak izateak. Au ez liteke miseriakordia, ezpada justiziaren falta; eta Jangoikoagan ezin dateke onelako uts egiterik, gobernu bagetasunik.

Onegaiti bada, ezteutso Jangoiko zuzen artez justuak bidebagerik egiten kondenatuari, ez inos parkatuteaz. Ta ez parkatu arren, miseriakordioso ta errukiorra da ta izango da Jangoikoa. Bada, Santo Tomasek diñolez: Jangoikoak berez, beragan danez, guztiak parkatuten deutse; guztiakaz dauka miseriakordia. Baña bere neurrian, justiziak eskatuten deutsan erara ta orretarako inos merezigilla ta gai egiten danean, ta ez bestela. Eta, zelan deabruak eta gizon kondenatuak eztagoan miseriakordia ta parka-

ziñoa irabazteko gai, borondate gaisto gogortuan dagozalako: alan ezta euretara elduten Jangoikoaren miseriakordia. Eurak euren buruak galdu dituez, Oseas Profeta Santuak erakusten daben legez: Eurak eragozten deutse Jaunari miseriakordia eukitea eurakaz.

Baldin infernuan dagozanak baleuke euren pekaute damu egiazko bat, garbai oso benetako bat; balegie penitentzia, biurtuko balira Jangoikoagana; itzuliko balebe euren borondate beste aldera; gaistotik onera, gorrotorik amoriora, orduan erakusiko leuka euren aldera Jangoikoa bere ontasuna, errukia, parkatuko leuskioez euren pekatu guztiak, orain penitentzia egiazkoa egiten dabenai parkatzen deutseen legez. Orain gu bidezkoak gara: egin giñei penitentzia; baña aek ez: ez dabe orretarako ez gogorik ez laguntzarik, ez bitartetasunik, ez poderiorik, ez graziazirik; goitik, zerutik etorri bear jake grazia au; nai balebe bere, ezin egin leie penitentziarik: igaro jake orretarako denporea, adiuntza, okasiñoa; akabatu da aentzat feria; itxi dira ate guztiak, eztabe erremediorik.

Kondenatuak euren pekatuen damua badabe bere; baña ez onetarako bear dana: ez dabe Jangoikoa gaiti, ez Jangoikoari zor jakon amore gaiti, ezpada igaroten dituezan penak gaiti; Antioko ta Saul erregeak euki ebena legez. Abere batek bere min artzen dabenean, sentimentua erakusten dau. Infernuko kondenatuak bere dauken damua, pena, sentimentua dator ikusterik euren buruak ain pena ta min andietan; damu apurrik ez dabe Jangoikoa ofenditu izanaz. Itsutuak, etsituak, gogortuak ta desesperatuak dagoz, ezin gauza onik asmatu, gogoratu, egin leie. Jangoiko berak dirausku Eskritura Santuan ainbat lekutan infernuan eztagoala erremediorik, ez akabatzerik, ez bitartetasunik, ez libramenturik, ez erreskaterik, ez erredenziñorik. Askotan darakusku ze kastigu gogor, min, latzaren begira gagozan, pekatu eginik penitentzia egiazkoa egiten ezpadogu. Kontuan ifinten gaitu, adirazo, bai ta zemaitu, menazatu orain bizi garean denporan baliatuten ezpagara; gure utsegite okerrak erremediatzen ezpadoguz, bizitza gaistoa onduten ezpadogu galduak izango gareala; il ezkerorren on egiteko denporarik eukiko eztozula.

2 §.

Baña oraindiño batek edo batek esango dau: Egia da guzti ori; egia da Jangoikoak alan dirauskula; alan zemaitu, menazatuten gaituala. Baña benturaz zemai ta menazu oneek ez tira zemaik baño izango; berba ta esate bakarretan igaroko dira. Bada, Jonas Profetaren denporan bere



zemaitu eban Jangoikoak Ninibe Uria, esaten ebala berrogei egun barru ondatu, banatu, galduko ebala Ninibe erri pekataria. Baña ez eban ondatu: ez eban bete esana: menazatu eban; baña kolperik, kastigurik eman ez. Alan izan liteke, onetara etorri litekez infernuko penecetara sekulako botateko egiten dituan zemaia bere. Egia da, alan izango da baldin Ninibitar pekatariak legez guk bere orain penitentzia egiten badogu; baña bestela ez, inñolakoz; il ezkero, arbola lurretik atera ezkero ezin fruturik emon lei.

Bai ta Noe santuaren denporan Jangoikoak zemaitu eban mundu guztia ta esan bere bai urjola andi bategaz itoko ebala. Zelan esan alan egin eban, ito ta ondatu zituan gizon ta bizikor guztiak; bete, kunplitu eban bere zemaia. Ez eutseen Ninibitarri legez itxaron ta parkatu, aek legez penitentzia egin ez ebelako. Penitentzia egiazkoa ta denporazkoa egiten danean, eztira Jangoikoaren zemaia menazuak baño. Alan adirazoten dau Jeremias Profeta santuak Janngoikoaren izenean, esanik: Baldin nik zemaitu dodan jenteak bere pekatuen penitentzia egiten badau, nik bere atzeratuko dot kastigua emoteko artu neban ustea, gogoa ta egin neban zemaia. Eta, zelan infernuan dagozanak ez eben munduan bear zan penitentzia egin; ta orain infernuan dagozan legez ezindurik egiteko; onegaiti kunplitzen dira eurakaz an, emen egin jakeezan zemaia, keñuak, menazuak.

Onen ganean ederto berba egiten dau San Juan Krisostomok, esanik: Zuk gura zenduke Jangoikoaren zemaia ta sentenziak ez izatea zemaia baño; bada, ori zure eskuan dago. Ondu ta obetu zaite ta eztira beteko, gertatuko, jazoko, ikusiko, kunplituko. Baña obetuten ezpazara, zugar beteko dira: zeuk igaro, sufritu, probatu bearko dozuz orain Jangoikoak adirazoten deutzuzan kastiguak, kalteak, penak, zemaia. Ninibetarrak legez baliatu balira Noeren denporako jenteak egin jakeezan, emon ta biraldu jakeezan abisuakaz, etzirian galduko, itoko; ez jakeen jazoko gerta jakeena. Guri bere kastigu ta kalterik etorriko ez jaku, baldin zemaia bildurturik, orain penitentzia egiten badogu; orain onera biurtzen bagara.

Eta alan, orain geurok nor bagara, eztira guretzat Jaunaren zemaia menazuak ta keñuak baño izango. Baña bestela, baldin pekatu mortalean gagozala begiak itxiten bajakuz, egin da gurea, galdu da arimea; ez da gero geiago onera biurtzerik; ez penitentzia egiterik: amaitu zan denporea.

Au egia garbia da; kristiñau fededun guztiak sinistu ta autortuten dabena. Ganeko guztia ta Jangoikoak beste munduan denporaren buruan ta nosbait izango dabela miserikordia infernukoakaz esatea, gogoratutea, sinistu ta uste izatea da zorakeria, asmo utsa, engañoa, falsa ta gizon gais-

to galdu konzienzia zabal nasaiaren deseeoa, nai gurea, kontua, ipuiña ta pensua ta fedearen kontra.

Guzti onegaiti, San Pablok dirauskun legez, denpora, beta, astia ta era on au dogun artean, dagigun on. Isaias Profeteak bere dirausku: Billatu egizue Jangoikoa idoro al daizuen denpora adiuntzekoan. Bada, orain idoro giñei ta ez gero. Jesu Kristok Judegu itsu gogoarrai ta aetan guztioi dirausku: Billatuko nozue, baña eznozue idoroko. Gauza galdua galdu dan lekuan bilatu ta topatu bear da. Munduan galdu dogu Jangoikoa; bada, emen billatu bear dogu ta ez beste munduan: emen galduten da ta ez an.

Esan ta erakusi dan guztirik atera bear dogun frutua ta irabaztea da gogoratutea geuk geure buruari baño kalte andiagorik ezin bestek egin leigula. Mundu guztia gure kontra jagi arren, baldin guk biderik emoten ezpadogu, egotziko ez gaituela infernura. Baña geuk bakarrik bota giñei geure burua ango sutegi ikaragarri sekula betikora. Etzaite bat zeu zeuretzat egin ta biurtu orren arerio gogorra; errukia ta kontu euki egizu arren zeure buruaz, zeure arima bakar baliotsu orregaz. Etzaite ibilli geroko luzamentu ero, uts, ganora bakoetan.

Biurtu zaite zeinbait lasterren zeure Jangoiko maiteagana; atera egizuz denporaz zeure konzienziako kontu onak; presta zaite gaur ganik konfesiño egiazko bat egiteko; etzaite fiatu etorkizun engañoagarrian, geroko gero eroetan. Orain gura zaitu Jangoikoak; eztakizu gero naiko bazaitu. Zuk orain gura ezpadozu, benturaz gero berak enzungo etzaitu, artuko etzaitu berandu zatozalako, belu dalako, denporea akabatu dalako, atea itxi dalako.

Onetarako sarri leku ta denpora guztietan gogoan erabilli egizuz infernuko pena, neke ta zorigatxak. Batez bere, inos azkenduko eztireala; atzendu ta akabetako bere esperanzarik, itxaromenik eztagoala; sekula betiko iraungo dabela. Au gogoratu egizu; onetan pensatu gau ta egun: lo egitera zoazanean, irazarten zareanean, tentamentu txar bat jatortzunean. Eska egiozu onetarako Jangoikoari bere grazia, Ama Birjinari bere bitartetasuna, Angeru ta Santuai euren laguntza.

Gogo ta asmo andi batez asi zaite bizitza on garbi bat egitera: egizu bizitza guztiko Konfesiño guztiroko bat; emon zaite libru santuak irakurtera; gogozko oraziñoa egunero eukitera; meza enzutera egun guztietan lekurik badozu; ez beinbere itxi Maria Santisimaren Errosario Santua. Atera egizuz lengo utsak orain denporea ondo emonik; larga egizuz pekatuzko bideak, etxeak, lagunak, okasiñoak, peligru ta arriskuak; eze gorputz gaisto ori, baldin gura ezpadozu gero ikustea erretzen infernuko su



ta garrean. Egizuz bakeak ta adiskidetu zaite zeure arerio gaiskil persegi-
lleaz; biurtu eiozu fama kendua ta gauza ostua kendu deutzazunari; izan
zaite kontuzkoa karidadean ta projimuaren amudioan. Artu egiozu gorro-
to ta bildur andi bat pekatu txikiari; bada, onek dakar pekatu mortala ta
beronek infernuko kastigua.

Au egiten badozu, onela bizi bazara uste dot Jesus maiteak argituko
zaituala, lagundu, zoriondu ta eskua emon; bide onean ifiniko zareala; edo
sartuteko abiatu ta prestatuko zareala; ta ondo asirik ta obeto jarraiturik
zeruko bideari; mundu onetako itxasoko ekatsak, gatsak, gora berak iga-
rorik elduko zareala Zeru ederreko kaia edo portu segurura, Jangoikoaren
laguntzara ta Zerutar guztien lagun, erritar ta adiskide maite betikoa iza-
tera. *Jangoikoak alan nai daiala.*

O.S.C.S.R.E.

Fr. Pedro Antonio Añibarro

Libru onetako BURUEN idorogarria

Axularren Karta alabagarria Obispo Jaun bati.

1. Alperkeriak dakartzan kalteak.
2. Beste bat onen ganean.
3. Zelan nai-gura utseetan ta deseo bakarretan igaroten jakun den-
porea.
4. Zelan ez dogun geroko segurantzarik.
5. Geroko zorian, arriskuan ta bada ezpada menturazkoan bentura-
turik galduten gara.
6. Geroago gaxago da pekatu rik jagi ta urtetea.
7. Gerotik gerora ibillirik artzen da ekandu gaistoa.
8. Ekandu gaistoak gogortu ta ardurabagetuten dau pekataria.
9. Gerotik gerora gabiltzala, bete diteke pekatuen neurria ta osotu
kontua.
10. Asko balio dau Jangoikoaren miseriakordiak; eta zelan bear dan
beragan itxaron ta fiatu.
11. Jangoikoaren miseriakordian fiaturik ezta geroko penitentzia luza-
tu bear.
12. Gerotik gerora ibilteaz galduten dogu denporea.
13. Gaztetik zartasunera penitentzia luzetuten dabenaz.
14. Zartzaroan bere penitentzia egiten eztabenaz.
15. Eriotzako ordugüño pekatuan egoteko gogoa daukanaz.
16. Limosna egiteaz ta andik sortuten direan zorientasunak.
17. Limosna ta beste egite on borondatezkoak zeuk zeure eskuz edo
bestearenaz, zeu bizi zareala, ondorengoai itxi bage egin bear dozuz.
18. Obra justiziazkoak, konzienziaz zor dozuzanak, ondokoai larga
bage zeuk egin bear dozuz.
19. Zeinbat kalte egiten dituan juramentu ta biraoak; eta zelan bear
dan zeinbait len kendu ekanduzkooitura au.
20. Aserreak, gorrotoak, areriotasunak dakartzan kalteak.
21. Aserrea ta gorrotoa amatetako lenengo osagarria edo erre-
medioa da bakotzak bere ekandu aserrekorra ezagutu ta agaz kontu eukitea.
22. Bigarren erremedioa da dirakian lapikoari egiten jakona, aserrea-
ri bere egitea.
23. Irugarren erremedioa, ez orduan tematu, porfiatzea, kolerea
igaro artean ixilik egotea.



24. Laugarren erremedioa, gogoratutea, arerioak egiten deuskuzan bidebageak Jangoikoaren kastiguak direala.
25. Boskarrena, gogoratutea, zelan dagoan zure arerioa aserre danean.
26. Seigarrena, ez jakin gura izatea zer diñoan jenteak gu gaiti.
27. Aserrea kentzeko beste erremedio batzuk laburrago ifiniak.
28. Lenengo errazoia arerioari parkatuteko da Jangoikoak aginduten dabelako.
29. Bigarren errazoia, Jangoikoak beretzat ta bere kontura artuten dabelako bengantzea.
30. Irugarrena, guk parkatu bear dogu, guri Jangoikoak parkatuko badeusku.
31. Aragizko pekatuak dakartzan kalteak ta itsutasuna.
32. Beste kalte batzuk.
33. Lenengo erremedioa bidea ta bitartekoa aragizko pekatuaren kontra da Oraziñoa.
34. Bigarren erremedioa: pensamentu ta gogoeta gaistoai lekurik ez emotea.
35. Irugarrena: borondate oso bat eukitea ez alangorik egiteko.
36. Laugarrena: ez alperrik egotea.
37. Boskarrena: bost zenzunakaz, batez bere begiakaz kontu eukitea.
38. Seigarrena: miñagaz kontu andia eukitea.
39. Zazpigarrena: sabelari geiegi ez emotea, jan edanean begiratua izatea.
40. Zortzigarrena: enzuteaz, usaiñaz, ukuteaz ardurazkoa izatea.
41. Gerotik gerora dabiltzenak salatuten ditu euren konzienzia gaistoak.
42. Alan ibilteak galduten dau konzienziako bakea ta sosegua.
43. Geroko larga bage, orainganik oitu bear gara onean irautera.
44. Ikusirik Zeruko bidea baño gatzago dala infernukoa, larga bear dogu gerotik gerora ibiltea.
45. Zeruko bidea ze erraza dan.
46. Zeruko bidea errazago da infernukoa baño.
47. Konfesiñoa ezta luzatu bear gerotik gerora.
48. Sarri konfeseteak dakartzan onak.
49. Gerotik gerora dabillanak egiten deutso bidebagea Jangoikoari.
50. Alan dabillanak egiten deutsee bidebagea Angeru Santuai.
51. Egiten deutso bidebagea bere buruari, lagunari, mundu guztiari.
52. Infernuko penak gogoratuteak laburtzen ditu gerotik gerora ibilteko luzamentuak. Lenengo pena da *kalte-pena*.

53. Infernuan igaroten dan bigarren penea da *gorputz-pena*, arimako almenetan ta gorputzeko zenzunetan eukiko dana.

54. Infernuan dagoanak eztauko esperanzarik andik urteteko.

55. Zegaiti ain denpora laburran egiten dan pekatuari dagokion infernuan ain kastigu andi luze betikoa.

56. Zegaiti Jangoikoa miseriadiadunak ezteutseen parkatuten sekula infernuan dagozanai.